SPINOZA
Etika
SPINOZA
Etika
HITZAURREA
"Bizi-ordena bat da jakituria."
J. Gil de Biedma

Spinozaren *Etika* liburu berezia da noski. Ez bere garaian eta ondorengo uneetan sortarazi zuen eztabaidarengatik. Ezta bata bestearen atzetik hartu dituen interpretazio desberdinengatik edota filosofiaren historian izan bide duen eraginarengatik ere. Ezta modu geometrikoan egina duen osaera bereziarengatik ere, perpaus, axioma eta eskoliozko hoztasun zurrun horrengatik, zeina den mutur susmaezinetaraino tenkaturiko pentsamenduaren errainu eta diziplina intelektual zorrotzaren fruitu. Hori guztia egia da eta horrela aitortu izan da behin baino gehiagotan. Baina oraindik askozaz begi-bistakoagoa den zerbaiti erreparatu behar diogu, nahiz eta ez izan historikoki konstataturiko ebidentzia. Errepikatzearen poderioz ohiturazko bihurtu den zerbait: Spinozaren "etika". Izendapen urri izan dira pentsamenduaren historian zehar anbiguitate gutxiagokoak.

Deitura hori, haatik, lengoaiaren erabilera erretoriko berezi batean oinarriturik dago. Zeren "etika" filosofiaren parte bat baita beste posible batzuen artean eta orain horren osotasuna izendatzera pasatzen da. Baina, gainera, "etika" hori ontologia, antropologia eta abar bezalako izenak dituzten gauza asko ere bada. *Etika*, horrela, guretzat klasiko bilakatu den testu baten titulua baino zerbait gehiago da. Filosofiaren osotasun guztia izendatzen duen filosofi diziplina baten errotulua ere bada. Atalak osotasuna izendatzen duen sinekdoke berezi horretan filosofiak bere buruarekiko antzinatik daukan konpromiso baten aipamena egiten da agian. Keinu erretorikoaren bidezkotasunean filosofiaren antzinako gurari bat izendatzen da giza gurari gisa.

Ez da gaizki etorriko filosofi tradizioaren testu nagusia den Aristotelesen *Metafisika*k hasieran dituen hitz horiek gogora ekartzea "gizaki orok izaeraz jakiteko joera dute". Behin eta berriz errepikatzeak ez dio inoiz egia estali. Aitzitik berretsi egin duela dirudi. Badakigu *logos*-aren jabe izateak bereizten duela gizakia gainerako animaliengandik. Bestalde, badakigu *logos* edo arrazoimen hori, ondoren itzuliko dugunez, ezaguerak lortzen saiatzen dela eta lorkizun gisa filosofia eratzen duen jakituria horretara iristen. Horrela irekitako eta banaka batzuentzat ibilgarria den ezagutze-bide horretan barrena aurrera egitearen zailtasuna soilik ez da kontuan hartzekoa. Gizakirik gehienak, esango du funtsean Spinozak, ez dira ezagutzaren eskakizunei bizkar emanik eta ezjakintasunean murgildurik egoten, baizik eta areago, orain arte eskakizun horri erantzun diotenek ere badirudi ez dutela gizakiaren gurariri sakonena den hori ase. "Zoriona" dei dezakegun horri, kasu horretan, badirudi gizakiak bizkarra eman diola, bere buruari besteei bizkarra ematean: "zoriona datza gizakiak bere izatea iraunarazi ahal izatean". Baina horretarako ezinbestekoa da aitortzea "ezer ez dela gizakiarentzat baliagarriago gizakia baino". Nahi bada, faltsukeria sakon bat, zintzotasun-gabezia nabari bat salatzeko modu bat baizik ez da, zeren "Arrazoiak gobernatzen dituen gizakiek, hots, Arrazoiaren gidaritzapean onuragarri zaiena bilatzen duten gizakiek, ez dutela berentzat deus gutiziatzen, beste gizakientzat desiratzen ez dutenik, eta, horregatik, dira zuzenak, zintzoak eta zuhurrak"1.

Hori bide da etika eta Etikaren auzia: nola liteke jakite gorena eta aintzatetsiena gizaki hain guztiz dohakabeak sortzeko gai izatea? Ezjakintasuna ez dago soilik gizatiar izendapena merezi izateko gai den zorionarekin, izan ere egoera ez baita hobetua agertzen jakiterik jasoenaz denaz bezainbatean. Bizitzarekin onezkoak egin dituen

jakitea, gizakien gizakiekiko jakiteak ezinbestez izan behar du alaitasunaren adierazpenik sakonena: Poztasuna da betegintzarre ttipiago batetik handiago baterako gizakiaren iragaitea2. jarraitasun sotila da horrela pentsarazteko ematen zaiguna: nork bere buruarenganako fideltasuna eta bestearenganako errespetua, norbanakoaren baiespena eta gizarte-solidaritatea, zoriona eta jakitea elkarbigiztatzen dituena: alaitasuna nork bere burua hazte eta hobetze gisa. Hitz batean, axioma eta perpausen idortasunpean jakite guztiz alai bat mamitzen da; bizitza bera jakite bihurtua den bizi-ordena bat. Hori da *Etika*n irakur daitekeen etika. Jakintzagai baten edukia baino zerbait gehiago den liburu bat: bizitza den filosofia, filosofia bilakatzen den bizitza.

Hemen zerbait etikoa dago baldin eta etika bera ez bada behintzat. Gogora ekarri beharko litzateke etiko izendapenean bi termino bateratzen direla: *êthos* (eta letraduna), bizilekua, egoitza; eta *éthos* (epsilon letraduna) norbanakoaren profila, izaera propioa. Horren aztarna nabari da nolabait Etika liburu horretan. Zeren egoitza edo *êthos* horretatik, zeinean gizakia gizaki den, horrek bere determinazioa, bere profil propio edo *éthos*a lortzen baitu. Ez dira gauza desberdinak. Bere jardutea determinatuz soilik bihurtzen baitu ageriko jardute hori berori ahalbidetzen duen eremu horrekiko mantentzen duen erlazioa: determinazio ontologikoa erabaki etikoaren korrelatua da eta bien artean errealitate beraren aurpegi bikoitza eratzen dute.

Egia da spinozatar proiektuak formulazio bat baino gehiago hartzen dituela. Baina *Tratatu Laburra*-rentzat helburua da "Jainkoarekiko batze arartegabeaz gure adimenak bereganatzen duen errealitate trinkoa lortu eta bere baitan ideiak sortzeko eta bere baitatik bere izaerari dagozkion ondorioak lortzea"3. *Adimenaren Eraberrikuntzarako Tratatua*-rentzat arima natura osoarekin bat egiten duen ezagutzea lortzea da helburua4. *Etika*-rentzat "hortik nabari zaigu nola eta zergatik Jainkoaren izaeratik datorren eta Jainkoari dagokion etengabe, esentziaren ala existentziaren aldetik, gure Izpiritua"5. Garrantzitsuena da formulazio horiek guztiak ez hainbeste beren aniztasunean baizik beren zentzuan begiestea: Jainkoarekin edo naturarekin batzean eta arimak substantzia jainkozkoarekiko duen dependentziaren esplizitazioan datza dohatsutasuna edo salbamena, zeina seinalatzen duen spinozatar egitasmoak.

Bere enuntziazio soilak jite zeharo erlijiosoko ideal batean pentsaraztera eraman gintzake, baina miragune bat besterik ez da. Salbamen edo hilezkortasun ideia tradiziozko adieran aurresuposizio batekin batera ibili ohi da: mundu honen ostean eta horrezaz haraindi, hori gainditzen duen heinean, arimaren hilezkortasuna aurkitzen da mugarik gabeko iraupenerako sarbide gisa nork bere muga nagusia duen heriotza gainditu eta gorputz-lokarri orotatiko askapena lortu ondoren.

Betieraren mundu horretarako iraupenaren menpean dagoen giza bizitzaren mundu finituaren errainu horretarako irispidean legoke bere salbamena. Hortik letorke gorputzaren desbaliotzea izpirituaren ontzi material bezala ulerturiko arimaren aurrez aurre. Hemendik bakarrik ulertzen da arimako pasioen teoria baten premia, gorputzak izpirituaren gain duen boterearen determinazio gisa, edota moral batena, izpirituak gorputzaren gain duen boterearen determinazio gisa. Horri baturik, iritsi beharreko transzendentzia baten baiespena. Sari- eta zigor-sistema oso bat bizitza beraren ondoren eta, zeinean horrek bere zentzua eta balioa aurkitzen dituen, baina horrela balioetsitik instantzia bestelako eta bereizi gisa. Baldin eta orain transzendentzia ez bada instantzia zentzu-emailea, horrek jadanik nolabait emana egon beharko luke. Geometrikoki: definizioz ezinezkoa da zirkunferentziarekiko kanpokoa edo transzendentea den erdigune batean pentsatzea, zeinaren trazatua ahalbidetzen duen. Gizakiaren bizitzaren iraupena ezin liteke arrotz izan, ez bizitzarekiko, ez gizakia berarekiko. Erdigune hori Jainko dei liteke, baina liburua *Etika* deitzen da.

Giza jardunaren azpian datzan zentzuaren esplizitazioak ez dauka izaki goren (teologia) bati buruzko diskurtsoaren erarik; halaber, ez datza irudi bat moldatzean ere, zeinak eredu gisa jardungo lukeen eta, zeinari gizakiak bere burua zintzoki makurtu beharko liokeen, balio batzuen mesedetan, zeinek bera gainditzuz, ortopedia baten erara jokatuko luketen gizaki (moral) horren berorren gain. Ez da eskala hierarkiazko bat, zeinaren baitan punturik gorena gainerako guztien nagusi den, ezta ontzat eman beharreko osagarri gehitu huts bat ere. Areago da inmanentzi plano bat, azalera bat: "*ethos*-ek egoitza, bizileku esan nahi du. Hitzak gizakia bizi den gune irekia izendatzen du (...) Gizakiaren egoitzak gizakiari bere funtsean dagokiona dauka eta iraunarazten du"6. Horren durundia entzuten da nolabait *Etika* liburu horretan. Dagoeneko esana dugu. Baina gehitu beharko genioke egoitza *(ousia)* hori substantzia, jainko edo natura formapean pentsatzen badugu; gizakia substantzia horren modu bezala pentsatzen badugu, bere arima *in actu* existitzen den gorputz baten ideia delarik eta "eduki eta iraunaraztea" "etengabe jainkozko izatasunaren baitan etengabe egotea eta jarraitzea", esplizitatu beharrekoa, eta horixe da filosofiaren egitekorik behinena *Etika*ren egile den Spinozarentzat, hauxe da: "nola eta zer erlazioaren arabera gure arima, esentzia eta existentziari dagokionez, jarraitzen zaion izatasun jainkozkoari eta etengabe Jainkoaren baitan dagoen". Hori orain hark bere baitan daukanaren plano edo azalera, kausa edo printzipio gisa pentsa daiteke; filosofiak auzi bati egiten dio jaramon: "filosofiak *arkhe*-az galde egiten du"7. Baina "*arkhe* hitz grekoa bere zentzu betean ulertu behar dugu. Zerbaiten irten-leku den hura bezala izendatzen du. Baina "irten-leku" hori ez du abandonatzen irtetean; *arkhe*a areago bihurtzen da *arkhein* aditzak dioen hori, hots, menperatzaile"8.

Filosofia edozertarako aldez aurretik gobernatzen duen horri jaramon egiten dion auzitan jartzea da, zeren horren azpian baitago (substantzia den heinean) eta bere baitan ageri da (den guztia den heinean, Jainkoarengan da); hori da: aurresuposatzen den hori zerbait gisa agertze horretan, aurrebaldintza zeinatik ( "irten-lekua") zerbait ematen den eta emate horren irautea edo jarraitzea baimentzen duen. Instantzia horren determinazioan soilik (aurresuposatu, substantzia, Jainko, natura, kausa edo printzipio: hemen guztiak gauza beraren izenak dira) eta gizakiak berarekiko daukan erlaziotik, iristen da hori halako izatera. Hori horrela izateak esan nahi du bere portaera, zeinaren bidez eta zeinean halako gizaki den heinean, nabarmendu egin behar dela portatzeko gainerako moduen artean. Baina hori bere gabezia eta premia sentitzeagatik gertatzen da. Filosofia horrela portatzeko modu berezia da, zeinean gizakia halako izatera iristen den eta, zeinean aurkitzen duen erremedioa bere errotiko noraezak. Bide hori *(meta-odos)* filosofiak bere burua eratzen duen forma bera da. Kanpokotasun baten hipotesia alde batera utzirik, filosofiarako irispidea gizakiari "inmanentziaren plano orokorrekoa"9 izatearen indarrez dagokion erakuntzatik soilik uler daiteke, zeinean eta zeinaren bidez den halako eta plano hori sarturik dagoeneko forma arruntetik, ohiturazkoa den heinean.

Gizakiaren erakuntzaz ari garenean, alde batera eragin behar zaio gaizkiulertze bati: gizakiari buruz arimaz eta gorputzaz hitz egitean, horiek ez dira ulertu behar gainditzen dituen legezkotasun batetik osagai heterogeneo konposatu gisa. Ezta forma-menpekotasunezko erlazio bezala ere, arimak (arrazoimenak) gorputzaren (animaliaren) egintza instintuzkoak menperatu eta kontrolatuko balitu bezala. Aitzitik, arimak eta gorputzak kontsiderazio berbera merezi dute: arima *in actu* existitzen den gorputz baten ideia da, horretaz jabeturik dagoelarik gorputz horren afekzioen ideiak dituen heinean. Arima bere objektu duen gorputzaren afekzioen ideia-sistema da. Horrela, arimak bere buruaz eta bere gorputzaz duen kontzientzia horren izatasunak baldintzaturik dauka.

Bere aldetik, giza gorputzak bi ezaugarri nabarmen ditu: oso konplexua da eta izaera desberdineko atalez osaturik dago. Lehena izaera desberdineko norbanako-kopuru handi batez osaturik dagoelako, etengabeko aldaketapean. Gorputzean gertaturiko guztia hautematen badu arimak, gorputzarekiko kontzientzia gorputz-konplexutasunarekiko proportzioan dago: arimaren kontzientzia gorputzarekiko gorputzak erasana izateko duen gaitasunarekiko proportzionala da. Gorputzaren beraren erakuntza agerian jartzean eta ez kanpo-gorputzen izatasuna, afekzioen ideiak ez dute gorputzen egiazko izatasunera iristeko ahalbiderik eskaintzen, zeinen elkarrekintzaren bitartez iraunarazten eta birsortzen den giza gorputza. Inguruko gorputzak presentetzat, *in actu* existentetzat kontsideratzeko ahalbidea ematen dute soilik. Gainera, ideia horiek bakar-bakarrik kontuan hartzen diren heinean, derrigor imajinatzailea izan beharko du bere kontzientziak.

Gehi bekio horri, lehenago esan denez, giza gorputza izaera desberdineko atalez osatua dela: jariakor, bigun eta gogorrez. "Giza Gorputzaren alde isurkor bat kanpoko gorputz batek determinatzen duelarik beste alde mardo baten maiz jotzera, alde honen azala aldatzen da, eta honek hartzen ditu jotzen duen kanpoko gorputzaren hatzak."10 Aztarna horiek gorputz-azalera markatzen duten zantzuak dira eta ordura arte funtsean bizigabea (gorputz afektatuaren) eta kanpokoa (gorputz afektatzailearen) izan denaren kontzientzia hartzeko ahalbidea ematen du. Arrasto horrek adierazten du gorpuztasun markatu eta kanpotasun markatzailearen arteko aldea.

Aztarna horien bitartez imajinatiboki hautematen dira kanpo-gorputzak, zeren eta arrasto horiek (eta horiei dagozkien ideiak) nahiz eta desagergarriak izan jasotako afekzioen aldiberekotasun eta ondoz-ondokotasunarengatik, halaber, egia da elkartze-prozesuen bidez berrezarriak izan daitezkeela. Sorrera hori du oroimenak kanpo-gauzen izatasuna inplikatzen duten ideien kateakuntza legez eta ez "gauzen izaera barne hartzen duten" ideiena11. Ez, gainera, adimenaren barne-lege eta ahalmenetik sortuak, baizik eta "Gorputzeko afekzioen ordenaren eta katearen" arabera12. Honaino kontsideratua honela adieraz daiteke: naturaren ordena komunean imajinatiboki sarturiko gizakiari, eta ordena horren beroren arabera loturiko bere afekzioen ideiei soilik erantzuten dien heinean, testuinguru horretan barnesarturik dagoen forma jakin bat egokitu beharko zaio. Areago, forma akasdun, baina horregatik naturaltasun gutxiagokoa ez den horrek afektu-era jakin bat sortaraziko du; hau da, gizakiaren esentziak lortzen dituen aspektu-era bat bere gorputzak afekzioak sentitzen dituenean "gorputz horren jarduteko ahalmena handitzen edo ttipitzen, laguntzen edo eragozten baitute"13.

Puntu honetara iristean naturako ordena komunean imajinatiboki murgilduriko eta esperantza eta beldurra, segurtasuna eta segurtasun-eza, asetasuna ea ez-asetasuna, eta abar bezalako afektuen menpean dagoen gizaki batekin topo egiten dugu. Lilura hirukoitz bat sortzen den unea da, kanpotasun bat (bere buruaz gauzatzen duen imajina "kontzeptual" edo arketipoarekiko erlazioan dagoen gizakiarena) eta Jainkoaren gizakiarekiko transzendentzia bat sortzen den ordezpen-mekanismo baten (superstizioaren) errainua dena. Zeren segurtasun-eza hori bigundurik gelditzen baita baldintzagabe gizakia baiesten denean zeina orduan pasatzen den "inperio baten barruko inperio", "eta bere ekintzen gain erabateko ahalmena baduela, eta gainera, ez duela berak baizik bere burua determinatzen"14 kontsideratua izatera. Parez pare, segurtasunik eza gutxitu egiten da gizakiaren zerbitzuan dagoen eta naturaren sortzailea den Jainko batengan: "Bakoitza beretik ariz gertatu da Jainkoaren ohoratzeko modu asko asmatu izan dela, norbera besteak baino gehiago Harenganik maitatua izateko, eta Hark izadia osoa gizakien desira itsuen eta ezinasezko zikoizkeriaren arabera bideratzea erdiesteko gisan"15. Baina bi mekanismoak, beren aldetik, bakar batera biltzen dira:

superstiziora. Bere sorreran, gizakiaren eta Jainkoaren baiespena, gizakiaren zerbitzuan jarritako naturaren bisaia ezkutatua da. Nork bere existentziaren aurrean duen beldurra uxatzeko bi era dira eta "Superstizioaren egiazko zergatia, hura iraunarazi eta eusten duena, beldurra da"16.

Itxuraz gurpil zoro baten aurrean aurkitzen gara: gizakia naturaren atal da eta bere ordena komunaren atal gertatzen da, bere baitan barne sarturik egoteko era arartegabeari soilik dagokion neurrian, maila imajinatibo batean egotera, ideia desegokiak izatera eta grinak pairatzera beharturik dago. Horrek esan nahi du: bere bizi-egitasmoak, ingurukoarekiko bere erlazio-antolakuntzak ezinbestean egon beharko dutela esperantza eta beldurraren alderantzizko afektu-bikote hori tartean dutela.

Superstizioa eta imajinazioaren zirkuitua haustea barnesarturik aurkitzen den moduen (gizakien eta gauzen) multzoarekiko gizakiak duen ukipen-erari jaramon egitetik pasatzen da. Alde batetik, elkar erasaten duten gorputzen arteko ukipena da. Batek egintza bat burutzen du (bere *conatus*-a zertzen du) beste baten baitan ondorioak eraginez eta, zeinak gorputz afektatzailearen indarrez soilik esplika daitezkeen, eta ez afektatuaren bitartez. Gorputz bat erabat aktiboa izan litekeen neurrian (hau da, erarik hoberenean bere *conatus*-a zertu lezakeen neurrian), eta sortzen dituen ondorio guztien eta bakoitzaren *kausa* egokia izatean, erabat adigarri edo *arrazional* izango litzateke (*causa sive ratio*) bere kontsiderazio hutsetik. Sortutako ondorio horietarik ezein ez litzateke bere izatasunarekiko bateraezin, zeren jarduteko bere ahalmenaren agerpen izanik, zentzugabea litzateke ahalmen hori berori deuseztatu edo trabatzeko asmoz eginak daudela. Aitzitik, bere existentziari eustera jotzen dute eta bere esentzia eratzen duten ahalmen-maila esplizitatzera.

Baina kasu ideal eta, ondorioz, abstraktutzat kontsideratu da. Gizakia den modu finituaren izaera faktikoki baldintzaturaino eta modu-sistema baten barruan modu izanarazten duen horretaraino jaitsi beharko litzateke. Hori bere ondorio guztiekin baliarazi behar da orain. Munduan izateko bere era datza, beste edozein gorputz bezala, naturaren ordena komunari jarraitzean. Aitortu beharra dago, bada, badela gorputzik eragina duenik gizakiaren baitan kanpo-kausa baten ondorio bihurtuz eta bestelako instantzia batetik adigarri bilakatuz. Bi inperatibo horiek batera kontsideratuz gero, emaitzak ez dira oso adoregarriak izango lortu nahi den helbururako: aktibo bihurtzearentzat, existentzia burutzen deneko egintzentzako kausa egoki.

Gauzak horrela, dena topaketa-estrategia bat antolatzean datza, zeinaren bidez orientaturik gelditukо den (horretan datza filosofia) gizakiaren jardutea eta, zeinaren bitartez errazago esplizitu eta eraginkorrago bihur daitekeen giza jardutea eraentzen duen printzipioa. Hau da: komunztatzean nori bere jarduera gehitzen dion horrekin erlazionatzea eta, botere-erlazioak ez osatzean, nori bere jarduera gutxitzen dion horretatik aldendu edo saihestean. Hori nork bere izaera, bere esentzia singlea ezagutzetik pasatzen da. Baldintza horren azpian soilik geundeke, ez kanpo-kausen eraginezko jardute baten aurrean, zeinei gizakia ezinbestez loturik dagoen, baizik eta esplizitatu beharreko ahalmen beraren eraginezkoan: existentzian dirauen bere esentzia, *conatus* edo dinamismo eratzailezkoaren eraginezkoan. Baina ohartu behar da giza gorputza forma-aniztasun batek, gorputz-aniztasun batek eta, okerrago dena, bere osotasunean ezin besarkatuzkoa den ordena batean afektatzen duela. Balegoke pentsatzerik baldin eta xeheki ezagutuko balitz, bai inguruko gorputzen kausazko elkarrekintza eraentzen duen legeria orokorra, eta bai horien izaera, aktibo izateko eran antolatu ahal izango liratekeela horien topaketak. Lilura faltsua: gauzen hirapenaz oso ezaguera eskasa daukagu; aurkitzen direneko ingurune modalaren ezagutza agortzaileak neurri handian gainditzen ditu horien gaitasunak; eta, gainera, bere pertzepzio

imajinatibo propioei atxikitzean ez du bere esentzia ezagutzerik lortzen: esplizitatu nahi den horixe hain zuzen ere.

Gauzak horrela, bi aukera daude. Lehena: afekzioak pairatzen jarraitzea. Baina afekzioak beren kanpo-kausen bitartez esplikatzen direnez gero, horrela jarraitzen den bitartean ez dira ideia desegokiak soilik edukiko, pasibo izaten jarraituko da, gainera egoera horrek sortzen dituen afektuek aldartea etengabe aldaraziko dute. Bigarren, afektugintzatik abiatu, zeinen kausa egoki den norbera eta adigarri diren, beraz, gizakiarengandik beragandik. Nolanahi dela ere, naturaren ordena komun hori bateratzea bertan emandakotik soilik egin daiteke. Grinen askapena grina horietatik berorietatik soilik egin daitekeen bezala, norbera den horren ezagutza norberak daukan ezagutzatik soilik egin daiteke. Kontua ez da harantzago dagoen zerbait lortzea, zeren naturaren ordena komuna, grinak, norberaren ezagutza eta iraupena, horiek guztiek eskubide osoz eratzen baitute gizakia lehen une batean horien termino antagonikoek irudi lezaketenez: betiera, arrazoimena eta abarrek. Dena legoke halako ikuspegi-aldaketa bat sartzean, zeren posible baita arimaren ezagutza egiazko bat jadanik kontsideratu ditugunez bestelako ezein instantziatatik ez sortua. Horrek esan nahi du: zerbait beharko da gorputz-afekzio guztietan eta bakoitzean, zeina subjektua kausa egokitzat edukirik bere baitatik soilik kontzebitzen dena. Baina hori da helduera-puntua, zeren kontua ahalik eta ideia desegoki gehien baztertzea baita, beldurra eta esperantzaren zirkuluari ihes egin eta aktibo bihurtzea. Guztiak gauza beraren izenak dira: norbera den horren ezagutza eta esplizitaziorako oinarriak ezartzearenak. Arazoa da nola egiten hori jakitea.

Baldin giza naturak berezkoa badu afekzioak izatea, ezinbestez izan behar du berorietan gizakitik beragandik kontzebitua izateko moduko zerbait. Hori gertatzen bada afekzioan berez esan nahi duenari erreparatzeagatik da: gorputz afektatzaile, gorputz afektatua; baina berez afekzioa ezinezkoa litzateke afektatzaileak eta afektatuak ez balute zerbait komunik, bat datozen hori, gorputz guztiekiko komuna den hori. Gorputza "era zehatz eta determinatuan gauza hedatua bezala ikusten den bezainbatean, Jainkoaren esentzia adierazten duen modua"17. Zentzu horretan, baldin atributua esentzia jainkozkoaren adierazpen bada, "Gorputz guztiek, alabaina, bat egiten dute honetan guztiek atributu bakar eta beraren kontzeptua barne hartzean"18. Atributu hori Hedadura da. Beraz, gorputz guztiak "Mugitzen ahal dira batean emekiago, bestean lasterrago, eta garbi mintzatzeko, edo mugitzen edo geldirik egoten ahal dira"19. Gorputz guztiekiko komunak diren propietateak, orokortasunaren arabera, Jainkoaren esentzia eta, horregatik, dagokien atributu kontzeptua (Hedadura) inplikatzetik datoz, mugimenduan eta atsedenean partaide dira (modu infinitu arartegabearen izatasuna inplikatzen dute) eta modu infinitu arartedunaren baitan daude. Hortik dator naturako ordena komunean tarteko diren gorputzek (modu infinitu arartedunaren eduki gisa) modu infinitu arartegabearen indarrez daukatena komun izatea: mugimendua eta atsedena.

Propietate horiek, zeinetan gorputz guztiak partaide diren, hiru ezaugarri dituzte. Lehenik, atalean (gorputzean) eta osotasunean daude (naturaren ordena komunean). Bigarren, "ez da nehondik ere gauza berezi baten esentzia izaten ahal"20, zeren gorputz bakoitza ez baita ez mugimendua eta ez atsedena, baizik horien arteko erlazio berezi bat. Bestela mugimendua eta atsedena ezingo lirateke gauza singular hori gabe kontzebitu, zeren berorren esentziakoak izango bailirateke. Baina ez da horrelakorik gertatzen, zeren orduan gorputz singularra Hedaduraren modu infinitu arartegabearekin nahastuko bailitzateke. Hirugarren, propietate horiek egoki kontzebitzen dira. Afekzioen ideiek, aldi berean, giza gorputzaren eta kanpo-gorputzen izatasuna inplikatzen dute, zeren afekzioan bertan presente dagoen zerbait komunaren partaide baitira. Horrela, afekzioaren kontzientziak bildu egiten du propietate komun horren ideia eta propietate

hori erabat gizakiarengan dagoenez gero (zeren intentsitate berarekin agertzen baita atalean eta osotasunean), eta azken horretatik osoki kontzebi daitekeenez gero, bere ideia ezinbestez izango da egokia. Orain arimak den zerbaiten ideia dauka. Bere baitatik kanpora irtete horren bitartez, zeina afekzioak agertzen duen, arimak ezagut dezake bere burua nahiz eta oraindik osoki ez egin; hau da: bere ideian. Propietate komun hori ez da pertzepzio imajinatiboek soilik eskuratutako zerbait, enpirikoki beraz, baizik eta aldez aurretik emana zegoen, a priori, arimaren ideiarekin. Adimena birjabetzen da horretaz eta imajinazioak pasiboki ekartzen duen materialean berrezagutzen du.

Ez da soilik giza gorputzak gainerako gorputzekiko nozio komun bereziak izatea. Besterik ere gehitu beharko litzateke. Orain arte gorputzak beren unibertsaltasunean kontsideratu badira, orain nozio komunen atalasea murriztu beharra dago. Jadanik ez da hitz egingo giza gorputza kanpo-gorputz guztiekin bat datorrenaz, baizik eta "kanpo-gorputz batzuekin" komunean duenaz eta zeinen bidez giza gorputza "sarri hunkitzen ohi duten"21. Nozio komun propioen tematizazioak bere burua gidatzeko hartzen dituen irizpideak (erlazioaren) sarritasuna eta (erlazionatuaren) antzekotasuna dira. Horrek erlazio-azalera handiak ezartzeko ahalbiderik ez du ematen, baizik eragin berezitu eta biziagoko eremuak. Espezie bereko banakoengan dute eragina. Espeziea ez da ulertu behar hemen klase baten zedarritze abstraktutzat, baizik eta beren esentziaren indarrez propietate komun batean partaide diren banakoen multzotzat. Hemendik abiaturik ulertuko da "ezer ez da onuragarriago gizakiarentzat gizakia bera baino" baieztapenaren arrazoi sakona. Lehenik, beste gizaki bat delako gizaki oro zer den eta horri zer dagokion erakusten duena: jabetza komun dena eta zeri buruz ideia egokia bat era dezakeen. Bigarren, gizakiek arrazoimenak gidaturik jokatzen duten neurrian soilik, zerk elkartzen dituen jakitun izanez, izango baitira solidario beren gurarietan. Hirugarren, arrazionalki jokatzean gizakia mintzakide baliozkoen premian aurkitzen baita, zeinek jardute arrazional horren ariketa eta garapenerako aukera eskainiko dioten.

Nozio komun, unibertsal eta propioen tematizazioaren oinarrian Izateari buruzko tesi spinoztarra dago: Unibozitatea. Ez da aski esatea banako guztiak azalera homogeneo batekoak direla, zeinak egiten duen den guztia zentzu berean esatea. Determinazio orokorrak ere finkatu beharra dago, zeinek ematen duten banako bat eratzen deneko planoan sarraraztea (nozio komun unibertsalak) eta (nozio komun propioak) adieraztea gauzak barreiatzen direlako "izaki uniboko eta ez banatu baten hedaduran"22. Ez dago inolako printzipio hierarkikorik gauza bakoitzari dagokion lekua agintzen duenik. Ez dago lege transzendenterik banako bakoitzari bere lekua izendatzen dionik. Izatez "espazio ireki, mugagabe batean, gutxienez muga zehatzik gabe batean banatzen denaren partiketa da"23. Gizakiari dagozkion ingurunearen mugak inguratzen duenarekiko komun dituenari buruzko ideia argiak eratzeko duen gaitasunak ematen dizkio. Esplizitatu, baina ez tematizatu, zeren hiru baitira bere arrazoimenari dagozkion ezaugarriak. Horietan datza bere ahala eta ezina, bere izatasuna eta gaitasunik eza. Lehenik, arrazoimena abstraktua da. Nozio orokorren bitartez obratzean ez du ezein esentzia singular ezagutzen singularra den heinean. Dena gauzen esentzia ezagutzea izango da eta horrela gizakia den esentzia singular horretaraino iristea: hain zuzen ere arrazoimenak bere ezintasuna erakusten duen horretaraino. Bigarren, arrazoimena arauemaile bihurtzen da bere izatasun abstraktuaren kariaz. Eredu bat sortzen du: "nola nahi dugun gizakiaren ideia bat, giza izaeraren eredu gisa, osatu, guretzat ikusgai izateko"24. Horrek ez du esan nahi kanpokoa eta hertsatzailea den araurik onartu behar denik. Eredu hori teorikoa, deskribatzailea da, ez gainezarlea: gizaki guztiak izatasunez bat datozen hori erakusten du. Determinazio ontologikoak dira, eta hain zuzen ere horrexegatik alderantzika daiteke ikuspegi tradizionala, zeinarentzat gauzak on edo txar diren diskurtso autonomo baten indarrez, ongia eta gaizkia esentzia propio baten jabe

bailiran kontsideratzen dituen, zeinek norabidetzen duten giza jarduera, joerazko helburu (aurreiritzi teleologiko) gisa. Arrazoimenarentzat, aitzitik, ona edo txarra esentziaz esaten dira, gizakiak izatasunez desiratzen duen horretaz: gauzekin bat egitea, zeinekin funtsean bat datorren eta jardumena areagotzen duten25. Hirugarren, arrazoimenak kausalitate naturalean murgildurik obratzen du. "Arrazoimena"z ez dela ahalmen normal bat ulertu behar esateko era bat. Faktikoki emana eta baldintzatua dago, zeren gorputz-afekzioetatik abiatuz obratzen baitu pertzepzio imajinatiboen barruan gorputzen propietate komunak hautematean. Baina elkarrekintza hori naturaren ordena komunak kausalki determinaturiko altzoan burutzen da. Horrela filosofikoki orientaturiko obratze batekin topo egiten dugu; baina, halaber, egia da obratze horrek berekin erakutsirik ageri den eta absentziaren era gabeziazkoaren formapean agertzen denaren esplizitazioa eskatzen duela. Horrek esan nahi du filosofia bera baino harantzago joatea, kontzeptua bera baino ere bai, baina ez kanpoko zerbaiterantz, baizik eta filosofiak berak zentzua hartzen duen hartarantz. Baldin eta galdera orok gabezia bat, galdetuak seinalatzen duen absentzia bat inplikatzen badu, galdetzen jarraitu beharra dago: nola demostratu printzipioaren presentzia, zeinatik abiatuz gizakia adimentsu, aktibo bihurtzen den, eta horrek bere obratzean agertzen duen?

Lehenik, dena izango da eragindako afektuen gainetik arrazoimenaren nagusitasuna determinatzea gauza presenteen pertzepzio imajinatiboz, hau da, grinen gainetik. Orain arte gizakia bi ikuspegitatik kontsideratu izan da. Alde batetik, grina gutxi-asko tristeak (pasiboak) zeuden, gutxi-asko bozkariotsuak (aktiboak); bestalde, inperatibo arrazionalen sorta bat arrazoimenari dagokion izaera abstraktuaren indarrez ahulak ere badirenak. Orain kontua ez da grinazko desira eta arrazoizko desira kontrajartzea eta ideia egokien kopurua pertzepzio imajinatiboena baino handiagoa izatea. Orain ikuspegia diferentea da zeren kontua grinak, murriztua izatean, ordura arte zeukan autonomia zer eratara galtzen duen ikustea baita. Beharrezko da, beraz, eraldakuntza horrek oinarrian daukan eta adigarri bihurtzen duen estrategiaren berri ematea.

Aurresuposatu batetik abiatu behar da: ideia egokietatik beti ideia egokiak deduzitzen dira; edo zehatzago esateko: "Modu argi eta berezian ezagutzen ditugun gauzak, edo gauzen propietateak dira edo haietarik deduzitzen direnak"26. Aurrekoaren korrelatua (gorputz paraleloa) da ideia argi eta bereiziak eratzerik baldin badago eta batak besteetatik deduzitzerik, "adimenari dagokion ordenaren arabera Gorputzaren afekzioen ordenatzeko eta kateatzeko ahalmena badugu"27. Honetan datza arrazoimenaren benetako boterea: agerian jarri eta bere zabalera guztian baliaraztea, bai ideien eta, bai egintzen elkarkuntzak, beren baitan adigarri izan litezkeela. Pertzepzio imajinatiboak "halako kateakuntza" baten arabera batzen dira: denboran hurrenez-hurrenezkotasunak afekzioen ideiei ezartzen dien ordenak, zeinak giza gorputzak abegikor jasotzen dituen; hurrenez-hurrenezkotasun horrek ez du inolako ordena adigarririk subjektuarengandik beragandik, zeren "gauzen halabeharrezko aurkezpenaren" arabera gertatzen baita: hainbat topaketa zorizko, hainbat ordena ausazko. Horren aurrean ez da nabarmendu behar harmen imajinatiboa, baizik eta adimenaren jarduera; ez hurrenez-hurrenezkotasun kronologikoa eta bere kausalitate koerlatiboa, baizik oinarriztapen-ordena, zeinak ezagutzen duen nola diren gauzak beren baitan "beren lehen kausen arabera gauzak ezagutzen"28 eta horien sorrera arrazionalki azaldu; ez ustekabeko topaketen zoria, baizik halako ezarketa baten arabera sortuak izan daitezela, egintzak orientatzeko gai izan eta gizaki bakoitzak berea duen izatean *(conatus)* irauteko ahalegina agerian jarriko dutenak.

Obraturiko aldaketa esanguratsua da zeren orain bidea honako hau baita: ideien ideiak bereizi behar dira (ideia jakite bezala: ideia egokiaren jabetza edo ziurtasuna), ideiak (pentsamendu-moduak) eta gorputz-imajinak (gauza baten errepresentazioa baina

pentsamendu-moduaz bestelakoa). Zer ordenatan erlazionatu beharko dute gizakia aktibo bihur dadin? Ideien ideiak ideien ordena berean kateatzen dira, eta alderantziz, zeren bi serieen artean arrazoizko bereizkuntza besterik ez baitago. Beren aldetik, ideiak gorputz-afekzioen ordena berean kateatzen dira eta alderantzitara. Aktibo bilakatzeak esan nahi du ideia egokiak edukitzea esan nahi du, zeren horiek bakarrik sortzen baitira gizakiaren obratzeko barne-potentziatik. Ideien artean (ideia egokien) eta ideien artean arrazoizko bereizkuntza bat soilik egotean, gorputzaren afekzioen ideiek ere gizakiaren jarduera adieraziko dute. Afekzioen ideiak gorputzaren afekzioen ordena berean kateatzen direnez gero, horrela aktibo bilakatzen dena gorputza bera da. Hori guztia ideiatik (afekzioaren ideiatik) afekzioaren ideiara doan mugimenduaren indarrez eta horretatik afekziora, zeina horrela (paraleloki) aktibo izango den adimenaren jarduera beraren adierazpen den heinean.

Keinu horretan murriztu egiten dira grinak: ideia nahasiak, gorputz-afekzioen ideiak edo gorputzari pasiboki gertatzen zaiona islatzen duten imajinak. Grina horiek gutxitu edo gehitu egin dezakete jarduteko potentzia, baina beti izendatzaile komun batekin: nagusitzen den kanpotasun baten presentziarekin. Afektuen kanpo-kausa ezabatzean, eta beste pentsamendu batzuetara igortzean, desagertu egiten dira afektu horiek eta ondorengo aldarte-gorabeherak. Horrek bi gauza dakartza berekin. Lehenik, autonomiaren gehikuntza grinen espazio propioa murriztean, zeren "hortik dator gutarik bakoitzak baduela bere buruaren eta bere afektuen, absolutuki ez bada ere zatika bederen, modu argi eta egokian ezagutzeko ahalmena, eta ondorioz, haietarik ez hainbeste pairatzeko bidea"29. Nolanahi ere afekzioa afektatzailearen eta afektatuaren artean zerbait komuna dagoelako gertatzen denez gero, horrek esan nahi du ez dagoela gorputz-afekziorik, zeinaz ideia egokirik izan ez daitekeen.

Alabaina, eta bigarrena da, autonomia gehitzeak ez du esan nahi independente bihurtzen denik. Horrek ez du zentzurik, zeren erlaziorik *(commercium)* ez izateak gainerako gauzekin adiezina izatea esan nahi baitu30. Gainera, afekzioa instantzia guztiz beharrezkoa da (ez ordea horren ezagutza desegoki batetik sorturiko efektuak) zeren "Izpirituak ez du bere burua ezagutzen, Gorputzaren afekzioen ideiak hautematen dituen bezainbatean baizik"31. Lortutakoa ez da gauzez gabetzea, baizik era diferentean kontsideratzea. Hori bi frontetan agertzen da: gizakien gainerakoarekin komun norberak daukana egoki ezagutzean, gizarte askerako oinarri arrazionalak ezarri ahal izango dira. Baina, gainera, inguruko gauzek zentzu berria hartzen dute jarduera gehitu eta destolesteko edo esentzia singularra agertzeko bitarteko diren heinean. Horrekin arrazoimenaren aurrean aurkitzen gara bere garapen-mailarik garaienean eta, ondorioz, nozio komun ugariren jabe. Lorturiko gune horretatik soilik da posible gauza singularren bestelako tematizazio batera iristea. Baina arrazoimenak, halako den heinean, abstraktu dirau. Horren kausa gizakiarengan erakutsitzat agertzen dena demostratzea eragozten dion bere izatasunean eta abiapuntuan datza: *baden* eta oraindik ez *daukanaren* ideian. Arrazoimena ez da gai esentzia singular horren ideiara iristeko eta, horregatik, ezin du agertu "nola eta zer erlaziotan gure arima, esentzia eta existentziari dagokionez, izatasun jainkozkoari darraion eta Jainkoaren baitan etengabe dagoen."

Orain arte arimaren izatasun adierazkorra ardazten deneko poloetako bakarrari kontu egin zaio: *in actu* existitzen den gorputzaren ideiarenari. Ikuspegi horretatik arimak bere buruaz duen kontzientzia desegokia da eta hori hiru arrazoirengatik. Lehenik, giza gorputza era askotara afekta daitekeelako. Aniztasun horretatik eta bere pertzepzio imajinatibo koerlatiboetatik posible da beraietan beti presente dagoen eta egoki kontzebitua izan daitekeenera iristea. Baina horrek errealitatearen kontsiderazio orokor bat eskatzen du. Aldi berean, ez dago inolako afekziorik gorputza eta, beraz, berorren

ideia den arima zer den era betean agertzeko gai den aniztasun horri buruz. Horrelako autoafekziorik ez egotean, afekzioen aniztasunetik soilik irits daiteke autokontzientziara: berorren baldintza beharrezko baina askiez dira. Bigarren, afekzioaren ideiak partez soilik agertzen du giza gorputzaren izatasuna: afektatua daukan haren partea. Horregatik, kanpoko gorputzen ideiek norbere gorputzaren erakuntza gehiago agertzen dutela gogoan izanik kanpoko gauzen izatasuna baino eta aipaturiko gorputza era askotara afekta daitekeela, ezaguera egoki bat ez dela ondorioztatu behar dugu ez kanpo gorputzarena eta ez norbere giza gorputzarena ere. Afekzioen ideien esparruan dagoenarentzat ondoren nozio komunak eskuratzeak giza gorputzaren ideia egoki baten jabetza ere ez du esan nahi halako den heinean eta singularraren jabe den neurrian. Horregatik, eta hau da hirugarrena, "Giza Gorputzaren edozein afekzioren ideiaren ideiak ez du giza Izpirituaren ezagutza egokirik barne hartzen32". Horrek ez du esan nahi afekzioaren ideiaren ideia ezagutza egoki bat ez denik, baizik arimaren ezagutza egokirik ez duela inplikatzen soilik, hori bere baitan den bezala; hau da, hartaz Jainkoaren adimen infinituan ideia bat barnesarturik dagoen neurrian. Horrela agertzen zaigu arimaren dimentsio orain arte itzalpean utzitako bat. Orain *in actu* existitzen den gorputz baten ideiatzat soilik ez ezik, bere buruaren ideiatzat ere hartu behar da. Zeren arima den *(in actu* existitzen den gorputzaren) ideiaren ideia bat baitago. Hori jaramon egiten zaion neurrian egoki kontsideratu ahal izango da arima.

Hori honako hau baieztatzea adina da: "Jainkoaren baitan bada giza Izpirituaren ideia edo ezagutza ere, giza Gorputzaren ideia edo ezagutza Jainkoari dagokion, eta Jainkoari darraion modu berean"33 bada Jainkoarengan ideia bat modu guztiena, atributu guztiena eta, horregatik, baita pentsamenduarena ere; bada Jainkoarengan arimaren ideia bat, hori pentsamenduaren atributuaren modu bat eta "Jainkoaren adimen infinituaren parte bat" den heinean. Horren baitan dago arimaren ideia, zeina, aldi berean, *in actu* existitzen den gorputzaren ideia den. Bi aspektuak batera doaz, zeren ideiaren eta ideia beraren artean arrazoizko bereizkuntza bat besterik ez baitago. Aipaturiko arima adierazten duen ideia bat da eta harekin emana dago. Gorputzaren esentzia jarduera jainkozkoaren derrigorrezko ondoriotzat adierazten du. Edo bestela esateko, substantzialtasun jainkozkoaren presentzia agertzen du modu finituan. Presentzia hori da estalirik dagoena gizakiarengan arartegabea delako eguneroko obratzean eta, zeinaren desestalpena ibilera filosofikoaren errainua bera den eta, ondorioz, baita etikarena ere. Desestaltze horrek *(scientia intuitiva)* arrazoimenaren askieztasuna agerian jartzen zuen hura obratzen du: atributu jainkozkoek gauza singularren esentziak inplikatzen dituzten erak atzematea. Ezagutza-mota horren ariketak ahalbidetu egiten du gizakiaren burutzapen etikoa, beren esentzia singularraren ezagutzatik abiaturik egintzak (existentzian) beren esentziaren derrigorrezko ondorio izango diren, adigarri bihurtuz hain zuzen horren kontsiderazio hutsetik. Horretan datza modu finituaren betiera: bere existentzia, jardutearen bitartez, bere esentziaren derrigorrezko ondorio bihurtzea. Beharrezko existentzian zetzan, Spinozaren definizioari bagagozkio, betiera.

Orduan bakarrik da existentzia, eta ez esentzia soilik, jainkozko izatasunarekiko loturan eta dependentzian. Une horretan bakarrik existentzian jardutea gorputz-jardueraren korrelatu diren gorputza eta ideien esentziatik beretik gertatzen da, arimaren esentziatik jarraitzen dira zeina "hastapen eta oinarria Jainkoaren baitan duen ezagutza soilak osatzen duenaz geroz"34. Egintzak ideiak bezain arrazionalak dira, zeren ordena berean kateatzen baitira eta batak zein besteak gizakiaren esentzia eratzen duen potentzia jainkozkoaren mailaren agerkari dira. Betiko bilakatuz arrazional bilatzen da, zeren horrela bakarrik lortzen baitu gizakiak bere definizioa existentzian. Gauza sortu baten definiziorako eskakizunak hauek dira:

a) "Hurbileko zergatia eradukitzea"35, Jainkoa izaki kausa hurbil hori36, horrek ez du esan nahi hainbeste Jainkoak arartegabe sortzen duela gizakia, baizik gizakia aurkitzen deneko serie modalaren bitartez sortua dela eta Jainkoa gauza guztien kausa inmanente gisa agertzen dela37. Hori da orain ezagutua arimak bere burua eta, ondorioz, bere gorputza ezagutzen duen unetik betieraren ikuspegiz, Jainkoa nahitaez ezagutzen du, eta badaki Jainkoaren baitan dela eta Jainkoaren bitartez pentsatzen dela38.

b) "Bakarrik hartzen den bitartean eta ez beste batzuei loturik, horren propietate guztiak harengandik deduzi daitezke"39. Honelako edo halako gizakiren ideia kontsideratuz haren egintza guztiak eta bakoitza ("propietateak") deduzi litezke, zeren horiek baitira ideia egokien korrelatuak, zeinak deduzitzen edo jarraitzen diren arimaren ideia bakarretik, zeinak, Jainkoaren adimen infinituaren baitan dagoelarik, sistema egoki horien sistema eratzen duen. Adimenak sorturiko ideia egokiak dira, zeren horiek bakarrik baitaude arimaren ideiaren baitan eta hartatik jarraitzen dira; baldin eta "bakartzat eta besteei batu gabe" kontsideratzen den guztietan. Testuinguru modalean murgildurik egoteagatik eragindako ideiak desegokiak dira, zeren kanpoko gorputzek sorturiko afekzioak (efektuak) baitira. Gorputz horiek dira ideia horien kausak, ideia desegoki horien ideia gugan Jainkoaren adimen infinituan emanak egongo direla, baina haren baitan gorputz afektatzailearen ideia dagoen heinean soilik. Hortik dator ideia desegokien ideiak gure esentziaren ideiaren kontsiderazio hutsetik ez deduzitzea, aitzitik adimen infinituan gauza singular guztien eta bakoitzaren ideiak dauden heinean soilik.

Horrela, printzipio edo esparruaren *(ethos)* presentziaren de-mostrazioak, zeinatik adigarri eta aktibo bihurtzen den gizakia, berarekin darama definizioa *(éthos)*, gizaki horren berorren profil propioa. Orain ez da kontua, lortutako puntuan, bizitzarako kontzeptuaren irispide eta beharrezkotasunaz aritzea, baizik eta kontzeptuaren bizitzaz. Horretaz ulertu beharko dugu ez abstraktuki kontzebituriko errepresentazio unibertsala determinazio enpirikoetatik, baizik eta kontzeptualizaturikoaren sorrera eta mostrazioa; hau da, esplizitu egitea erreferentzia gizakiaren jarduera zintzilik daukan printzipioaren (*arkhe*) baitatik *(ex, othen)*. Baina hori printzipio horren berorren mostrazioa besterik ez da; jardute (bizitza) arrazionalaren (filosofiaren) forma daukan mostrazioa. "Filosofia" orduan bakarrik bilakatzen da "bizitza".

Manuel E. VÁZQUEZ GARCÍA
Valentziako Unibertsitatea

*Oharrak*

*1 Etika*, IV, 18, Eskol.
*2 Etika*, III, afektuen def., II.
*3 Tratatu Laburra*, II, 26.
*4 Adimenaren eraberrikuntzaren tratatua*, § 13.
*5 Etika*, V, 36. Eskol.
*6* M. Heidegger, *Carta sobre el humanismo.* Taurus. Madrid, 1970, 45 or.
*7* M. Heidegger, *Nietzsche*, I. G. Neske, Pfullingen, 1961, 451 or.
*8* M. Heidegger, *¿Qué es la filosofía?* Narcea, Madrid, 1978, 63 or.
*9* G. Deleuze, *Spinoza: philosophie pratique*. Minuit, Paris, 1981, 164, 172 orr. eta hh.
*10 Etika*, II, post. V.
*11 Etika*, II, 18. Eskol.
*12 Idem.*
*13 Etika*, III, Def. 3.
*14 Etika*, III. Pref.
*15 Etika*, I, Eransk.
*16 Tratatu teologiko Politikoa*, Hitz.
*17 Etika*, II, Def. 1.
*18 Etika*, II, II.aren Lemaren demos., post prop. 13.
*19 Idem.*

*20 Etika*, II, 37.
*21 Etika*, II, 39.
*22* G. Deleuze, *Différence et répétition*, PUF, Paris, 1976, 54 or.
*23 Idem.*
*24 Etika*, IV, Hitz.
*25* G. Deleuze, *Spinoza, Kant, Nietzsche.* Labor. Barcelona, 1974, 28 or eta hh.
*26 Etika*, V, 12. Dem.
*27 Etika*, V, 10, Dem.
*28 Etika*, II, 18, Eskol.
*29 Etika*, V, 4, Eskol.
*30 Adimenaren eraberrikuntzaren tratatua*, § 41.
*31 Etika*, II, 23.
*32 Etika*, II, 29.
*33 Etika*, II, 20.
*34 Etika*, V, 36.
*35 Adimenaren eraberrikuntzaren tratatua*, § 96.
*36 Etika*, 28. Eskol.
*37 Etika*, I, 18.
*38 Etika*, V, 30.
*39 Adimenaren eraberrikuntzaren tratatua*, loc. cit.

*Bibliografia*

**Spinozaren obraren edizioak**

GEBHARDT, C: *Spinoza. Opera* (4 lib.). Carl Winter, Heidelberg, 1924.

VLOTEN, J., eta LAND, J.: *Benedicti de Spinoza opera quotquot reperta sunt* (2 lib.).

***Etika*-ren itzulpenak**

*Etica demostrada según el orden geométrico.* Peña García-ren itzulpena. Editora Nacional, Madrid, 1975.

*Etica*. Rodríguez Bachiller-en itzulpena. Aguilar, Buenos Aires, 1982.

*Etica*. O. Cohan-en itzulpena. F. C. E., México, 1958.

**Obra osoaren itzulpenak**

SPINOZA. *Obras Completas.* Acervo Cultural, Buenos Aires, 1977 (5 lib.)

*Tratado teológico-político* (1986), *Tratado político* (1986), *Correspondencia* (1988), *Tratado de la reforma*

*del entendimiento. Principios de la filosofía de Decartes. Pensamientos metafísicos* (1988), *Tratado breve. Cálculo algebraico del arco iris. Cálculo de probabilidades* (1990), A. Domínguezen itzulpena. Alianza, Madrid. Horiei gehitu beharra dago editorial berak egindako *Etica*-ren, V. Peñak itzuliaren berredizioa (1987).

**Lexiko eta errepertorio bibliografikoak**

DOMÍNGUEZ, A.: "España en Spinoza y Spinoza en España", in A. Domínguez (ed.), *Spinoza y España.* Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, 1994.

GIANCOTTI-BOSCHERINI, E.: *Lexicon Spinozanum.* M. Nijhoff, The Hague, 1970.

PREPOSIET, J.: *Bibliographie spinoziste.* Les Belles Lettres, Paris, 1973.

WERF, Th., SIEBRAND, H., WESTERVEEN, C.: *A Spinoza bibliography 1971-1983.* Brill, Leiden, 1984.

**Bibliografia**

DOMÍNGUEZ, A.: *La sinagoga vacía.* Hiperión, 1987.
ALQUIE, H.: *Le rationalisme de Spinoza.* PUF, Paris, 1981.
DELAHUNTY, R. *J.: Spinoza*. Routledge & Kegan Paul, London, 1985.
DELBOS, V.: *Le spinozisme.* Vrin, Paris, 1972.
DELEUZE, G.: *Spinoza y el problema de la expresión.* Muchnik, Barcelona, 1975.
DELEUZE, G.: *Spinoza: filosofía práctica*. Tusquets, Barcelona, 1984.
DOMÍNGUEZ, A.(ed.).: *La ética de Spinoza. Fundamentos y significados.* Universidad de Castilla-La Mancha, 1992.
FALGUERAS, A.: *La "res cogitans" en Espinosa.* Universidad de Navarra, Pamplona, 1976.
FRAISSE, J. C.: *L'oeuvre de Spinoza.* Vrin, Paris, 1978.
GIANCOTTI-SALAZAR, M.: *Spinoza: filosofía, pasiones y política.* Alianza, Madrid, 1988.
GUEROULT, M.: *Spinoza II: L'âme (Ethique II).* Aubier Montaigne, Paris, 1974.
GUEROULT, M.: *Spinoza I: Dieu (Ethique I).* Aubier Montaigne, Paris, 1969.
HAMPSHIRE, S.: *Spinoza.* Alianza, Madrid, 1982,
HARRIS, E. E.: *Salvation from despair. A reappraisal of Spinoza's philosophy.* M. Nijhoff, The Hague, 1973.
HUBBELING, H. G.: *Spinoza's methodology.* Van Gorcum, Assen, 1967.
KAUZ, F.: *Substanz und Welt bei Spinoza und Leibniz.* Karl Alber, Freiburg-München. 1972.
MACSHEA, R. J.: *The political philosophy of Spinoza.* Columbia University Press, New York-London, 1968.
MATHERON, A.: *Individu et communauté chez Spinoza.* Minuit, Paris, 1969.
NEGRI, A.: *La anomalía salvaje.* Anthropos, Barcelona, 1993.
PARKINSON, G. H. R.: *Spinoza's theory of knowledge.* Clarendon Press, Oxford, 1954.
PEÑA, V.: *El materialismo de Spinoza.* Revista de Occidente, Madrid, 1974.
RABADE, S.: *Espinosa. Razón y felicidad.* Cincel, Madrid, 1987.
TEJEDOR, C.: *Una antropología del conocimiento. Estudio sobre Spinoza.* Publicaciones de la Universidad Pontificia de Comillas, Madrid, 1981.
WALTHER, M.: *Metaphysik als Anti-theologie.* F. Meiner, Hamburg, 1971.
WOLFSON, H. A. : *The philosophy of Spinoza.* Schocken Books, New York, 1969.
ZAC, S.: *L'idée de vie dans la philosophie de Spinoza.* PUF, Paris, 1963.

ETIKA
Geometria Ordenaren arabera erakutsia
eta
Bost zatitan banatua,
zeinetan iharduna den:

I. Jainkoaz
II. Izpirituaren izaeraz eta etorkiaz
III. Afektuen izaeraz eta etorkiaz
IV. Giza morrontzaz edo afektuen indarraz
V. Adimenaren ahalaz edo giza askatasunaz

Etikaren Lehen Zatia
Jainkoaz
Definizioak
I. Bere baitako kausa deitzen dut, haren esentziak bere existentzia barne hartzen duen hura; edo bestela, izatedun bezala baizik haren izaera pentsa ez daitekeena.
II. Bere generoan mugatua deitzen da gauza bat, izaera bereko beste zerbaitek mugatzen ahal duena: adibidez, gorputz bat mugatua deitzen da, zeren beti beste gorputz handiago bat pentsa baitezakegu. Eta berdin gogoeta bat, beste gogoeta batek mugatzen du. Gorputz bat, aldiz, ez du gogoeta batek mugatzen, ez eta ere gorputz batek gogoeta bat.
III. Substantzia deitzen dut, bere baitan den eta bere baitarik ulertzen den zerbait: erran nahi baita, beste gauza baten kontzeptuaren beharrik gabe, haren kontzeptua moldatzen den zerbait.
IV. Atributua deitzen dut, substantziaren zerizana osatzen duena, adimenak hala hautematen duena.
V. Modua deitzen ditut, substantziaren afektuak, hots, beste gauza baten baitan den zerbait, gauza haren bitartez baita ulertzen.
VI. Jainkoa deitzen dut, absolutuki mugagabea den izakia: hau da kontaezinezko atributuek osatzen duten substantzia, atributu bakoitzak mugagabeko eta betiereko esentzia adierazten duelarik.
Azalpena
*Absolutuki mugagabea* erran dut, ez ordea, *bere generoan mugagabea*, zeren *bere generoan bakarrik mugagabea* denari ukatzen ahal baitizkiogu kontaezinezko atributuak. Zerbait *absolutuki mugagabea* delarik berriz, esentzia adierazten duen eta nehongo ukatzerik ez duen edozein gauza haren esentziari dagokio.
VII. Gauza librea deituko dut, bere izaera soilak izatera behartzen duena eta bere baitarik baizik ihardukitzera determinatzen ez dena. Ezinbestekoa, ordea, edo izatekotz hertsatua, beste batek existitzera eta baldintza jakin eta zehatz batzuen arabera ihardukitzera behartzen duena.
VIII. Betierea deitzen dut, existentzia bera, betiereko gauzaren definizio soiletik baitezpada datorrela ulertzen den neurrian.
Azalpena
Horrelako existentzia, alabaina, betiereko egiaren itxuran ulertzen da, gauzaren esentzia bezala, eta ondorioz ezin da esplikatu, ez iraupenaren ez denboraren bitartez, lehenik eta azkenik gabeko iraupena bururaturik ere.
Axiomak
I. Diren guziak edo beren baitan edo besteen baitan dira izaten.
II. Beste baten bitartez pentsatzen ahal ez dena, berez pentsatu behar da.
III. Kausa delako bat emanez geroz, ondorioa baitezpada dator; eta, alderantziz, kausa jakinik batere ez baldin bada jartzen ezin da ondoriorik etorri.
IV. Ondorioaren ezagutza kausaren ezagutzaren menpe dago; eta honek hura barne hartzen du.
V. Elkarrekilakorik deus ez duten gauzak ez dira ere bata bestearen bitartez ezagutzen ahal; edo, bestela errateko, ez du baten kontzeptuak bestearen kontzeptua barne hartzen.
VI. Zerena ere baita ideia, zerbait harekin bat etorri behar da ideia egiazkoa.
VII. Existentziarik gabe pentsatzen ahal delarik edozein gauza, haren esentziak ez du existentziarik barne hartzen.
I. Proposizioa
*Izaeraz, bere afekzioak baino lehen da substantzia*.
Demonstrazioa
*3. eta 5. Definizioetarik* argi da.

II. Proposizioa
*Atributu ezberdinak dituzten bi substantziek ez dute deus elkarrekilakorik.*
Demonstrazioa
*3. Definiziotik* argi ageri da hau ere. Substantzia bakoitzak bere baitan behar du, alabaina, existitu eta bere baitarik behar da pentsatu edo, bestela errateko, baten kontzeptuak ez du bestearen kontzeptua barne hartzen.
III. Proposizioa
*Gauza batzuek ez baldin badute deus elkarrekilakorik, ez da haietarik bat izaten ahal bestearen kausa.*
Demonstrazioa
Ez baldin badute deus elkarrekilakorik, ez dira ere, beraz, *(5. Axiomaren arabera)* bata bestearen bitartez pentsatzen ahal eta, ondorioz, *(4. Axiom. arab.)* ez daiteke bata izan bestearen kausa. H.B.D.B. *(Hori Baita Demonstratu Behar).*
IV. Proposizioa
*Bi gauza ezberdin edo gehiago badirelarik, elkarretarik bereizten dira edo substantzien atributuen ezberdintasunaren arabera edo substantzien afekzioen ezberdintasunaren arabera.*
Demonstrazioa
Diren guziak izaten dira edo beren baitan edo besteen baitan *(1. Axiom. arab.)*, erran nahi baita, *(3. & 5. Def. arab.)* adimenetik landa deus ez dela existitzen, substantziak eta hauen afekzioak baizik. Adimenetik landa ez da, beraz, deus aurkitzen ahal gauza batzuen elkarretarik bereizteko, substantziak baizik, edo -berdin baita *(4. Def. arab.)*- horien atributuak eta horien afekzioak. H.B.D.B.
V. Proposizioa
*Gauzen izaeran ez da izaten ahal, izaera bereko edo atributu bereko bi substantziarik edo gehiagorik.*
Demonstrazioa
Substantzia ezberdin asko balira, elkarretarik bereizi behar lirateke edo atributuen ezberdintasunaz edo afekzioen ezberdintasunaz *(aitzin. Prop. arab.).*
Atributuen ezberdintasunaz baizik ez baldin badira bereizten, onartzen da, beraz, atributu bereko substantzia bat baizik ez dela.
Afekzioen ezberdintasunaz bereizten baldin badira, ordea, nola *(1. Prop. arab.)* bere afekzioak baino lehen baita izaeraz substantzia, ez da substantzia bera, haren afekzioak bazter emanik, eta bere baitan harturik, erran nahi baita *(3. Def. eta 6. Axiom. arab.)* egiaz ikusirik, beste edozein substantziatik bereiz ulertzen ahal edo, bestela erraiteko, *(aitzin. Prop. arab.)* ez da substantzia askorik izaten ahal, bat bakarra baizik. H.B.D.B.
VI. Proposizioa
*Substantzia bat ez du beste substantzia batek ekoizten ahal.*
Demonstrazioa
Ez dira gauzen izaeran *(aitzin. Prop. arab.)* atributu bereko bi substantzia aurkitzen ahal, erran nahi baita *(2. Prop. arab.)* elkarrekilako zerbait baduten bi substantzia. Eta ondorioz, *(3. Prop. arab.)* ez da bata bestearen kausa izaten ahal; erran nahi baita, ez duela batak ekoizten ahal bestea. H.B.D.B.
Korolarioa
Hortik dator ez duela beste zerbaitek substantzia bat ekoizten ahal. Ezen ez da gauzen izaeran deus aurkitzen, substantziak eta haien afekzioak baizik,
*(1. Axiom. eta 3. eta 5. Def. arab.)* argi ageri den bezala. Substantzia bat, ordea, ez du beste substantzia batek ekoizten ahal *(aitzin. Prop. arab.)*. Eta, ondorioz, substantzia bat ez du nehondik ere beste zerbaitek ekoizten ahal. H.B.D.B.
Bestela

Proposizioa bera errazkiago oraino demonstra daiteke kontrakoaren zentzugabekeria erakutsiz. Zeren eta substantzia bat beste zerbaitek ekoizten ahal balu, substantzia horren ezagutza kausa haren ezagutzaren menpe legoke *(4. Axiom. arab.)* eta, beraz, *(3. Def. arab.)* ez liteke substantzia.

VII. Proposizioa

*Substantziaren izaerari dagokio existitzea.*

Demonstrazioa

Substantzia ez du beste deusek ekoizten ahal *(aitzin. Prop. ond. arab.)*; beraz, bere baitako kausa izanen da, erran nahi baita *(1. Def. arab.)* haren esentziak, nahitaez, bere baitan daukala existentzia edo, bestela, haren izaerari dagokiola existitzea. H.B.D.B.

VIII. Proposizioa

*Substantzia edozein baitezpada mugagabea da.*

Demonstrazioa

Atributu bakarreko substantzia, bakarra baizik ez daiteke izan *(5. Prop. arab.)* eta haren izaerari dagokio existitzea *(7. Prop. arab.).* Haren izaerari berari dagokio, beraz, edo mugatua edo mugagabea bezala existitzea. Ezin daiteke, ordea, mugatua izan; zeren eta *(2. Def. arab.)* izaera bereko beste batek behar bailuke mugatu eta horrek ere *(7. Prop. arab.)* behar bailuke baitezpada existitu. Baina bagenituzke orduan atributu bereko bi substantzia eta horrek *(5. Prop. arab.)* ez du zentzurik. Eta, beraz, mugagabea bezala existitzea dagokio substantziari. H.B.D.B.

I. Eskolioa

Nola, mugatua izatea, zerbait partez ezeztatzea baita egiazki eta, mugagabea izatea, izaera jakin baten existentziaren baieztatzea absolutuki, *7. Proposizio* soiletik datorkigu edozein substantzia mugagabea izan behar dela.

II. Eskolioa

Badakit gauza guziak nahas-mahas ikusten dituztenentzat eta kausa lehenen arabera gauzen ezagutzen ohituak ez direnentzat *7. Proposizioaren* demonstrazioa ulertzea ez dela erraza. Ezen, ez dituzte bereizten substantziak berak eta substantzien aldaketak eta ez dakite ere nola ekoizten diren gauzak. Horra zergatik asmatzen duten substantzientzat, gauza naturalentzat ikusten duten etorbide bera.

Gauzen egiazko kausak ez dakizkitenek, alabaina, denak nahasten dituzte eta, batere durduzatu gabe, zuhaitzak bezain erraz, mintzo diren gizakiak asmatzen dituzte eta giza hazitik bezain zuzen harrietarik sortzen diren gizakiak itxuratzen edo beste edozein irudira aldatzen diren nolanahiko irudiak irudikatzen.

Eta, berdin, Jainkoaren izaera gizakiaren izaerarekin nahastekatzen dutenek errazki egozten dizkiote Jainkoari gizakiaren afektuak, bereziki ez dakitelarik oraino nola sortzen diren gure adimenean afektu horiek.

Alta bada, gizakiek kontutan har balezate substantziaren izaera, batere dudarik gabe ikus lezakete zein den zuzena *7. Proposizioa.* Gehiago oraino, guztiek axiomatzat har lezakete proposizio hori eta egia komunen lerroan sar.

Substantzia, ezen, dei lezakete bere baitan existitzen den eta bere baitarik ulertzen den zerbait, erran nahi baita, ezagutua izateko beste gauza baten ezagutze beharrik ez duen zerbait.

Aldaketak, berriz, dei litzakete beste batengan direnak, zeinen kontzeptua osatzen baita haiek barnean hartzen dituen gauzaren kontzeptutik.

Horra zergatik existitzen ez diren aldaketen ideia egiazkoak izaten ahal ditugun. Nahiz adimenetik landa ez diren aktuz existitzen, haien esentzia bizkitartean beste batengan sartzen ahal da eta, horrela, bitarteko horri esker uler daiteke. Substantzien egiarik, ordea, ez da izaten adimenetik landa, hauek beren baitan baizik ez baitira izaten eta beren baitarik baizik ez baitira ulertzen.

Norbaitek, beraz, erran baleza substantziaren ideia argia eta berezia, hots, egiazkoa, baduela eta, halere, delako substantzia hura existitzen ote den zalantzan dagoela, hori liteke -bai, alafede!- orobatean erratea bezala, ideia zuzena baduzula eta ez ote den gezurra zalantzan zaudela (apur bat ikertuz geroz nabari den bezala).

Edo bestela, norbaitek onar baleza substantzia bat sortu dela, onar lezake orobat ideia makur bat zuzena bilakatu dela; baina zentzugabekeria handiagorik ez daiteke asma. Horra zergatik aitortu behar dugun, baitezpada, substantziaren existentzia, haren esentzia bezala, betiereko egia dela. Eta, horrela, beste bide batetik datorkigu izaera bereko substantzia bakar bat baizik ez daitekeela izan. Eta iduritzen zait merezi zuela horrek hemen erakustea.

Gauzak ordenatuki egitekotan, ordea, kontutan hartu behar ditugu puntu hauek:

I. Gauza bakoitzaren definizio egiazkoak ez du deus barne hartzen ez adierazten, definitzen den gauzaren izaera baizik.

II. Eta, beraz, definizio bihi batek ez du barne hartzen ez adierazten nehongo banako kopuru zehatzik, zeren ez baitu adierazten definitzen duen gauzaren izaera baizik. Adibidez, triangeluaren definizioak ez du adierazten triangeluaren izaera soila baizik; eta ez batere triangeluen edozein zenbaki zehatzik.

III. Ohartu behar da, existitzen den gauza bakoitzarentzat, horren existitzeko kausa zehatz zerbait, baitezpada, badela.

IV. Azkenean, ohartu behar da gauza baten existitzeko kausa aurkitu behar dela edo existitzen den gauzaren definizioaren eta haren izaeraren baitan *(orduan alabaina haren izaerari berari dagokio existitzea)* edo hartarik landa.

Horiek horrela, hortik dator, banako kopuru jakin bat aurkitzen baldin bada Izadian, banako kopuru horrren, ez gehiagoren ez gutiagoren, existitzeko zerbait kausa baitezpada izan behar dela.

Adibidez, hogei gizaki aurkitzen badira Izadian *(argiago egiteagatik demagun guziak batean existitzen direla eta haiek baino lehen ez dela besterik existitu Izadian)*, ez da nahikoa *(20 gizaki horien existentziaren kontu emateko)* giza izaeraren kausa orokorki erakustea. Erakutsi beharko da, gainera, zer kausarengatik 20 diren existitzen eta ez gehiago ez gutiago. Zeren eta *(3. ohar. arab.)* bakoitzak izan behar du baitezpada bere existitzeko kausa. Kausa hori, ordea, *(2. eta 3. ohar. arab.)* ez da aurkitzen ahal giza izaeraren beraren baitan, gizakiaren definizio egiazkoak ez baitu hogeiko zenbakia barne hartzen eta, horrela, *(4. ohar. arab.)* hogei gizaki horien existitzeko bai eta, ondorioz, horietako bakoitzaren existitzeko kausa aurkitu behar da, baitezpada, bakoitzetik landa.

Horra nondik datorren ezinbesteko ondorio hau: zernahi gauza dela, zeinen izaeraren arabera banako zenbait existitzen ahal baitira, banako haiek existitzeko kanpoko kausa bat izan behar da, baitezpada.

Ondorioz, *(Eskolio honetan jadanik erakutsi den bezala)* substantziaren izaerari dagokionez geroz existitzea haren definizioak eduki behar du baitezpadako existentzia eta, beraz, substantziaren definizio soiletik atera behar da haren existentzia. Baina definiziotik beretik ezin da atera *(2. eta 3. oharretan erakutsi dugun bezala)* substantzia askoren existitzea. Hortik dator, beraz, nahitaez, izaera bereko substantzia bakar bat baizik ez dela existitzen, proposatzen zen bezala.

IX. Proposizioa

*Gauza bakoitzak atributu gehiago hartzen ditu, errealitate edo izate gehiago duen neurrian*

Demonstrazioa

*4. definiziotik* argi ageri da.

X. Proposizioa

*Substantzia beraren atributu bakoitza bere baitarik ulertu behar da.*
Demonstrazioa
Substantziaren esentzia osatzen duen zerbait bezala adimenak ikusten du atributua 4. definizioaren arabera; eta, beraz, *(3. Def. arab.)* berez ulertu behar da. H.B.D.B.
Eskolioa
Ageri da, beraz, bi atributu elkarretarik egiazki bereizirik ulertzen baldin badira ere, erran nahi da, bata bestearen beharrik gabe, ez dugula hortik aterako horiek bi izaki direla edo bi substantzia ezberdin osatzen dituztela. Substantziaren izaerari dagokio, alabaina, haren atributu bakoitza bere baitarik ulertua izatea, zeren eta haren atributu guztiak, beti denak batean, haren baitan izan dira eta ez du batek bestea ekoiztu ahal izan baina bakoitzak substantziaren errealitatea edo izatea adierazten du.
Ez da, beraz, batere zentzugabekeria substantzia bakarraren gain atributu asko ezartzea. Naturan, aitzitik, ez da hori baino deus argiagorik, hots, izaki bakoitza atributu berezi zerbaitekin ulertu behar dela eta berak duen errealitatearen edo izatearen neurrian atributu gehiago izan ditzala hauek baitute adierazten bai ezinbestekotasuna edo betieretasuna bai mugagabetasuna.
Eta ondorioz ere, ez da deus hau baino argiagorik, hots, absolutuki mugagabea den izakia baitezpada definitu behar dela *(6. Def. erakutsi dugun bezala)* kontaezinezko atributuek osatzen duten izakia bezala, atributu bakoitzak mugagabeko eta betiereko esentzia jakin bat adierazten duelarik.
Eta orain nork edo nork galda baleza zer zeinuk ezagutaraziko digun, bada, substantzien ezberdintasuna, hark irakur ditzala ondoko proposizioak erakusten baitute Izadian substantzia bakar bat baizik ez dela existitzen eta hau absolutuki mugagabea dela, ez baita, beraz, delako zeinu bilatze beharrik.
XI. Proposizioa
*Baitezpada existitzen da Jainkoa edo kontaezinezko atributuz osatu substantzia, atributu bakoitzak mugagabeko eta betiereko esentzia jakin bat adierazten duelarik.*
Demonstrazioa
Hori ukatzen baldin baduzu, pentsa ezazu, ahal baduzu, Jainkorik ez dela. Orduan, *(7. Axiom. arab.)* haren esentziak ez du existentziarik edukiko. Baina hori *(7. Prop. arab.)* zentzugabekeria da. Jainkoa, beraz, nahitaez, existitzen da. H.B.D.B
Bestela
Gauza guztiek izan behar dute izateko edo ez izateko kausa edo arrazoia. Adibidez, triangelu bat existitzen baldin bada, existitzeko kausa bat edo arrazoiren bat izan behar da. Eta ez bada existitzen, kausa bat edo arrazoiren bat izan behar da haren ez existitzeko edo hari existentzia kentzeko.
Kausa edo arrazoi hori, ordea, aurkitu behar da edo gauzaren beraren izaeran edo hortik landa. Hala nola lauki borobila ez existitzeko arrazoia haren izaerak berak ematen du, kontraesan bat bere baitan baitauka. Substantzia, aldiz, zergatik existitzen den, hori ere haren izaera soiletik dator, izaera horrek existentzia baitauka bere baitan *(ikus 7. Prop.).*
Bestelakoa da, ordea, borobil baten edo triangelu baten existitzeko ala ez existitzeko arrazoia, hori ez baitator haien izaeratik, izaera gorpuztun osoaren ordenatik baizik; ordena horren ondorio izan behar da, alabaina, delako triangelua ala nahitaez aktuan existitzea ala aktuan ezin existitzea. Gauza horiek, bada, berez argi ageri dira.
Eta horien guztien ondorioa da gauza bat existitzen dela, nahitaez, nehongo kausak ez nehongo arrazoiak ez baldin badu existitzetik eragozten. Eta, beraz, Jainkoaren existitzetik eragozteko edo Haren existentzia kentzeko kausarik edo arrazoirik batere ez baldin bada aurkitzen ahal, absolutuki onartu behar da Hura, nahitaez, existitzen dela.
Baina horrelako kausa edo arrazoia aurkitzeko, edo Jainkoaren beraren izaeran edo izaera horretatik landa, erran nahi da, beste izaera bateko beste substantzia batean

behar liteke aurkitu. Izaera berekoa balitz, ordea, horrek berak Jainkoa badela adieraz lezake. Beste izaerako substantzia batek, aldiz, ez luke deus ikustekorik Jainkoarekin *(2. Prop. arab.)* eta ez luke, beraz, Haren existentziarik ez onartzen ez ukatzen ahal. Eta, ondorioz, Jainkoaren existentziaren ukatzeko arrazoia edo kausa ez denaz geroz Jainkoaren izaeratik landa aurkitzen ahal, egiaz Jainkorik existitzen ez baldin bada, aurkitu beharko da Haren izaeraren beraren baitan, zeinak baitu, orduan, kontraesan hori barne hartu beharko.

Ez du bada itxurarik, horrelakoak baieztatzea, absolutuki, mugagabea eta guztiz betegina den Izakiarengatik. Ez da, beraz, aurkitzen ez Jainkoaren baitan ez Jainkoaz landa nehongo kausarik ez arrazoirik Haren existentziaren ukatzeko eta, ondorioz, Jainkoa, nahitaez, existitzen da. H.B.D.B.

Bestela

Izan ezina ahal ezina da; izateko ahala, aitzitik, ahal izana da *(berez nabari den bezala)*. Eta, beraz, oraingoan, nahitaez existitzen direnak izaki mugatuak besterik ez baldin badira, izaki mugatu horiek absolutuki mugagabea den Izakia baino ahaltsuagoak litezke; hori, ordea, *(berez nabari den bezala)* zentzugabekeria da. Ondorioz, edo ez da deus existitzen edo Izaki absolutuki mugagabea ere existitzen da, nahitaez.

Gu geu, bada, edo geure baitan edo nahitaez existitzen den beste zerbaiten baitan existitzen gara *(ikus 1. Axiom. eta 7. Prop.)* eta, beraz, Izaki absolutuki mugagabe bat, erran nahi baita *(6. Def. arab.)* Jainkoa, nahitaez, existitzen da. H.B.D.B.

Eskolioa

Azken demonstrazio horretan Jainkoaren existentzia "a posteriori" erakutsi nahi izan dut, demonstrazioa errazkiago uler zedin. Ez du, bada, horrek erran nahi Jainkoaren existentzia ez datorrela "a priori" oinarri berberetik. Ezen, existitzeko ahala ahalgarritasuna baldin bada, zenbat eta errealitate gehiago baitauka gauza baten izaerak existitzeko hainbat eta indar gehiago izatea bere baitan dateke ondorioa; eta, horrela, absolutuki mugagabea den Izakiak, hau da Jainkoak, badu bere baitan existitzeko ahalmen absolutuki mugagabea eta, beraz, existitzen da absolutuki.

Anitzek bizkitartean ez dute errazki ikusten ahalko beharbada demonstrazio horren argia, kanpoko kausetarik datozen gauzak bakarrik ikertzen ohituak direlako; eta gauza horietan laster sortzen direnak, erran nahi da errazki existitzen direnak errazki ikusten dituztelako suntsitzen. Baina, iduritzen zaie, alderantziz, ondasunez aberatsago diren gauzak nekezago egiten direla, erran nahi da ez direla hain errazki existitzen.

Aurreiritzi horietarik libratzeko, bada, ez dut hemen erakuste beharrik zergatik egia den erran zaharra: *laster egina, laster galdua*; ez eta ere erraterik, izaera osoari begira, ea gauza guztiak berdin errazak diren ala ez. Ohar hau, soilik, egitea askiko zait: ni hemen ez naizela mintzo kanpoko kausetarik datozen gauzez baina, soil-soilik, substantziez, hauek *(6. Prop. arab.)* ez baititzake ekoitz kanpoko kausa bihi batek.

Kanpoko kausetarik datozen gauzek, alabaina -anitz alderdi izan ditzaten ala guti- kanpoko kausaren bertuteari zor diote berek duten betegintzarre edo errealitate guztia eta horrengatik kanpoko kausaren betegintzarre soiletik dator haien existentzia eta ez berenetik.

Substantzia batek, ordea, bere betegintzarrea ez dio zor edozein kanpoko kausari eta, beraz, haren izaera soiletik dator haren existentzia ere, zeina ez baita haren esentzia besterik. Gauza baten betegintzarreak ez du, beraz, haren existentzia kentzen, finkatzen baizik; gauzaren betegingabeziak, aldiz, ukatzen du. Eta, horrela, ez gara nehongo gauzaren existentziaz ziurrago izaten ahal Izaki absolutuki mugagabearen eta beteginaren, hau da Jainkoaren existentziaz baino. Ezen, Haren esentziak betegintzarre absolutua barne hartzen du eta, betegingabezia mota oro ukatzen duenaz geroz, Haren existentziari buruzko zalantzen

kausa guztiak kentzen ditu eta ziurtasun osoa ematen digu; apur bat hurbiletik behatzen duenak, ene ustez, ikusiko duen bezala.

XII. Proposizioa

*Ez da egiaz nehongo substantziaren atributurik ulertzen ahal, nondik letorkeen substantzia zatitu ahal izatea.*

Demonstrazioa

Horrela asmatu substantziaren zatiketaren zatiek, alabaina, edo begiratuko dute edo ez dute begiratuko substantziaren izaera.

Lehen kasuan, *(8. Prop. arab.)* zati bakoitza mugagabea izan beharko da eta *(6. Prop. arab.)* bere baitako kausa; eta *(5. Prop. arab.)* atributu berezi batek osatua izan beharko da; substantzia bakarretik substantzia asko osatzen ahalko dira horrela, baina gauza hori *(6. Prop. arab.)* absurdua da.

Delako zatiek, gainera, *(2. Prop. arab.)* ez lukete deus ikustekorik beren osotasunarekin eta beren osotasun hori *(4. Def. eta 10. Prop. arab.)* bere zatiak gabe izaten eta ulertzen ahal liteke, baina nehork ez dezake dudan eman gauza hori absurdua dela.

Bigarren kasuan, berriz, erran nahi da substantziaren izaera begiratzen ez dutelarik haren zatiek, orduan, substantzia osoa zati berdinetan zati baledi, bere substantzia izaera gal lezake eta berak ez luke gehiago substantzia izaterik, baina hori *(7. Prop. arab.)* absurdua da.

XIII. Proposizioa

*Substantzia absolutuki mugagabea, zatiezina da.*

Demonstrazioa

Zatigarria balitz, alabaina, hura zatitzen deneko zatiek substantzia absolutuki mugagabearen izaera edo begiratuko dute edo ez dute begiratuko.

Lehen kasuan, izaera bereko substantzia asko bagenituzke eta hori *(5. Prop. arab.)* absurdua da.

Bigarren kasuan, berriz, *(gorago erran bezala)* substantzia absolutuki mugagabeak izatea gal lezake eta hori ere *(11. Prop. arab.)* absurdua da.

Korolarioa

Hortik dator nehongo substantziarik eta, beraz, nehongo gorpuztun substantziarik ere, substantzia den bezainbatean, zatigarri ez izatea.

Eskolioa

Substantzia bat zatiezina izatea errazkiago ulertzen da substantziaren izaera mugagabea baizik ez dela pentsatzen ahal gogoratuz bakarrik eta, bestalde, substantzia baten zatia ezin da deitu substantzia mugatu bat baizik, baina hori *(8. Prop. arab.)* kontraesan nabaria besterik ez da.

XIV. Proposizioa

*Jainkoaz kanpo substantzia bihirik ez da ez izaten ahal ez pentsatzen ahal.*

Demonstrazioa

Nola Jainkoa batetik izaki absolutuki mugagabea den, substantziaren esentzia adierazten duen nehongo atributurik ez zaio ukatzen ahal *(6. Def. arab.)* eta nola, bestetik *(11. Prop. arab.)*, baitezpada existitzen den, baldin Jainkoaz kanpo beste substantziarik izaten balitz, orduan, Jainkoaren atributu zerbaiten bitartez azaldu behar liteke eta atributu bereko bi substantzia balitezke, baina hori *(5. Prop. arab.)* absurdua da.

Ondorioz, Jainkoaz kanpo nehongo substantziarik ez da izaten ahal, ez eta, beraz, pentsatzen ahal; zeren eta pentsa baledi, existitzen dela behar liteke nahitaez pentsatu, baina hori *(Demonst. honen 1. part. arab.)* absurdua da. Jainkoaz kanpo nehongo substantziarik ez da, beraz, ez existitzen ez pentsatzen ahal. H.B.D.B.

I. Korolarioa

Hortik dator, argi eta garbi, lehenbizikorik, bakarra dela Jainkoa, erran nahi baita *(6. Def. arab.)* substantzia bakar bat baizik ez dela Izadian eta hura absolutuki mugagabea dela, 10. Proposizioaren Eskolioan jadanik adierazi dugun bezala.

II. Korolarioa

Beretik dator bigarrenekorik, gauza hedatua eta gauza pentsatzailea edo Jainkoaren atributuak edo *(l. Axiom. arab.)* Jainkoaren atributuen afekzioak direla.

XV. Proposizioa

*Izaten den guztia Jainkoaren baitan da izaten eta Jainkoa gabe ez da deus ez izaten ahal ez pentsatzen ahal.*

Demonstrazioa

Jainkoaz kanpo ez da ez izaten ahal ez pentsatzen ahal *(14. Prop. arab.)* nehongo substantziarik, erran nahi baita *(3. Def. arab.)*, bere baitan izatea duen eta berez ulertzen den beste neholako gauzarik. Moduak, aldiz, *(5. Def. arab.)* ez dira existitzen ez pentsatzen ahal substantziarik gabe; Jainkoaren izaera baitan baizik ez dira izaten ahal ez Haren bitartez baizik pentsatzen ahal. Eta nola *(1. Axiom. arab.)* substantziez eta moduez kanpo deusik ez baita existitzen, Jainkoa gabe ez da deus ez existitzen ahal ez pentsatzen ahal. H.B.D.B.

Eskolioa

Batzuek, ordea, irudikatzen dute Jainkoa, gizakiaren irudia bezala, gorputz eta arimaz osatua eta pasioz josia; zein urrun dabiltzan horiek Jainkoaren egiazko ezagutzatik aski argi erakusten dute aitzineko demonstrazioek. Baina uzten ditut bazter jende horiek, zeren eta Jainkoaren izaerari apur bat behatu dioten guztiek ukatzen baitute Jainkoak gorputzik baduela. Eta egia hori ederki frogatzen dute erranez gorputza deitzen dugula honenbeste luze, zabal eta sakon den kantitate bat, irudi jakin batek mugatua; baina ez da deus absurduagorik erraten ahal Izaki absolutuki mugagabea den Jainkoaz.

Ber denboran, halere, beste arrazoi batzuen bitartez hori demonstratu nahiz, jende berek argi erakusten dute osoki bereizten dutela Jainkoaren izaeratik substantzia gorpuztuna edo hedatua eta hau Jainkoak kreatua duela onartzen dute; batere ez dakite, haatik, zer Jainko boterek kreatu ahal izan duen, eta horrek berak argi erakusten du ez dakitela berek zer erraten duten.

Nik, hasteko, aski garbi erakutsi dut, ene iduriko, *(ikus 6. Prop. Korol. eta 8. Prop. Eskol.)* nehongo substantzia ez duela beste batek ez ekoizten ahal ez kreatzen ahal. Bestalde, *(14. Prop. arab.)* erakutsi dugu Jainkoaz kanpo nehongo substantziarik ez dela ez aurkitzen ahal ez pentsatzen ahal. Eta hortik atera dugu Jainkoaren atributu mugagabekoetarik bat dela substantzia hedatua. Baina, orain, arazoa hobeki argitzeko, kontrakoen argumentuei ihardetsiko diet, hauek guztiak honela biltzen baitira:

*Lehenik*, substantzia gorpuztuna, substantzia den aldetik, haien iduriko, bere zatiek osatzen dute eta, ondorioz, mugagabea izaten ahal dela, eta, beraz, Jainkoarena izaten ahal dela ukatzen dute. Eta hori adibide multzo batekin argitzen dute, eta adibide horietarik bat edo beste emanen dut: hala nola, diotenez, substantzia gorpuztuna mugagabea baldin bada, bi zatitan zatiturik uler daiteke, zati bakoitza mugagabea edo mugatua delarik. Lehen kasuan, bi zati mugatuk osatzen dute mugagabea, baina hau absurdua da. Bigarren kasuan aurkitzen dugu, beraz, mugagabe bat beste mugagabe bat baino bietan handiago dena, eta hau ere berdin absurdua da.

Bestalde, kantitate mugagabe bat oin bat luze diren zatiekin izartzen baldin bada, kontaezinezko zatiez osatu beharko da; eta berdin izanen da eri bat luzeko zatiekin izartzen baldin bada; eta, beraz, kontaezinezko zenbaki bat kontaezinezko beste bat baino hamabi aldiz handiago izanen da.

Azkenean, demagun bi lerro AB eta AC abiatzen direla edozein kantitate mugagabeko baten puntutik, eta behin finkatu tarte jakin batez luzatzen direla mugarik gabe; argi

dago B eta Cren arteko tartea emendatuz joanen dela etengabe, mugatua zena mugagabe bihurtuko deno.

Nola, beraz, zentzugabekeria horiek baitatoz, haien ustez, kantitate mugagabeko bat onartzetik, hortik ateratzen dute mugatua izan behar dela substantzia gorpuztuna eta, beraz, ez dagokiola Jainkoaren esentziari.

*Bigarren* argumentu bat ateratzen da oraino Jainkoaren betegintzarre gorenetik: Jainkoak, ezen, haien arabera, osoki hobezina denaz geroz, ezin du pairatu; substantzia gorpuztunak, aldiz, zatika daitekeenaz geroz, pairatzen ahal du, eta, beraz, hau ez dagokio Jainkoaren esentziari.

Nik idazleengan aurkitu ditudan argumentuak, zeinen bidez frogatzen ahalegintzen baitira Jainkoaren izaerari ez dagokiola substantzia gorpuztuna eta Hari ez datxekiola, hauek dira. Baina ongi behatzen badiezue, ikusiko duzue jadanik ihardetsia diedala: argumentu horien oinarri soila hauxe baita, alabaina, substantzia gorpuztuna zati batzuek osatzen dutela onartzea eta hori absurdua dela erakutsia dut jadanik *(ikus 12. Prop. eta 13. Prop. Korol.).*

Gero bakoitzak, nahi badu gaia zuzenki ikertu, ikusiko du zentzugabekeria direla argumentu horiek oro *(guztiak hala direnentz ez dut orai eztabaidatzen)* nondik atera nahi baitute substantzia hedatua mugatua dela, ez datozela nehondik ere kantitate mugagabea onartzetik, baina bai kantitate mugagabe hori neurgarria eta zati mugatuz osatua dela uste izatetik. Ez da, beraz, zentzugabekeria haietarik beste deusik atera behar, kantitate mugagabea ez dela neurgarria eta ez dela zati mugatuz osatua baizik. Eta hori bera erakutsia dugu jadanik *(ikus 12. Proposizioa, etab.).* Gure aurka aurtiki nahi duten gezia, izatez, beren kontra bihurtzen zaie horrela.

Bestalde, berek asmatu zentzugabekeriatik, substantzia hedatua behar dela mugatua izan nahi badute atera, ez dute besterik egiten beihalakoak egin zuena baizik, hots, laukiaren bereizgarriak zituen borobila asmatu ondoan, hortik atera baitzuen borobilak ez duela ingurura heltzeko izari bereko orratz guztiek abiapuntu luketen erdigunerik. Zeren eta substantzia gorpuztuna *(8. 5. eta 12. Prop. arab.)* zatiezin, bakar eta mugagabea baizik ulertzen ahal ez dena, haiek anizkoitz eta zatikorra bezala pentsatzen baitute hortik gero ateratzeko mugatua ere dela.

Gisa berean, beste batzuek lerroa puntuz osatua dela asmatu ondoan, aski argumentu aurkitzen badakite lerroa ez dela azkenik gabe zatitzen ahal erakusteko. Substantzia gorpuztuna gorpuzkiek edo zatikiek osatzen dutela sinestea ez da, egia erran, zentzugabekeria handiagoa, gorputza azalez, azala lerroz eta, azkenean, lerroa puntuz osatzen dela onartzea baino. Eta hau aitortu behar dute arrazoi argia beti hutsezina dela dakitenek eta lehen-lehenik hutsa badela ukatzen dutenek. Zeren eta substantzia gorpuztuna zati ahal baledi haren zatiak zinez bereizteko gisan, zergatik ez litzateke zatiki bat ezeztatzen ahal, beste zatikiek aitzineko lotura berak elkarrekin begira litzaketelarik? Eta zergatik zatiki guziek elkarri egokitu behar ote lukete, hutsik ez gertatzeko gisan?

Egia da, gauza batzuk bestetarik ezberdinak baldin badira, bat izaten ahal dela bestea gabe eta bere hartan iraun dezakeela. Izadian, ordea, hutsarterik ez denaz geroz *(horretaz bestalde aritu gara)* eta hutsik ez dadin izan alde guztiek elkarri loturik egon behar baldin badute, ondorioz, ateratzen da alde horiek ezin bereiziak direla egiazki, erran nahi baita substantzia gorpuzkina, substantzia den bezainbatean, zatiezina dela.

Norbaitek bizkitartean galda baleza zergatik ekarriak garen naturalki kantitatearen zatikatzera, ihardets niezaioke bi gisetara ulertzen dugula kantitatea: hau da, abstraktuan eta azaletik, irudimenak asmatu bezala; edo substantzia bezala, adimenak baizik egin ez dezakeenaren arabera.

Eta, beraz, kantitateari behatzen badiogu irudimenaren arabera -hori baitugu errazenik eta maizenik egiten- mugatua, zatikorra eta zatikiz osatua aurkituko dugu; aldiz, adimenaren arabera behatzen badiogu eta substantzia bezala ulertzen baldin badugu -eta hori biziki nekez egiten dugu- orduan, jadanik aski garbi demonstratu dugun bezala, mugagabea, bakarra eta zatiezina aurkituko dugu.

Irudimenaren eta adimenaren ongi bereizten jakinen dutenentzat puntu hori aski argi ageriko da; orozgainetik, baldin gogoan hartzen badute orotan bera dela materia eta ez dela hartan bereizten zatikirik, non ez den pentsatzen asko gisetara egokitua dela; baina orduan, haren zatikien ezberdintasuna ez da izatezkoa, moduzkoa baizik.

Horra nola pentsatzen dugun ura, ura den aldetik, zatitzen dela eta haren zatikiak elkarretarik bereizten direla, baina ez substantzia gorpuzkina den aldetik, ezen, orduan, ez baita ez bereizten ez zatitzen. Edo oraino ura, ur bezala, sortzen da eta galtzen; baina substantzia bezala, ez da ez sortzen ez galtzen.

Iduritzen zait horrela ihardetsi diodala, engoitik, bigarren argumentuari; zeren eta hori ere oinarritzen baita oinarri berean, hots, materia, substantzia den aldetik, zatikorra eta zatikiz osatua delako baieztapenean. Eta beste oinarririk balu, ez dakit zertako materia ez legokiokeen Jainkoaren izaerari, zeren eta *(14. Prop. arab.)* ez baita

izaten ahal Jainkoaz kanpo beste substantziarik, Hari pairaraziko liokeenik.
Denak Jainkoa baitan direla diot nik eta gertatzen diren guztiak Jainkoaren izaera mugagabearen legeen arabera gertatzen direla, eta -laster erakutsiko dudan bezala- Haren zerizanaren ezinbestez darizkiola.
Ez da, beraz, nehondik ere erraten ahal Jainkoak pairatzen duela beste zerbaitengatik, ez eta ere substantzia hedatua ez dagokiola Jainkozko izaerari, zatikorra asma baledi ere, mugagabea eta betierekoa dela onartzen den ber. Baina horretaz badugu oraingotz aski erranik.
XVI. Proposizioa
Jainko izaeraren ezinbestekotasunetik etorri beharrekoak dira, kontaezinezko modutan etorri ere, kontaezinezko gauza guztiak, erran nahi baita mugagabeko adimenaren menpe sar ahala gauza.
Demonstrazioa
Nornahirentzat proposizio hau nabaria izan behar da, ohartzen baldin bagara edozein gauzaren definizioa emanez geroz, adimenak hortik ateratzen dituela propietate zenbait, delako definizioaren beraren -erran nahi baita gauzaren esentziaren beraren- ondorio ezinbestekoak direnak eta, halaber, zenbat eta errealitate gehiago adierazten duen gauzaren definizioak, hots, zenbat eta errealitate gehiago barne hartzen duen definitzen den gauzaren esentziak, hainbat eta ondorio gehiago izanen dugu.
Jainkoaren izaerak, bestalde, absolutuki kontaezinezko atributuak baitauzka bere baitan*(6. Def. arab.)* hartarik bakoitzak bere generoan mugagabeko esentzia baitu adierazten, beharrezkotasun horretarik kontaezinezko modutan kontaezinezko gauzak -hau da mugagabeko adimenaren menpe sar ahala gauza- baitezpada etorri behar dira. H.B.D.B.
I. Korolarioa
Hortik dator lehenbizikorik, Jainkoa dela mugagabeko adimenaren menpe sar daitezkeen gauza guztien kausa erazlea.
II. Korolarioa
Eta bigarrenekorik, bere baitako kausa dela Jainkoa eta ez akzidentezkoa.
III. Korolarioa
Eta hirugarrenekorik, Jainkoa dela absolutuki kausa lehena.
XVII. Proposizioa
*Bere izaeraren lege soilen arabera ari da Jainkoa, nehork hertsatu gabe.*
Demonstrazioa
*16. Proposizioan* demonstratu berri dugu Jainko izaeraren beharrezkotasunetik beretik edo -berdin baita- Haren izaeraren lege soiletarik kontaezinezko gauzak baitezpada heldu direla, eta *(15. Prop.)* demonstratu dugu Jainkoa gabe ez dela deus izaten ahal ez pentsatzen ahal, denak Jainkoaren baitan direla; ez da, beraz, Harengandik landa deus izaten ahal, Hura Bera edozer egitera delibera edo hertsa dezakeenik. Horra zergatik Jainkoa bere izaeraren lege soilen arabera, eta nehork hertsatu gabe, ari den. H.B.D.B.
I. Korolarioa
Hortik dator lehenbizikorik, ez dela nehongo kausarik, kanpotik edo barnetik, Jainkoa ekitera bultzatzen duenik, bere izaeraren betegintzarrea baizik.
II. Korolarioa
Eta bigarrenekorik, Jainkoa bakarrik dela kausa librea. Ezen, Jainkoa bakarrik existitzen da bere izaeraren beharrezkotasun soilez *(11. Prop. eta 14. Prop. 1. Korol. arab.),* eta bere izaeraren beharrezkotasunaren arabera ari da *(aitzin. Prop. arab.)*. Ondorioz *(7. Def. arab.),* Bera da kausa libre bakarra. H.B.D.B.
Eskolioa

Batzuek pentsatzen dute Jainkoa kausa librea dela, zeren egin baititzake, uste dutenez, Haren izaerari, erran dugun bezala, darraizkion gauzak, hots, Haren esku direnak ez gertatzea edo, bestela errateko, Berak ez ekoiztea. Baina hori da, erran balezate bezala, Jainkoak egin dezakeela triangeluaren izaerari ez dakion jarrai haren hiru angeluek berdin bi zuzen izatea; edo oraino, kausa bat jarriz geroz, ez dadin ondoriorik gerta; baina hori absurdua da.

Eta, bestalde, demonstratuko dut urruntxeago eta proposizio horren laguntzarik gabe ez datxekiola Jainkoaren izaerari ez adimenik ez nahimenik. Badakit, bai, anitz badirela uste dutenak demonstratzen ahal dela Jainkoaren izaerari dagokiola adimen gorenaren eta nahimen librearen jabe izatea. Ez omen dute, diotenez, deus ederragorik ezagutzen Jainkoari eskaintzeko gure baitan dugun betegintzarre gorena baino.

Gainera, nahiz Jainkoa daukaten aktuan dagoen izaki guztiz argia bezala, ezin dute horrengatik sinetsi Berak aktuan ulertzen dituen gauza guztiak existitzea eragin dezakeela; zeren eta, diotenez, bere adimenaren baitan diren gauza guztiak kreatu balitu, ez zuen beste deusik kreatzen ahalko; eta iduritzen zaie hori ez dagokiola Jainko ahalguztidunari. Horra zergatik nahiago izan duten eraiki Jainko bat guztiz indiferentea, Bere borondate absolutuak kreatu nahi zuena baizik kreatu ez duena.

Baina uste dut aski argi demonstratu dudala *(ikus 16. Prop.)* Jainkoaren ahalmen nagusitik, hots, Haren izaera mugagabekotik, kontaezinezko modutan, kontazezinezko gauzak, erran nahi da gauza guztiak baitezpada etorri direla edo beti beharrezkotasun berarekin Hari darraizkiola. Gisa berean, betidanik eta betiko triangeluaren izaerari darraio haren hiru angeluek berdin bi zuzen izatea. Horra zergatik, Jainkoaren guztiahalduntasuna betidanik aktuan dagoena izan den eta zergatik betiko halaxe iraunen duen. Eta horrela, ene iduriko, Jainkoaren ahalguztiduntasuna biziki hobeki ulertzen da.

Areago oraino, gure kontrakoek (garbiki mintzatzea zilegi bazait) Jainko guztiahalduna ukatzen dutela uste dut: Aitortu behar dute, alabaina, kontaezinezko gauzak, kreatzen ahal direnak, ulertzen dituela Jainkoak, baina ez dituela Berak sekulan kreatzen ahalko; zeren bestela, ulertzen dituen gauza guztiak krea balitza, haien arabera, bere ahalmen ahalguztiduna agor bailezake, eta Berak bere burua betegingabe bihur. Horra, beraz, nola Jainkoaren betegintzarrea finkatu nahiz ari direlarik, hertsatuak diren onartzera Haren ekiteko ahala ez dela heltzen Haren ahalmena bezain urrun. Ez dut ikusten zer asma daitekeen absurduagorik edo Jainko ahalguztidunari okerrago doakionik.

Zerbait erran behar badugu, bestalde, arruntean Jainkoaren kontu ezartzen dugun adimenaz eta nahimenaz, hona ohar bat: Jainkoaren esentzia betierekoari baldin badagokio adimenaren eta nahimenaren jabe izatea, bi atributu horiez arruntean ulertu ohi denaz besterik aditu behar da zinez. Zeren, Jainkoaren esentzia osa lezaketen adimenak eta nahimenak gure adimenaz eta gure nahimenaz guztiz ezberdinak izan behar lukete eta izena baizik ez lukete elkarrekilakorik; erran nahi baita zakurra deitzen den zeruko zeinua eta zaunka egiten duen animalia bezala litezkeela elkarrekin. Eta hori demonstratuko dut honela.

Jainkoaren Adimena izaerari dagokiona baldin bada, ez da izatez gure adimena bezala -gehienek gura luketenaren arabera- ulertzen dituen gauzekin batean ez haien ondotik jartzen ahalko, zeren Jainkoa *(16. Prop. 1. Korol. arab.)* gauza guztiak baino lehen baita kausalitatearengatik; baina, alderantziz, egia gauzen zerizan formala berdina baldin bada, hori gertatzen da Jainkoaren adimenean objektiboki horrela existitzen delako. Jainkoaren adimena da, beraz, Jainkoaren esentzia osatzen duela ulertzen den bezainbatean, gauza guztien kausa egiazkoa, haien esentziaren eta haien existentziaren kausa; eta badirudi hori ikusi dutela Jainkoaren adimena, nahimena eta ahalmena gauza bat eta bera direla baieztatu dutenak.

Baina Jainkoaren adimena denaz geroz gauza guztien kausa bakarra, erran nahi da -demonstratu dugun bezala- haien esentziaren nola haien existentziaren kausa, adimen hura gauza guztiak ezbezalakoa izan behar da, nahitaez, bai esentziaren aldetik bai existentziaren aldetik. Honetan da, hain zuzen, kausatua kausarenganik bereiz ezartzen, hari lotua baitago.

Adibidez, gizon bat beste gizon baten existentziaren kausa da, baina ez haren esentziarena, esentzia hori betiko egia baita eta, beraz, bi gizonek bat egin dezakete esentziaren aldetik, baina ezberdin izan behar dira existentziaren aldetik. Horra nola batek galtzen baldin badu existentzia, besteak ez duen horrengatik baitezpada galdu behar; baten esentzia, aldiz, ezezta baledi eta gezurrezko bihur, bestearen esentzia ere ezezta liteke. Horra zergatik ondorio baten esentziaren eta existentziaren kausa delarik edozein gauza, ondorio hura ez bezalakoa izan behar den, bai existentziaren bai esentziaren aldetik. Jainkoaren adimena, ordea, gure adimenaren kausa da bai esentziaren bai existentziaren aldetik eta, beraz, Jainkoaren adimena, Jainko Berorren esentzia osatzen duela pentsatzen dugun bezainbatean, gure adimenaz bestelakoa da bai esentziaren bai existentziaren aldetik eta ez du izenez baizik bat egiten Harekin, erraten genuen bezala.

Nahimenarentzat bide bera hartzen da, bakoitzak errazki ikus dezakeenaren arabera.

XVIII. Proposizioa

*Jainkoa da gauza guztien berebaitako kausa, baina ez kausa iragankorra.*

Demonstrazioa

Diren gauza guztiak Jainkoa baitan dira eta Jainkoaren bitartez ulertu behar dira *(15. Prop. arab.),* eta horregatik *(16. Prop. 1. Korol. arab.)* Haren baitan diren gauza guztien kausa da Jainkoa; hori da lehen puntua.

Gero Jainkoaz beste nehongo substantziarik ez da aurkitzen ahal (*14. Prop. arab.),* erran nahi baita *(3. Def. arab.)* Jainkoaz landa gauza bihirik berebaitako denik; hori zen bigarren puntua.

Jainkoa da, beraz, gauza guztien berebaitako kausa, baina ez kausa iragankorra. H.B.D.B.

XIX. Proposizioa

*Jainkoa bera, nahiz Jainkoaren atributu guztiak betierekoak dira.*

Demonstrazioa

Jainkoa ezen *(6. Def. arab.)* substantzia bat da, baitezpada existitzen dena*(11. Prop. arab.),* erran nahi baita*(7. Prop. arab.)* Haren izaerari existitzea dagokiola edo -berdin baita- Haren definizioari existitzea darraiola eta, ondorioz *(8. Def. arab.)* betierekoa dela.

Gero Jainkoaren atributuez erran behar da *(4. Def. arab.)* hauek Jainkoaren substantziaren esentzia adierazten dutela, erran nahi da Haren substantziari dagozkionak direla, hots, hori bera dutela barne hartzen atributuek. Substantziaren izaerari dagokio, bada, betierea *(jadanik demonstratu dudan bezala 7. Prop.);* atributu bakoitzak barne hartu behar du, beraz, betierekotasuna eta, horrela, atributu guztiak betierekoak dira. H.B.D.B.

Eskolioa

Proposizio hori, ordea, guztiz argi nabari da ere Jainkoaren existentzia demonstratzeko erabili dugun bidetik *(11. Prop.)*:

Demonstrazio horretatik dator, alabaina, Jainkoaren existentzia nola Honen esentzia egia betierekoa izatea.

Gainera, beste gisaz demonstratu dut oraino Jainkoaren betierekotasuna *(Descartes-en Printzip. 19. Prop.)* eta ez da hemen horren errepikatzerik.

XX. Proposizioa

*Jainkoaren existentzia eta Honen esentzia gauza bat eta bera dira.*
Demonstrazioa
Jainkoa eta Honen atributu guztiak betierekoak dira *(aitzin. Prop. arab.)*, erran nahi da *(8. Def. arab.)* atributu bakoitzak existentzia adierazten duela eta, horrela, Jainkoaren betiereko esentzia *(4. Def. arab.)* adierazten duten Jainkoaren atributuek berek adierazten dute ber denboran Haren betiereko existentzia; hots, Jainkoaren esentzia osatu duen gauza hark berak osatu du aldi berean Haren existentzia eta, horregatik, Jainkoaren existentzia eta Honen esentzia gauza bat eta bera dira. H.B.D.B.
I. Korolarioa
Hortik dator lehenbizikorik, Jainkoaren existentzia, Honen esentzia bezala, egia betierekoa izatea.
II. Korolarioa
Eta bigarrenekorik, Jainkoa bera nahiz Jainkoaren atributu guztiak aldaezinak izatea, ezen aldatzen balira existentziaren aldetik, aldatu behar litezke ere *(aitzin. Prop. arab.)* esentziaren aldetik; hots *(berez argi den bezala)*, gezurra zirenak egia bihur litezke, eta hori absurdua da.
XXI. Proposizioa
*Jainkoaren edozein atributuren izaera soiletik datozen gauza guztiak betiere eta mugagabe existitu behar izan dira, hots, atributu horren bertutez betierekoak eta mugagabeak dira.*
Demonstrazioa
Ukatzen baduzu, pentsa ezazu, ahal baldin baduzu, Jainkoaren edozein atributuren baitan atributu horren izaera absolutuari darraiola izate mugatua eta existentzia edo iraupen mugatua duen zerbait; adibidez, Jainkoaren ideia pentsamenduan.
Pentsamendua, ordea, Jainkoaren atributua dela onartzen denaz geroz, bere izaeraz mugagabea da baitezpada *(11. Prop. arab.)*. Baina, bestalde, Jainkoaren ideia den aldetik, mugatua bezala ematen da. Ez da bizkitartean *(2. Def. arab.)* mugatua bezala ulertzen ahal, pentsamenduak berak ez baldin badu mugatzen. Pentsamenduak berak, ordea, ez dezake egin Jainkoaren ideia osatzen duen aldetik, zeren alde horretarik mugatua dela errana baita. Eta, beraz, Jainkoaren ideia osatzen ez duen aldetik eginen du pentsamenduak, baina hau *(11. Prop. arab.)* nahitaez existitu behar da. Bada, beraz, Jainkoaren ideia osatzen ez duen pentsamendurik eta horregatik, Haren pentsamendua absolutua den bezainbatean, Haren izaerari ez darraio nahitaez Jainkoaren ideiarik (alabaina, aldi berean, Jainkoaren ideia osatzen eta ez osatzen bezala ulertzen da). Eta hau hipotesiaren aurka doa. Horra zertako Jainkoaren ideia pentsamenduan, nahiz beste edozer gauza (zernahi hartzea berdin da, demonstrazioa orokorra baita), Haren atributu baten izaera absolutuaren beharrezkotasunetik baldin badator, gauza hori baitezpada mugagabea izan behar da. Horra lehen puntua.
Bestalde, atributu baten izaeraren beharrezkotasunetik datorrenak ezin du ukan existentzia edo iraupen determinaturik. Ezen, hori ukatzen baldin baduzu, demagun edozein atributuren izaeraren beharrezkotasunetik datorren zerbait aurkitzen dela Jainkoaren atributu baten baitan -adibidez Jainkoaren ideia pentsamenduan- eta gauza hori ez dela noizbait existitu edo ez dela existituko noizbait. Eta bizkitartean, pentsamendua Jainkoaren atributua dela onartzen baita *(11. Prop. eta 2O. Prop. 2. Korol. arab.)*, baitezpada existitu behar da, eta aldaketarik gabe. Eta, beraz, Jainkoaren ideiaren iraupenaren haraindian -onartu denaz geroz noizbait ez dela existitu edo ez dela existituko noizbait- Jainkoaren ideiarik gabe existitu beharko du pentsamenduak. Hori, ordea, hipotesiaren aurka doa; ezen onartzen da, pentsamendua emanez geroz, nahitaez hortik datorrela Jainkoaren ideia.

Eta, ondorioz, Jainkoaren ideiak pentsamenduan, nahiz beste edozein gauzak, Jainkoaren atributu baten izaera absolututik baitezpada datorrenak, ezin du iraupen mugaturik izan; baina atributu horren bertutez betiereko gauza da. Horra bigarren puntua.

Ohar zaitez hori bera baieztatu behar dela Jainkoaren atributu baten baitan Jainkoaren izaera absolututik baitezpada datorren edozein gauzari buruz.

XXII. Proposizioa

*Jainkoaren zerbait atribututarik datorren edozein gauza, hartaz baitezpada eta mugagaberik existitzen den aldaketa batek aldatzen duen bezainbatean, baitezpada existitu behar da eta mugagabea izan.*

Demonstrazioa

Proposizio horren demonstrazioa aitzineko Demonstrazioaren bide beretik egiten da.

XXIII. Proposizioa

*Edozein modu baitezpada existitzen dena eta mugagabea dena, baitezpada jarraiki behar izan zaio edo Jainkoaren zerbait atributuren izaera absolutuari edo nahitaez existitzen den eta mugagabea den aldaketa batek aldatzen duen zerbait atributuri.*

Demonstrazioa

Modua, alabaina, beste izate baten baitan existitzen da, zeinen bitartez baita ulertu behar *(5. Def. arab.)*, erran nahi baita *(15. Prop. arab.)*, Jainkoa baitan soilik existitzen dela eta Haren bitartez baizik ez dela ulertzen. Modu bat, beraz, pentsatzen baldin bada baitezpada existitzen dela eta mugagabea dela, bi propietate hauek Jainkoaren atributu batetarik nahitaez konkluditu edo hauteman behar dira, atributu horrek adierazten duen bezainbatean existitzearen baitezpadakotasuna eta mugagabetasuna, hots, *(berdin baita 8. Def. arab.)* betierekotasuna; erran nahi da *(6. Def. eta 19. Prop. arab.)*, atributu hura absolutuki hartzen den bezainbatean. Edozein modu, beraz, nahitaez existitzen dena eta mugagabea dena, absolutuki hartu den Jainkoaren atributu baten izaerari jarraiki behar izan zaio; eta hori izan da edo zuzenean *(21. Prop. bezala)* edo izaera absolutu horri darraion aldaketa zerbaiten bitartez, erran nahi baita *(aitzin. Prop. arab.)* nahitaez existitzen den eta mugagabea den aldaketaren bitartez. H.B.D.B.

XXIV. Proposizioa

*Jainkoak ekoizten dituen gauzen esentziak ez du existentziarik barne hartzen.*

Demonstrazioa

Hori nabari da 1. Definiziotik, zeren eta gauza baten izaerak -bere baitan ikusten den aldetik- bere existentzia barne hartzen baldin badu, berebaitako kausa da eta bere izaeraren ezinbeste soilaz existitzen da.

Korolarioa

Hortik dator Jainkoa ez dela bakarrik gauzak izaten hasteko kausa, baina bai izaten iraun dezaten kausa ere edo -Eskolastikoen hitzak erabiltzeko- gauzen izateko arrazoia.

Zeren eta gauzak existitzen baldin badira edo berdin ez badira existitzen, haien esentziari behatzen diogun aldi oroz ohartzen gara ez duela horrek ez existentziarik ez iraupenik barne hartzen; eta, beraz, delako gauzen esentzia ez da haien existentziaren ez haien iraupenaren kausa izaten ahal, baina Jainkoa bakarrik, Honen izaerari baizik ez baitagokio existitzea *(14. Prop. 1. Korol. arab.)*.

XXV. Proposizioa

*Jainkoa ez da bakarrik gauzen existentziaren kausa arazlea, baina bai haien esentziarena ere.*

Demonstrazioa

Ukatzen baldin baduzu, Jainkoa ez da, beraz, gauzen esentziaren kausa; eta horrela *(4. Axiom.arab.)* Jainkorik gabe ulertzen ahal da gauzen esentzia; baina hori *(15. Prop. arab.)* absurdua da; Jainkoa da, beraz, gauza guztien esentziaren kausa ere. H.B.D.B.

Eskolioa

Proposizio hori argiago darraio oraino 16. Proposizioari. Honetatik dator, alabaina, Jainkoaren izaera emanez geroz, gauzen esentzia nola haien existentzia nahitaez badatozela; eta hitz batez errateko, Jainkoa bere baitako kausa deitzen dugun bezainbatean, gauza guztien kausa ere deitu behar dugu, argiago oraino ageriko den bezala ondoko Korolarioan.

Korolarioa

Deus ez dira gauza bereziak, Jainkoaren atributuen afekzioak edo, bestela errateko, moduak baizik; modu horien bitartez Jainkoaren atributuak era zehatz eta jakin batez baitira agertzen. Demonstrazioa argi nabari da 15. Proposiziotik eta 5. Definiziotik.

XXVI. Proposizioa

*Gauza bat determinatua delarik zerbaiten egitera, Jainkoak determinatu izan du baitezpada; eta Jainkoak determinatzen ez duen gauza batek ez dezake bere burua determina edozer egitera.*

Demonstrazioa

Gauza batzuen egitera determinatzen duen edozein gauza, nahitaez zerbait positibo da (berez nabari den bezala). Eta ondorioz *(25. eta 16. Prop. arab.),* Jainkoa da, bere izaeraren ezinbestez, gauza haren esentziaren nola existentziaren kausa erazlea; eta hau zen lehen puntua.

Eta hortik dator, argi eta garbi, proposizioaren bigarren puntua; zeren eta Jainkoak behartzen ez duen gauza batek bere burua bere baitarik behartzen ahal balu, proposizioaren lehen partea gezurra liteke, eta hori absurdua da, erakutsi dugun bezala.

XXVII. Proposizioa

*Jainkoak zerbaiten egitera determinatzen duen edozein gauzak ez du bere burua determinatugabea berez egiten ahal.*

Demonstrazioa

Proposizio hori 3. Axiomak argi uzten du.

XXVIII. Proposizioa

*Gauza berezi bakoitza, hots, mugatua den eta existentzia mugatua duen edozein gauza ez da existitzen ahal, ez eta ere zerbaiten egitera determinatua izaten ahal, non ez duen bera ere mugatua den eta existentzia mugatua duen beste kausa batek existitzera eta egitera determinatzen. Eta kausa hau, berriz, ez da ere existitzen ahal ez zerbaiten egitera determinatzen ahal, non ez duen bera ere existitzera eta zerbaiten egitera determinatzen mugatua den eta existentzia mugatua duen kausa batek, eta horrela azkenik gabe.*

Demonstrazioa

Existitzera eta zerbait egitera determinatua den edozein gauza Jainkoak du behartzen *(26. Prop. eta 24. Prop. Korol. arab.);* baina mugatua den eta existentzia mugatua duen gauza ez du Jainkoaren atributu baten izaerak, absolutuki harturik, ekoiztu ahal izan, zeren eta, absolutuki harturik den Jainkoaren atributu baten izaeratik datorren edozein gauza mugagabea eta betierekoa baita *(21. Prop. arab.).*

Delako gauza hura, beraz, Jainkoaren berarenganik edo Honen atributu batetik, honek zerbait aldaketa izan duen bezainbatean, etorria da, zeren eta substantziaz eta moduez beste deusik ez da existitzen *(1. Axiom. eta 3. & 5. Def. arab.),* eta moduak *(25. Prop. Korol. arab.)* Jainkoaren atributuen afekzioak baizik ez dira. Gauza hura, ordea, ez da etorri ahal izan ez Jainkoarenganik ez Honen atributu batetik, hau mugagabea eta betierekoa den aldaketa batek aldatzen duen bezainbatean *(22. Prop. arab.).* Ondorioz, etorri behar izan da Jainkoarenganik edo existitzera eta ondorio zerbait ekoiztera Jainkoak berak eta Honen atributu edozeinek, hau aldaketa mugatu eta existentzia

mugatu batek aldatzen duen bezainbatean, determinatu izan du. Hori baitzen lehen puntua.

Gero, bada, kausa edo modu hori *(lehen puntua demonstratzeko erabili den arrazoi berarengatik)* determinatu izan du bere aldian beste batek, hau ere mugatua izan baita eta existentzia mugatua baitzuen; eta azken hau, berriz *(arrazoi berarengatik)* beste batek; eta horrela, azkenik gabe *(beti arrazoi berarengatik). H.B.D.B.*

Eskolioa

Nola zenbait gauza Jainkoak zuzenean ekoiztu behar izan baititu, hala nola Haren izaeratik, absolutuki harturik, baitezpada datozenak, eta lehen horien bitartez beste batzuk, ez dira hauek ere Jainkorik gabe ez izaten ahal ez pentsatzen ahal.

Hortik dator lehenbizikorik, Jainkoa dela absolutuki Berak zuzenean ekoizten dituen gauzen kausa hurbilekoa, baina ez bere generoan, erraten den bezala; zeren eta Jainkoaren ondorioak beren kausa gabe ez dira ez izaten ahal ez pentsatzen ahal *(15. Prop. eta 24. Prop. Korol. arab.).*

Hortik dator bigarrenekorik, Jainkoa ez dela propioki deitzen ahal gauza berezien kausa urrunekoa, non ez den haien bereizteko berak zuzenean ekoizten dituenetarik edo, izatekotz, Haren izaeratik, absolutuki harturik, datozenetarik; ezen, kausa urrunekoa deitzen dugu bere ondorioari nehondik ere lotua ez dena. Eta izaten diren gauza guztiak Jainkoa baitan dira izaten eta Jainkoari loturik daude halako gisaz, non Hura gabe ez baitira ez izaten ez pentsatzen ahal.

XXIX. Proposizioa

*Ez da deus kontingenterik aurkitzen gauzen izaeran, baina gauza guztiak Jainko izaeraren ezinbesteak determinatzen ditu modu zehatz batean existitzera eta ekitera.*

Demonstrazioa

Diren gauza guztiak Jainkoa baitan izaten dira *(15. Prop. arab.).* Jainkoa, bada, ez dugu kontingentea deitzen ahal, zeren *(11. Prop. arab.)* nahitaez existitzen baita eta ez kontingenteki.

Jainko izaeraren moduak ere berdin izaera beretik nahitaez datoz eta ez kontingenteki *(16. Prop. arab.),* nahiz Jainkoaren izaera absolutuki hartu delarik *(21. Prop. arab.),* nahiz modu zehatz batean ekitera determinatua izan delarik *(27. Prop. arab.).*

Jainkoa, ordea, ez da modu horien kausa, existitzen diren aldetik bakarrik *(24. Prop. Korol. arab.),* baina bai ere *(26. Prop. arab.)* zerbait ondorio ekoiztera determinatuak diren aldetik. Zeren eta Jainkoak ez baldin baditu determinatzen, ezinezko da eta ez kontingente berek beren burua determinatzea *(Prop. ber. arab.).* Jainkoak, aldiz, determinatzen baldin baditu, ezinezko da eta ez kontingente *(27. Prop. arab.)* berek beren burua determinatugabea bihurtzea. Horra zergatik Jainko izaeraren ezinbestekotasunak behartzen dituen gauza guztiak, ez bakarrik existitzera, baina bai ere modu zehatz batean existitzera eta ekitera eta ez da deus kontingenterik izaten. H.B.D.B.

Eskolioa

Urrunago joan baino lehen, nahi dut hemen adierazi, edo bederen ohartarazi, zer deitzen dugun Natura sortzailea eta zer deitzen dugun Natura sortua.

Ezen iduritzen zait jadanik erranetarik argi dela, nola Natura sortzaileak adierazten duen guretzat bere baitan izaten den eta bere baitarik ulertzen den zerbait; edo, bestela errateko, esentzia mugagabea eta betierekoa adierazten duten substantziaren atributuak; edo oraino *(14. Prop. 1. Korol. eta 17. Prop. 2. Korol. arab.)* Jainkoa bera, kausa libre bezala hartzen den bezainbatean.

Natura sortua, berriz, deitzen dut Jainkoaren izaeraren beharrezkotasunetik edo Jainkoaren atributu bakoitzetik datorren edozein gauza, erran nahi da Jainkoaren

atributuen modu guztiak, Jainkoa baitan diren eta Jainkorik gabe ez izaten ahal ez ulertzen ahal ez diren gauza bezala hartzen diren bezainbatean.

XXX. Proposizioa

*Aktuan dagoen adimenak, mugatua izan ala ez, barne hartu behar ditu Jainkoaren atributuak eta Jainkoaren afekzioak; eta beste deusik ez.*

Demonstrazioa

Ideia zeren gainean izan, harekin bat etorri behar du egiazkoa izan dadin *(6. Axiom. arab.)*, erran nahi baita *(berez argi den bezala)*, adimenaren baitan objektiboki aurkitzen dena aurkitu behar dela baitezpada izadian. Izadian, ordea, *(14. Prop. 1. Korol. arab.)* substantzia bakar bat baizik ez da aurkitzen, hots, Jainkoa. Eta ez da beste afekziorik *(15. Prop. arab.)* Jainkoaren baitan direnak eta *(Prop. ber. arab.)* Jainkoa gabe ez izaten ez ulertzen ahal ez direnak baizik.

Horra zergatik adimenak, aktuan nahiz mugatua izan nahiz mugagabea, barne hartu behar dituen Jainkoaren atributuak eta Jainkoaren afekzioak, eta beste deusik ez. H.B.D.B.

XXXI. Proposizioa

*Aktuan nahiz mugatua nahiz mugarik gabea den adimena, bai eta ere nahimena, desira, maitasuna edo beste horrelakoak Natura sortuari dagozkio eta ez Natura sortzaileari.*

Demonstrazioa

Adimena deitzen dugu, alabaina, (berez argi den bezala) ez pentsamendu absolutua, baina bai pentsatzeko modu berezi bat, maitasunaz, gurariaz, eta beste batzuez bestelakoa eta horrengatik *(5. Def. arab.)* pentsamendu absolutuaren bitartez ulertu behar dena.

Pentsamenduaren esentzia mugagabea eta betierekoa adierazten duen Jainkoaren atributu baten bitartez ulertu behar dela erran dut *(15. Prop. eta 6. Def. arab.)*, eta hori izan behar da, atributu hura gabe ezin delako ez izan ez pentsa eta horrengatik *(29. Prop. Eskol. arab.)* pentsamenduaren beste moduak bezala, adimena ere Natura sortuari, eta ez Natura sortzaileari, dagokio. H.B.D.B.

Eskolioa

Aktuan den adimenaz hitz egitean hemen, ez dut horrengatik potentziazko zerbait adimen onartzen, baina nahi dut nahasketa oro baztertu eta, beraz, mintzo naiz bakarrik denok ongi ezagutzen dugun gauza batez, hots, adimenaz beraz, hura baita guztiok hobekienik ezagutzen dugun zerbait. Ezen, ez dugu deus ezagutzen ahal, adimenaren hobeki ezagutzera eramaten gaituena baino.

XXXII. Proposizioa

*Nahimena ez da deitzen ahal kausa librea, kausa nahitaezkoa baizik.*

Demonstrazioa

Nahimena pentsatzeko modu zehatz bat besterik ez da, adimena bezala; eta horrela *(28. Prop. arab.)* nahi izate bakoitza ez da ez existitzen ahal ez ekitera heltzen ahal, non ez duen beste kausa batek horretara behartzen eta kausa hori, berriz, bere aldian, beste batek; eta horrela, azkenik gabe.

Eta mugagabeko nahimena ematen baldin bada, Jainkoak behar du hori ere determinatu existitzera eta ekitera erakarri; ez, ordea, substantzia absolutuki mugagabea den aldetik; pentsamenduaren esentzia absolutu eta betierekoa adierazten duen atributu bat substantziari dagokion aldetik baizik *(23. Prop. arab.)*.

Nolanahi pentsaturik ere, beraz, nahiz mugatua izan nahiz mugarik gabea, nahimenak kausa bat eskatzen du, gisa oroz, honek determina dezan bai existitzera bai ekitera. Horra zergatik *(7. Def. arab.)* ez dugun kausa librea deitzen ahal, kausa determinatua eta nahitaezkoa baizik. H.B.D.B.

I. Korolarioa

Hortik dator lehenbizikorik, Jainkoak ez diharduela nahimen librearen bitartez.
II. Korolarioa
Hortik dator bigarrenekorik, Jainkoaren izaerarekin adimenak eta nahimenak izatea, mugimenduak, gelditasunak eta *(29. Prop. arab.)* existitzeko eta modu zehatz batez ekiteko Jainkoak determinatzen dituen berezko gauza guztiek dituzten harreman berak.
Zeren eta nahimenak, beste gauza guztiek bezala, existitzera eta modu zehatz batez ekitera behartzen duen kausa bat behar du. Eta nahiz adimen edo nahimen jakin batenganik datozen gauzak kontaezinak diren, ez dugu horrengatik erranen nahimen librearen bitartez diharduela Jainkoak; ezen ez da ere erraten mugimendutik eta gelditasunetik ondorio asko datorrelako (kontaezinak dira, bada, ondorio horiek) mugimenduaren eta gelditasunaren bitartez libreki diharduela Jainkoak.
Ez dagokio, beraz, nahimena Jainkoaren izaerari, izadiaren beste gauzak baino gehiago; baina mugimenduak edo gelditasunak eta, demonstratu dugun bezala, Jainko izaeraren ezinbestekotasunetik datozen beste gauza guztiek eta horrek existitzera eta modu zehatz batean ekitera behartuek dituzten harreman berberak ditu Harekin nahimenak.
XXXIII. Proposizioa
*Jainkoak ekoiztu dituen gauzak, egin dituen moduan eta ordenan baizik ez zituen ekoizten ahal.*
Demonstrazioa
Jainkoaren izaera emanez geroz, hortik datoz gauza guztiak baitezpada *(16. Prop. arab.)*, eta Jainkoaren izaeraren ezinbesteak determinatuak dira modu zehatz batean existitzera eta ekitera *(29. Prop. arab.)*. Eta, beraz, beste izaera bateko gauzak existitzen ahal balira edo beste modu batez ekitera determinatzen ahal balira izadiaren ordena aldatzeko gisan, orduan, Jainkoaren izaera ere orain denaz bestelakoa izaten ahal liteke; eta, ondorioz, *(11. Prop. arab.)* beste izaera horrek ere existitu behar luke; eta, orduan, bi Jainko edo gehiago izaten ahal litezke; baina hori *(14. Prop. 1. Korol. arab.)* absurdua da. Horra zergatik Jainkoak ez dituen gauzak ez beste moduz ez beste ordenan ekoiztu ahal izan, etabar. H.B.D.B.
I. Eskolioa
Eguerdiko argia baino argiago erakutsi ondoan ez ditugula zeren nehondik ere gauzak kontingente deitu nahi dut orain apur bat argitu zer adierazten dugun *Kontingente* hitzarekin; baina lehenik ikusiko dugu zer den *Ezinbestekoa* eta zer *Ezinezkoa*.
Gauza bat *Ezinbesteko* deitzen da edo bere esentziarengatik edo bere kausarengatik; zeren eta edozein gauzaren existentzia edo haren esentziatik eta definiziotik edo kausa erazle bat izatetik baitator nahitaez.
Arrazoi berengatik, beste edozein gauza deitzen da *Ezinezko*; zeren edo haren esentziak eta definizioak zerbait kontraesan barne hartzen baitu bere baitan edo nehongo kausarik ez baita aurkitzen kanpotik gauza horren ekoiztera determinatua denik.
Gauza baten deitzeko *Kontingente*, ordea, ez da nehongo beste arrazoirik gure jakitate eskasa baizik; zeren gauza baten gainetik edo ez baldin badakigu kontraesan bat hartzen duela haren esentziak edo ongi baldin badakigu ez duela nehongo kontraesanik edukitzen, baina kausen ordena ezagutzen ez dugulako ez badugu haren existentziaz deus ziurrik baieztatzen ahal, ez zaigu nehoiz gauza hori ez ezinbesteko ez ezinezko idurituko eta horrengatik deituko dugu *kontingente* edo *ahalezko*.
II. Eskolioa
Erran dugunaren arabera argi ageri da ezin hobeki ekoiztu dituela Jainkoak gauza guztiak, hobezinezko izaera batenganik baitatoz, nahitaez, hauek. Eta ez dio horrek neholako itzalik egozten Jainkoari, Haren betegintzarreak berak baikaitu hertsatzen horren baieztatzera. Kontrako baieztapenak lekarke, gainera (oraintxe erakutsi dugun bezala) Jainkoa ez izatea osoki hobezina. Gauzak bestela eginak izan balira, alabaina,

beste izaera mota bat eratxiki behar genioke Jainkoari, Izate osoki hobezinaren gogoratzeak emanarazten diogunaz bestelakoa.
Badakit ongi, ordea, anitzek baztertuko dutela ikuspegi hau gauza absurdu bat bezala eta ez dutela nahiko aztertu ere. Eta hori arrazoi soil honengatik: ohituak baitira Jainkoaren baitan asmatzen libertate bat guk *(7. Def. arab.)* definitu dugunaz guztiz bestelakoa, hots, nahimen absolutua.
Badakit ere ongi, nahi baldin badute hausnarketa apur bat egin eta gure demonstrazioen ildoa zintzoki aztertu, uko eginen diotela osoki Jainkoaren baitan asmatzen duten libertate mota horri; ez bakarrik haurkeria bati bezala baina zientziarentzat eragozpen nagusi bat den zerbaiti bezala. Eta ez da hemen *17. Proposizioaren Eskolioan* erran ditugunen errepikatzerik.
Haien fagoretan, bizkitartean, demonstratuko dut oraino nola, Jainkoaren esentziari nahimena dagokiola onarturik ere, Haren betegintzarretik datorren Jainkoak kreatu gauza guztiak ez zituela beste modu batez ez beste ordena batean kreatzen ahal.
Eta hori erraz izanen da demonstratzea, gogoan atxikitzen baldin badugu lehenik -berek onartzen dutena- hots, Jainkoaren erabaki soilari eta Haren nahi hutsari dagokiola, izatea duen edozein gauza, den hura bera izatea. Ezen, bestela izaten balitz, Jainkoa ez litzateke gauza guztien kausa.
Onartzen dute ere bigarrenekorik Jainkoaren erabaki guztiak betieretik hartuak dituela Jainkoak berak, zeren eta bestela izaten balitz, Jainkoaren gain eman genezake zerbait hutsune eta zerbait aldakortasun. Betierean, ordea, ez da ez *noiz*-ik, ez *lehen*-ik, ez *gero*-rik.
Hortik dator, beraz, erran nahi da Jainkoaren betegintzarre soiletik, Jainkoak ezin duela eta ezin zuela behinere beste erabakirik har; edo, bestela errateko ez dela Jainkorik izan bere erabakiak baino lehen, ez izaten ahal ere haiek gabe.
Ihardetsiko digute, onar bageneza ere gauzen izaera ezberdina egin duela Jainkoak edo Izadiaz eta haren ordenaz beste erabakirik hartu duela Berak betieretik, ez liokeela horrek itzalik ekar Jainkoari. Baina hori erratearekin onartzen dute Jainkoak bere erabakiak alda ditzakeela; zeren eta Izadiaz eta haren ordenaz erabaki duenaz besterik erabaki balu Jainkoak, hots, Izadiaz beste zerbait pentsatu eta nahi izan balu, nahitaez, orai duen adimenaz bestelako bat eta orai duen nahimenaz bestelako bat izanen zituen.
Eta Jainkoa baitan bestelako adimen bat eta bestelako nahimen bat onartzen ahal baldin badugu Haren esentziari eta betegintzarreari deus aldatu gabe, zergatik bada ez lituzke orain bere kreaturez hartuak dituen erabakiak aldatzen ahal bere betegintzarrea batere hunkitu gabe? Ezen, edozein modutan pentsaturik ere, Haren adimenak eta Haren nahimenak harreman berak dauzkate gauza kreatuen eta haien ordenaren gainetik Haren esentziarekin eta Haren betegintzarrearekin.
Bestalde Filosofo guztiek -nik dakidala- aitortzen dute ez dela aurkitzen Jainkoaren baitan aktuan dagoen adimena baizik eta ez beste adimen potentziazkorik. Eta beraz, Haren adimena eta Haren nahimena ez baldin badira bereizten Haren esentziatik -hori ere denek onartzen baitute- hortik dator ere Jainkoak izan balu aktuan beste adimen bat eta beste nahimen bat, izanen zuela, nahitaez, beste esentzia bat. Eta ondorioz -hastetik erran bezala- orain ez diren bezala ekoiztu balitu Jainkoak gauza guztiak, Jainkoaren adimena eta Honen nahimena, hau da, Honen esentzia orain ez bezalakoak izan beharko zuten, eta hori absurdua da.
Nola, beraz, Jainkoak ez dituen gauzak egin ahal izan ez beste modu batez ez beste ordena batean eta nola egia hori Jainkoaren betegintzarre nagusitik datorren ez da nehongo arrazoi funtsezkorik sinetsaraziko digunik Jainkoak ez dituela bere adimenean dauzkan gauza guztiak kreatu nahi izan bere adimen horrek pentsatzen dituen bezain beteginak.

Ihardetsiko digute, bada, ez dela gauzen baitan ez perfekziorik ez inperfekziorik eta Jainkoaren nahi soilari dagokiola gauzak beteginak edo huts eginak eta onak edo txarrak deitzea eta, beraz, Jainkoak nahi izan balu egin zezakeela orai betegina dena guziz huts egina izatea, eta *alderantziz* .

Baina ez ote da hori garbiki aitortzea Jainkoak, badakielarik nahitaez zer nahi duen, egin dezakeela bere gogara gauzak ulertzen ez dituen bezala ulertzea? Baina hori guztiz absurdua da, oraintxe erakutsi dugun bezala.

Beren argumentua, beraz, bihurtzen ahal diegu honela: Jainkoaren esku daude gauza guztiak; gauzak bestela ibil daitezen Jainkoaren nahimenak ere behar luke baitezpada bestelakoa izan. Jainkoaren nahimena, ordea, ez da bestelakoa izaten ahal (hemen berean argi demonstratu baitugu Jainkoaren betegintzarreagatik). Ondorioz, gauzak ere ez dira bestela izaten ahal.

Aitortzen dut gauza guztiak Jainkoaren halako nahimen ezazol baten mende eta guztiak Haren baimenaren gomendio uzten dituen aburu hau ez doala hain oker nola baitoa Jainkoak gauza guztiak ongiarengatik egiten dituela diotenen iritzia. Azken hauek ezen iduri dute Jainkoaz beste zerbait onartzen dutela: Jainkoaren esku ez dena eta Jainkoak bere ekintzetan eredutzat edo helburutzat hartzen duena. Eta hori Jainkoa Halabeharraren mende ezartzea baizik ez da; ez baita Jainkoari buruz deus absurduagorik asmatzen ahal gauza guztien existentziaren eta esentziaren kausa libre lehena eta bakarra Hura dela erakutsi dugunaz geroz. Ez dugu zeren denborarik gal horrelako aburu absurduari ihardokitzen.

XXXIV. Proposizioa

*Jainkoaren ahalmena Haren esentzia bera da.*

Demonstrazioa

Jainkoaren esentziaren ezinbestekotasunetik beretik dator Jainkoa izatea berebaitako kausa *(11. Prop. arab.)*, eta ere *(16. Prop. eta horren Korol. arab.)* gauza guztien kausa. Ondorioz, Jainkoa bera eta gauza guztiak izanarazten eta eragiten dituen Jainkoaren ahalmena Haren esentzia bera da. H.B.D.B.

XXXV. Proposizioa

*Jainkoaren ahalmenean dagoela pentsatzen dugun guztia baitezpada existitzen da.*

Demonstrazioa

Jainkoaren ahalmenean dagoen guztia, alabaina, *(aitzin. Prop. arab.)* Haren esentziaren baitan aurkitu behar da hortik, nahitaez, etortzeko gisan eta horrengatik, nahitaez, existitzen da. H.B.D.B.

XXXVI. Proposizioa

*Ez da deus existitzen, non ez duen haren izaerak zerbait ondorio ekoizten.*

Demonstrazioa

Existitzen den edozein gauzak Jainkoaren izaera edo esentzia adierazten du, modu zehatz eta determinatuan *(25. Prop. Korol. arab.)* edo, bestela errateko, *(34. Prop. arab.)* existitzen den edozein gauzak adierazten du Jainkoaren ahalmena, modu zehatz eta determinatu batean gauza guztien kausa dena; eta horrengatik *(16. Prop. arab.)* zerbait ondorio etorri behar da hortik. H.B.D.B.

Eranskina

Orainokoan Jainkoaren izaera eta Haren propietateak azaldu ditut; hala nola existitzen dela ezinbestela; bakarra dela; bere izaeraren ezinbeste soilaz badela eta diharduela; gauza guztien kausa librea dela, eta nola den horrelakoa; Jainkoa baitan direla gauza guztiak; eta hainbestetaraino Haren esku direla, non ez baita deusik ez izaten ahal ez ulertzen ahal Hura gabe; eta, azkenean, Jainkoak dituela aitzinetik determinatuak gauza guztiak, ez, ordea, bere nahimen librearen edo bere guraria absolutuaren arabera, bere Jainko izaera absolutuaren edo, bestela errateko, bere ahalmen mugagabearen ondorioz baizik.

Arta hartu dut bestalde, ahal nuen aldi guztiez, ene demonstrazioak eragotz zitzaketen aurreiritziak baztertzeko; baina aurreiritzi asko gelditzen baita lehen bezala orain ere,

nik erakutsi bezala, gauzen arteko lotura ulertzea eragotz dezakeenik, iduritu zait merezi zuela aurreitzi horien arrazoiaren ongi aztertzea.
Hemen aipatzen ditudan aurreiritzi guztiak iturri bakar beretik datoz, hots, denek sinetsi ohi baitute gauza guztiek, gizakiek berek bezala, zerbait xederi buruz dihardutela.
Eta gainera, ziurtzat daukate Jainkoak berak helburu jakin bati buruz daramatzala gauza guztiak; ezen erraten dute Jainkoak gizakiarengatik egin dituela gauza guztiak eta gizakia egin duela Jainkoa bera ohora dezan. Aurreiritzi soil hori dut, beraz, aztertuko bakarrik behin; bilatzen dudala *lehenik* zer kausaz onartzen duten gehienek delako aurreiritzia eta zergatik ekarriak diren guztiak naturalki huts horretan erortzera. *Bigarrenekorik* adieraziko dut aurreiritzia ez dela zuzena. Eta, *azkenik* erakutsiko dut nola hortik sortzen diren beste aurreiritziak *ongiaz* eta *gaizkiaz*, *merezimenduaz* eta *bekatuaz*, *goresmenaz* eta *gaitzespenaz*, *ordenaz* eta *nahasketaz*, *edertasunaz* eta *itsustasunaz* eta horrelako beste batzuez.
Ez dut, ordea, xederik horien guztien hemen argitzeko giza izpirituaren izaeraren bitartez. Askiko zait, behin bederen, guztiek aitortu behar duten egia bat oinarritzat hartzea; hots, gizaki guztiak sortzen direla gauzen kausak zer diren batere jakin gabe eta berentzat baliagarri dena dutela nahi bilatu eta hori badakitela. Hortik dator bada: Lehenbizikorik, gizakiak libre direla uste izatea; beren nahi izateak eta beren desirak sendi dituzte, baina nahi izateko eta desiratzeko kausak ez dituzte ezagutzen eta ez dute ametsetarik ere haiei pentsatzen.
Bigarrenekorik, gizakiek beti helburu batengatik ihardutea, hots, desiratzen duten zerbait baliagarrirengatik aritzea; horra zergatik beti saiatzen diren gertatu gauzen xedezko kausak eta haiek bakarrik jakiten; eta hauek aurkitu orduko lasai daude, ez baitute gehiago kezkatzeko batere arrazoirik. Eta kausa horien berri ez baldin badie norbaitek ematen ahal, berak ekintza berdintsuak egitera zer xedek deliberatzen ohi dituen gogoratzeko ez zaie besterik gelditzen beren buruak galdezkatzea baizik eta, nahitaez, beren jeinu propioaren arabera besteen jeinuaren asmatzea.
Eta gainera baliagarri zaiena nasaiki erdiesteko baliabide asko aurkitzen baitute beren baitan ala besteen baitan, hala nola begiak ikusteko, haginak marruskatzeko, belarrak eta abereak jateko, eguzkia argitzeko, itsasoa arrainen hazteko, eta horrela; orduan gertatzen da Izadiko izaki guztiak baliogarri zaienaren erdiesteko bitarteko bezala ikusten dituztela. Baina, bestalde, baitakite aurkitu dituzten bitarteko horiek ez dituztela berek paratu, bitarteko delakoak haien esku ezarri dituen beste norbait badagoela sinesteko kausa atera dute hortik.
Gauza guztiak, alabaina, baliabidetzat hartu ondoan ez dute pentsatu ahal izan gauza horiek beren baitarik eginak izan direla, baina berek berentzat erabili ohi dituzten bitartekoen arabera asmatu dute Izadiaren zuzendari bat edo batzuk badirela, gizakiak iduriak, libre direnak, gizakien behar guztiez arta dutenak eta gauza guztiak haiek erabiltzeko egin dituztenak. Baina zuzendari horien izaeraz behinere deusik ez entzunik, berenaren arabera asmatu behar izan dute eta horrela erabaki dute Jainkoek gizakien onerako zuzentzen dituztela gauza guztiak, gizakiek handizki ohora ditzaten eta gizakiak haiei atxikiak izan daitezen.
Bakoitzak beretik asmatuz gertatu da, beraz, Jainkoaren ohoratzeko modu asko asmatu izan dela, norbera besteak baino gehiago Hark maitatzeko eta Hark Izadia osoa gizakien desira itsuen eta zekenkeria ezinasearen arabera bideratzea erdiesteko gisan. Eta horrela aurreiritzi hura sineskeria bihurtu da eta barna sartu ditu erroak gogo-bihotzetan; hori dela kausa, eginahalak egiten baititu bakoitzak gauza guztien xedezko kausak ulertzeko eta argitzeko. Baina, gizakiek erakutsi nahi izan dutelarik Naturak ez duela deusik debaldetan egiten -hots, deusik gizakien onerako ez denik- iduri luke ez dutela besterik

erakutsi gizakiak bezain eroak direla Natura eta Jainkoak baizik. Ikus, bada, otoi, zertaratuak diren!

Naturak eskaintzen dituen gauza baliagarri guztien artetik, kaltegarri asko aurkitu behar izan dute, hala nola ekaitzak, lurikarak, eritasunak eta holako, eta erabaki dute horiek guztiak gertatzen direla Jainkoak hasarre direlako, Haiei gizakiek egin laidoengatik edo Haiek ohoratzean egin bekatuengatik; eta nahiz horren aurka doan eguneroko esperientzia eta honek kontaezinezko adibideak ematen dizkigun erakutsiz gertakari baliagarriak eta kaltegarriak berdin erortzen direla, bereizkuntzarik gabe, jainkotiarren eta jainkogabeen gainera, ez diote horrengatik uko egin nahi izan beren aurreiritzi zaharkituari.

Erosoago iduritu zaie, nola erabili ez dakizkiten beste gauza ezezagunen lerroan datu horren sartzea eta, horrela, beren sortzeko eta gaurko ezjakintasunean gelditzea ezenez eta beren antolamendu guztiaren desegitea eta berri baten eraikitzea. Ziurtzat hartu izan dute, beraz, Jainkoen judizioek gainditzen dutela urrundik gizakien ulermena; eta kausa hori bera askiko zen egiaren ezjakinean uzteko gizaki guztiak, sekulako, Matematikak ez balie haiei erakutsi beste egiabide bat, ez xedeez baina bai esentziez eta itxuren propietateez arduratzen dena.

Eta Matematikaz bestalde, beste bide batzuk ere aurki daitezke -hemen haien bederazka aipatzea ez baitu balio- haiei esker beren aurreiritzi arruntak ikusi ahal izan baitituzte eta gauzen ezagutza egiazkora heldu izan baitira. Eta aski argitu dut horrela lehen puntuan hitzemana.

Oraikoan, berriz, erakusteko Naturak ez daukala xederik aitzinetik finkaturik eta gauzen xedezko kausak gizakien asmakizun batzuk baizik ez direla, ez da ele anitzen beharrik. Ezen, uste dut gauza hori aski argi finkatu dudala oinarrietarik eta arrazoietarik, bai aurreiritzi horrek non duen bere sorgia erakutsiz, bai *16. Proposizioaren* eta *32. Proposizioaren Korolarioen* bitartez, bai eta ere izadiko gauza guztiak betiereko beharrezkotasunetik eta betegintzarre nagusitik datozela frogatzeko jadanik erran ditudan guztiez.

Hauxe erranen dut halere oraino: xedezko kausen doktrina horrek iraultzen duela osoki Izadia, zeren ondoriotzat hartzen baitu berez kausa den zerbait; bai eta alderantziz ere. Eta bestalde, berez aitzinean aurkitzen dena ondotik ezartzen du. Eta azkenekotz, gorena eta hobezina den zerbait guztiz huts egina du bihurtzen.

Lehen bi puntuak bazter utzi ondoan -berenaz argi direlako- *21. 22. eta 23. Proposizioek* erakusten dute ondoriorik bikainena dela Jainkoak arartekorik gabe ekoizten duena; zenbat eta ararteko kausa gehiago behar baitu gauza batek ekoizteko, hainbat eta eskasago izan behar du gauza hark. Jainkoak arartekorik gabe ekoiztu dituen gauzak, aldiz, eginak izan balira bere helburura hel zedin Jainkoa, orduan, nahitaez, kausa azkenekoak, zeinengatik lehenak eginak baitira, denetarik beteginenak litezke.

Doktrina horrek berak suntsitzen du, gainera, Jainkoaren betegintzarrea, zeren eta helburu batengatik baldin badihardu, eskas duen zerbaiten ondotik dabila ezinbestez Jainkoa. Nahiz bereizten dituzten "eskastasunezko helburua" eta "asimilaziozko helburua", Teologoek eta Metafisikariek aitortzen dute, halere, Jainkoak bere buruaren gatik egin dituela gauza guztiak eta ez kreatu dituen gauzen berengatik; zeren ez dute kreazioa baino lehen Jainkoaz beste deusik asmatzen ahal, zeinarengatik Jainkoak zerbait egin zukeen. Behartuak dira, beraz, aitortzera, nahitaez, Jainkoak zerbait eskas zuela, zerbait haren izateko bitartekoak paratu nahi izan dituenaz geroz eta zerbait hura desiratzen zuelako, berez argi den bezala.

Ez da hemen ahantzi behar doktrina horren aldekoek, beren talentua erakutsi nahi izan dutenek gauzen xedezko kausak bilatuz, beren irakaspenaren bermatzeko asmatu dutela argumentatze medio berri bat, argumentua bilduz ez ezinezkora baina, bai,

ezjakintasunera; horrek erakusten baitu ez zela haientzat beren doktrinaren alde argumentatzeko beste biderik.
Horrela adibidez, teilatu baten gainetik norbaiten buru gainera harri bat erori baldin bada eta nor hura hil baldin bada, gizonaren hiltzeko xedetan erori dela harria erakutsiko dute honelaxe: Ez baldin bada kausa horrengatik ez eta Jainkoaren nahiz erori harria, nola bada bildu dira zortez horrenbeste baldintza? -eta maiz anitz baldintza biltzen dira- Menturaz, erranen duzu, haizeak joiten zuelako eta gizona hortik iragan delako gertatu da.
Baina haiek berriz galdeginen dizute: Zergatik, bada, orduan jotzen zuen haizeak eta zergatik gizona hor iragan zen ordu berean?
Eta zuk berriz ihardesten baldin badiezu haizea jaiki dela, itsasoa bezperan hasia zelako harrotzen, nahiz aroa bare zen oraino; gizona, berriz, adiskide batek gonbidatua zuela.
Eta haiek, aldiz, beren galdeak ezin ixilduz: Zergatik harrotu ote zen itsasoa? Zergatik orduan gonbidatu ote zuten gizona?
Eta, horrela, kausen kausak bilatzetik ez dira geldituko Jainkoaren nahira ihesegiteraino, erran nahi baita ezjakintasunaren aterbera jo artino. Eta, orobat, giza soinaren egitura ikusten dutelarik, zoratzen dira eta antolaketa eder horren kausak ez baitakizkite, hortik ateratzen dute ez dela antze mekanikoz egina baina jainkozko edo naturazgaindiko antzez osatua dela alde batek beste baten ez zaurtzeko gisan.
Eta gertatzen da ere, norbaitek miragarrien kausa egiazkoak bilatzen baldin baditu eta izadiaren gauzak zoro batek bezala miresteko orde, jakintsun batek bezala ikertu nahi baldin baditu, maiz heretikotzat eta Jainkogabetzat hartzen eta salatzen dutela Naturaren eta Jainkoen jakile bezala herri xeheak agurtzen dituenek. Badakite hauek, alabaina, ezjakintasuna garaitzea dela zoramena suntsitzea, erran nahi baita berek argumentatzeko eta beren larderiaren zaintzeko duten baliabide bakarra galtzea. Baina bego horretan eta goazen aitzina aipatu nahi dudan hirugarren puntura.
Gogoari emanez geroz gertatzen diren guztiak haiengatik direla gertatzen, gizakiek uste izan dukete haientzat baliagarriena zela gauza guztietan garrantzitsuena eta haiek gehienik atsegin zutena zela ere denetarik hoberena. Hortik asmatu behar izan dituzte gauzen izaera adierazteko darabiltzaten adigaiak, hala nola *Ongia, Gaizkia, Ordena, Nahasketa, Beroa, Hotza, Ederra* eta *Itsusia;* eta beren buruak libre ikustearekin, hortik atera dituzte beste adigai hauek: *Goresmena* eta *Gaitzespena, Bekatua* eta *Merezimendua*; baina azken hauek urrunago zehaztuko ditut, giza izaera aztertu ondoan eta hemen laburki aipatuko ditut lehenbizikoak.
Gizakiek, beraz, deitu dute *Ongia* beren osasunaren alde eta Jainkoaren ohoretan doan edozein gauza; *Gaizkia,* berriz, kontrakoa dena.
Eta nola gauzen izaera ezagutzen ez dutenek eta gauzak irudikatzen baizik ez dituztenek ez baitute haietaz deus erraten ahal eta irudimena adimentzat hartzen baitute, horrengatik, beren izaera propioaz eta gauzen izaeraz deusik jakin gabe, *Ordena* badela gauzen baitan sinesten dute gogorki.
Eta, egiazki, gauzak jarriak direlarik gure sentsuen bitartez haien errazki irudikatzeko eta ondorioz erraz gogoratzeko gisan, gauzak ongi ordenatuak direla erraten dugu. Bestela, gaizki ordenatuak edo *Nahasiak* direla diogu. Eta nola errazki irudikatzen ditugun gauzak, besteak baino atseginago baitzaizkigu, gizakiek ordena nahiago dute nahasketa baino; Izadiaren ordena gure irudimenaz besterik balitz bezala.
Erraten dute oraino, Jainkoak ordenarekin kreatu dituela gauza guztiak eta, horrela, ohargabean, irudimena egozten diote Jainkoari; non ez duten adierazi nahi Jainkoak, gizakien irudimena gogoan harturik, gauza guztiak jarri dituela haiek errazkiago irudikatzeko gisan. Eta segur ez lezakete gibelera egin, ohartaraz bageniezaie ere kontaezinezko gauzak

badirela gure irudimena handizki gainditzen dutenak eta beste asko, berriz, bere ahuleziarengatik hura nahasten dutenak. Baina horretaz badugu aski erranik.

Beste adigaiak ere deus ez dira, irudimena hunkitzen duten irudikatzeko modu bereziak baizik eta bizkitartean ezjakinek uste dute gauzen atributu nagusiak direla; zeren, jadanik erran bezala, gauza guztiak haiengatik eginak izan direla uste baitute eta erraten baitute zerbaiten izaera ona dela edo txarra, sendoa edo ustela eta andeatua, gauza horrek haiek berak hunkitzen dituen neurrian. Adibidez gure begiek ikusten dituzten gauza batzuek osasunari dagokion mugimendu zerbait pizten baldin badute gure zainetan, orduan, gauza horiek deitzen ditugu *Ederrak*, eta kontrako mugimendua sortzen baldin badute, berriz, *Itsusiak*.

Sudurraren bitartez gure sentsuak hunkitzen dituzten gauzak, *Usain-onekoak* edo *Usain-txarrekoak* deitzen dira.

Mihiaren bitartez datozenak, aldiz, *Eztiak* edo *Kiratsak*, *Dasta-gozoak* edo *Dasta-gaitzak*.

Hunkiari dagozkionak *Gogorrak* dira edo *Guriak*, *Latzak* edo *Leunak*, eta horrela.

Azkenean, belarriak inarrosten dituzten gauzek, *Harrabotsa*, *Soinua* edo *Harmonia* egiten dutela erraten da eta horretaz hainbeste zoratu dira gizaki batzuk non sinetsi baitute Jainkoari berari atsegin zaiola delako harmonia. Eta badira ere Filosofo batzuk izarrarteko mugimenduek harmonia bat osatzen dutela uste dutenak.

Horiek guztiek erakusten dute, aski garbiki, bakoitzak ikusi dituela gauzak bere burumuinaren arabera edo, izatekotz, bakoitzak hartu dituela gauzen beren orde bere irudimenaren afekzioak. Horra zergatik ez den harrigarri -artetik errateko- horrenbeste eztabaida, ikusten den bezala, gizakien artean sortzea eta, hortik, azkenean, Eszeptizismoa nagusitzea.

Giza gorputzak, alabaina, asko aldetarik bat etorririk ere, beste puntu anitzetan ezberdinak dira eta, ondorioz, honi ona iduritzen zaiona beste haren arabera txarra da; batek ordenatua ikusten duena besteak iraulia aurkitzen du; eta horrelakoak atsegin daukana ez zaio laket halakoari; eta berdin gainerakoetan.

Baina ez dut luzatuko: batetik, ez delako hemen gauza horien luze eta zabal aztertzeko lekua eta bestetik, esperientziak aski argitua duelako bakoitza. Denen aho-mihitan dabiltza, alabaina, errran hauek: *Buru bezainbat aburu*; *Bakoitzak bere iritzia berma*; *Aho-sapaiak bezain ezberdin buru-muinak*. Erran-zahar horiek guztiek aski argi erakusten dute gizakiek beren buru-muinen arabera ulertzen dituztela gauzak eta ulertzen baino gehiago irudikatzen dituztela. Gauzak argi ezagut balitzate aski indar balukete -Matematikak lekuko- ez beharbada denen bereganatzeko, baina bai, bederen, haien konbentzitzeko.

Ikusten dugu horrela, Izadiaren esplikatzeko komunzki erabiltzen diren nozioak irudimenaren moduak besterik ez direla eta ez digutela deusen izaerarik ezagutarazten irudimenaren egitura baizik. Nola nozio horiek izenak baitituzte irudimenaz landa existitzen diren izateak izendatzeko, nik diot izaki horiek ez direla arrazoizko izakiak irudimenezkoak baizik; eta horrela, nozio haietarik gure aurka atera diren argumentu guztiei erraz zaigu ihardestea.

Anitzek, alabaina, argumentatu ohi digute honela: Jainkoaren izaera hobezinaren ezinbestekotasunetik baldin badatoz gauza guztiak, nondik bada heldu zaizkigu Izadiaren horrenbeste huts egite? Nondik gauzen usteltzea usaintzeraino? Gauzen okertzea, okaztatzeraino? Nondik nahaskeria, gaitza, bekatua eta besteak?

Oraintxe erran bezala, erraz da ihardestea zeren eta gauzen betegintzarrea neurtu behar da beren izaera soilaren eta ahalmenaren arabera eta ez dira hobeago edo txarrago izanen giza sentsuei atsegin edo atsegaitz zaizkien neurrian, ez eta giza izaerari kausitzen edo huts egiten dioten bezainbatean.

Galdegiten digutenei, berriz, zergatik Jainkoak ez dituen egin gizaki guztiak zuhurtzia soilak erabiltzeko eta gobernatzeko gisan, ez diet beste deusik ihardetsiko, baizik ez zuela segur gaiaren eskasik denen egiteko betegintzarre maila gorenetik apaleneraino; edo, zuzenago mintzatzeko, Naturaren legeak aski zabalak izan direla, *16. proposizioan* erakutsi dudan bezala, mugagabeko adimenak pentsa zitzakeen gauza guztien ekoizteko. Horra zein diren hemen aipatu nahi izan ditudan aurreiritziak. Ore bereko besterik geldi baledi, norberak gainditzen ahalko du hausnarketa apur bat eginez.

Lehen Zatiaren Amaia

Etikaren Bigarren Zatia

Izpirituaren Izaeraz eta Etorkiaz

*Orai hasiko naiz Jainkoaren edo Izate betierekoaren eta mugagabearen esentziatik nahitaez etorri behar izan diren gauzen azaltzen; ez ordea guztien; zeren eta 1. Zatiko 16. Proposizioan erakutsi baitugu delako esentzia hartatik beretik kontaezinezko modutan kontaezinezko gauzak etorri behar zirela. Azalduko ditut, beraz, bakarrik giza Izpirituaren eta haren zorion gorenaren ezagutzera eskutik bezala garamatzaketenak.*

Definizioak

I. Gorputza deitzen dut, era zehatz eta determinatuan gauza hedatua bezala ikusten den bezainbatean, Jainkoaren esentzia adierazten duen modua; *ikus 1. Zatiko 25. Proposizioaren Korolarioa.*

II. Zerbait gauza baten esentziari dagokiola erraten dut, zerbait hori emanez geroz, gauza hura nahitaez hor dagoelarik eta zerbait hori kendu orduko gauza bera nahitaez itzaltzen delarik; edo oraino, hura zeina gabe gauza ez delarik ez izaten ahal ez pentsatzen ahal; eta alderantziz, delako gauza ere ez zerbait hura gabe.

III. Ideia deitzen dut Izpirituaren kontzeptua, Izpirituak eratzen duena, pentsatzen duen gauza delako.

Azalpena

*Kontzeptua nahiago dut erran, Pertzepzioa baino, Pertzepzio hitzak iduri baitu, Izpirituak objektuaren ganik pairatzea adierazten duela; Kontzeptuak, aldiz, baitirudi Izpirituak eragiten duela erratea.*

IV. Ideia egokia deitzen dut, bere baitan eta objektuarekin harremanik gabe ikusten den heinean, egiazko ideiaren propietateak edo denotazio intrintseko guztiak badituen ideia.

Azalpena

*Intrintsekoak erraten dut, estrintsekoa dena baztertzeko, hots, ideiaren eta honen objektuaren arteko egokitasuna izendatzeko.*

V. Iraupena da existentziaren jarraipen mugagabea.

Azalpena

*Mugagabea erraten dut, zeren ez baitu mugatzen ahal, ez existitzen den gauzaren izaerak berak, ez eta ere haren kausa erazleak; honek, alabaina, gauzaren existentzia ematen du nahitaez, baina ez kentzen.*

VI. Errealitatea ala perfekzioa ber gauza deitzen dut.

VII.Gauza singularrak deitzen ditut mugatuak diren eta existentzia determinatua dutenak. Zenbait Gizabanakok parte hartzen badute guztiek ekintza berean, ondorio bakar beraren kausa izateko gisan guztiak batean, orduan haiek guztiak gauza singular bakarra bezala ikusten ditut.

Axiomak

I. Gizakiaren esentziak ez du barne hartzen ezinbesteko existentzia; erran nahi da, naturaren ordenaren arabera, gerta daitekeela gizaki hau eta gizaki hura existitzea, edo berdin ez existitzea.

II. Gizakiak pentsatu egiten du.

III. Amodioa, desira, edo izpirituaren afektua deitzen den pentsatzeko beste edozein modu, ez da izanen gizaki baten baitan, non ez den gizaki beraren baitan aurkitzen, maitatu, desiratu eta beste egin den gauzaren ideia. Ideia, aldiz, izaten ahal da, beste pentsatzeko modurik hor ez izanik ere.

IV. Gorputz jakin bat asko modutara hunkia izan daitekeela senti dugu.

V. Gorputzetarik eta pentsatzeko moduetatik lekora, ez dugu gauza singularrik deus sendi, ez deus nabarmen: *Ikus 13. Proposizioaren ondoko Postulatuak.*

I. Proposizioa

Jainkoaren atributu bat da Pentsamendua, edo Jainkoa pentsatzen duen gauza da.

Demonstrazioa

Pentsamendu singularrak, hots, pentsamendu hau edo hura, Jainkoaren izaera modu zehatz eta determinatuz adierazteko moduak dira *(1. Zat., 25. Prop. Korol. arab.).* Haren kontzeptua pentsamendu singular guztiek barne hartzen duten atributua eta haren bitartez haiek guztiak ulertzen diren atributua, *(I. Zat., 5. Def. arab.)* Jainkoari dagokion atributua da. Jainkoaren kontaezinezko atributuetatik bat da, beraz, Pentsamendua, Jainkoaren esentzia betierekoa eta mugagabea adierazten duena *(ikus I. Zat., 6. Def.)* edo, bestela errateko, pentsatzen duen gauza da Jainkoa. H.B.D.B.

Eskolioa

Proposizio hau nabarmen datorkigu, bestalde, pentsatzen duen izaki mugagabea ulertzen ahal dugulako ohar soiletik. Zenbat eta, alabaina, gauza gehiago pentsa baitezake pentsatzen duen izaki batek, hainbat eta errealitate edo perfekzio gehiago daukala ulertzen dugu; eta, beraz, kontaezinezko gauzak kontaezinezko gisatan pentsatzen ahal dituen izakia, mugagabea da, nahitaez, pentsatzearen bertutez. Horra zergatik, pentsatze soila kontutan harturik Izaki mugagabea ulertzen dugunaz geroz, Pentsamenduak izan behar duen, nahitaez, *(I. Zat., 4. & 6. Def. arab.)* Jainkoaren kontaezinezko atributuetarik bat, guk nahi genuen bezala.

II. Proposizioa

Hedadura Jainkoaren atributua da edo, bestela errateko, Jainkoa gauza hedatua da.

Demonstrazioa

Aitzineko Proposizioaren demonstrazioa bezala egiten da.

III. Proposizioa

Jainkoa baitan badugu, nahitaez, bai Haren esentziaren bai esentzia horri baitezpada dagokion guztiaren ideia.

Demonstrazioa

Jainkoak, ezen, *(Zat. honen 1. Prop. arab.)* kontaezinezko modutan kontaezinezko gauzak pentsatzen ahal ditu edo, bestela errateko, *(gauza bera baita, I. Zat., 16. Prop. arab.)* bere esentziaren eta honi nahitaez dagokion guztiaren ideia molda dezake. Jainkoaren ahalmenean den guztia, ordea, *(I. Zat., 35. Prop. arab.)* bada, nahitaez; eta, beraz, delako ideia nahitaez bada, eta *(I. Zat., 15. Prop. arab.)* Jainkoa baitan baizik ez da izaten ahal. H.B.D.B.

Eskolioa

Jende xeheak uste du, badiren izaki guztietara heltzen den eskua eta nahimen librea dela Jainkoaren ahalmena; eta, horrela, arruntean, kontingente bezala ikusten du. Jainkoak badu, alabaina, haiek diotenez, gauza guztien suntsitzeko eta ezeztatzeko ahala. Erregeen ahalmenarekin parekatzen dute bestalde, askotan Jainkoaren ahalmena.

Baina I. Zatiko 32. Proposizioaren 1. eta 2. Korolarioetan ikuspegi hori gezurtatu dugu; eta I. Zatiko 16. Proposizioan demonstratu dugu, bere burua ulertzen duen beharrezkotasun beraren arabera diharduela; erran nahi baita, Jainko izaeraren beharrezkotasunari dagokion bezala -denek aho batez onartzen dutena- Jainkoak bere burua uler dezan, beharrezkotasun beretik datorkiola Jainkoari kontaezinezko modutan kontaezinezko gauzak ekoiztea.

I. Zatiko 34. Proposizioan erakutsi dugu, gainera, Jainkoaren ahalmena beste deusik ez dela Jainkoaren esentzia eragilea baizik; horra zergatik, Jainkorik ez dela pentsatzea bezain ezinezko zaigun, Jainkoak ez diharduela pentsatzea.

Bestalde, bide beretik aitzina joan behar bagenu, erakuts nezake oraino nola jende arruntak Jainkoaren kontu ematen duen ahalmen hori ez dela bakarrik propio gizakiarena -hortik ageri baita gizaki bat bezala edo gizakia iduria ulertzen duela jende horrek Jainkoa- baina ezintasunez josia dela.

Ez dut, ordea, solas bera hainbeste aldiz errepikatu nahi. Eskatzen diot, soil-soilik, berriz eta berriz irakurleari I. Zatiko 16. Proposiziotik azkeneraino gai horretaz erran ditudanak behin eta berritan hazta ditzan. Nehork, ezen, ez ditu nik erran nahi ditudanak zuzen ulertuko, ez baldin badu biziki kontu hartzen Erregeen ahalmenarekin eta eskuarekin Jainkoaren ahalmena ez nahasteko.

IV. Proposizioa

Kontaezinezko modutan kontaezinezko gauzak darraizkion Jainkoaren ideia, bakarra baizik ez daiteke izan.

Demonstrazioa

Adimen mugagabeak *(I. Zat., 30. Prop. arab.)* Jainkoaren atributuez eta afekzioez besterik ez du deus barne hartzen ahal. Jainkoa, ordea, *(I. Zat., 14 Prop. 1. Korol. arab.)* bakarra da. Kontaezinezko modutan kontaezinezko gauzak darraizkion Jainkoaren ideia ere, beraz, bakarra izan behar da. H.B.D.B.

V. Proposizioa

Ideien izate formalak Jainkoa onartzen du bere kausatzat, pentsatzen duen gauza den bezainbatean, eta ez beste edozein atributuren bitartez ulertzen delako. Erran nahi da, bai Jainkoaren atributuen bai gauza singularren ideiek kausa erazletzat onartzen dutela Jainkoa bera, pentsatzen duen gauza den bezainbatean, eta ez haien objektuak edo haien bitartez hautematen diren gauzak.

Demonstrazioa

Aitzineko 3. Proposiziotik argi ageri da. Hor ezen erakutsi dugu bere esentziaren eta esentzia hortatik nahitaez datozen gauza guztien ideia molda dezakeela Jainkoak, pentsatzeko gauza den aldetik, eta ez bere ideia propioaren objektua izateagatik. Horra zergatik ideien izate formalak Jainkoa onartzen duen kausatzat, pentsatzeko gauza den aldetik.

Baina hona beste demonstrazio bat: Ideien izate formala, pentsatzeko modu bat da -jakina-, hots, *(I. Zat., 25. Prop. Korol. arab.)* pentsatzen duen gauza den bezainbatean, Jainkoaren izaera modu zehatzean adierazteko modua da; eta, horrela, *(I. Zat., 10. Prop. arab.)* ez du Jainkoaren beste nehongo atributuren kontzepturik barne hartzen eta, beraz, *(I. Zat., 4. Axiom. arab.)* ez du beste atributu baten ondorio izaterik, pentsamenduaren baizik; eta, beraz, ideien izate formalak Jainkoa onartzen du kausatzat, pentsatzeko gauza bezala ikusten den bezainbatean, soil-soilik, etab. H.B.D.B.

VI. Proposizioa

Edozein atributuren moduek Jainkoa dute kausatzat, moduak diren atributuaren arabera bakarrik eta ez beste baten arabera ikusten diren bezainbatean.

Demonstrazioa

Atributu bakoitza, alabaina, *(I. Zat., 10. Prop. arab.)* bere baitarik ulertzen da besteen beharrik gabe. Eta, beraz, atributu bakoitzaren moduek beren atributuaren kontzeptua barne hartzen dute, ez beste batena. Ondorioz, *(I. Zat., 4. Axiom. arab.)* Jainkoa onartzen dute kausatzat, moduak diren atributuaren arabera soil-soilik, eta ez beste baten arabera. H.B.D.B.

Korolarioa

Horra nola, pentsatzeko moduak ez diren gauzen izate formala Jainkoaren izaeratik baldin badator, ez den hori gertatzen horrek aitzinetik gauza horiek ezagutu dituelako, baina haien ideia dugun gauzen beren atributuetarik etortzen eta osatzen dira Pentsamenduaren atribututik ideiak etortzen direla demonstratu dugun modu berean eta beharrezkotasun berarekin.

VII. Proposizioa

Ideien ordena eta lotura, eta gauzen ordena eta lotura, berberak dira.

Demonstrazioa
Nabari ageri da I. Zatiko 4. Axiomatik. Ondorioaren kausaren ezagutzari darraio, alabaina, edozein ondorioren ideia.
Korolarioa
Hortik datorkigu Jainkoaren pentsatzeko ahalmena oraiko Haren iharduteko ahalmenaren bete badela. Erran nahi da, Jainkoaren izaera mugagabetik formalki datorren guztia, ordena berean eta lotura berarekin, Jainkoaren ideiatik datorrela objektiboki Jainkoaren baitan.
Eskolioa
Orain, urrunago joan baino lehen, gogoan hartu behar dugu lehenago demonstratu duguna, hots, substantziaren esentzia bezala adimen mugagabeak hauteman dezakeen edozer gauza, substantzia bakoitz eta bakarrari dagokiola eta, ondorioz, pentsatzeko substantzia eta hedatzeko substantzia, substantzia bat eta bera dela, orain atributu baten arabera gero bestearen arabera hautematen dena.
Gisa berean ere, hedatzeko modua eta modu horren ideia, gauza bat eta bera da baina bi gisatara adierazia; eta hori diotenek, Hebraitar batzuek lanbro batean barna bezala ikusi zuketen; erran nahi dut, Jainkoa bera, Jainkoaren adimena, eta adimen horrek pentsatzen dituen gauza guztiak, gauza bat eta bera direla.
Adibidez, Naturan aurkitzen den borobila, eta delako borobil horren ideia, Jainkoa baitan ere dena, gauza bat eta bera da, atributu ezberdinekin azaltzen dena; eta, horrela, Hedatzeko atributuaren arabera edo Pentsatzeko atributuaren arabera edo beste edozeinen arabera uler dezagun haren izaera, beti ordena bakar eta bera aurkituko dugu edo gauzen arteko lotura bakar eta bera; erran nahi baita, gauza berak jarraikitzen zaizkiola bata besteari.
Eta erran baldin badut Jainkoa Ideia baten kausa dela, adibidez borobilaren ideiarena, pentsatzeko gauza den heinean soil-soilik, eta borobilaren berarena, berriz, hedatzeko gauza den heinean soil-soilik, ez nuen horren errateko beste arrazoirik borobilaren ideiaren izate formala ez delako ulertzen ahal hurbileko kausa bezala beste pentsatzeko modu baten bitartez baizik eta azken hau, bere aldian, beste baten bitartez eta, horrela, azkenik gabe.
Gisa horretan, beraz, gauzak ikusten dituguno pentsatzeko modu batzuk bezala, Natura osoaren ordena, hau da, kausen arteko lotura argitu beharko dugu Pentsatzeko atributuarekin soil-soilik; eta Hedatzeko modu batzuk bezala ikusten baditugu, berriz, Natura osoaren ordena argitu beharko dugu Hedatzeko atributuarekin bakarrik; eta berdin ikusten dut beste atributuentzat. Jainkoa da, beraz, gauzen kausa egiazkoa, gauzak berenaz diren bezala eta kontaezinezko atributuz Bera osatzen den bezainbatean; eta oraingoz ez dezaket deus argiagorik erran.
VIII. Proposizioa
Gauza singularren ideiak edo berdin existitzen ez diren moduen ideiak Jainkoaren ideia mugagabearen baitan ulertu behar dira, gauza singularren edo berdin moduen esentzia formalak Jainkoaren atributuen baitan aurkitzen diren bezala.
Demonstrazioa
Proposizio hori aitzineko Proposiziotik argi eta garbi datorkigu, baina nabarmenago oraino aitzineko Eskoliotik.
Korolarioa
Proposizio honetatik dator, gauza singularrak existitzen ez direno Jainkoaren atributuen baitan sartzen diren bezainbatean baizik, haien izate objektiboa, hots, haien ideiak ere ez direla existitzen Jainkoaren ideia mugagabea existitzen den bezainbatean baizik; eta gauza singularrak existitzen direla erraten dugularik, ez bakarrik Jainkoaren atributuen

baitan sartzen diren bezainbatean, baina irauten dutela erraten dugun heinean, orduan, existentzia barne hartuko dute haien ideiek ere eta, horrela, erranen dugu irauten dutela.

Eskolioa

Eta norbaitek argi gehiagoren izateko adibide bat eskatzen baldin badit, ez diot, eiki, aipu dudan gauzaren osoki argitzeko on den adibiderik emanen; bakoitza baita delako gauza; saiatuko naiz bizkitartean kasuaren argitzen, ahal bezainbatean.

Badakigu, ezen, izatez borobilaren edozein puntutan gurutzatzen diren zuzenkiek osatzen dituzten lauki zuzen guziak neurri berekoak direla; eta beraz kontaezinezko lauki zuzenak, denak neurri berekoak, badira edozein borobilen barnean; eta bizkitartean ez dezakegu erran haietarik bihi bat existitzen dela non ez den borobila bera existitzen, eta lauki zuzen horietarik bihi baten ideia ere ez da existitzen non ez den borobilaren ideian sartzen. Demagun, bada kontaezinezko lauki zuzen horietarik guztietatik bi bakarrik existitzen direla, hots, E eta D. Orduan, segur, haien ideiak ere existitzen dira eta ez bakarrik borobilaren ideiaren barnean daudelako, berek lauki zuzen horien existentzia barne hartzen dutelako baizik, eta horrela, beste lauki zuzenen beste ideietarik bereizten dira.

IX. Proposizioa

Aktuan existitzen den gauza singular baten ideiak Jainkoa du bere kausa, ez ordea Hau mugagabea den bezainbatean; aktuan existitzen den gauza singular baten beste ideia batek hunkitzen duela onartzen den bezainbatean baizik; ideia horren kausa ere Jainkoa da, beste hirugarren ideia batek hunkitzen duen bezainbatean; eta, horrela, azkenik gabe.

Demonstrazioa

Aktuan existitzen den gauza singular baten ideia, *(8. Prop. Korol. & Eskol. arab.)* pentsatzeko modu singularra eta besteak ez bezalakoa baizik ez da, eta, ondorioz, *(6. Prop. arab.)* Jainkoa pentsatzen duen gauza den bezainbatean bakarrik du bere kausa; ez, ordea, *(I. Zat., 28. Prop. arab.)* absolutuki pentsatzen duen gauza den bezainbatean; pentsatzeko beste modu singular batek hunkitzen duela ikusten den bezainbatean baizik; eta azken honen kausa ere Jainkoa da, beste hirugarren batek hunkitzen duen bezainbatean; eta, horrela, azkenik gabe.

Ideien arteko lotura eta ordena, bada, *(7. Prop. arab.)* eta kausen arteko lotura eta ordena, berbera da; eta, beraz, edozein ideia singularren kausa dena, beste ideia bat da, erran nahi da Jainkoa, beste ideia batek hunkitzen duela ikusten den bezainbatean; eta, berdin, beste ideia horren kausa ere, hirugarren ideia batek hunkitzen duen bezainbatean; eta, horrela, azkenik gabe. H.B.D.B.

Korolarioa

Edozein ideiaren objektu singularrean gertatzen den guztiaren ezagutza aurkitzen da Jainkoaren baitan, objektu horren ideia duen bezainbatean.

Demonstrazioa

Edozein ideiaren objektuan gertatzen den guztiaren ideia aurkitzen da Jainkoa baitan *(3. Prop. arab.)* ez, ordea, mugagabea delakoan, gauza singularraren beste ideia batek hunkitzen duela ikusten den bezainbatean baizik *(aitzin. Prop. arab.)*; ideien arteko lotura eta ordena, bada, *(7. Prop. arab.)* eta gauzen lotura eta ordena ber-bera da; edozein objektu singularren baitan gertatzen den guztiaren ezagutza, beraz, Jainkoa baitan aurkitzen da objektu horren ideia duen bezainbatean, soil-soilik. H.B.D.B.

X. Proposizioa

Substantzia izatea ez dagokio gizakiaren esentziari edo, bestela errateko, ez da substantzia gizakiaren izateko forma.

Demonstrazioa

Substantziaren izateak nahitaezko existentzia barne hartzen du, alabaina, *(I Zat., 7. Prop. arab.)* eta, beraz, gizakiaren esentziari balegokio substantziaren izatea,

substantzia emanez geroz hor genuke, nahitaez, gizakia bera *(2. Def. arab.)* eta, ondorioz, gizakiak izan behar luke, nahitaez; hori, ordea, *(1. Axiom. arab.)* zentzugabekeria da. Beraz, etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Proposizio hau demonstratzen da ere I. Zatiko 5. Proposizioaren arabera, hots, ez direlako izaera bereko bi substantzia izaten ahal. Eta nola zenbait gizaki izaten ahal baitira, substantziaren izatea ez da izaten ahal gizakiaren izateko forma.

Proposizio bera nabarmen ageri da, bestalde, substantziaren beste propietateengatik, hala nola mugagabea, aldaezina, zatiezina, etab. izatetik, norberak errazki ikus dezakeen bezala.

Korolarioa

Hortik dator Jainkoaren atributuen aldaketa jakin batzuek osatzea gizakiaren esentzia.

Demonstrazioa

*(Aitzin. Prop. arab.)* Gizakiaren esentziari ez dagokio substantziaren izatea. Hau, beraz, *(I. Zat., 15. Prop. arab.)* Jainkoa baitan den zerbait da, Jainkoa gabe ezin dena ez izan ez ulertu, erran nahi baita *(I. Zat., 25. Prop. Korol. arab.)* afekzio bat dela edo era zehatz eta determinatu batez Jainkoaren izaera adierazten duen modu bat.

Eskolioa

Denek, eiki, onartu behar dute Jainkorik gabe deus ez dela ez izaten ez ulertzen ahal. Denek, ezen, onartzen dute Jainkoa dela gauza guztien bai esentziaren bai existentziaren kausa bakarra; hots Jainkoa ez dela bakarrik, berek dioten bezala, gauzen egin izanaren arabera baina bai izatearen beraren arabera ere.

Jende gehienek diote, bizkitartean, gauzaren esentziari dagokiola, hura gabe delako gauza ez izaten ez ulertzen ahal ez den guztia; eta, ondorioz, uste dute, edo gauza kreatuen esentziari dagokiola Jainko izaera edo Jainkorik gabe gauza kreatuak izaten eta ulertzen ahal direla, edo oraino, segurago, ez dira beren buruarekin konpontzen. Eta hori, ene ustez, gertatzen zaie ez dakitelako Filosofatzeko ordena zaintzen.

Oroz lehen Jainkoaren izaerari behatzeko ordez -egin behar luketen bezala, Hura baita lehen bai izatearen bai ezagutzaren aldetik- ezartzen dute Hura ezagutzaren ordenan azken eta beste guztien aitzinean asmatzen dituzte sentsuen objektuak deitzen diren gauzak. Horra zergatik, gauza horiei beha daudeno, ez zaien deus gutiago gogoratzen Jainkoaren Izaera baino; eta gero, Jainkoaren Izaerari buruz itzultzen dutelarik begia, ez dute zeren dei egin naturaren gauzen ezagutzeko eraikiak zituzten beren lehen asmakizunei, ez baitituzkete, neholaz ere, asmakizun haiek lagungarri izanen Jainkoaren Izaera ezagutzeko.

Ez da, beraz, harritzeko kontraesanetan nonahi erortzea gertatzen baldin bazaie. Baina ez naiz horretan sartzen. Ene xedea baita bakarrik, hemen argitzea zergatik ez dudan erran edozein gauzaren esentziari dagokiola, hura gabe ezin dena ez izan ez ulertu. Gauza singularrak, alabaina, ezin dira ez izan ez ulertu Jainkorik gabe; eta bizkitartean Jainkoa ez dagokio haien esentziari. Hauxe dut, bada, erran gauza baten esentziari dagokiola, nahitaez, delako esentzia ematearekin gauza hura hor agertzea eta esentzia kentzearekin gauza bera hortik itzaltzea egiten duena; edo oraino, zer ere dela, hura gabe gauza bat ez baldin bada ez izaten ez ulertzen ahal eta, alderantziz, gauza bera gabe, hura ere ez.

XI. Proposizioa

Aktuz existitzen den gauza singular jakin baten ideia besterik ez da giza Izpirituaren aktuzko izatea lehenik osatzen duena.

Demonstrazioa

Gizakiaren esentzia Jainkoaren atributuen modu jakin batzuek osatzen dute, *(aitzin. Prop. Korol. arab.)* ; hots, *(Prop. ber. 2. Axiom. arab.)* pentsatzeko modu batzuek eta

haien guztien artean *(Prop. ber. 3. Axiom. arab.)* ideia da izatez lehena, eta *(3. Axiom. ber. arab.)* gizaki berean beste moduak gerta daitezen ideia izan behar da lehenik; (modu haiek baino lehen dugu beraz ideia). Eta, ondorioz, giza Izpirituaren esentzia osatzeko, ideia da lehen. Baina ez, existitzen ez den gauza baten ideia. Ezen, orduan, *(8. Prop. Korol. arab.)* ez genezake erran ideia bera existitzen dela; aktuan izaten den gauza baten ideia izanen da, beraz. Ez, ordea, mugagabeko gauza batena. Mugagabeko gauza batek, alabaina, *(I. Zat., 21. & 22. Prop. arab.),* nahitaez, beti izan behar baitu; hori, bada, zentzugabekeria da *(1. Axiom. arab.);* giza Izpirituaren aktuzko izatea lehenik osatzen duena da, beraz, aktuan izaten den gauza singular baten ideia. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator giza Izpiritua Jainkoaren adimen mugagabearen parte izatea; eta, ondorioz, giza Izpirituak hau edo hura hautematen duela diogularik, ez dugu deus besterik erraten baizik eta Jainkoak, ez mugagabea den aldetik, baina giza Izpirituaren izaeraz azaltzen den bezainbatean, hots, giza Izpirituaren esentzia osatzen duen aldetik, ideia hau edo hura baduela.

Eta Jainkoak ideia hau edo hura baduela diogularik, ez bakarrik giza Izpirituaren izaera osatzeko gisan, baina giza Izpirituarekin batean beste gauza baten ideia ere izateko gisan, orduan, adierazten dugu giza Izpirituak alde batetik, erran nahi baita modu ezegokian, hautematen duela gauza hura.

Eskolioa

Hemendik aitzina badakit irakurleek zalantzak izanen dituztela eta bidean gelditzeko anitz oztopo gogoratuko zaizkiela, horra zergatik eskatzen diedan ene urratsean emeki aitzinatzea eta bururaino, dena irakurri arte, deus ez erabakitzea.

XII. Proposizioa

Giza Izpirituak hauteman behar ditu giza Izpiritua osatzen duen ideiaren objektuan gertatzen diren guztiak, hots, horien guztien ideia bat izanen da, nahitaez, Izpirituan; erran nahi baita, giza Izpiritua osatzen duen ideiaren objektua gorputz bat baldin bada, ez dela gorputz horretan deus gertatzen Izpirituak hautematen ez duenik.

Demonstrazioa

Edozein ideiaren objektua baitan gertatzen den guztiaren ezagutza *(9. Prop. Korol. arab.)* badu, alabaina, nahitaez, Jainkoak, objektu horren ideiak Bera hunkitzen duen ber; erran nahi baita *(11. Prop. arab.)* gauza jakin baten izpiritua osatzen duen bezainbatean. Eta, beraz, giza Izpiritua osatzen duen ideiaren objektuan gertatzen den guztiaren ezagutza bada, nahitaez, Jainkoaren baitan, Honek giza Izpirituaren izaera osatzen duen bezainbatean, erran nahi baita *(11. Prop. Korol. arab.)* gauza horren ezagutza Izpirituan izanen dela, hots, Izpirituak hautemanen duela. H.B.D.B.

Eskolioa

Proposizio hau berdin nabari da eta argiago oraino ulertzen da 7. Proposizioaren Eskolioaren ondotik. Zoaz ikustera!

XIII. Proposizioa

Gorputza da giza Izpiritua osatzen duen ideiaren objektua, hots, aktuan existitzen den Hedapenaren modu zehatz bat eta besterik ez.

Demonstrazioa

Gorputza, ezen, giza Izpirituaren objektua ez balitz, Gorputzeko afekzioen ideiak ez litezke Jainkoaren baitan *(9. Prop. Korol. arab.)* gure Izpiritua osa lezakeen bezainbatean, baina bai beste gauza baten izpiritua osa lezakeen bezainbatean, erran nahi baita *(11. Prop. arab.),* Gorputzeko afekzioen ideiak ez litezkeela gure Izpirituan; Gorputzeko afekzioen ideiak, ordea, *(4. Axiom. arab.)* gure baitan dauzkagu. Eta, beraz, giza Izpiritua osatzen duen ideiaren objektua Gorputza da eta *(11. Prop. arab.)* aktuan existitzen den Gorputza.

Gero, Gorputzaz bestalde, balitz oraino Izpirituaren beste objektu bat, nola ez baita deus existitzen *(I. Zat., 36. Prop. arab.)* non ez den hortik zerbait ondorio etortzen, orduan, *(aitzin. Prop. arab.)* ondorio horren ideia aurkitu behar liteke, nahitaez, gure Izpirituan; hemen, ordea, *(5. Axiom. arab.)* ez da horrelako ideiarik.
Existitzen den Gorputza da, beraz, gure Izpirituaren objektua eta besterik deusez. H.B.D.B.
Korolarioa
Hortik dator Izpiritu batek eta Gorputz batek osatzen dutela gizakia eta giza Gorputza existitzen dela senti dugun bezala.
Eskolioa
Horrela dugu ulertzen, ez bakarrik giza Izpiritua lotua dugula Gorputzari, baina ere nola ulertu behar den Gorputzaren eta Izpirituaren arteko batasuna. Nehork ez du, ordea, batasun hori modu egokian edo zehatzean ulertuko, ez baldin badu aitzinetik modu egokian gure Gorputzaren izaera ezagutzen.
Orain arte demonstratu ditugunak gauza arruntak dira, eta ez dagozkie gizakiei beste Izaki guztiei baino gehiago, hauek guztiak izpiritudunak baitira, nahiz ez denak maila berean. Ezen, edozein gauza har dezazula, gauza haren ideia baduzu nahitaez Jainkoaren baitan, Jainkoa delarik haren kausa, giza Gorputzaren ideiaren kausa den bezala; eta, ondorioz, giza Gorputzaren ideiaz erran dugun guztia errepikatu behar dugu, nahitaez, edozein gauzaren ideiaz. Ez dezakegu uka bizkitartean ideiak ezberdinak direla beren artean, haien objektuak ezberdinak diren bezala, eta batak bestea gainditzen duela, eta errealitate gehiago daukala bataren objektuak bestearena gainditzen duen eta errealitate gehiago daukan neurrian. Horra zergatik, giza Izpiritua zertan bereizten den bestetarik jakiteko eta nola besteak gainditzen dituen ikusteko ezagutu behar dugun, erran bezala, haren objektuaren izaera, erran nahi baita giza Gorputzaren izaera.
Ez dut ordea izaera hori hemen argitzen ahal, baina demonstratu nahi dudanarentzat ez da baitezpadako. Erranen dut halere, orokorki, zenbat eta Gorputz batek gainditzen baititu besteak modu gehiagotara jasaten eta batean ekiten jakinez, hainbat eta haren Izpirituak ere gaindituren ditu besteak gauza gehiago batean hautemanez; zenbat eta gorputz baten ekintzak hari berari gehiago dagozkion neurrian, zenbat eta beste gorputz gutiagok hari ekiten laguntzen dioten heinean, haren izpirituak ere hainbat eta zehazkiago jakinen du ulertzen. Horra nola jakin dezakegun izpiritu batek gainditzen dituenentz besteak eta, ondorioz, ere zergatik dugun gure Gorputzaren ideia hain nahasia, eta beste asko gauza, geroxeago hortik aterako ditugunak.
Iduritu zait, beraz, merezi zuela hori guztia argitzea eta artoski demonstratzea eta horretarako behar ditut hemen gorputzen izaeraz zenbait premisa finkatu.
Axioma I.
Gorputz guztiak edo mugitzen dira edo geldirik daude.
Axioma II.
Gorputz bakoitza mugitzen da batean emekiago bestean lasterrago.
Lemma I.
Gorputzak elkarretarik bereizten dira mugimenduaren edo gelditasunaren aldetik; laster edo emeki ibiltzetik; eta ez substantziaren aldetik.
Demonstrazioa
Uste dut lehen zatia berez nabarmen dela. Gorputzak ez direla substantziaren aldetik bereizten, ordea, hori nabari da I. Zatiko 5. Proposizioaren eta 8. Proposizioaren arabera. Baina 1. Zatiko 15. Proposizioaren Eskolioaren arabera oraino nabarmenago da.
Lemma II.

Gorputz guztiek bat egiten dute zenbait gauzatan.
Demonstrazioa
Gorputz guztiek, alabaina, bat egiten dute honetan *(1. Def. arab.)* guztiek atributu bakar eta beraren kontzeptua barne hartzean. Guztiak ere gainera, mugitzen ahal dira batean emekiago bestean lasterrago eta, garbi mintzatzeko, edo mugitzen edo geldirik egoten ahal dira.
Lemma III.
Mugitzen den edo geldirik dagoen gorputza beste gorputz batek determinatu behar izan du mugitzera edo geldirik egotera; eta gorputz hau beste batek determinatu du mugitzera edo geldirik egotera; eta azken hau, bere aldian, beste batek; eta, horrela, azkenik gabe.
Demonstrazioa
Gorputzak *(1. Def. arab.)* gauza singularrak dira *(1. Lem. arab.)* mugimenduaren eta gelditasunaren aldetik bereizten direnak; eta, ondorioz, *(I. Zat., 28. Prop. arab.)* bakoitza mugitzera ala gelditzera determinatu behar izan du beste gauza singular batek, hots, *(6. Prop. arab.)* beste gorputz batek; eta hau ere *(1. Axiom. arab.)* mugitzen da edo geldirik dago.
Beste gorputz hau, ordea, *(arrazoi berarengatik)* ez da ere mugitu edo gelditu ahal izan, beste batek mugitzera edo gelditzera determinatu izan gabe, eta azken hau ere, bere aldian, *(arrazoi berarengatik)* beste batek; eta, horrela, azkenik gabe. H.B.D.B
Korolarioa
Hortik dator mugitzen den gorputza mugituko dela beste gorputz batek gelditzera determinatzen ez dueno; eta, berdin-berdina, geldirik dagoen gorputza geldirik egonen da beste gorputz batek mugitzera determinatzen ez dueno. Berez nabarmen den bezala.
Demagun edozein gorputz, A adibidez, geldirik dagoela; mugitzen diren beste gorputz guztiei ez baldin badiet behatzen, A delako gorputzaz ez dut beste deusik erranen, geldirik dagoela baizik. Gero, gertatzen baldin bada A gorputza mugitzea, ez da ez horrelakorik gertatu ahal izan geldirik zelako, zeren hortik beste deusik ez baitatorke A gorputza geldirik egotea baizik.
Demagun, alderantziz, A mugitzen dela: A-ri baizik behatzen ez duguno ez dugu horretaz deusik erraten ahalko mugitzen dela baizik. Gertatzen baldin bada gero A geldirik egotea, ez da segur horrelakorik gertatu ahal izan aitzinean zuen mugimendutik, zeren mugimendutik deus ez baitatorke besterik A mugimendutan izatea baizik. Gertatzen bada horrelakorik, A baitan ez zegoen gauza batetik etorri da, hots, gelditzera determinatu duen kanpoko kausa batetik.
Axioma I.
Gorputz baten hunkitzeko beste gorputz batek dituen modu guztiak, hunkia den gorputzaren izaerari darraizkio eta, aldi berean, hunkitzen duen gorputzaren izaerari; eta, horrela, gorputz bakar eta bera asko gisetara mugitzen da, mugitzen duten gorputz ezberdinen arabera; eta, alderantziz, gorputz ezberdinak asko gisetara mugitzen ditu gorputz bakar eta berak.
Axioma II.
Mugitzen den gorputz batek mugi-ezinezko beste bat, geldirik dagoena, jotzen duelarik, aitzina mugitzeko gisan isladatua da, eta jo duen gorputz geldiaren planoarekin isla-marrak osatzen duen angeluak, plano berarekin jotze-marrak osatzen duen angeluaren neurri bera du.
*Horra gorputz bakun edo sinpleenentzat, hots, beren mugitzeak edo gelditzeak, laster edo emeki ibiltzeak bereizten dituenentzat. Goazen orai gorputz konposatuetara!*
Definizioa
Neurri berdineko ala ezberdineko gorputz batzuk, beste batzuek tinkatzen dituztelarik elkar sostengatzeko gisan, edo mugitzen direlarik gorputz haiek,

abiadura berean edo ezberdinean, beren mugimenduak neurri zehatz batean elkarri helarazteko gisan, erranen dugu orduan gorputz haiek guztiek batean gorputz bakar bat edo Izaki bakar bat osatzen dutela, beste guztietarik bereizten dena gorputzen batasun horrengatik.

Axioma III.

Zenbat eta tipiago edo handiago baitira elkarri lotuak diren Izaki baten edo gorputz konposatu baten aldeen eremuak, hainbat eta errazago edo zailago da haien lekuz aldatzera behartzea; eta beraz hainbat errazago edo zailago da Izakiak berak beste itxura bat har dezan erdiestea. Eta, ondorioz, eremu handitan elkarri loturik diren gorputzak deituko ditut *gogorrak*; eremu tipitan lotuak direnak, aldiz, *mardoak*, eta beren alderdiak elkarren artean mugitzen dituztenak *isurkorrak*.

Lemma IV.

Gorputz askok osatzen duten gorputz konposatu batetik edo Izaki batetik zenbait gorputz bereizten baldin badira eta, ber denboran, izaera bereko beste gorputz batzuk kopuru berean haien lekua hartzen baldin badute, Izaki hark begiratuko du aitzineko izaera, bere forma aldatu gabe.

Demonstrazioa

Gorputzak, ezen, *(1. Lem. arab.)* ez dira bereizten substantziaren aldetik; eta Izaki baten forma *(aitzin. Def. arab.)* gorputzen arteko batasunak du osatzen; batasun hau, ordea, *(Hipot. arab.)* gorputzen etengabeko harremanengatik mantentzen da. Izakiak, beraz, atxikiko du bai substantziaren aldetik bai moduaren aldetik bere aitzineko izaera.H.B.D.B.

Lemma V.

Izaki bat osatzen duten alderdiak handitzen edo tipitzen baldin badira, baina aitzinean denek elkarren artean zuten mugitzeko eta geldirik egoteko neurria atxikiz, Izakiak atxikiko du aitzineko izaera bera forma aldaketarik gabe.

Demonstrazioa

Aitzineko Lemmarentzat bezala egiten da.

Lemma VI.

Izaki bat osatzen duten gorputz batzuk behartuak baldin badira alde batera duten mugitzeko joera beste aldera itzultzera, baina aitzinean zeukaten mugitzeko eta elkarri heltzeko ahalmena arau beretan atxikiz, Izakiak ere, orduan, bere izaera bera atxikiko du forma aldaketarik gabe.

Demonstrazioa

Berez nabarmen da. Zeren hipotesiaren arabera atxikitzen baitu, haren definizioan erran dugun bezala, haren forma osatzen duen guztia.

Lemma VII.

Horrela konposatua den Izaki batek, bere osoan mugiturik ere edo geldirik egonagatik edo alde batera edo bestera itzultzen bada, alde bakoitzak bere mugimendua begiratzen duen ber, bere izaera atxikitzen du eta bestei helarazten aitzinean bezala.

Demonstrazioa

IV. Lemmaren aitzinean ikusten den Definiziotik datorrela nabarmen da.

Eskolioa

Hor ikusten dugu nola Izaki konposatu bat asko gisetara hunkitzen ahal den haren izaera aldatu gabe batere. Eta, orain arte, mugitzen diren eta geldirik egotetik laster edo emeki ibiltzetik, soil-soilik, bereizten diren gorputzez, erran nahi da gorputz sinpleenez konposatua den Izakia dugu aipatu.

Baina orain beste bat gogoratzen baldin badugu, izaera ezberdineko Izaki batzuek osatzen dutena, ohartuko gara, orduan, beste asko gisetara hunkitzen ahal dela izaera bera atxikiz, halere. Haren zati bakoitza, alabaina, gorputz anitzek osatzen baldin

badute, *(aitzin. Lem. arab.)* zati haiek mugitzen ahalko dira batean emekiago bestean lasterrago eta, ondorioz, beren mugimendua bestei helarazten ahalko diete emekiago edo lasterrago beren izaera aldatu gabe.

Eta, gainera, hirugarren Izaki mota bati pentsatzen baldin badugu bigarren motako Izakiz osatuari, ohartuko gara oraino beste anitz gisetara hunkitzen ahal dela forma aldaketarik gabe. Eta, horrela, jarraikiz azkenik gabe errazki ulertuko dugu Natura osoa Izaki bakar bat dela eta haren parteak, erran nahi baita gorputz guztiak kontaezinezko modutan aldatzen direla Izaki osoa aldatu gabe.

Puntu hori zehazkiago beharko nuen argitu eta demonstratu, gorputzaz *ex professo* mintzatzeko xedea izan banu. Baina, erran bezala, beste zerbait egin gogo dut eta hemen zerbait aipatu badut, demonstratu nahi izan dudana hortik erraz datorrelako izan da, soilik.

Postulatuak

I. Izaera ezberdineko izaki anitzek, guztiak biziki konposatuak direnek osatzen dute giza Gorputza.

II. Giza Gorputza osatzen duten izakietarik zenbait isurkorrak dira, beste batzuk mardoak eta besteak, azkenik, gogorrak.

III. Giza Gorputza osatzen duten izakiak eta, beraz, giza Gorputza bera anitz gisatara hunkitzen dute kanpoko gorputzek.
IV. Giza Gorputza, irauteko, beste anitz gorputzen beharretan da hauek hura, etenik gabe, nolazpait berritzeko gisan.
V. Giza Gorputzaren alde isurkor bat kanpoko gorputz batek determinatzen duelarik beste alde mardo baten maiz jotzera, alde honen azala aldatzen da eta honek hartzen ditu jotzen duen kanpoko gorputzaren hatzak.
VI. Giza Gorputzak mugitzen ahal ditu kanpoko gorputzak anitz gisetara eta anitz gisatara haiek lekuz aldatzen.
XIV. Proposizioa
Biziki anitz gauza hautemateko gai da giza Izpiritua: zenbat eta gisa gehiagotara lekuz alda baitaiteke haren Gorputza eta gehiago.
Demonstrazioa
Giza Gorputza, alabaina, *(3. & 6. Post. arab.)* anitz gisetara hunki dezakete kanpoko gorputzek eta berak anitz gisetara kanpoko gorputzak hunki ditzake; giza Izpirituak, ordea, *(12. Prop. arab.)* hauteman behar ditu giza Gorputzaren baitan gertatzen diren guztiak; giza Izpiritua, beraz, gai da biziki gauza anitzen hautemateko; zenbat eta gisa gehiagotara, etab. H.B.D.B.
XV. Proposizioa
Giza Izpirituaren izate formala osatzen duen ideia ez da bakuna, baina, bai, biziki anitz ideiaz osatua.
Demonstrazioa
Giza Izpirituaren izate formala osatzen duen ideia, *(13. Prop. arab.)* Gorputzaren ideia da; eta Gorputza *(1. Post. arab.)* biziki konposatuak diren anitz Izakik osatzen dute; *(8. Prop. Korol. arab.),* ordea, gorputza osatzen duen Izaki bakoitzaren ideia badago, nahitaez, Jainkoaren baitan; eta, ondorioz, *(7. Prop. arab.)* giza Gorputzaren ideia osatzen dute bera osatzen duten alderdien hainbeste ideiak. H.B.D.B.
XVI. Proposizioa
Kanpoko gorputzek hunkitzen duten giza Gorputzaren edozein gisako ideiak barne hartu behar du giza Gorputzaren izaera eta, aldi berean, kanpoko gorputzaren izaera.
Demonstrazioa
Ezen gorputz bat hunkitzen duten modu guztiak, hunkia den gorputzaren izaerari eta, aldi berean, jotzen duen gorputzaren izaerari darraizkie *(3. Lem. Korol. ond. Axiom. arab.)* eta, beraz, haien ideiak *(4. Axiom. arab.)* barne hartuko du, nahitaez, gorputz baten eta bestearen izaera; eta, ondorioz, kanpoko gorputz batek hunkitzen duen giza Gorputzaren edozein gisako ideiak barne hartzen du giza Gorputzaren izaera, eta kanpoko gorputzaren izaera ere. H.B.D.B.
I. Korolarioa
Hortik dator, lehenbizikorik, giza Izpirituak hautematea, aldi denboran, bere gorputzaren izaera eta beste anitz gorputzen izaera.
II. Korolarioa
Hortik dator, bigarrenekorik, kanpoko gorputzez ditugun ideiek hobeki adieraztea gure gorputzaren egoera, kanpoko gorputzen izaera baino. Eta hori adierazia dut anitz adibideekin lehen Zatiko Eranskinean.
XVII. Proposizioa
Kanpoko gorputz baten izaera barne hartzen duen modu batez hunkia baldin bada giza Gorputza, giza Izpirituak kanpoko gorputz hori ikusiko du aktuan existitzen balitz bezala edo hor aitzinean balu bezala, gorputz horren existentzia edo presentzia ukatzen duen afektu batek giza Gorputza jo arte.

Demonstrazioa

Hori argi dago, zeren giza Gorputza horrela hunkia deno giza Izpirituak *(12. Prop. arab.)* ikusiko baitu afektu hori, erran nahi baita *(aitzin. Prop. arab.)* aktuan existitzen den moduko ideia bat, kanpoko gorputzaren izaera barne hartzen duena, hots, kanpoko gorputzaren izaeraren existentzia edo presentzia aitzinatzen duena eta ez ukatzen; eta, ondorioz, Izpirituak *(aitzin. Prop. I. Korol. arab.)*, kanpoko gorputza hautemanen du aktuan existitzen balitz bezala edo hor aitzinean balu bezala, berriz hunkia izan arte, etab. H.B.D.B.

Korolarioa

Giza Gorputza behin jo duten kanpoko gorputzak existitzen ez baldin badira edo hor aurkitzen ez badira ere, Izpirituak kontenplatzen ahalko ditu, halere, hor balira bezala.

Demonstrazioa

Kanpoko gorputz batzuek giza Gorputzaren alderdi isurkorrak determinatzen dituztelarik alde mardoenen maiz jotzera *(5. Post. arab.)* alde horien azalak aldatzen dituzte; eta, ondorioz, *(3. Lem. Korol. ond. 2. Axiom. arab.)* aitzinean egin ohi ez ziren bezala isladatzen dira; eta, ondorioz ere, beren baitarik mugitzearekin azal berri horiek jotzen dituztelarik, kanpoko gorputzek azal horiei buruz bultzatzen zituzten modu berean isladatzen dira; eta, beraz, haiek horrela isladaturik beti mugitzen ari direlarik, giza Gorputza hunkiko dute *(12. Prop. arab.)* Izpirituak berriz pentsatuko duen moduan; erran nahi baita *(17. prop. arab.)* Izpirituak berriz kontenplatuko duela kanpoko gorputza, hor balitz bezala; eta hori giza Gorputzaren alderdi isurkorrek, beren baitarik mugituz, azal berak joko dituzten bezain usu. Eta, beraz, giza Gorputza behin jo duten kanpoko gorputzak ez balin badira ere existitzen, Izpirituak hor balira bezala kontenplatuko ditu, gorputzaren ekintza hura errepikatuko den bezain usu. H.B.D.B.

Eskolioa

Ikusten dugu, beraz, nola izaten ahal den, maiz gertatzen den bezala, hor aitzinean ez duguna hor balitz bezala kontenplatzea. Eta izan daiteke oraino beste kausa batzuengatik hori bera gertatzea; baina aski zait hemen kausa baten ematea, nola den gauza erakusteko, bere egiazko kausaz egin banu bezala. Eta ez zait horregatik iduritzen egiazko kausa hartarik hain urrun nabilela, zeren postulatuekin ene gain hartu dudan guztia esperientziaren emaitza baita eta ez baitzaigu zilegi neholaz ere zalantzan ezartzea erakutsi dugunaz geroz giza Gorputza existitzen dela guhaurk bera sendi dugun moduan *(ikus13. Prop. ond. Korol.).*

Eta, bestalde, *(aitzin. Korol. & 16. Prop. 2. Korol. arab.)* argi ikusten dugu zerk bereizten dituen, adibidez, Petriren ideia, Petriren beraren Izpirituaren esentzia osatzen duena eta beste gizon batek, demagun Paulok, daukan Petriren ideia. Lehenak, ezen, zehazten du zuzenki Petriren Gorputzaren esentzia, baina ez du existentziarik barne hartzen, Petri existitzen den ber baizik. Bigarrenak, aldiz, Pauloren Gorputzaren egoera azaltzen du Petriren izaera baino hobeki; eta, horrela, Pauloren Gorputzaren egoerak berdin irauten dueno, Pauloren Izpirituak, Petri existitzen ez bada ere, aitzinean hor balu bezala kontenplatuko du. Eta, gainera, ohiko hitzak erabiltzeko, kanpoko gorputzak aitzinean hor bagenitu bezala itxuratzen dituzten giza Gorputzaren afekzioen ideiak, gauzen irudiak deituko ditugu, nahiz ez dituzten gauzen itxurak marrazten. Eta gure Izpirituak horrela kontenplatzen dituelarik gorputzak, erranen dugu haiek irudikatzen dituela.

Eta orain, errakuntza zer den adierazten hasteko, nahi nizueke ohartarazi Izpirituaren irudikapenek ez dutela, berenaz, errakuntzarik edukitzen edo, bestela errateko, makurtzen baldin bada Izpiritua, ez dela hori gertatzen irudikatzen duelako baina, bakarrik, hor aitzinean balitu bezala irudikatzen dituen gauzen existentzia ukatzen duen ideia eskas duelako. Zeren eta, existitzen ez diren gauzak bere aitzinean hor dauzkala

irudikatzen duen aldi berean Izpirituak baleki gauza horiek ez direla egiazki existitzen, ez da dudarik irudikatzeko ahalmen hori bere izaeraren bertute baten kontu ezar lezakeela eta ez bizio baten gain; orozgainetik irudikatzeko ahalmen hori bere izaera soilari balegokio, erran nahi baita *(1. Zat., 7. Def. arab.)* librea balitz Izpirituak duen irudikatzeko ahalmen hori.

XVIII. Proposizioa

Giza Gorputza bizpahiru gorputzek batean behin hunki baldin badute eta gero gorputz horietarik bat irudikatzen badu Izpirituak, besteak ere berehala gogoratuko zaizkio.

Demonstrazioa

Gorputz bat irudikatzen baldin badu Izpirituak *(aitzin. Korol. arab.)*, horren kausa da kanpoko gorputz baten hatzek hunki eta aldatu dutela giza Gorputza, kanpoko gorputz hark berak haren alde batzuk jo zituenean bezala; baina, orduan, *(hipot. arab.)* giza Gorputza hunkia izan zen, Izpirituak bi gorputz aldi berean irudikatzeko gisan eta, beraz, orain ere biga aldi berean irudikatuko ditu eta Izpirituak bat edo bestea irudikatuko duelarik, bestea ere gogoratuko zaio. H.B.D.B.

Eskolioa

Horrela ikusten dugu argi, zer den Oroimena: Hau ez da, alabaina, giza Gorputzetik kanpo diren gauzen izaera barne hartzen duten ideien halako kate bat baizik; giza Gorputzeko afekzioen ordenaren eta katearen arabera Izpirituaren baitan egiten den kateatzea.

Erraten dut *lehenbizikorik*, giza Gorputzetik kanpo diren gauzen izaera barne hartzen duten ideien katea dela bakarrik; eta ez gauza horien izaera zehazten duten ideien katea. Zeren eta *(16. Prop. arab.)* giza Gorputzeko afekzioen ideiek baitute egiaz bai gorputz horren izaera bai kanpoko gorputzena barne hartzen.

Erraten dut *bigarrenekorik*, kateatze hori egiten dela giza Gorputzeko afekzioen ordenaren eta katearen arabera adimeneko ordenaren arabera egiten den ideien katetik bereizteko, azken kate honi esker baititu Izpirituak beren lehen kausen arabera gauzak ezagutzen eta kate hau berdina baita gizon guztien baitan.

Eta, bestalde, argi ikusten dugu ere horrela zergatik Izpiritua gauza baten ideiatik iragaten den berehala aitzineko gauza horrekin batere eiterik ez duen beste gauza baten ideiara, hala nola, *pomum* hitzari pentsatzetik erromatar bat eroriko da, berehala, fruitu bati pentsatzera nahiz ahoskatu den soinuarekin ez duen horrek ez antzekotasunik ez kidetasunik, non ez duten biek maiz hunki gizon horren Gorputza; erran nahi baita, delako fruitu hura ikusten zuelarik gizon horrek maiz entzun duela *pomum* hitza.

Eta, horrela, pentsamendu batetik iragaten da edonor beste batetara, bakoitzaren gorputzean bere ohiturek jarri duten gauzen irudien arteko ordenaren arabera. Soldado bat, adibidez, zaldiaren hatzak hondarrean ikusi orduko iraganen zaizu zaldiaren pentsamendutik zaldunarenera; eta hortik gerlari pentsatzera, etab. Laboraria, berriz, iraganen zaizu zaldiari pentsatzetik golde-nabarrak gogoratzera, gero landak, etab. Bakoitza, beraz, gauzen irudiak elkarri lotzeko eta kateatzeko duen ohituraren arabera iraganen da pentsamendu batetik beste honetara edo hartara.

XIX. Proposizioa

Giza Izpirituak ez du giza Gorputza bera ezagutzen eta ez daki existitzen denentz ere, Gorputza hunkitzen duten afekzioen ideien bitartez baizik.

Demonstrazioa

Giza Izpiritua, alabaina, *(13. Prop. arab.)* giza Gorputzaren ideia bera da edo Gorputzaren ezagutza *(9. Prop. arab.)* Jainkoaren baitan dagoena, zalantzarik gabe, beste gauza singular baten ideiak Hura hunkitzen duela ikusten den bezainbatean.

Edo bestela *(4. Post. arab.)* giza Gorputzak, bera etengabe berritzen duten beste gorputz anitzen beharra duenez geroz eta ideien ordena eta kateamendua *(7. Prop. arab.)* eta kausen ordena eta kateamendua berberak direnaz geroz, delako ideia hura Jainkoaren baitan izanen da gauza singular anitzen ideiek Hura hunkitzen dutela ikusten den aldetik. Eta, ondorioz, Jainkoak badauka giza Gorputzaren ideia, hots, giza Gorputza ezagutzen du, beste anitz ideiek hunkitzen duten aldetik eta ez giza Izpirituaren izaera osatzen duen aldetik; erran nahi baita, *(11. Prop. Korol. arab.)* giza Izpirituak ez duela ezagutzen giza Gorputza. Baina Gorputzaren afekzioen ideiak Jainkoaren baitan baitira, giza Izpirituaren izaera Hark osatzen duenaz geroz, erran nahi da, giza Izpirituak ezagutzen dituela afekzio horiek *(12. Prop. arab.)* eta, ondorioz, *(16. Prop. arab.)* giza Gorputza bera ere bai, eta hau *(17. Prop. arab.)* aktuan existitzen den bezala

Horra, beraz, zer neurritan, soilik, giza Izpirituak ezagutzen duen giza Gorputza bera. H.B.D.B.

XX. Proposizioa

Jainkoaren baitan badago giza Izpirituaren ideia edo ezagutza ere, giza Gorputzaren ideia edo ezagutza Jainkoari dagokion eta Jainkoari darraion modu berean.

Demonstrazioa

Pentsamendua Jainkoaren atributua da *(3. Prop. arab.)* eta, beraz, *(3. Prop. arab.)* bai Haren beraren bai Haren afekzio guzien atributua da; eta, ondorioz, *(11. Prop. arab)* giza Izpirituaren ideia ere, nahitaez, izan behar da Jainkoaren baitan. Gero Izpirituaren ideia edo ezagutza hori Jainkoaren baitan aurkitzen baldin bada hori ez dator Jainkoa mugagabea izatetik, baina bai *(9. Prop. arab.)* beste gauza singular baten ideiak Hura jotzetik. Eta nola ideien ordena eta katea eta kausen ordena eta katea berberak baitira *(7. Prop. arab.)* hortik dator Izpirituaren ideia edo ezagutza Jainkoari darraiola eta Jainkoari dagokiola Gorputzaren ideiaren edo ezagutzaren modu berean. H.B.D.B.

XXI. Proposizioa

Izpiritua bera Gorputzari lotua den bezala, Izpirituaren ideia ere lotua da Izpirituari.

Demonstrazioa

Gorputza Izpirituaren objektua den aldetik, demonstratu dugu *(12. &13. Prop. arab.)* Gorputzari lotua dela Izpiritua eta, beraz, arrazoi berarengatik, Izpirituaren ideiak lotua izan behar du bere objektuari, hots, Izpirituari berari, Izpiritua bera lotua den bezala Gorputzari. H.D.D.B.

Eskolioa

Proposizio hau biziki hobeki ulertzen da, 7. Proposizioaren Eskolioan erran dena gogoan hartuz; zeren eta hor demonstratu baitugu Gorputzaren ideia eta Gorputza, erran nahi baita *(13. Prop. arab.)* Izpiritua eta Gorputza Izaki bat eta bera direla, pentsatzen dena batean Pentsamenduaren aldetik eta bestean Hedaduraren aldetik. Eta, beraz, Izpirituaren ideia eta Izpiritua bera gauza bat eta bera dira, atributu bakar eta beraren aldetik ulertzen dena, hots, Pentsamenduaren atributuaren aldetik.

Eta berriz diot Izpirituaren ideia eta Izpiritua bera pentsatzeko ahalmenaren beharrezkotasun beretik datozela Jainkoaren baitan. Zeren eta, egiazki, Izpirituaren ideia, hots, ideiaren ideia, ideiaren forma baizik ez da, objektuarekin erlaziorik ez duen pentsatzeko modu bat bezala ulertzen den bezainbatean. Ezen, norbaitek zerbait jakiten duen unetik badaki ordu beretik, hori badakiela eta, ordu berean, badaki badakiela zer dakien eta azkenik gabe horrela.

Baina horretaz urrunago ariko gara.

XXII. Proposizioa

Giza Izpirituak hautematen ditu ez bakarrik Gorputzeko afekzioak, baina ere afekzio horien ideiak.

Demonstrazioa

Afekzioen ideien ideiak modu berean datoz Jainkoaren baitan eta Jainkoari dagozkio afekzioen ideien ideiak; eta hori demonstratzen da 20. Proposizioan bezala. Gorputzeko afekzioen ideiak, ordea, giza Izpirituaren baitan dira *(12. Prop. arab.)*, erran nahi baita *(11. Prop. Korol. arab.)* Jainkoaren baitan, giza Izpirituaren esentzia Hark osatzen duen bezainbatean. Ideia horien ideiak, beraz, Jainkoaren baitan izanen dira, giza Izpirituaren ideia edo ezagutza baduen bezainbatean, erran nahi baita *(21. Prop. arab.)* giza Izpirituaren beraren baitan; eta honek, beraz, ezagutzen ditu ez bakarrik Gorputzaren afekzioak baina afekzio horien ideiak ere. H.B.D.B.

XXIII. Proposizioa

Izpirituak ez du bere burua ezagutzen Gorputzaren afekzioen ideiak hautematen dituen bezainbatean baizik.

Demonstrazioa

Izpirituaren ideia edo ezagutza *(2O. Prop. arab.)*, Jainkoaren baitan dator eta Jainkoari dagokio Gorputzaren ideiaren edo ezagutzaren modu berean. Giza Izpirituak, ordea, *(19. Prop. arab.)* giza Gorputza bera ez duenaz geroz ezagutzen, erran nahi baita, giza Gorputzaren ezagutza *(11. Prop. Korol. arab.)* ez dagokionaz geroz Jainkoari, giza Izpirituaren esentzia Hark osatzen duen bezainbatean, Izpirituaren ezagutza ere ez doakio Jainkoari, giza Izpirituaren esentzia Berak osatzen duen bezainbatean. Eta, ondorioz, *(11. Prop. Korol. ber. arab.)* giza Izpirituak ez du ezagutzen bere burua.

Gero ordea, Gorputza jotzen duten afekzioen ideiek barne hartzen dute giza Gorputzaren beraren izaera *(16. Prop. arab.)*, erran nahi baita *(13. Prop. arab.)* bat datozela Izpirituaren izaerarekin; eta, beraz, ideia horien ezagutzak barne hartuko du, nahitaez, Izpirituaren ezagutza; eta nola *(aitzin. Prop. arab.)* ideia horien ezagutza giza Izpirituaren beraren baitan aurkitzen baita, ondorioz, giza Izpirituak, neurri horretan soilik du bere burua ezagutzen. H.B.D.B.

XXIV. Proposizioa

Giza Gorputza osatzen duten alderdien ezagutza egokirik ez du barne hartzen giza Izpirituak.

Demonstrazioa

Giza Gorputza osatzen duten alderdiak ez dagozkio Gorputzaren beraren esentziari, non ez dizkioten elkarri helarazten beren mugimenduak neurri jakin eta zehatz batean *(ikus 3. Lem. Korl. ond. Def.)* eta ez giza Gorputzarekin harremanik ez luketen Izaki bezala ulertzen ahal diren bezainbatean.

Giza Gorputzaren alderdiak, alabaina, *(1. Post; arab.)* Izaki guziz konposatu batzuk dira eta alderdi horiek *(4. Lem. arab.)* giza Gorputzetik bereizten ahal dira haren formaren eta izaeraren aldaketarik gabe eta beren mugimenduak beste neurri batean beste gorputz batzuei helaraz ditzakete *(ikus 3. Lem. ond. 1. Axiom.)* eta, ondorioz, *(3. Prop. arab.)* alderdi bakoitzaren ideia edo ezagutza izanen da Jainkoaren baitan; eta hori, jakina, (9. Prop. arab.) beste gauza singular baten ideiak jotzen duen bezainbatean; eta delako gauza singular hura *(7. Prop. arab.)* alderdia bera baino lehen dago Izadiaren ordenaren arabera.

Hori bera erran behar dugu, arrazoi berarengatik, giza Gorputza osatzen duen Izakiaren beraren edozein alderdiri buruz; eta, beraz, giza Gorputza osatzen duen edozein alderdiren ezagutza bada Jainkoaren baitan, biziki anitz gauzen ideiek hunkitzen duten bezainbatean eta ez bakarrik giza Gorputzaren ideia, erran nahi da *(13. Prop. arab.)* giza Izpirituaren izaera osatzen duen ideia duen bezainbatean; eta, ondorioz, *(11. Prop. Korol. arab.)* giza Izpirituak ez dauka giza Gorputza osatzen duten alderdien ezagutza egokirik. H.B.D.B.

XXV. Proposizioa

Giza Gorputzeko edozein afekzioren ideiak ez du barne hartzen kanpoko gorputzaren ezagutza egokirik.

Demonstrazioa

Demonstratu dugu *(ikus 16. Prop.)* giza Gorputzeko afekzio baten ideiak barne hartzen duela kanpoko gorputzaren izaera, kanpoko gorputz honek modu jakin eta zehatz batean giza Gorputza determinatzen duen bezainbatean. Baina kanpoko gorputz hura giza Gorputzari dagokion Izaki bat ez den bezainbatean, *(9. Prop. arab.)* haren ideia edo ezagutza Jainkoaren baitan da, beste gauza baten ideiak Jainkoa hunkitzen duen bezainbatean, eta izatez beste gauza hura *(7. Prop. arab.)* kanpoko gorputza baino lehen da. Eta, beraz, kanpoko gorputzaren ezagutza egokirik ez da Jainkoaren baitan, giza Gorputzaren ideia duen bezainbatean edo, bestela errateko, giza Gorputzeko afekzio baten ideiak ez du kanpoko gorputzaren ezagutza egokirik barne hartzen. H.B.D.B.

XXVI. Proposizioa

Giza Gorputzak ez du kanpoko gorputzik, aktuan existitzen denik bakar bat ere hautematen, non ez den bere Gorputz propioko afekzioen ideien bitartez.

Demonstrazioa

Kanpoko gorputz jakin batek ez baldin badu neholaz ere giza Gorputza hunkitzen *(7. Prop. arab.)* giza Gorputzaren ideia ere ez du hunkitzen, erran nahi baita, *(13. Prop. arab.)* gorputz horren existentziaren ideiak ez duela neholaz ere giza Izpiritua hunkitzen edo giza Izpirituak ez duela neholaz ere kanpoko gorputzaren existentziarik hautematen. Baina *(16. Prop. & Korol. arab.)* giza Gorputza kanpoko gorputz batek nolazpait hunkitzen duen bezainbatean, orduan bai, giza Izpirituak hautematen du kanpoko gorputz hura. H.B.D.B.

Korolarioa

Giza Izpirituak kanpoko gorputz bat irudikatzen duen bezainbatean ez du haren ezagutza egokirik.

Demonstrazioa

Giza Izpirituak bere Gorputz propioko afekzioen ideien bitartez ikusten dituelarik kanpoko gorputzak, erraten dugu gorputz haiek irudikatzen dituela *(ikus 17. Prop. Eskol.)* eta Izpirituak ez du *(aitzin. Prop. arab.)* kanpoko gorputzak aktuan existitzen direla irudikatzeko beste biderik. Eta, ondorioz, *(25. Prop. arab.)* Izpirituak, kanpoko gorputzak irudikatzen dituen bezainbatean, ez du haien ezagutza egokirik. H.B.D.B.

XXVII. Proposizioa

Giza Gorputzeko edozein afekzioren ideiak ez du giza Gorputzaren beraren ezagutza egokirik barne hartzen.

Demonstrazioa

Giza Gorputzeko afekzio baten edozein ideiak giza Gorputzaren izaera adierazten du, modu jakin eta zehatz batean giza Gorputza hunkitua den bezainbatean *(ikus 16. Prop.)*. Baina giza Gorputza Izaki bat denaz geroz beste anitz modutara hunkitua izaten ahal da haren ideia beraz, etab. *Ikus 25. Prop. Demonstr.*

XXVIII. Proposizioa

Giza Gorputzeko afekzioen ideiak, giza Izpirituari bakarrik dagozkien bezainbatean, ez dira ez argiak ez bereziak baina bai nahasiak.

Demonstrazioa

Giza Gorputzeko afekzioen ideiek, alabaina, *(16. Prop. arabera)* berdin barne hartzen dute ala kanpoko gorputzen izaera ala giza Gorputzaren berarena; eta, gainera, barne hartzen dute bai giza Gorputzaren izaera bai haren alderdiena; zeren eta *(3. Post. arab.)* afekzioak izate modu batzuk dira, zeinen arabera giza Gorputzaren alderdiak eta, beraz, giza Gorputz osoa hunkituak izaten baitira. Kanpoko gorputzen ezagutza egokia ordea, eta giza Gorputza osatzen duten alderdiena *(24. & 25. Prop. arab.)* Jainkoaren baitan da, Jainkoari dagozkion aldetik ez giza Izpiritua baina beste ideia batzuk. Afekzio haien ideiak, beraz, giza Izpiritu soilari dagozkion aldetik premisarik gabeko ondorioak bezala dira, erran nahi baita *(berez doanez)* ideia nahasiak. H.B.D.B.

Eskolioa

Gisa berean demonstratzen da giza Izpirituaren izaera osatzen duen ideia ez dela, berez soilik ikusten den aldetik, ez argia ez berezia; argiak eta bereziak ez diren bezala ez giza Izpirituaren ideia ez giza Gorputzaren afekzioen ideien ideiak, Izpirituari soilik dagozkion aldetik, bakoitzak ikus dezakeen bezala.

XXIX. Proposizioa

Giza Gorputzaren edozein afekzioren ideiaren ideiak ez du giza Izpirituaren ezagutza egokirik barne hartzen.

Demonstrazioa

Giza Gorputzeko afekzio baten ideiak *(27. Prop. arab.)* ez du, alabaina, Gorputzaren beraren ezagutza osorik barne hartzen edo, bestela errateko, ez du adierazten modu egokian haren izaera, hots, *(13. Prop. arab.)* ez dagokio modu egokian Izpirituaren izaerari. Eta, ondorioz, *(6. Axiom. arab.)* ideia horren ideiak ez du modu egokian adierazten Izpirituaren izaera, erran nahi baita ez duela haren ezagutza egokirik barne hartzen. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator giza Izpirituak, Naturaren ordena arruntetik abiatuz gauzak hautematen dituen aldioro, ez duela ez bere buruaren ez bere Gorputzaren ez kanpoko gorputzen ezagutza egokirik izaten baina bakarrik ezagutza nahasi eta murriztailea.

Izpirituak, alabaina, ez du bere burua ezagutzen ahal non ez dituen Gorputzaren afekzioen ideiak hautematen *(23. Prop. arab.).* Eta bere Gorputza ez du hautematen *(19. Prop. arab.)* afekzioen ideia beren bitartez baizik eta *(26. Prop. arab.)* kanpoko gorputzak ere haien beren bitartez hautematen ditu. Eta, ondorioz, ideia haiek dituenez, ez du *(29. Prop. arab.)* ez bere buruaren *(27. Prop. arab.)* ez bere Gorputzaren *(25. Prop. arab.)* ez kanpoko gorputzen ezagutza egokirik baina bakarrik *(28. Prop. & haren Eskol. arab.)* ezagutza nahasi eta murriztailea. H.B.D.B.

Eskolioa

Erraten dut, zehazki, Izpirituak ez duela ez bere buruaren ez bere Gorputz propioaren ez kanpoko gorputzen ezagutza egokirik, baina haien ezagutza nahasi eta murriztailea duela bakarrik, gauzak Naturaren ordena arruntetik abiatuz ezagutzen dituen bakoitzean.

Erran nahi da kanpotik determinatua den bakoitzean, hots, gauzen ustekabeko elkar jotzetik honi edo horri behatzera determinatua denean eta ez barnetik, hots, zenbait gauza batean ikustetik determinatua den aldi bakoitzean ikusteko zertan gauza horiek ala elkarrekin bat egiten duten ala elkarretarik bereizten diren ala elkarri jazartzen. Zeren eta Izpiritua barnetik honela edo horrela egokitua den aldioro, orduan, ikusten ditu gauzak modu argi eta berezian, urrunago erakutsiko dudan bezala.

XXX. Proposizioa

Gure Gorputzaren iraupenaren ezagutza guztiz ezegokia baizik ez dugu izaten ahal.

Demonstrazioa

Gure gorputzaren iraupena ez datxekio *(1. Axiom. arab.)* haren esentziari, ez eta *(1. Zat., 21. Prop. arab.)* Jainkoaren izaera absolutuari, baina *(1. Zat., 28. Prop. arab.)* determinatua da kausa jakin batzuengatik existitzera eta ekitera; eta kausa hauek ere determinatuak dira existitzera eta ekitera, modu zehatz eta determinatu batez, beste kausa batzuengatik; eta hauek, berriz, beren aldian, beste batzuengatik; eta, horrela, azkenik gabe. Gure Gorputzaren iraupena, beraz, Naturaren ordena arruntetik eta gauzen egoeratik datorkigu.

Gauzak nola osatuak izan diren aldetik zuzen jakitea, ordea, hau Jainkoari dagokio Honek gauza guztien ideiak badituenez, baina ez giza Gorputzaren ideia bakarrik duen aldetik *(9. Prop., Korol. arab.).* Eta, beraz, gure Gorputzaren iraupenaren ezagutza guztiz ezegokia da Jainkoaren baitan giza Izpirituaren izaera osatzen duela gogoratzen baldin badugu soil-soilik; erran nahi baita *(11. Prop., Korol. arab.)* ezagutza hori guztiz ezegokia dela gure Izpirituan. H.B.D.B.

XXXI. Proposizioa

Gutarik kanpo diren gauza singularren iraupenaren ezagutza guztiz ezegokirik baizik ez dugu izaten ahal.

Demonstrazioa

Giza Gorputza bezala, alabaina, gauza singular bakoitza, beste gauza singular batek determinatzen du existitzera eta modu jakin eta zehatz batez ekitera; eta gauza singular

hori, berriz, beste batek; eta, horrela, azkenik gabe *(1. Zat., 28. Prop. arab.).* Eta aitzineko Proposizioan, gauza singularren propietate komun horietarik erakutsi dugunaz geroz ez dugula ezagutza guztiz ezegokia baizik izaten ahal gure Gorputzaren iraupenaz, gauza singularren iraupenaz ere berdin aterako dugu ez dugula haien ezagutza guztiz ezegokirik baizik izaten ahal. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator gauza singular guztiak kontingente eta galkor izatea. Haien iraupenaz, alabaina, *(aitzin. Prop. arab.)*, ezin dugu ezagutza egokirik izan. Eta hori bera dugu adierazten gauzak kontingente eta galkor direla erranez *(ikus 1. Zat., 33. Prop. Eskol.).* Ezen, hortik landa *(1. Zat., 29. Prop. arab.)* ez da deus kontingente denik.

XXXII. Proposizioa

Jainkoari dagozkion aldetik ideia guztiak egiak dira.

Demonstrazioa

Jainkoaren baitan diren ideia guztiek, alabaina, ideiak diren gauzekin bat egiten dute, osoki, *(7. Prop. Korol. arab.)* eta, ondorioz, *(1. Zat., 6. Axiom. arab.)* guztiak egiak dira. H.B.D.B.

XXXIII. Proposizioa

Ez da deus positiborik aurkitzen ideietan, gezurrezkoak direla errateko gisan.

Demonstrazioa

Ukatzen baldin baduzu, asma ezazu, ahal baduzu, errakuntzaren edo gezurraren forma osa lezakeen pentsatzeko modu positibo bat. Pentsatzeko modu hori ez da Jainkoaren baitan izaten ahal *(aitzin. Prop. arab.)* eta Jainkotik landa ere ez da ez izaten ahal ez pentsatzen ahal *(1. Zat. 15. Prop. arab.)* eta, ondorioz, ez da ideietan deus positiborik aurkitzen ahal, gezurrezkoak direla errateko gisan. H.B.D.B.

XXXIV. Proposizioa

Gure baitan absolutua edo egokia eta betegina den ideia oro, egia da.

Demonstrazioa

Ideia egokia eta betegina gogoan dugula diogularik, ez dugu besterik erraten *(11. Prop. Korol. arab.)* gure Izpirituaren esentzia Jainkoak osatzen duen aldetik, Haren baitan ideia egokia eta betegina badela baizik. Eta, ondorioz, *(32. Prop. arab.)* ez dugu beste deusik erraten horrelako ideia egia dela baizik. H.B.D.B.

XXXV. Proposizioa

Ideia ezegokiek edo nahasi eta murriztaileek barne hartzen duten ezagutzarik ezean datza faltsutasuna.

Demonstrazioa

Ez da deus positiborik aurkitzen ideietan faltsutasunaren forma osatzen duenik (33. Prop. arab.); baina faltsutasuna ez da gabezia absolutua (Izpirituentzat ezen erraten baldin badugu tronpatzen direla edo oker dabiltzala, ez dugu horrelakorik egiten Gorputzentzat); ez da ere ezjakite absolutua, ezen, gauza ezberdinak dira ezjakitea eta oker ibiltzea; eta, beraz, gauzen ezagutza ezegokiak barne hartzen duen ezagutzarik ezean datza errakuntza, hots, ideia ezegoki eta nahasietan. H.B.D.B.

Eskolioa

17. Proposizioaren Eskolioan adierazia dut nola ezagutzarik ezean datzan errakuntza, baina gai horren hobeki argitzeko, adibide bat emanen dut: gizakiak tronpatzen dira libre direla uste dutelarik eta uste horren arrazoi bakarra da, beren ekintzen berri badutela, baina determinatzen dituzten kausak ez dakizkitela. Beren libertateaz duten ideia hori datorkie, beraz, beren ekintzen kausa bihirik ez ezagutzetik. Zeren giza ekintzak nahimenari dagozkiola diotelarik, hitz horiek hitz hutsak dira, haientzat ere ideiarik ez dutenak. Zer den, alabaina, nahimena eta honek nola Gorputza mugitzen duen nehork ez daki, are gutiago beste zerbait asmatzen dutenek eta

izpirituaren aulkiak edo egoitzak irudikatzen dituztenek, berak irringarri edo okaztagarri bilakatu ohi direlarik.

Eta, horrela, eguzkiari behatzen diogularik irudikatzen dugu gutarik nonbait han berrehun oinbetetan aurkitzen dela, baina gure errakuntza ez datza irudikizun huts horretan, baizik eta irudikatze hori egiten dugularik ez baitakigu zer den ez egiazko distantzia ez zer den gure irudikizunaren kausa. Ezen, geroxeago jakiten baldin badugu lurraren 600 diametrotan baino gutarik urrunago dagoela, eguzkia hurbil daukagula irudikatzen ariko gara oraino; zeren eta hain hurbil irudikatzen baldin badugu, hori ez da hori gertatzen, distantzia zuzena ez dakigulakoan, gure Gorputzaren afekzio batek eguzkiaren esentzia barne hartzen duelako baizik, eguzki horrek Gorputza bera hunkitzen duen aldetik.

XXXVI. Proposizioa

Ideia ezegoki eta nahasiak jarraikitzen dira elkarri ideia egokien, hots, argien eta berezien ezinbestekotasun berarekin.

Demonstrazioa

Ideia guztiak Jainkoaren baitan dira *(1. Zat., 15. Prop. arab.)* eta Jainkoari dagozkion ber *(32. Prop. arab.)* egiak dira eta *(7. Prop. Korol. arab.)* egokiak ere. Eta, ondorioz, ideia ezegoki eta nahasirik ez da, non ez dagozkion norbaiten Izpiritu bereziari *(ikus horretaz 24. & 28. Prop.)* . Eta beraz, guztiak, egokiak ala ezegokiak *(6. Prop. Korol. arab.)* elkarri jarraikitzen dira ezinbestekotasun berarekin. H.B.D.B.

XXXVII. Proposizioa

Denek amankomunean dutena *(ikus horretaz gorago 2. Lemma)* eta osoan bezala alde bakoitzean aurkitzen dena ez da nehondik ere gauza singular baten esentzia izaten ahal.

Demonstrazioa

Ukatzen baldin baduzu, pentsa ezazu, ahal baduzu, zerbaitek gauza singular baten esentzia osatzen duela; demagun B-ren esentzia. Horrek erran nahi du *(2. Def. arab.)* B gabe zerbait hura ez dela ez izaten ahal ez ulertzen ahal; hau, ordea, Hipotesiaren aurka doa eta, beraz, zerbait hura ez dagokio B-ren esentziari eta ez du ere beste edozein gauza singularrren esentziarik osatzen. H.B.D.B.

XXXVIII. Proposizioa

Denek amankomunean dituzten gauzak eta osoan bezala alde bakoitzean aurkitzen direnak ez dira egokiro baizik pentsatzen ahal.

Demonstrazioa

Demagun gorputz guztiena den gauza bat dela A, eta gorputz bakoitzaren alde bakoitzean aurkitzen dela haren osotasunean bezala: nik diot ezin dela A-rik pentsatu egokiro baizik. Ezen, haren ideia *(7. Prop. Korol. arab.)* egokia izanen da, nahitaez, Jainkoaren baitan bai giza Gorputzaren ideia duen aldetik bai Gorputzeko afekzioen ideiak dituen aldetik; eta ideia haiek *(16., 25. & 27. Prop. arab.)* kanpoko gorputzen nola giza Gorputzaren izaeraren alde bat barne hartzen dute, erran nahi baita *(12. &13. Prop. arab.)* ideia hura, nahitaez, egokia izanen dela Jainkoaren baitan giza Izpiritua osatzen duen aldetik, hots, giza Izpirituko ideiak badituen aldetik. Izpirituak, beraz, *(11. Prop. Korol. arab.)* ezagutzen du A egokiro; eta hori, bai bere burua bai bere Gorputz propioa edo kanpoko edozein gorputz ezagutzen duen aldetik, eta A ezin da pentsa beste modu batean. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator badirela ideia edo nozio batzuk gizaki guztiek amankomunean dauzkatenak; zeren eta *(2. Lem. arab.)* gorputz guztiek bat egiten baitute gauza batzuetan; eta gauza hauek *(aitzin. Prop. arab.)* gizaki guztiek hauteman behar dituzte egokiro, erran nahi baita modu argi eta berezian.

XXXIX. Proposizioa

Giza Gorputzak eta giza Gorputza sarri hunkitzen ohi duten kanpoko gorputz batzuek eta, propio hauek, amankomunean duten eta hauetarik bakoitzaren parte batean bezainbat haien osotasunean aurkitzen den zerbaiten ideia ere egokia izan behar da Izpirituan.

Demonstrazioa

Demagun A, giza Gorputzeko eta kanpoko gorputz batzuen eta propio haien amankomuneko zerbait dena eta berdin giza Gorputzaren baitan nola kanpoko gorputz horien beren baitan dena eta azkenean kanpoko gorputz horien parte bakoitzean bezainbat horien osobetean aurkitzen dena. A horren ideia egokia Jainkoaren baitan izanen da *(7. Prop. Korol. arab.)* giza Gorputzaren ideia nola kanpoko gorputz delakoen ideiak Jainkoak badituenez geroz.

Demagun orain giza Gorputza hunki duela kanpoko gorputz batek harekin amankomunean daukan zerbaiten bitartez, hots, A-ren bitartez: Afekzio horren ideiak *(16. Prop. arab.)*, A tasuna barne hartuko du; eta ondorioz *(7. Prop. Korol. arab.)* delako afekzioaren ideia, A tasuna barne hartzen duenez, egokia izanen da Jainkoaren baitan giza Gorputzaren ideiak Jainkoa hunkitzen duen bezainbatean; erran nahi baita *(13. Prop. arab.)* giza Izpirituaren izaera Berak osatzen duen aldetik. Eta, ondorioz, *(11. Prop. Korol. arab.)* giza Izpirituaren baitan ere egokia da ideia hori. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator Izpiritua gauza gehiagoren egokiro ezagutzeko gai dela, haren Gorputza beste gorputzekin batean gauza gehiagoren jabe den bezainbatean.

XL. Proposizioa

Egokiak diren ideietarik Izpirituan datozen ideia guztiak berdin egokiak dira.

Demonstrazioa

Hori nabaria da. Ezen, erraten dugularik egokiak diren ideietarik giza Izpirituan ideia bat datorrela ez dugu besterik erraten *(11. Prop. Korol. arab.)* Jainkoaren adimenean Jainkoa Bera kausa den ideia bat badela baizik, ez, ordea, Bera mugagabea denez edo zernahi gauza berezien ideiek Bera hunkitzen dutenez, giza Izpirituaren esentzia Berak osatzen duenez baizik.

I. Eskolioa

Argitu dut horrela, *Arruntak* deitzen ditugun eta gure arrazoinamenduaren oinarriak diren nozioen kausa. Baina badira beste kausa batzuk, hala nola, zenbait axioma edo nozio, guk darabilgun bide beretik azaldu behar litezkeenak. Eta, horrela, finka genezake zein diren nozioak, besteak baino baliagarriagoak direnak eta zein ere balio handirik gabekoak; gero, zein diren arruntak, zein argiak eta bereziak, aurreiritziek itsutzen ez dituztenentzat bederen, eta, azkeneko, zein diren funtsik gabeak.

Finka genezake bestalde, nondik datozen *Bigarrenak* deitzen ditugun nozioak, eta, beraz, hauen gainean oinarritzen diren axiomak eta gai horien inguruan askotan gogoratu zaizkidan gauza batzuk. Baina, beste Liburu batean sartu baititut gauza horiek eta ere ez baitzaituztet orain luzeegi izanez aspertu nahi, erabaki dut hemen horretaz besterik ez erratea.

Bizkitartean, jakin behar diren gauza batzuen ez huts egiteko, aipatuko dut laburki Izate, Gauza, Zerbait, eta horrelako *Transzendentalak* deitu hitzek non dituzten beren kausak. Hitz horiek sortzen dira, giza Gorputzak, mugatua delako, ez baitu aldi berean irudi kopuru jakin bat baizik modu zehatz batean bere baitan sortzen ahal *(17. Prop. Eskol. adierazia dut irudia zer den)* ; kopuru hori gainditzu geroz, irudiak hasten dira nahasten eta Gorputzak, aldi berean, bere baitan modu zehatz batean sortzen ahal dituen irudien kopurua izigarri gainditzen baldin bada, irudi guztiak elkarren artean nahasten dira osoki.

Horiek horrela, 17. Proposizioaren Korolariotik eta 18. Proposiziotik argi dator giza Izpirituak bere Gorputzean, aldi berean, sortzen ahal duen irudi bezainbat gorputz irudikatzen ahalko duela, aldi berean, modu zehatz batez. Eta irudiak osoki nahasten direlarik Gorputzean, Izpirituak ere irudikatuko ditu gorputz guztiak nahasirik, zehaztasunik batere gabe, eta hartuko ditu nolazpait atributu beraren itxuran, hots, Izatearen, Gauzaren etabarren itxuran. Eta ondorio hori bera datorkigu irudiek ez beti indar bera izatetik edo horrelako beste kausa batzuetatik, baina ez dugu hemen argitasun gehiago emate beharrik; ezen, hemen dugun xedearentzat aski zaigu kausa bakarra ikustea; beste guztiak, alabaina, honetara biltzen dira: guztiz ideia nahasiak adierazten dituztela hitz haiek.

Gero, kausa beretsuetarik datoz ere, Gizakia, Zaldia, Zakurra etabar bezalako nozio *Orokorrak*; hots, giza Gorputzean, aldi berean, hainbeste gizaki edo beste irudi sortzen baitira non gainditzen baitute, ez osoki, jakina, baina aski halere, giza Izpiritua, ez gauza singularren berezitasun xeheak (hala nola kolorea, handitasuna etab.), ez eta haien kopuru zehatza irudikatzeko ahalmenik ez uzteko gisan, eta Gorputza gauza guztiek hunkitzen dutenez, amankomunean edukiko duten hura, soilik, zehazki irudikatzeko moduan. Hura da, alabaina, gauza singular bakoitzean aurkitzen denez, Gorputza gehienik hunkitzen duena; hura bera da *gizaki* hitzak adierazten duen eta kontaezinezko gauza singularren atributu bezala predikatzen duena. Gauza singularren kopuru zehatzik, alabaina, erran dugun bezala, ezin du irudikatu.

Baina ikusi behar da ez dituztela guztiek modu berean sortzen nozio horiek eta beraz aldatzen direla bakoitzarengan, Gorputza maizenik hunkitzen duen gauzaren arabera eta Izpirituak errazkienik irudikatzen edo gogoratzen duenaren arabera. Hala nola gizakien kaizua maizenik harriduraz kontenplatu dutenek *gizaki* hitza erabiliko dute abere lerden bat adierazteko; baina beste zerbait kontenplatu ohi dutenek gizakien beste irudi arrunt bat sortuko dute: adibidez, gizakia izanen da irri egiten dakien aberea edo lumarik gabeko bizangodun aberea edo arrazoidun aberea eta horrela gainerakoak; bere gorputz propioaren egoeraren arabera bakoitzak sortuko ditu gauzen irudi unibertsalak. Ez da, beraz, harritzeko, gauzen irudien bitarte soilez gauza naturalak argitu nahi izan dituzten Filosofoen artean hainbeste eztabaida sortu izatea.

II. Eskolioa

Orain arte erran ditugun guztietarik agertzen da garbiki anitz gauza hautematen ditugula eta nozio unibertsalak sortzen ditugula: 1-ik, sentsuen bitartez, modu murriztaile, nahasi eta adimenarentzat ordenarik gabekoan, hautematen ditugun gauza singularretarik *(ikus 29. Prop. Korol.)* ; eta horrengatik hautemate horiek deitu ohi ditut zehaztugabeko esperientziaren ezagutzak. 2-ik zeinuen bitartez, hala nola, hitz batzuk entzunik edo irakurririk gauza batzuez oroitzen garelarik eta haien bitartez ideia batzuk sortzen ditugularik, zeinen bidez irudikatzen baititugu gauzak iduriak *(ikus 18. Prop. Eskolioa).* Gauzen kontenplatzeko bi modu horiek deituko ditut hemendik hara lehen moduko ezagutza, iritzia edo irudipena. 3-ik eta azkenik, gauzen propietateen nozio komunak eta ideia egokiak izatetik abiatuz *(ikus 38. Prop. Korol. 39. Prop. eta haren Korol. eta 4O. Prop.)* eta modu hau deituko dut arrazoinezkoa eta bigarren moduko ezagutza.

Bi ezagutza modu horiez bestalde, hirugarren bat badugu, urruntxeago erakutsiko dudan bezala, deituko baitugu ezagutza intuitiboa. Azken ezagutza mota hau Jainkoaren atributu batzuen esentzia formalaren ideia egokitik dator eta gauzen esentziaren ezagutza egokirantz doa.

Gauza soil baten adibidearekin adieraziko dut hori guztia: demagun, adibidez, badauzkagula hiru zenbaki eta laugarren bat nahi dugula ezagutu, hirugarrenari izanen zaiona bigarrena lehenari buruz den hein berean. Merkatariek badakite, batere durduzatu gabe, bigarrena hirugarrenaz biderkatzen eta biderkadura lehenaz zatikatzen, zeren edo

ez baitute oraino ahantzi nagusiari batere demonstratu gabe erraten entzun diotena edo berek maiz zenbaki sinple-sinple batzuekin saioa egin baitute edo Euklideren 7. liburuko 19. Proposizioaren Demonstrazioaren indarrez, hots, proportzional guztiek amankomunean duten tasunetik abiatu baitira. Baina zenbaki sinpleenentzat ez da horren beharrik: hala nola, 1. 2. 3. zenbakiak emanez geroz, nornahik ikus dezake laugarren zenbaki proportzionala 6 dela; eta hori biziki hobeki, zeren eta begi ukaldi soil batez lehenaren eta bigarrenaren artean ikusten dugun erlaziotik ateratzen baitugu laugarrena.

XLI. Proposizioa

Faltsutasunaren kausa bakarra lehen moduko ezagutza da, bigarren eta hirugarren modukoak, aldiz, egiak dira nahitaez.

Demonstrazio

Aitzineko Eskolioan erran dugun bezala lehen moduko ezagutzari dagozkio ezegokiak eta nahasiak diren ideia guztiak; eta, ondorioz, *(35. Prop. arab.)* ezagutza mota hori da faltsutasun kausa bakarra. Gero erran dugu bigarren eta hirugarren moduko ezagutzari dagozkiola egokiak direnak; eta, ondorioz, *(34. Prop. arab.)* egiak dira nahitaez. H.B.D.B.

XLII. Proposizioa

Bigarren eta hirugarren moduko ezagutzak erakusten digu egia eta gezurra bereizten eta ez lehen modukoak.

Demonstrazioa: Berez nabarmen da Proposizio hau; ezen, egia eta gezurra bereizten badakienak egiaren eta gezurraren ideia egokia izan behar du, hots, *(4O. Prop. 2. Eskol. arab.)* egiaren eta gezurraren bigarren edo hirugarren moduko ezagutza izan behar du.

XLIII. Proposizioa

Ideia egokia duenak badaki, aldi berean, ideia egokia duela eta ezin du gauza egia dela zalantzan ezar.

Demonstrazioa

Gure baitan egokia den ideia, giza Izpirituaren izaeraz ulertzen den bezainbatean *(11. Prop. Korol. arab.)* Jainkoaren baitan egokia den ideia da. Demagun, beraz, Jainkoaren baitan badela, giza Izpirituaren izaeraz ulertzen den bezainbatean, A deitu ideia egokia. Jainkoaren baitan ere izan behar da baitezpada ideia horren ideia bat, Jainkoari dagokiona A ideiaren modu berean *(20. Prop. arab., honen Demonstrazioa orokorra baita).* A ideia, ordea, Jainkoari dagokio giza Izpirituaren izaeraz ulertzen den bezainbatean; A ideiaren ideia ere, beraz, modu berean dagokio Jainkoari, erran nahi baita *(11. Prop. Korol. ber. arab.)* A ideiaren ideia egokia aurkitzen dela A ideia egokia duen Izpirituaren beraren baitan. Eta, ondorioz, ideia egoki bat duenak edo bestela errateko *(34. Prop. arab.)* gauza egiazki ezagutzen duenak izan behar du, aldi berean, haren ideia egokia, hots, bere ezagutzaren egiazko ezagutza edo *(berez ageri dena)* segur izan behar du, aldi berean. H.B.D.B.

Eskolioa

Zati honetako 21. Proposizioaren Eskolioan zehaztua dut zer den ideiaren ideia; baina ohartu behar da aitzineko Proposizioa berez aski argi dela; bakoitzak, ezen, ideia egoki bat duen ber, jakinen du ideia egokiak barne hartzen duela segurtasun handiena; ideia egoki bat izateak, alabaina, ez du beste deusik adierazi nahi, modu osoenean edo hoberenean, gauza baten ezagutza baizik; eta ezin du nehork horrelakorik zalantzan ezarri ez baldin badu bederen pentsatzen ideia, zerbait mutu dela, halako lauki baten gaineko pintura bezala dela eta ez pentsatzeko modu bat, hots, adimena bera.

Eta nik galdatzen dut: nork jakin dezake gauza bat ulertzen duela, ez baldin badu aitzinetik gauza hura ulertu? Edo bestela, nork jakin dezake gauza batez segur dela, non ez den aitzinetik gauza hartaz segur? Eta, gainera, ba ote da deus argiagorik eta

seguragorik ideia egokia baino, egiaren norma izateko? Segur gara beraz, eguzkiak adierazten dituen bezala, aldi berean, bere burua eta ilunbeak, egia ere, halaber, bere buruaren eta gezurraren araua dela.
Eta horrela ihardetsi diet, nik uste, honelako galde hauei: ideia egokia bereizten baldin bada ezegokitik, ideia den harekin bat egiten omen duen bezainbatean bakarrik, ideia egokiak ez ote du, beraz, ezegokiak baino errealitate edo betegintzarre gehiagorik (kanpotikako izenak baizik ez dituenaz geroz bereizten)? Eta ondorioz, ideia egokiak dituen gizakiak ere ez ote du, ezegokiak dituenak baino gehiagokorik? Nondik dator, gainera, gizakiek ideia ezegokiak izatea? Eta azkenik, nola jakin segurki gure ideiek bat egiten dutela, zeinen ideiak baitira eta harekin?
Galde horiei jadanik ihardetsia dudala, ene ustez, daukat nik: ideia egokiaren eta ezegokiaren arteko ezberdintasunari dagokionez, 35. Proposiziotik argi dator, alabaina, lehenaren eretzean bigarrena dagoela izatearen aldera ez-izatea dagoen bezala. Faltsutasunaren kausak, bestalde, argian ezarri ditut, 19. Proposiziotik 35. Proposiziorakoan, hau bere Eskolioarekin hartu-eta. Hortik ageri baita ere zer ezberdintasun den ideia zuzenak dituen gizakiaren eta ideia okerrik baizik ez duen gizakiaren artean.
Azkenean, azken puntuari dagokionez, hots, ikusteko nondik ote gizakiak jakin dezakeen, zeren ideia baita eta harekin bat egiten duela bere ideia batek, oraintxe erakutsia dut aski garbiki hori datorrela zeren ideia baita eta harekin bat egiten duen ideia izatetik, soil-soilik, edo, bestela errateko, egia bera bere buruaren norma izatetik. Erantsiko dugu gainera, gure Izpiritua, gauzak egiaz hautematen dituenez, Jainkoaren adimen mugagabearen parte bat dela *(11. Prop. Korol. arab.)* eta, ondorioz, Jainkoaren ideiak egiak diren bezain ezinbesteko dela Izpirituaren ideia argiak eta bereziak ere egiak izan daitezen.
XLIV. Proposizioa
Ez dagokio Adimenaren izaerari gauzen ikustea kontingente bezala baina bai ezinbesteko bezala.
Demonstrazioa
Adimenaren izaerari dagokio gauzen egokiro hautematea *(41. Prop. arab.)*, hots, *(1. Zat., 6. Axiom. arab.)* berenaz diren bezala edo *(1. Zat., 29. Prop. arab.)* ez kontingente bezala baina ezinbesteko bezala. H.B.D.B.
I. Korolarioa
Hortik dator irudimen soilari dagokiola, gauzak kontingente bezala kontenpla ditzagun iraganari buruz nola geroari buruz.
Eskolioa
Nola gertatzen den hori azalduko dut laburki.
Demonstratu dugu jadanik *(17. Prop. eta haren Korol.)* gauzak existitzen ez direlarik ere, Izpirituak irudikatzen dituela berdin hor balira bezala non ez den kausa zerbait agertzen presenteko existentziaren ezeztatzeko. Gero, *(18. Prop. arab.)* demonstratu dugu kanpoko bi gorputzek batean hunkitzen baldin badute giza Gorputza, ondotik Izpirituak irudikatzen duelarik bi gorputz haietarik bat edo bestea, bestea ere gogoratuko zaiola berehala; erran nahi da, biak ikusiko dituela hor balira bezala non ez den zerbait kausa gertatzen haien presenteko existentzia baztertzeko.
Bestalde, nehork ez du zalantzan jartzen denbora ere irudikatzen dugula, hots, irudikatzen dugula gorputz batzuk besteak baino emekiago edo lasterrago edo berdintsu ibiltzen direla. Demagun, beraz, haur batek atzo goizean Petri ikusi duela eta Paulo eguerditan eta arratsean Simeon eta goiz honetan berriz Petri. 18. Proposiziotik dator, jakina, goizargia ikusi orduko haur hark irudikatuko duela berehala nola bezperan, hots, egun osoan iragaten ikusi duen ortzeko bide bera iragaten duela eguzkiak eta goizarekin

batean irudikatuko du haurrak Petri eta eguerdiarekin batean Paulo eta arratsarekin batean Simeon; erran nahi baita haurrak irudikatuko duela Pauloren eta Simeonen existentzia geroko denborari buruz.

Eta, alderantziz, arratsean Simeon ikusten baldin badu, Piarres eta Paulo iragan denboran kokatuko ditu, iragan denborarekin batean haiek irudikatuko baititu; eta hori, zenbat eta maizago ordena horretan berean ikusi baititu hainbat eta tinkoago.

Eta gerta balekio behin Simeonen orde Jakoberen ikustea arrats batez, orduan, biharamun goizean irudikatuko du arratsarekin batean edo Simeon edo Jakobe, baina ez biak batean; ezen, erran dugu bietarik bat bakarrik duela arratsean ikusi eta ez biak batean. Eta, beraz, haurraren irudimena zalantzan ibiliko da eta geroko arratsarekin batean irudikatuko du, batean bata bestean bestea; erran nahi da, ez duela ez bata ez bestea ikusiko segurki etorri beharrean baina bat edo bestea zortez etortzeko moduan.

Eta irudimenaren zalantza berdina izanen da, iragan denborari ala presentekoari dagokion modu berean kontenplatzen ditugun gauzen irudikatzeaz badihardugu, eta ondorioz, ala iragan denborari ala presentekoari ala gerokoari dagozkien gauzak kontingente bezala irudikatuko ditugu.

II. Korolarioa

Adimenaren izaerari dagokio gauzen hautematea halako betierearen itxura batekin.

Demonstrazioa

Adimenaren izaerari dagokio, alabaina, *(aitzin. Prop. arab.)* gauzen kontenplatzea ezinbesteko bezala eta ez kontingente bezala; eta gauzen ezinbestekotasun hori *(41. Prop. arab.)* hautematen du egiaz, hots, *(1. Zat., 6. Axiom. arab.)* berez den bezala ikusten du. Baina *(1.Zat., 16. Prop. arab.)* gauzen beharrezkotasun hori, Jainkoaren izaera betierekoaren beharrezkotasun bera da. Adimenaren izaerari dagokio, beraz, gauzen kontenplatzea betierearen itxura horretan.

Eta horri eratxikiko diozu, Adimenaren oinarriak nozio batzuk direla, guztiek batera daukatena argitzen dutena *(38. Prop. arab.)* baina *(37. Prop. arab.)* nehongo gauza singularren esentziarik ez azaltzen. Eta, horrengatik, denborarekin batere erlaziorik gabe halako betierearen itxura batean ulertu behar dira. H.B.D.B.

XLV. Proposizioa

Edozein gorputzen edo aktuan existitzen den gauza singular baten ideia bakoitzak Jainkoaren esentzia mugagabe eta betierekoa baitezpada barne hartzen du.

Demonstrazioa

Aktuan existitzen den gauza singular baten ideiak barne hartzen du, nahitaez, gauzaren beraren esentzia, existentzia bezala *(8. Prop. Korol. arab.)*. Gauza singularrak, ordea, *(1. Zat., 15. Prop. arab.)* ez dira pentsatzen ahal Jainkorik gabe, baina nola *(6. Prop. arab.)* haien kausa Jainkoa den, gauzak berak Haren atributuen modu batzuk bezala ikusten diren neurrian, gauzen ideiek ere *(1. Zat., 4. Axiom. arab.)* barne hartu behar dute, nahitaez, atributu haren kontzeptua, hots, *(1. Zat., 6. Def. arab.)* Jainkoaren esentzia mugagabe eta betierekoa. H.B.D.B.

Eskolioa

Hemen existentzia aipatzean ez naiz mintzo iraupenaz, hots, abstraktuki ulertzen den existentziaz eta halako kantitate mota batez bezala; existentziaren izaera propioaz naiz ari. Eta hau gauza singularrei dagokie, zeren eta Jainkoaren izaeraren betiereko ezinbestetik baitatoz kontaezinezko modutan kontaezinezko gauzak *(ikus 1. Zat., 16. Prop.)*. Eta gauza singularren izaeraz, beraz, Jainkoaren baitan diren bezainbatean, naiz mintzo. Ezen, haietarik bakoitza, beste gauza singular batek determinatzen baldin badu ere modu zehatz batean existitzera erran behar da, bizkitartean, existitzen irauteko bakoitzak behar duen indarra Jainkoaren izaeraren betiereko beharrezkotasunetik datorrela. Ikus horretaz 1. Zatiko 24. Proposizioaren Korolarioa.

XLVI. Proposizioa

Ideia bakoitzak barne hartzen duen Jainkoaren esentzia mugabe eta betierekoaren ezagutza egokia da eta betegina.

Demonstrazioa

Aitzineko Proposizioaren demonstrazioa unibertsala da eta, gauza ikusten bada bere osotasunean edo berdin zatika, ideiak ere ala osoarenak ala zati batenak barne hartuko du *(aitzin. Prop. arab.)* Jainkoaren esentzia mugagabe eta betierekoa. Eta, beraz, Jainkoaren esentzia mugagabe eta betierekoaren ezagutza ematen duena denek badute eta osoan bezala zati bakoitzean aurkitzen da eta, ondorioz, *(38. Prop. arab.)* ezagutza hori egokia izanen da. H.B.D.B.

XLVII. Proposizioa

Giza Izpirituak badu Jainkoaren esentzia mugagabe eta betierekoaren ezagutza egokia.

Demonstrazioa

Giza Izpirituak ideiak baditu (22. Prop. arab.) eta haien bitartez (23. Prop. arab.) bere burua hautematen du bai eta ere bere Gorputza (19. Prop. arab.) eta (16. Prop. 1. Korol. arab. & 17. Prop.) aktuan existitzen diren kanpoko gorputzak; eta, ondorioz, (45. & 46. Prop.) Jainkoaren esentzia mugagabe eta betierekoaren ezagutza egokia izaten du. H.B.D.B.

Eskolioa

Horrela, ohartzen gara denok ezagutzen dugula Jainkoaren esentzia mugagabe eta betierekoa. Eta nola den-dena Jainkoa baitan dagoen eta Jainkoaren bitartez pentsatzen den, ondorioz, sekulako gauzak atera ditzakegu ezagutza horretarik, modu egokian ezagutzen ditugunak eta, horrela, 40. Proposizioaren 2. Eskolioan aipatu dugun hirugarren moduko ezagutza hura izaten ahal dugu eta 5. Zatian erranen dugu zein den baliosa eta bikaina horrelako ezagutza.

Jainkoaz gizakiok dugun ezagutza, ordea, ez da nozio komunez duguna bezain argia eta hori dator Jainkoa ez dugulako irudikatzen ahal gorputzak bezala eta ikusten ohituak garen gauzen irudiei ematen diegula *Jainko* izena; eta gizakiok ez dugu errazki baztertzen ahal horrelakorik kanpoko gorputzek etengabe hunkitzen gaituztelako. Eta funtsean egiten ditugun okerrik gehienak honetan dautza, soil-soilik, ez ditugula gauzei beren izen zuzenak ematen, hala nola, norbaitek diolarik zirkulu baten erditik haren ingururaino eramaten diren marrak ez direla berdinak, hori gertatzen da seguraski zirkulu hitza hor bederen matematikariek ez bezala erabili delako.

Gisa berean, gizakiek kalkulu bat huts egiten dutelarik, hori paperean dituzten zenbakiez beste batzuk gogoan izatetik dator. Eta haien Izpirituari behatzen badiogu, ez dute ez eiki huts egiten; bizkitartean, iduri du huts egiten dutela, uste baitugu paperean diren zenbaki berak dituztela izpirituan. Bestenaz ez genezake sinets huts egiten dutela, hala nola, berriki ez baitut sinetsi tronpatzen zela, bere etxea auzoaren oiloarekin airatu zitzaiola oihuka ari zena, ez baitzitzaidan iruditzen haren izpiritua hain nahasia zela.

Eta horrela dira sortzen eztabaida gehienak, zeren eta gizakiek ez baitute zuzen adierazten gogoan dutena edo makur hartzen baitute besteak gogoan duena; ezen, egiazki, beren baitan gehienik nahasiak direlarik ere edo gauza bera gogoan darabilte edo beste gauza batzuk, baina besteen gogoan okertzat eta absurdutzat hartzen dutena ez da hala egiazki.

XLVIII. Proposizioa

Izpirituaren baitan ez da aurkitzen nehongo nahimen absoluturik, hots, librerik, baina hau edo hura nahi izatera determinatzen du Izpiritua kausa jakin batek eta hau beste batek eta hau, bere aldian, beste batek eta horrela azkenik gabe.

Demonstrazioa

Pentsatzeko modu zehatz eta determinatu bat da Izpiritua *(11. Prop. arab.)* eta, beraz, *(1. Zat., 17. Prop. 2. Korol. arab.)* ez da bere ekintzen kausa librea izaten ahal edo bestela errateko, ez du izaten ahal nahi izateko eta ez izateko ahalmen absoluturik; baina *(1. Zat., 28. Prop. arab.)* hau edo hura nahi izateko kausa batek determinatua izan behar du, eta kausa hau, berriz, beste batek determinatua eta hau, bere aldian, beste batek, etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Gisa berean demonstratzen da, ez dela Izpirituan maitatzeko, desiratzeko, konprenitzeko edo besteko ahalmen absoluturik batere; eta hortik dator ahalmen horiek eta horiek iduriak edo irudipen hutsak edo izate metafisiko soilak edo unibertsalak direla, partikularretarik abiatuz osatzen ohi ditugunak. Gisa horretan, harri honekin eta harekin harritasunak edo Petrirekin eta Paulorekin gizonak duen erlazio berbera dute adimenak eta nahimenak ideia honekin eta harekin edo nahi izate batekin eta bestearekin.

Zergatik bada gizonek uste duten libre direla, uste horren kausa azaldu dugu Lehen Zatiaren *Eranskinean*. Baina urrunago joan aitzin, ohartu behar gara orain nahimena deitzen dudala baieztatzeko eta ezeztatzeko ahalmena eta ez desira; berriz ere diot, hori dela Izpirituak duen gauza baten egiaren edo gezurraren baieztatzeko edo ezeztatzeko ahalmena eta ez Izpirituak duen gauzen gutiziatzeko edo higuintzeko lehia. Eta demonstratuz geroz ahalmen horiek nozio unibertsalak direla, haien osatzeko

darabiltzagun partikularretarik bereizten ez direnak, ikusi behar dugu orain nahi izateak berak gauzen ideiez berez besterik ote diren. Ikertu behar dugu, beraz, ba ote den Izpirituaren baitan ideiak berak, ideia den ber, barne hartzen duen baieztapenaz eta ezeztapenaz besterik. Ikus bedi horretaz ondoko Proposizioa eta Zati honetako 3. Definizioa, pentsamendua ez uzteko erortzera pinturaren mailara, ezen, ideiak deitzen ditudanak ez dira ez irudi hutsak, begi zolan edo, nahi bada, garunaren erdian sortzen direnak, baina bai Pentsamenduaren kontzeptuak.

XLIX. Proposizioa

Izpirituaren baitan ez da aurkitzen beste nahi izaterik edo beste baieztapenik eta ezeztapenik ideiak berak, ideia den ber, barne hartzen duena baizik.

Demonstrazioa

Izpirituaren baitan *(aitzin. Prop. arab.)* ez da aurkitzen nahi izateko eta ez izateko ahalmen absoluturik batere, baina bakarrik nahi izate berezi batzuk, hots, baieztapen hau edo hura, ezeztapen bat edo bestea.

Asma dezagun, beraz, nahi izate singular bat, hots, pentsatzeko modu bat; honen bitartez Izpirituak baieztatzen baitu triangelu baten hiru angeluak berdin bi zuzen direla. Baieztapen horrek barne hartzen du triangeluaren kontzeptua edo ideia, erran nahi baita ez dela triangeluaren ideiarik gabe pentsatzen ahal. Gauza bera da, alabaina, erratea A-k barne hartu behar duela B-ren kontzeptua eta A ezin dela pentsatu B gabe. Gainera, horrelako baieztapena ere *(3. Axiom. arab.)* ez da izaten ahal triangeluaren ideiarik gabe eta, beraz, baieztapen hori ez da ez izaten ahal ez pentsatzen ahal triangeluaren ideiarik gabe.

Bestalde, triangeluaren ideia horrek barne hartu behar du delako baieztapen bera, hots, haren hiru angeluak berdin bi zuzen direla eta, beraz, alderantziz ere triangeluaren ideia, baieztapen hori gabe ez da ez izaten ahal ez pentsatzen ahal. Eta, ondorioz, *(2. Def. arab.)* baieztapen hori triangeluaren ideiaren esentziari dagokio eta esentzia hori besterik ez da. Eta nahi izate honetaz erran duguna -hau gure hautura hartu baitugu- erran behar dugu ere beste edozein nahi izatez, hots, ideia besterik deus ez dela. H.B.D.B.

Korolarioa

Nahimena eta adimena gauza bat eta bera dira.

Demonstrazioa

Nahimena eta adimena beste deusik ez dira nahi izate singularrak eta ideia singularrak baizik *(48. Prop. eta haren Eskol. arab.).* Nahi izate singularra, ordea, eta ideia singularra *(aitzin. Prop. arab.)* gauza bat eta bera dira; nahimena eta adimena ere, beraz, gauza bat eta bera dira. H.B.D.B.

Eskolioa

Horrela ezabatu dugu ardurenean errakuntzari eman ohi zaion kausa. Lehenago, bestalde, demonstratu dugu ideia murriztaile eta nahasiek barne hartzen duten gabezia soil-soiletik datorrela faltsutasuna eta, beraz, ideia faltsuak, faltsua den ber, ez duela segurtasunik barne hartzen. Horra zergatik erraten dugularik gizaki batek faltsukeriak onartzen dituela eta ez dituela zalantzan jartzen, ez dugun erraten horrengatik segur dela, baina bakarrik zalantzarik ez duela edo faltsukeriak onartzen dituela, bere irudimena zalantzan edukitzeko arrazoirik ez duelako. Ikus horretaz 44. Proposizioaren Eskolioa. Norbaitek faltsukeria bat nahi bezain finki onarturik ere nehoiz ez dugu beraz erranen gizaki hori segur dela, segurtamena zerbait positibo dela baitaukagu, eta ez soilik zalantzarik eza *(ikus 43. Prop. eta Eskol.).* Segurtamenik eza deitzen dugu, aldiz, faltsutasuna. Baina, aitzineko Proposizioaren hobeki argitzeko, gomendio zenbait egin behar ditugu oraino. Gero, gelditzen zait, gure irakaspenari egin dakizkiokeen eragozpenei ihardestea. Eta azkenik, uste dut, oztopo guztien gainditzeko, irakaspen honen abantaila batzuen argitzea izanen da. Batzuen, erran dut, zeren eta garrantzitsuenak ulertuko baitira hobeki Bosgarren Zatian erranen dugunarekin.

Hasten naiz, beraz, lehen puntuarekin, eta Irakurlei gomendatzen diet bereiz dezaten ximenki Izpirituaren ideia edo kontzeptua batetik eta irudikatzen ditugun gauzen irudiak bestetik. Gero bereizi behar dituzte ere ideiak batetik eta gauzen adierazteko darabiltzagun hitzak bestetik, zeren eta anitzek edo osoki nahasten baitituzte hiru gauza horiek, hots, irudiak, hitzak eta ideiak edo ez baitituzte aski

zehazki eta aski zuhurki bereizten edo batere ez baitute ezagutzen nahimenaren doktrina, zuhurtzia bera bezain zuhurki finkatzeko bizia baitezpada ezagutu behar dena.

Gorputzek elkar jotzetik gure baitan sortu irudiak direla ideiak pentsatzen dutenek, alabaina, uste dute horrelako irudiak sortzen ahal ez ditugun gauzen ideiak ez direla ideiak, asmakizunak baizik, osatzen ditugunak gure nahimenaren nahikara, alegia. Horrek erran nahi du, ideiak ikusten dituztela lauki bateko pintura mutu batzuk bezala eta, beren aurreiritziek aitzinetik osoki bereganaturik, ez direla ohartzen ideia batek, ideia den ber, barne hartzen duela baieztapena edo ezeztapena. Bestalde, edo hitzekin edo ideiak barne hartzen duen baieztapenarekin berarekin nahasten dutenek ideia, uste dute senditzen dutenaren aurka nahi izaten ahal dutela, hala nola, senditzen dutenaren aurka, hitz hutsetan soil-soilik zerbait baieztatzen edo ezeztatzen dutelarik.

Baina, aurreiritzi horien gainditzea ez da zaila izanen, Pentsamenduaren izaera zer den ohartuz geroz, ez baitu honek neholaz ere barne hartzen Hedaduraren kontzeptua; eta, horrela, garbi ulertuz geroz ideia bat (pentsatzeko modu bat den ber) ez datzala ez gauza baten irudian ez hitz batzueta. Hitzen eta irudien esentzia, alabaina, gorputzen mugimenduetan datza soil-soilik, eta ez da hor aurkituko pentsamenduaren kontzeptu zipitzik.

Gomendio apur horiekin badut aski erranik eta orain aipatu ditugun eragozpenei lotuko natzaie: *Lehen* eragozpena da, adimena baino urrunago heltzen dela nahimena eta, beraz, ezberdina dela sinestea.

Eta zergatik uste dute adimena baino urrunago doala nahimena? -Zeren eta, diotenez, esperientziaz baitakite hautematen ez ditugun kontaezinezko gauza batzuen onartzeko, hots, baieztatzeko eta ezeztatzeko ez dugula dugun baino ahalmen gehiagoren beharrik, haien konprenitzeko, aldiz, bai, ahalmen gehiago behar baita. Nahimena beraz bereizten da adimenetik, hau mugatua delako eta hura mugaezina.

*Bigarrenekorik* eragotz dakiguke, esperientziak, itxuraz, garbienik erakusten duela, hautematen dugun zerbait onartu aitzin, gure judizioa gibelatzen ahal dugula. Eta hori berresten da honelaxe: ez dugu nehoiz erranen norbait tronpatzen dela, zerbait hautematen duen bezainbatean, baina bai, bere onarpena ematen edo ukatzen duen bezainbatean. Adibidez, zaldi hegaldun bat asmatzen duenak ez du horrengatik baieztatzen zaldi hegaldunik izatez badela, hots, ez da horrengatik tronpatzen non ez den onartu, aldi berean, zaldi hegaldunak badirela. Eta, beraz, esperientziak garbienik erakusten diguna hauxe da: nahimena edo onartzeko ahalmena librea dela eta ezagutzeko ahalmena bestelakoa.

*Hirugarrenekorik* eragotz dakiguke, baieztapen batek ez duela, itxuraz, beste batek baino errealitate gehiago edukitzen; erran nahi baita, ez dela indar gehiago behar egia dena egia dela baieztatzeko, gezurra dena egia dela baieztatzeko baino. Ohartzen gara, bada, ideia batek baduela beste batek baino errealitate edo betegintzarre gehiago, zeren eta objektu batzuek, beste batzuk gainditzen dituzten neurrian, haien ideiek ere berdin gainditzen baitituzte betegintzarrez beste zenbait; eta horrek ere bermatzen du, iduriz, nahimenaren eta adimenaren arteko ezberdintasuna.
*Laugarrenekorik* eragotz dakiguke, gizakiak ez baldin badu ekiten nahimenaren libertate bidez, ez dakigula zer gertatuko ote zaion gizonari zalantzan dagoelarik beihalako Buridanen astaina bezala. Gosez eta egarriz hilen ote da? Hori onartzen badut, iduriko du astaina bat edo giza irudi bat irudikatu dudala baina ez gizon bat. Ukatzen baldin badut, ordea, erran nahiko du bere baitarik deliberatzen duela eta, ondorioz, ibiltzeko ahalmena baduela eta nahi duen guztia egitekoa.
Beste eragozpenik ere jar dakiguke menturaz oraino baina bakoitzak amets dezakeen zernahitan sartzeko eginbiderik ez dudanaz geroz, ez diet ihardetsiko lehen lau eragozpen horiei baizik eta, hori, ahalik eta laburrena.
Eta *lehenbizikoari* buruz diot, onartzen dudala nahimena adimena baino urrunago joan dadin; adimenak ideia argi eta bereziak soil-soilik adierazten dituen ber, baina ukatzen dut hautematea baino, hots, pentsatzeko ahalmena baino urrunago doala nahimena. Eta egiazki ez dut ikusten zergatik erran behar genukeen mugagabea dela nahi izateko ahalmena senditzeko ahalmena baino lehen. Ezen, nahi izateko ahalmenari esker baieztatzen ahal ditugun bezala kontaezinezko gauzak (bat bestearen ondotik, bizkitartean, kontaezinezko gauzak ez baititzakegu baiezta aldi berean) sentitzeko ahalmenari esker ere, halaber, sentitzen edo hautematen ahal ditugu (bat bestearen ondotik, jakina) kontaezinezko gorputzak.
Eta erraten baldin badigute kontaezinezko gauzak badirela hautematen ahal ez ditugunak? - Orduan, ihardetsiko diet haietara heltzeko ez dugula nehongo pentsabiderik ez eta ere, beraz, haien nahi izateko ahalmenik.
Baina, erranen digute oraino, Jainkoak nahi balu haiek ere hauteman ditzagun, eman behar liguke hautemateko ahalmen handiago bat, ez ordea nahi izateko eman diguna baino ahalmen handiagorik. - Horrek erran nahi luke, ordea, Jainkoak nahi balu beste kontaezinezko izateak pentsa ditzagun, behar ligukeela eman, segur, adimen handiago bat, baina ez kontaezinezko ideia guzti haiek besarkatzeko eman digun izatearen ideia baino ideia unibertsalago bat. Erakutsi dugu, alabaina, nahimena izate unibertsal bat dela, erran nahi baita, nahi izate singular guztiak edo nahi izate guztiek amankomunean dutena azaltzen duen ideia. Eta, beraz, pentsatzen baitute nahi izate guztien ideia amankomun edo orokor hori ahalmen bat dela, ez da batere harritzeko adimenaren haraindira, mugarik gabe, ahalmen hori hedatzen dela erraten badigute. Unibertsala berdin erraten da, alabaina, bakoitzarentzat bezala anitzentzat, bai eta ere kontaezinezko izaki aldearentzat.
*Bigarren* eragozpenari ihardesten diot, gure judizioa gibelatzeko ahalmen librerik badugula ukatuz; ezen, norbaitek bere judizioa gibelatzen duela diogularik, beste deusik ez dugu adierazten, gauza bat ez duela modu egokian hautematen ohartu dela baizik, eta, beraz, egia erran, judizioaren luzapena hautemate bat da eta ez nahi izate libre bat. Horren hobeki ulertzeko, asma dezagun haur batek irudikatzen duela zaldi hegaldun bat eta beste deusik ez duela hautematen. Irudi horrek zaldiaren existentzia barne hartzen duenaz geroz *(17. Prop. Korol. arab.)* eta haurrak, ez duenaz geroz deusik hautematen zaldiaren existentzia ezeztatzen duenik, nahitaez, kontenplatuko du zaldia, hor balitz bezala, eta ez du haren existentzia zalantzan ezartzen ahalko, nahiz ez den bera ziur izanen. Eta esperientzia hori egunero egin dezakegu gure ametsetan eta ez da nik uste nehor pentsa dezakeenik baduela, ametsetan ari delarik, amesten duen horretaz bere

judizioa gibelatzeko ahalmen librerik, eta ametsetan ikusten duen hura bera ez duela amesten erabakitzeko biderik; eta gertatzen da, bizkitartean, ametsetarik ere gure judizioa luzatzen dugula, hala nola, ametsetarik ari garela amesten dugularik.
Onartzen dut, bestalde, nehor ez dela tronpatzen hautematen dueno, hots, onartzen dut Izpirituaren irudikapenek ez dutela berenaz errakuntzarik barne hartzen *(ikus 17. Prop. Eskol.)* baina ukatzen dut gizakiak, hautematen dueno, ez duela ezer baieztatzen. Zer da, alabaina, zaldi hegaldun bat hautematea, zaldi baten hegalak baieztatzea besterik? Izpirituak, ezen, zaldi hegaldun bat baizik ez baleza hauteman, bere aitzinean hor balu bezala kontenpla lezake eta ez luke nehongo arrazoirik horren existentzia zalantzan ezartzeko ez nehongo ahalmenik bere onarpena ukatzeko, non ez den zaldi hegaldunaren irudikapenari lotu zaldi horren beraren existentzia ezeztatzen duen ideia, edo non ez den bera ohartu bere zaldi hegaldunaren ideia ezegokia dela eta, orduan, zaldiaren existentzia edo nahitaez ezeztatzen du edo nahitaez zalantzan jartzen.
Eta, horrela, *hirugarren* eragozpenari ere ihardetsi diot, nik uste; erran nahi dut, ideia guztiei dagokien zerbait unibertsal dela nahimena, ideia guztiek amankomunean daukatena, soilik, adierazten duena, hots, baieztapena dela eta honen esentzia egokia, horrela abstraktuki ulertuz geroz, aurkitu behar dela horrengatik ideia bakoitzaren baitan, eta, alde horretatik, soilik, ideia guztien baitan berbera; ez, ordea, ideiaren esentzia osatzen duen aldetik; zeren alde horretatik, ideiak berak ezberdinak diren bezala, baieztapen singularrak ere beren artean ezberdinak baitira. Adibidez, triangeluaren ideiatik zirkuluaren ideia urrun den bezain urrun da triangeluaren ideiak barne hartzen duen baieztapena zirkuluaren ideiak barne hartzen duen baieztapenetik.
Gainera, ukatzen dut absolutuki, egia dena egia dela baieztatzeko, gezurra dena egia dela baieztatzeko behar den bezainbat pentsatzeko ahalmen behar dugula; zeren eta bi baieztapen horiek, izpirituari behatzen badiozu, izateak eta ez-izateak duten alde bera dute elkarren artean, ideiek ez dutenaz geroz deus positiborik faltsutasunaren forma osatzen duenik *(ikus 35. Prop. & haren Eskol., eta 47. Prop. Eskol.).* Hemen da, beraz, orain une egokia ohartzeko zein errazki tronpatzen garen, nahasten ditugularik unibertsalak singularrekin edo arrazoizko izate abstraktuak izate errealekin.
*Laugarren* eragozpenari dagokionez azkenik, aitortzen dut onartzen dudala errazki horrela zalantzan dagoen gizona -hots, edozein janari eta edozein edari harenganik berdin urrun izanki eta berak bere gosea eta egarria baizik ez sentitzen- goseak eta egarriak hilen dutela. Eta galdetzen badidate, horrelako gizona gizontzat baino ziurrago ez ote den astotzat hartu behar, aitortuko dut ez dakidala; ez baitakit ere zer balio duen bere burua urkatzen duenak, ez zer balio duten haurrek, zoroek, eroek, etab.
Adierazi behar dugu oraino doktrina honen jakiteak zer eman diezaioken eguneroko bizitzari eta ikusiko dugu errazki honela:
I.-ik, doktrina horrek erakusten duen bezainbatean, zenbat eta beteginagoak baitira gure ekintzak, zenbat eta hobeki ulertzen baitugu nor den Jainkoa, hainbat eta gehiago Jainkoaren agindu soilez ihardukitzen dugula eta Jainkoa baitan parte hartzen. Eta, beraz, gisa guztietara arima lasaitzeaz bestalde, hauxe ere badu doktrina horrek, erakusten digula zertan datzan zorionaren gailurra edo dohatsutasuna; hots, Jainkoaren ezagutza hutsean baitago, zeren eta ezagutza honek eramaten baikaitu maitasunak eta jainkozaletasunak aholkatzen diguna baizik ez egitera. Eta, horrela, argi ikusten dugu, bertutearen estimu zuzenetik zein urrun dabiltzan, morrontza gogorrenarentzat bezala, beren bertutearentzat eta beren ekintza bikainentzat sari gorenekin Jainkoak sarista ditzan igurikatzen dutenak; bertutea bera eta Jainkoaren zerbitzua ez balira bezala dohatsutasuna bera eta libertate gorena.

II.-ik, baliagarri da, erakusten digun bezainbatean nola behar dugun jokatu zortearen gauzei buruz edo gure ahalmenean ez diren gauzei buruz, erran nahi baita, gure izaerari ez darraizkion gauzei buruz; hots, nola igurika eta jasan gogo onez zortearen begitarte bata ala bestea; zeren eta, gauza guztiak Jainkoaren erabaki betierekotik baitatozkigu, triangeluaren hiru angeluak berdin bi zuzen direla haren esentziatik datorren ezinbestekotasun berarekin.
III.-ik, doktrina hau bera baliagarri da oraino gutarteko bizitzarentzat, erakusten digun bezainbatean ez dela behar nehor higuindu, nehor gutietsi, nehorrez trufatu, nehorentzat haserretu, nehori bekaiztu. Erakusten digu bakoitzari, bestalde, izaten dugunaz gogobetetzen eta lagun hurkoaren laguntzen ez, ordea, emakume urrikalmenduz, ez alderdikariaz, ez sineskeriaz, baina bai, arrazoi hutsaren eraginez, aroak eta gaiak eskatzen dutenaren arabera, Laugarren Zatian erakutsiko dudan bezala.
IV.-ik, azkenean, doktrina hau baliagarri da ere, eta ez guti, gizarte osoarentzat, erakusten digun bezainbatean nola behar diren herritarrak gidatu eta gobernatu ez morrontzan egon daitezen, jakina, baina hoberena libreki egin dezaten. Eta honekin bururatzen dut Eskolio honetan egin gogo nuena.
Horrela bururatzen dut ere gure Bigarren Zatia, aski luzaz, nik uste, eta gaiaren zailtasunak egitera uzten zuen bezain garbi azaldu ondoan giza Izpirituaren izaera eta haren propietateak; eta erran horiek ondorio ohargarri anitz, guztiz baliagarriak eta ezagutu beharrekoak ekartzen ahalko dizkigute, jarraian ageriko den bezala.

Bigarren Zatiaren Amaia
Etikaren Hirugarren Zatia
Afektuen Etorkiaz
eta Izaeraz

*Badirudi afektuez eta gizakien bizimoduaz izkiriatu duten gehienek ez dihardutela lege natural komunei darraizkien gauza naturalei buruz, naturatik kanpo diren gauzei buruz baizik. Areago, badirudi gizakia naturaren baitan ulertzen dutela, inperio bat beste inperio baten barnean ulertzen den bezalaxe. Uste baitute gizakiak naturaren ordenari jarraitzeko ordena nahasi egiten duela, eta bere ekintzen gain erabateko ahalmena baduela, eta gainera, ez duela berak baizik bere burua determinatzen. Bestetik, giza ezintasun eta aldakortasunaren kausa ez diote naturaren ahalmen komunari egozten, baizik eta giza izaeraren nik ez dakit zein akatsi, eta horregatik deitoratu egiten dute giza izaera, iseka egiten diote, mesprezatzen dute, edo, maizenik, arbuiatzen; eta giza izpirituaren ezintasuna dotoreenik edo zolienik gaitzesten duena Jainkotzat hartzen da.*
*Ez da falta izan, haatik, gizaki txit bikainik (eta haien lanari eta arteziari asko zor diogula aitor dugu) bizitzeko modu zuzenaz gauza miresgarri asko idatzi duenik eta zuhurtziaz beteriko aholku franko eman digunik; baina afektuen izaerari eta indarrei dagokienez eta horiek menderatzeko giza izpirituak dezakeenaz, nehork ez du, nik dakidala, ezer zehaztu.*
*Badakit, jakin ere, Descartes txit ospetsua, berak uste zuen arren Izpirituak erabateko ahalmena baduela bere ekintzen gainean, saiatu dela halere giza Afektuak beren lehen kausen bidez esplikatzen, eta, aldi berean, erakusten zein bidetatik izan dezakeen Izpirituak nagusitasun absolutua Afektuen gain; baina, ene irudiko bederen, ez du bere jeinu handiaren zorroztasuna erakutsi besterik egin, dagokion lekuan frogatuko dudan bezala. Zeren, orain gizakien Afektuak eta ekintzak ulertu baino gehiago arbuiatu edo trufatu gogo dituztenengana itzuli nahi baitut.*
*Hauei harrigarri irudituko zaie, ezbairik gabe, nik gizonen bizio eta zentzugabekeriak Geometren modura tratatzeari ekitea, eta, halaber, Arrazoiaren kontrakoa eta orobat alferrikakoa, absurdua eta lotsagarria dela haiek aldarrikatzen dutena nik frogatu nahi*

*izatea egiazko arrazoi baten bidez. Baina, hona hemen ene arrazoibidea: Naturan ez da haren akats bati egotz dakiokeenik ezer gertatzen; ezen, Natura beti berbera da, eta haren gaitasuna eta aritzeko ahalmena nonahi berbera da ere; hots, Naturaren legeak eta arauak, zeinen arabera gauza guztiak gertatzen eta forma batetik bestera aldatzen baitira, berberak dira nonahi eta beti; eta, ondorioz, bat eta bera izan behar du edozein gauzaren aditzeko moduak; Izadiaren lege eta arau unibertsalen bidez aditzekoa, alegia.*

*Honela, bada, gorroto, hira, bekaizkeriazko, eta bestelako Afektuak, beren baitan ikusirik, Naturaren ezinbestekotasun eta gaitasun berberez ondorioztatzen dira, gainerako gauza singularrak bezalaxe; eta, beraz, Afektuok kausa zehatz batzuk ezagutzen dituzte, zeinen bidez ulertzen baitira, eta propietate batzuk badituzte, begieste soilaz gozatzen dugun beste edozein gauzaren propietateak bezain ezaugarri direnak.*

*Honela, bada, Afektuen izaeraz eta indarrez ihardungo dut eta, halaber, horien gain Izpirituak duen ahalmenaz, Jainkoari eta izpirituari buruz aurreko zatietan erabili dudan Metodo berdinarekin, eta giza ekintzak eta gurariak kontsideratuko ditut lerroez, gainazalez edo gorputzez ari bagina bezala.*

Definizioak

*I. Kausa egokia* deitzen dut, hura zeinaren bidez haren ondorioa modu argi eta bereizian bere baitarik hauteman baitaiteke. *Kausa ezegokia edo partziala* deitzen dut, berriz, zeinaren bide soilez haren ondorioa ezin uler daitekeena.

*II. Iharduten dugula* diot, gure baitan edo gugandik kanpo zerbait gertatzen denean, zeinaren kausa egokia baikara, hau da *(aitzin. Def. arab.),* gure izaeratik zerbait eratortzen denean, gure baitan nahiz gugandik kanpo, bere bidez soilik modu argi eta bereizian uler daitekeena. *Pairatzen dugula* diot, ordea, gure baitan zerbait gertatzen denean, edo gure izaeratik zerbait eratortzen denean, zeinaren kausa partziala baizik ez baikara.

*III. Afektuak* deitzen ditut Gorputzaren afekzioak, zeinek gorputz horren iharduteko ahalmena handitzen edo tipitzen, laguntzen edo eragozten baitute, eta, aldi berean, Afektu horien ideiak ere aditzen ditut.

*Horrela, afekzio horietako baten kausa egokia izan bagaitezke, orduan Afektua deitzen dut ekintza bat; beste kasuetan, grina bat.*

Postulatuak

I. Giza gorputza era askotara hunkitua izan daiteke, eta era hauetako batzuek haren iharduteko ahalmena handitzen edo tipitzen dute eta beste batzuek, berriz, haren iharduteko ahalmena ez handiago ez tipiago ez dute egiten.

*Postulatu edo Axioma hau 2. Zat., 13. Prop. ondoko 1. Post. eta 5. eta 7. Lem. oinarritzen da.*

II. Giza gorputzak aldaketa anitz paira dezake, eta guztiarekin ere objektuen aztarnak edo zantzuak atxik ditzake *(ikus honi buruz 2. Zat., 5. Post.),* eta, ondorioz, gauzen irudiak berak atxiki ere; (*ikus hauen Def. 2. Zat., 17. Prop. Eskol.).*

I. Proposizioa

*Gure izpirituak hainbat gauza egiten du eta beste hainbat pairatzen, hau da, ideia egokiak dituen aldetik, hainbat gauza egiten du nahitaez, eta ideia ezegokiak dituen aldetik, hainbat gauza pairatzen du nahitaez.*

Demonstrazioa

Edozein giza Izpirituren ideiak, batzuk egokiak dira, besteak ezosoak edo nahasiak *(2 Zat., 40. Prop. Eskol. arab.).* Baina nornahiren Izpirituan egokiak diren ideiak Jainkoarengan ere egokiak dira, Honek Izpiritu horren esentzia osatzen duen aldetik *(2. Zat., 11. Prop. Korol. arab.)*; eta Izpirituan ezegokiak direnak ere egokiak dira Jainkoarengan *(Korol. berdin. arab.),* ez Izpiritu horren esentzia soilik daukalako

bere baitan, beste gauzen Izpirituak ere, aldi berean, badauzkalako bere baitan. Bestetik, edozein ideia emanez geroz, ondorio bat nahitaez hari badarraio (*1. Zat., 36. Prop. arab.),* Jainkoa izanik ondorio horren kausa egokia *(ikus Zat. hon. 1. Def.),* ez mugagabea den aldetik, eman delako ideia horrek hunkitua gogo ematen den aldetik baizik *(ikus 2. Zat., 9. Prop.).*

Baina, nornahiren Izpirituan egokia den ideia batek hunkitua den aldetik, Jainkoa haren kausa den ondorioaren kausa egokia Izpiritu hori bera da *(2. Zat., 11. Prop. Korol. arab.)*. Beraz, gure Izpirituak *(2. Def. arab.),* ideia egokiak dituen aldetik, hainbat gauza egiten du nahitaez; hori baitzen lehen puntua.

Bestalde, Jainkoarengan egokia den ideia batetik -ez bere baitan gizaki bakar baten Izpiritua daukalako, baizik eta horrekin batera beste gauzen Izpirituak ere badauzkalako bere baitan- nahitaez eratortzen denaren kausa ez da gizaki horren Izpiritua haren kausa egokia, kausa partziala baizik *(2. Zat., 11. Prop. Korol. berdi. arab.),* eta, beraz *(2. Def. arab.),* Izpirituak, ideia ezegokiak dituen aldetik, anitz gauza pairatzen du nahitaez; hau baitzen bigarren puntua.

Beraz, gure Izpirituak..., etab. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator: Izpiritua zenbat eta grina gehiagoren menpe egon hainbat eta ideia desegoki gehiago dituela, eta, alderantziz, zenbat eta ideia egoki gehiago izan hainbat eta gauza gehiago egiten dituela.

II. Proposizioa

*Gorputzak ezin du Izpiritua pentsatzera determinatu, ez eta Izpirituak Gorputza mugitzera, gelditzera edota beste ezertara (horrelakorik baldin bada).*

Demonstrazioa

Pentsatzeko modu guztiek Jainkoa dute kausa, Hau gauza pentsatzaile den aldetik, eta ez beste atributu baten bitartez esplikatzen den aldetik *(2. Zat., 6. Prop. arab.)*; beraz, Izpiritua pentsatzera determinatzen duena Pentsatzeko era bat da eta ez Hedadurari dagokion modu bat, hots *(2. Zat., 1. Def. arab.),* ez da Gorputz bat; hau baitzen lehen puntua.

Bestalde, Jainkoarengan egokia den ideia batetik -ez bere baitan gizaki bakar baten Izpiritua daukalako, baizik eta horrekin batera beste gauzen Izpirituak ere badauzkalako bere baitan- nahitaez eratortzen denaren kausa ez da gizaki horren Izpiritua haren kausa egokia, kausa partziala baizik *(2. Zat., 11. Prop. Korol. berdi. arab.),* eta, beraz *(2. Def. arab.),* Izpirituak, ideia ezegokiak dituen aldetik, anitz gauza pairatzen du nahitaez; hau baitzen bigarren puntua.

Beraz, gure Izpirituak..., etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Hau guztia argiago ulertzen da 2. Zatiko 7. Proposizioko Eskolioan erran dena gogoan hartuta, alegia, Izpiritua eta Gorputza gauza bat eta berbera direla, zeina Pentsamenduaren nahiz Hedaduraren atributu pean gogoratzen baita. Hortik dator gauzen ordena edo kateamendua bat bera dela, Natura honelako edo halako atributuen pean ulerturik ere, eta, ondorioz, gure Gorputzaren ekintzen eta grinen ordena Izpirituaren ekintzen eta grinen ordenarekin bat datorrela izatez. Argi dago hori 2. Zatiko 12. Proposizioa frogatu dugun moduan ere.

Baina, nahiz eta gauzak izan halakoak non ez baitute zalantzarako batere biderik uzten, nekez sinets dezaket haatik, nola eta esperientziaren bidez ez dudan egiaztatzen, gizakiak eraman ditzakeela puntu hau orekaz aztertzera, hainbestetaraino buruan sartu baitute Gorputza Izpirituaren agindu soilez mugitzen edo gelditzen dela eta Izpirituaren borondate soilari eta pentsatzeko arteziari dagozkion gauza asko egiten dituela Gorputzak.

Eta, egia erran, Gorputzak zer dezakeen nehork ez du oraindaino zehaztu, hau da, esperientziak ez dio nehori oraindaino irakatsi zer egin dezakeen Gorputzak bere izaera gorpuztunaren lege soilei esker, eta zer ez dezakeen egin Izpirituak determinatzen ez badu. Zeren nehork ez du oraindaino Gorputzaren egitura behar bezain zehazki ezagutu haren funtzio guztiak esplikatu ahal izateko, aipatu gabe utzirik hemen animalietan giza zolitasuna ausarki gainditzen duten anitz gauza erreparatzen direla eta sonanbuluek iratzarririk egiten ausartuko ez liratekeen anitz eta anitz gauza ametsetan egiten dituztela; honek guztiak behar beste erakusten du Gorputzak, bere izaeraren lege soilei esker, bere izpirituari miresgarri gertatzen zaizkion anitz gauza egin ditzakeela.

Gainera, nehork ez daki zein gisaz ez zein baliabidez mugitzen duen Izpirituak Gorputza, ez eta zenbat mugimendu-gradu eman diezaizkiokeen, ez eta zer abiaduraz mugi dezakeen ere. Hortik dator ezen, gizakiek erraten dutenean Gorputzaren honelako edo halako ekintza Gorputzaren nagusia den Izpiritutik datorrela, ez dakitela zer erraten duten eta, hitz liluragarriz bada ere, beren ezjakintasuna aitortu besterik ez dutela egiten, ekintza horren egiazko kausari dagokionez, berau aintzat hartu gabe.

Erranen dute, bada, izpirituak Gorputza zein baliabidez mugitzen duen jakin ala ez, esperientziaz badakitela, halere, giza Izpiritua pentsatzeko gai ez balitz, Gorputza geldoa litzatekeela. Bestetik, esperientziaz badakite mintzatzea edo isiltzea bezalako gauzak Izpirituaren ahalmen hutsaren pean daudela, eta beste gauza anitz ere, zeinak, ondorioz, izpirituaren erabakiaren menpe daudela uste baitute.

Baina, lehen argumentuari dagokionez, hauxe galdetzen diet: esperientziak ez ote du halaber irakasten Gorputza geldoa baldin bada, Izpiritua aldi berean ezgai dela pentsatzeko? Zeren Gorputza lotan pausatzen denean, Izpiritua ere lokarturik egoten da eta ez du iratzarririk denean bezala pentsatzeko ahalmenik.

Bestalde, uste dut denok egin dugula honelako esperientzia, alegia, Izpirituak ez duela beti gaitasun bera objektu berdin bati buruz pentsatzeko, baizik eta zenbatenaz gorputza gaiago den honelako edo halako objektuaren irudiak iratzartzeko, hainbatenaz ere gaiago da Izpiritua honelako edo halako objektuari ohartzeko.

Erranen dute, menturaz, Naturaren lege soiletarik Natura gorpuztuna den aldetik bakarrik ikusita eraikinen, pinturen eta gisa horretako gizakien arte hutsez egin gauzen kausak ezin direla deduzitu ahal, eta giza Gorputza, Izpirituak determinaturik eta gidaturik ez izatekotan, ez litzatekeela gai izanen tenplu baten eraikitzeko.

Baina jada frogatu dut ez dakitela zer dezakeen Gorputzak edo zer deduzitzen ahal den haren izaera kontenplatzetik, eta Naturaren lege soilei esker egiten diren gauza ugari esperimentatu dituztela, eta Izpirituaren zuzendaritzapean baizik egin ezin zitezkeenak, hala nola, sonanbuluek lotan egiten dituzten gauzak, harriturik egoten baitira iratzartzen direnean.

Giza Gorputzaren egituraren adibidea eransten dut hemen, gizakien arteak antolatu gauza guztiak arteziaz gainditzen dituena, gorago erakutsi dudana ez aipatzeagatik, hots, Naturatik, edozein atributuren ikuspegitik begiratuta, ezin konta ahala gauza badatozela.

Bigarren argumentuari dagokionez, gizakien gauzak biziki egoera hobean leudeke, isiltzea edo mintzatzea, bata bezainbat bestea, gizonaren esku balego. Esperientziak, ordea, nahikoa eta areago erakusten du gizakiek beste ezertan baino ahalmen gutxiago dutela beren hizkuntza menperatzen eta beren gurariak hezten; hortik dator gehienek uste izatea gogo apalez guraritzen duguna baizik ez dugula libreki egiten, zeren gauza horienganako guraria erraz menpera baitaiteke maiz gogoratzen dugun beste gauza baten oroitzapenaz, eta, aldiz, ez ditugula libreki egiten beste gauza baten oroitzapenak jabal ezinezko gogo biziz guraritzen ditugun gauzak.

Baina, egia erran, esperientziaz ez balekite anitz gauza egiten ditugula, gero dolutzen zaizkigunak, eta sarritan, kontrako afektuak elkarren lehian ditugunean, zer den hobe ikusten

dugula, baina txarrena egiten dugula, ezerk ez luke eragotziko dena libreki egiten dugula sinets dezaten. Hala, haurrak uste du libreki guraritzen duela esnea, mutil haserretuak orobat uste du libreki nahi duela mendekua, eta herabeak libreki nahi duela ihesa. Halaber mozkorrak uste du bere Izpirituaren erabaki askez erraten duela edana ez dagoenean isildu nahi lukeena, eta orobat, eldarnioak dituenak, berritsuak, haurrak eta beste askok uste dute Izpirituaren erabaki askez mintzatzen direla, mintzarazten dituen bulkada ezin kontrola dezaketen arren; hortaz, esperientziak berak, Arrazoiak bezain argi, erakusten du gizakiek uste dutela aske direla beren ekintzez jabetzen direlako eta ekintzok determinatzen dituzten kausak ezagutzen ez dituztelako soilik; eta, gainera, izpirituaren erabakiak ez direla gurariak berak besterik, eta horrexegatik gorputzaren egoeraren arabera aldatzen direla. Zeren bakoitzak bere afektuaren arabera gobernatzen du dena, eta kontrako afektuen arteko lehia bizi dutenek ez dakite zer nahi duten, eta huskeria batek errazki bultzatzen ditu hona edo hara afekturik ez dutenak. Honek guztiak erakusten du Izpirituaren erabakia nola guraria eta Gorputzaren determinazioa bat datozela izaeraz, edo hobeki esan, gauza bat eta bera direla, hura Erabakia deitzen baitugu, Pentsamenduaren atributuaren ikuspegitik hartzen dugunean, eta atributu horregatik esplikatzen denean, eta, aldiz, Determinazioa, Hedaduraren atributuaren ikuspegitik hartzen dugunean, eta mugimenduaren eta gelditasunaren legeetatik deduzitzen dugunean, eta hau argiago ikusiko da erratera goazenarekin.

Hemen, bada, bereziki ohartarazi nahi nuke beste gauza bat, alegia, Izpirituaren erabakiz ez dezakegula egin aitzinetik gogoratzen ez dugunik ezer. Adibidez, ez dezakegu hitz bat erran, hartaz oroitzen ez bagara. Bestalde, ez dago Izpirituaren esku gauza bat gogoratzea edo ahanztea. Horregatik, uste da soilik Izpirituaren esku dagoela izpirituaren erabaki hutsez gogoratzen dugun gauzaz mintzatzea edo isiltzea.

Baina mintzatzen garela amesten dugunean, uste izaten dugu Izpirituaren erabaki librez mintzatzen garela, eta, bizkitartean, mintzatu, ez gara orduan mintzatzen, edota, egiten badugu, Gorputzaren berezko mugimenduari esker egiten dugu.

Amesten dugu, ere, zenbait gauza ezkutatzen dizkiegula bestei, eta hori iratzarririk gaudenean dakiguna isiltzera garamatzan Izpirituaren erabaki berarengatik.

Amesten dugu, azkenik, Izpirituaren erabakiz zenbait gauza egiten ditugula, iratzarriak gaudenean egitera ausartzen ez garenak.

Eta, hartara, zinez jakin nahi nuke ba ote dauden Izpirituan bi motatako erabakiak, Irudimenezkoak batzuk, Libreak besteak. Eta hainbesteko zentzugabekerian erori nahi ez bada, onartu beharra dago Izpirituaren erabakia, aske dela uste dena, ez dela irudimenetik edo oroimenetik beretik bereizten, eta ez dela ideiak ideia den aldetik nahitaez barne hartzen duen baieztapena besterik *(ikus 2. Zat., 49. Prop.).* Eta, horrela, erabaki horiek Izpirituan sortzen dira, aktuan existitzen diren gauzen ideiak izpirituan sortzen diren ezinbestekotasun berdinaz. Hortaz, Izpirituaren erabaki aske bati esker mintzatzen direla, isiltzen direla, edo zernahi egiten dutela uste dutenek begiak zabalik egiten dute amets.

III. Proposizioa

*Izpirituaren ekintzak ideia egokietatik soil-soilik sortzen dira; grinak, berriz, ideia ezegokien mende daude soil-soilik.*

Demonstrazioa

Izpirituaren esentzia osatzen duen lehen gauza, aktuan existitzen den Gorputzaren ideia besterik ez da *(2. Zat., 11. eta 13. Prop. arab.)*, zeina *(2. Zat., 15. Prop. arab.)* beste anitzez osatzen baita, hauetarik zenbait *(2. Zat., 38. Prop. arab.)* egokiak direlarik eta beste zenbait ezegokiak *(2. Zat., 29. Prop. korol. arab.).* Beraz, Izpirituaren izaeratik datorren oro, Izpiritua izanik hura aditzeko kausa hurbila, ideia egoki edo ezegoki batetik etorri behar da. Baina Izpirituak, ideia ezegokiak dituen aldetik *(1. Prop. arab.)*, pairatu egiten du nahitaez; beraz, Izpirituaren

ekintzak ideia ezegokietatik datoz soil-soilik, eta, horregatik, ideia ezegokiak dituelako baizik ez du Izpirituak pairatzen. H.B.D.B.

Eskolioa

Ikusten dugu, bada, grinak ez dagozkiola Izpirituari, honek ezeztapen bat barne hartzen duen zerbait daukan neurrian baizik; hau da, Izpiritua Naturaren zati bat bezala hartzen den neurrian baizik, zeina, berez eta besteak gabe, ez baita modu argi eta bereizian hautematen ahal; eta, hartara, erakuts nezake grinak gauza singularrei dagozkiela Izpirituari bezala, eta ez daitezkeela beste modu batera hauteman. Baina hemen giza Izpirituaz bakarrik aritzeko asmoa dut.

IV. Proposizioa

*Ezein gauza ez daiteke suntsi kanpoko kausa batez ez bada.*

Demonstrazioa

Proposizio hau nabarmen da berez; izan ere, edozein gauzaren definizioak gauza horren esentzia baieztatzen du, baina ez du ezeztatzen; hots, gauzaren esentzia ezartzen du, baina ez du kentzen. Honela bada, gauzari berari, eta ez kanpoko kausei, erreparatzen diogun bitartean ezin dugu hura suntsi dezakeenik deusik aurki haren baitan. H.B.D.B.

V. Proposizioa

*Batak bestea suntsitzen ahal duen neurrian, gauzak kontrako izaerakoak dira, hots, ez daitezke subjektu berean izan.*

Demonstrazioa

Izan ere, baldin gauzok bat baletoz, edota subjektu berean batera izatea gerta baledi, orduan subjektu berean eman liteke bera suntsi lezakeen zerbait, eta hori *(aitzin. Prop. arab.)* absurdua da. Beraz, gauzak etab. H.B.D.B.

VI. Proposizioa

*Gauza bakoitza, haren esku den bezainbatean, bere izanean irauten lehiatzen da.*

Demonstrazioa

Gauza singularrak, ezen, *(2. Zat., 25. Prop. Korol. arab.)* Jainkoaren atributuak modu jakin eta zehatzez adierazten dituzten moduak dira, hau da *(1. Zat., 34. Prop. arab.)*, Jainkoaren ahalmena, zeinari esker Jainkoak baitu izatea eta ihardutea modu jakin eta zehatzez adierazten duten gauzak; eta gauza bihi batek ez du deusik bere baitan bera suntsi dezakeenik, hots, bere existentzia ken diezaiokeenik *(4. Prop. arab.)*; baina, alderantziz, bere existentzia ken diezaiokeen orori kontra egiten dio *(aitzin. Prop. arab.)*, eta, horrela, ahal bezainbatean eta haren esku den bitartean, bere izanean irauten ahalegintzen da. H.B.D.B.

VII. Proposizioa

*Gauza bakoitzak bere izanean irauteko egiten duen ahalegina ez da gauza horren esentzia aktuala besterik.*

Demonstrazioa

Edozein gauzaren esentzia emanez geroz, hainbat gauza badatoz hartarik nahitaez *(1. Zat., 36. Prop. arab.)*, eta gauzek ez dezakete egin beren izaera jakinetik nahitaez datorrena besterik *(1. Zat., 29. Prop. arab.)*; horregatik, edozein gauzaren ahalmena, hots, edozein gauzak, bakarka ala besteekin batera, zerbait egiteko edo egiten saiatzeko egiten duen ahalegina, erran nahi baita *(3. Zat., 6. Prop. arab.)*, bere izanean irauteko egiten duen ahalegina edo oldarra ez dela beste deusik, emandako gauzaren zerizana edo esentzia aktuala baizik. H.B.D.B.

VIII. Proposizioa

*Gauza bakoitzak bere izanean irauteko egiten duen ahaleginak ez du denbora mugatua barne hartzen, mugagabea baizik.*

Demonstrazioa

Zeren, baldin eta ahaleginak gauzaren iraupena determinatuko lukeen denbora mugatua barne hartuko balu, orduan gauza izanarazten duen ahalmen soiletik ondorioz aterako litzateke, denbora mugatu horren ondotik gauza ezin existituko litzatekeela, eta suntsitua izan beharko lukeela; baina hori *(4. Prop. arab.)* absurdua da; beraz, gauza izanarazten duen ahaleginak ez du denbora mugaturik barne hartzen, alderantziz baizik, zeren *(4. Prop. ber. arab.)* kanpoko kausa batek suntsitzen ez badu, existitzen jarraituko du, orain izanarazten duen ahalmen berarengatik. Beraz, ahalegin horrek denbora mugagabea barne hartzen du. H.B.D.B.

IX. Proposizioa

*Izpiritua, hala ideia argi eta bereiziak dituen aldetik nola nahasiak dituen aldetik, iraupen mugagabe batez ahalegintzen da bere izanean irauten, eta bere ahalegin horretaz ohartua da.*

Demonstrazioa

Izpirituaren esentzia ideia egokiz eta ezegokiz osatua da *(3. Prop. erakutsi dugunez)*, eta, beraz *(7. Prop. arab.)*, bere izanean irauten ahalegintzen da hala ideia batzuek nola besteak dituen aldetik, eta hori *(8. Prop. arab.)* iraupen mugagabe batez. Baina nola Izpiritua *(2. Zat., 23. Prop. arab.)* Gorputzaren afekzioei buruzko ideien bidez bere buruaz, nahitaez, kontziente baita, bere ahaleginaren halaber kontziente da *(7. Prop. arab.)*. H.B.D.B.

Eskolioa

Ahalegin hau, Izpiritu soilari dagokionez, *Borondatea* deitzen da; baina batera Izpirituari eta Gorputzari dagokionez ordea, *Guraria*, eta ez da, beraz, gizakiaren esentzia bera besterik, zeinaren izaeratik bere iraupenerako baliagarri diren ekintzak nahitaez datozen; eta, horrela, gizakia ekintzok egitera determinatua da. Bestalde, Gurariaren eta Desiraren artean ez da batere ezberdintasunik, hauxe ezpada: Desira, eskuarki, gizakiei dagokiela, beren gurariei ohartuak diren aldetik, eta, horregatik, honela defini daitekeela: *Desira gurari bat da, bere kontzientzia duena*.

Honetarik guztitik, bada, nabarmentzen da, ez garela zerbaitetan ahalegintzen, edota ez dugula zerbait nahi izaten, gutiziatzen edo desiratzen zerbait hori ona dela pentsatzen dugulako; alderantziz baizik, gauza bat ona dela pentsatzen dugu horretan ahalegintzen garelako, edota hura nahi izaten, gutiziatzen edo desiratzen dugulako.

X. Proposizioa

*Gure Gorputzaren existentzia baztertzen duen ideia ez daiteke gure Izpirituan onar, honen kontrakoa baita.*

Demonstrazioa

Gure Gorputza suntsi dezakeen zerbait ez daiteke haren baitan onar (*5. Prop. arab.)*, eta, beraz, ezin da horren ideiarik Jainkoarengan aurki, gure Gorputzaren ideia duen aldetik *(9. Prop. Korol. arab.)*, hots, *(2. Zat., 11. eta 13. Prop. arab.)*, zer horren ideia ez daiteke gure Izpirituan aurki; aitzitik, nola *(2. Zat.,11. eta 13. Prop. arab.)* Izpirituaren esentzia lehenik osatzen duena, aktuan existitzen den gorputzaren ideia den, gure Izpirituaren lehen osagaia ere, eta garrantzizkoena, gure Gorputzaren existentzia baieztatzen duen ahalegina da *(7. Prop. arab.)*; eta, horrela, gure Gorputzaren existentzia ukatzen duen ideia gure Izpirituaren kontrakoa da. H.B.D.B.

XI. Proposizioa

*Gure gorputzaren iharduteko ahalmena handitzen edo tipitzen, laguntzen edo eragozten duen ororen ideiak berak handitzen edo tipitzen, laguntzen edo eragozten du Izpirituaren pentsatzeko ahalmena.*

Demonstrazioa

Proposizio hau agerikoa da 2. Zatiko 7. Proposiziotik, edota 2. Zatiko 14. Proposiziotik ere.

Eskolioa

Ikusten dugu, bada, Izpirituak aldaketa handiak jasan ditzakeela eta betegintzarre handiagora nahiz tipiagora iragan daitekeela, eta pasio hauek esplikatzen dizkigute Poztasunaren eta Tristuraren afektuak. Aurrerantzean, bada, *Poztasuna* deituko dut, *betegintzarre handiago batera Izpiritua iganarazten duen grina. Tristura,* berriz, *betegintzarre tipiago batera izpiritua iganarazten duen grina*. Eta gainera, *Poztasunaren afektua, Izpirituari eta Gorputzari batera dagokienean, Kilika edo Alaitasuna* deitzen dut; eta *Tristuraren* afektua, berriz, *Oinazea* edo *Malenkonia.*

Ohartu behar da, bizkitartean, Kilika eta Oinazea gizakiari dagozkiola, honen zati bat besteak baino gehiago hunkia denean; Alaitasuna eta Malenkonia, berriz, gizakiari dagozkio, honen zati guztiak berdinki hunkituak direnean. Bestalde, zer den Desira, Zati honetako 9. Proposizioaren eskolioan azaltzen dut, eta, hiru horiek salbu, ez dut beste oinarrizko afekturik ezagutzen; beste guztiak hiru horietarik datozela erakutsiko baitut hurrengo azalpenean. Baina aitzina joan baino lehen, atsegin nuke Zati honetako 10. Proposizioa zehazkiago esplikatzea, argiago uler dadin zein modutan den ideia bat beste ideia baten kontrakoa.

2. Zatiko 17. Proposizioaren Eskolioan erakutsi dugu Izpirituaren esentzia osatzen duen ideiak Gorputzaren existentzia barne hartzen duela, Gorputza bera existitzen den bezain luzaz. Bestalde, 2. Zatiko 8. Proposizioaren Korolarioan eta Eskolioan erakutsi dugunetik dator gure Izpirituaren presenteko existentzia horri soilik dagokiola, hots, Gorputzaren gaurko existentzia Izpirituak barne hartzetik datorrela. Azkenik, erakutsi dugu Izpirituak duen gauzen irudikatzeko eta gogoratzeko ahalmena ere *(ikus 2. Zat., 17. Prop. eta 18 Prop. bere Eskolioarekin)*, honi soilik zor diola, hots, Gorputzaren gaurko existentzia Izpirituak berak barne hartzeari.

Hortik dator, Izpirituaren presenteko existentzia eta haren irudikatzeko ahalmena desagertzen direla, Izpirituak Gorputzaren presenteko existentzia gehiago baieztatzen ez duen bezain laster. Baina Izpirituak Gorputzaren existentzia hori ez gehiago baieztatzeko kausa ezin da Izpiritua bera izan *(4. Prop. arab.)*, ez eta ere Gorputzak izateari uko egitea. Zeren eta *(2. Zat., 6. Prop. arab.)* Izpirituak Gorputzaren existentzia baieztatzeko kausa ez da Gorputza existitzen hasia dela; eta, beraz, arrazoi berarengatik, Gorputzaren beraren existentzia ez gehiago baieztatzeko kausa ez da Gorputzak izateari uko egitea; baina *(2. Zat., 8. Prop. arab.)* hori beste ideia batetik heldu da, zeinak gure Gorputzaren eta, ondorioz, gure izpirituaren presenteko existentzia baztertzen baitu, eta, beraz, gure Izpirituaren esentzia osatzen duen ideiaren kontrakoa baita.

XII. Proposizioa

*Izpiritua, ahal bezainbat, lehiatzen da Gorputzaren iharduteko ahalmena handitzen edo laguntzen duten guztien irudikatzen.*

Demonstrazioa

Kanpoko gorputz baten izaera barne hartzen duen modu batek giza Gorputza hunkitzen dueno, giza Izpirituak gorputz hori aitzinean balu bezala kontenplatuko du *(2. Zat., 17. Prop. arab.)*, eta, ondorioz *(2. Zat., 7. Prop. arab.)* giza Izpirituak kanpoko gorputz bat aitzinean balu bezala kontenplatzen dueno, hots *(17. Prop. ber. Eskol.arab.)*, gorputz hori irudikatzen dueno, kanpoko gorputz horren izaera barne hartzen duen modu batek hunkitua da giza Gorputza. Eta, beraz, gure Gorputzaren iharduteko ahalmena handitzen edo laguntzen duten gauzak Izpirituak irudikatzen ditueno, haren iharduteko ahalmena handitzen edo laguntzen duten moduek hunkitzen dute gure Gorputza *(ikus 1. Post.)*; eta *(11. Prop. arab.)*, Izpirituaren pentsatzeko ahalmena handitzen edo laguntzen da; eta, beraz, *(6. edo 9.*

*Prop. arab.),* Izpiritua, ahal bezainbat, gauza horien irudikatzen lehiatzen da. H.B.D.B.

XIII. Proposizioa

*Izpiritua, Gorputzaren iharduteko ahalmena tipitzen edo eragozten duten gauzak irudikatzen dituenean, lehiatzen da, ahal bezainbat, gauza horien existentzia baztertzen duten beste batzuen gogoratzen.*

Demonstrazioa

Izpirituak halakorik irudikatzen dueno, Izpirituaren eta Gorputzaren ahalmena tipitua izanen da edo eragotzia *(aitzin. Proposizioan frogatu dugun bezala)*; eta, bizkitartean, hura bera irudikatuko du, haren presenteko existentzia baztertzen duen beste gauzarik Izpirituak irudikatzen ez dueno *(2. Zat., 17. Prop. arab.),* erran nahi baita *(erakutsi dugun bezala),* Izpirituaren eta Gorputzaren ahalmena tipiturik edo eragotzirik dela, irudikatzen duen gauzaren existentzia baztertzen duen besterik Izpirituak irudikatzen ez dueno; eta, beraz *(9. Prop. arab.),* Izpiritua lehiatuko da, ahal bezainbat, beste gauza horren irudikatzen edo gogoratzen. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator Izpirituak higuin duela bere ahalmena edo Gorputzarena tipitzen edo eragozten duena irudikatzea.

Eskolioa

Hortik ulertzen dugu garbiki zer den Maitasuna eta zer den Gorrotoa. Izan ere, *Maitasuna* ez *da kanpoko kausa baten ideiak lagun daraman Poztasuna* baizik, eta *Gorrotoa* ez *da kanpoko kausa baten ideiak lagun daraman Tristura* besterik. Ikusten dugu, bestalde, maitatzen duena, nahitaez, ahalegintzen dela maite duen gauza bere aitzinean izaten eta hura atxikitzen, eta, alderantziz, gorrotatzen duena ahalegintzen dela gorroto duen gauza baztertzen eta suntsitzen. Baina honetaz guztiaz geroago mintzatuko naiz luzeago eta zabalago.

XIV. Proposizioa

*Baldin eta Izpiritua bi afektuk batera hunkitua izan bada behin, bi horietarik batek geroago hunkitzen duenean, besteak ere hunkituko du.*

Demonstrazioa

Baldin eta Giza gorputza bi gorputzek batera hunkitua izan bada behin, horietako bat Izpirituak geroago irudikatzen duenean, berehala gogoratuko du bestea *(2. Zat., 18. Prop. arab.).* Baina Izpirituaren irudikapenek gehiago adierazten dituzte gure Gorputzaren afektuak kanpoko gorputzen izaera baino *(2; Zat., 16. Prop. 2. Korol. arab.)*; beraz, Gorputza, eta ondorioz Izpiritua ere *(ikus 3. Def.),* bi afektuk hunkitu baldin badute behin, horietako batek geroago hunkitzen duenean, besteak ere hunkituko du. H.B.D.B.

XV. Proposizioa

*Edozein gauza gerta daiteke ustekabez Poztasunaren, Tristuraren edo Desiraren kausa.*

Demonstrazioa

Demagun Izpiritua bi afektuk batera hunkitzen dutela, batak haren iharduteko ahalmena ez handitzen eta ez tipitzen ez duena, eta besteak handitzen nahiz tipitzen duena *(ikus 1. Post.).* Aitzineko Proposiziotik argi ageri da ezen Izpiritua geroago lehen afektuak eta honen egiazko kausa denak zeinak *(hipotesiaren arab.)* ez baitu berez Izpirituaren pentsatzeko ahalmena ez handitzen ez tipitzen hunkitu baldin badu, beste afektuak ere hunkituko duela, zeinak handitzen nahiz tipitzen baitu Izpirituaren pentsatzeko ahalmena, hau da

*(11. Prop. Eskol. arab.),* Poztasunak nahiz Tristurak hunkituko duela. Eta, ondorioz, lehen gauza hura Poztasun nahiz Tristura kausa izanen da, ez bere

baitarik, ustekabez baizik. Eta bide beretik erraz erakuts daiteke edozein gauza ustekabez Desiraren kausa izan daitekeela. H.B.D.B.

Korolarioa

Nahiz afektu horren kausa erazlea ez den gauza hori, Poztasunezko nahiz Tristurazko afektu batek hunkitu duen edozein gauzaren kontenplatze soilagatik gauza hura maita edo gorrota dezakegu.

Demonstrazioa

Hortik beretik dator, alabaina, *(14. Prop. arab.)* gauza hura geroago irudikatzean, Poztasunezko nahiz Tristurazko afektu batez hunkitua izatea Izpiritua, erran nahi baita *(11. Prop. Eskol. arab.)* Izpirituaren eta Gorputzaren ahalmena handiturik nahiz tipiturik gertatzea; eta, ondorioz *(12. Prop. arab.)*, Izpirituak hura irudikatu nahi izatea, edota *(13. Prop. Korol. arab.)* higuin izatea, hots *(13. Prop. Eskol. arab.)*, hura maitatzea edo gorrotatzea. H.B.D.B.

Eskolioa

Hortik ulertzen dugu nola daitekeen guk zenbait gauza maitatzea edo gorrotatzea, zergatik batere ez dakigula, non ez den (erraten den bezala) Sinpatia edo Antipatia hutsagatik. Eta horrekin zerikusirik badute ere Poztasunez nahiz Tristuraz hunkitzen gaituzten objektu horiek, afektu ber horiez hunkitu ohi gaituzten objektuekin antza izate hutsagatik, hurrengo Proposizioan erakutsiko dudan bezala. Badakit, bai, Sinpatia edo Antipatia hitzak lehen aldiz sarrarazi dituzten autoreek gauzen nolakotasun ezkutu batzuk adierazi nahi izan dituztela izen horiekin; baina, uste dut, halere, zilegi zaigula hitz horiekin berekin nolakotasun ezagun edo nabari batzuk ere aditzea.

XVI. Proposizioa

*Izpiritua Poztasunez nahiz Tristuraz hunkitzen ohi duen objektu batekin gauza batek eiterik baduela guk irudikatze soilagatik nahiz eta gauzaren eta objektuaren arteko antzekotasuna ez izan afektu horien kausa erazlea gauza hori maitatuko dugu edo gorrotatuko.*

Demonstrazioa

Gauzaren eta objektuaren arteko antzekotasun hori, objektu berorren baitan *(hipotesiaren arab.)*, Poztasunezko nahiz Tristurazko afektu batez kontenplatu dugu; eta, ondorioz *(14. Prop. arab.)* antzekotasun horren irudiak Izpiritua hunkituko duenean, afektu horietako batak nahiz besteak berehala hunkituko du halaber, eta, ondorioz, antzekotasun hori daukala hautematen dugun gauza *(15. Prop. arab.)* Poztasun zein Tristura kausa izanen da ustekabez. Eta, horrela *(aitzin. Korol. arab.)*, nahiz eta gauza horren eta objektuaren arteko antzekotasuna ez den afektu horien kausa erazlea, maitatuko dugu, edo gorrotatuko, aipatu gauza hura. H.B.D.B.

XVII. Proposizioa

*Tristurazko afektu batez hunkitu ohi gaituen gauza batek neurri bereko Poztasun afektu batez hunkitu ohi gaituen beste gauza baten eiterik baduela irudikatzen badugu, gorrotatuko dugu gauza hori, eta aldi berean maitatuko.*

Demonstrazioa

Gauza hori *(hipotesiaren arab.)*, alabaina, Tristuraren kausa da bere baitarik, eta *(13. Prop. Eskol. arab.)* afektu horrekin irudikatzen dugun bezainbatean gorrotatzen dugu; eta, neurri bereko Poztasunezko afektu batek hunkitu ohi gaituen beste gauza baten eiterik baduela irudikatzen dugun bezainbatean, neurri bereko Poztasun oldez maitatuko dugu *(aitzin. Prop. arab.)* eta, beraz, gorrotatuko dugu eta maitatuko aldi berean. H.B.D.B.

Eskolioa

*Kontrako bi afektutarik sortzen den Izpirituaren egoera* hori *Izpirituaren gora-behera* deitzen da, eta, beraz, afektuari dagokio, irudimenari zalantza bezala *(2.*

*Zat., 44. Prop. Eskol. arab.)*; eta Izpirituaren gora-beheraren eta zalantzaren artean ez da beste ezberdintasunik, handitik tipira dagoen aldea baizik. Ohartu behar da, haatik, aitzineko Proposizioan Izpirituaren gora-behera horiek halako kausa batzuetarik deduzitu ditudala, zeinak afektu baten berezko kausa eta beste afektu baten ustekabezko kausa baitira; hala egin dut, haien horrela errazkiago deduzitzeko aitzineko Proposizioetarik, eta ez Izpirituaren gora-beherak afektu bien kausa erazlea den objektu batetik sortzen direla ukatzeagatik eskuarki. Zeren Giza gorputza *(2. Zat.,1. Post. arab.)* izaera ezberdineko biziki anitz banakok osatua baita, eta, ondorioz, *(2. Zat., 13. Prop. darraion 3. Lem. ondoko 1. Axiom. arab.),* gorputz soil batek berak biziki anitz modu ezberdinez hunki baitezake; eta, alderantziz, zeren eta, gauza bakar bat bera anitz moduz hunki daitekeenez, berak ere anitz modu ezberdinez hunki baitezake giza Gorputzaren zati bakar bera, hortik erraz uler dezakegu objektu soil bera anitz afektu kontrakoen kausa izan daitekeela.

XVIII. Proposizioa

*Iraganeko ala etorkizuneko gauza baten irudiak hunkitzen du gizakia, presenteko gauza baten irudiak hunkitzen duen Poztasunezko edo tristurazko afektu beraz.*

Demonstrazioa

Gizakiak gauza baten irudiak hunkiturik dagoeno, hor balitz bezala kontenplatuko du gauza hura, existitzen ez bada ere *(2. Zat., 17. Prop. eta bere Korol.arab.),* eta ez du iraganeko edo etorkizuneko gauza bat bezala irudikatuko, non ez dion iraganaldiko edo etorkizuneko irudiari lotzen haren irudia *(ikus 2. Zat., 44. Prop. Eskol.).* Horra zergatik, gauza baten irudia, bere soilean harturik, berdina den, nahiz geroaldiari nahiz iraganaldiari nahiz orainaldiari dagokiola, erran nahi baita *(3. Zat., 16. Prop. 2. Korol. arab.)* Gorputzaren egoera, edo haren afektua berdina dela, nahiz eta iraganeko edo etorkizuneko gauza baten ala oraingo gauza baten irudia izan. Eta, ondorioz, Poztasunezko edo Tristurazko afektua berdina da, nahiz eta iraganeko edo etorkizuneko gauza baten ala oraingo gauza baten irudia izan. H.B.D.B.

I. Eskolioa

Hemen gauza bat iraganekoa edo etorkizunekoa deitzen dut, gauza horrek jadanik hunkitu gaituen edo geroago hunkituko gaituen neurrian. Adibidez, gauza hori ikusia dugun edo ikusiko dugun heinean, indarberritu gaituen edo indarberrituko gaituen heinean, kalte egin digun edo eginen digun heinean, etab.

Horrela irudikatzen dugun bezainbatean, alabaina, haren existentzia baieztatzen dugu; hots, gauzaren existentzia baztertzen duen nehongo afektuak ez du Gorputza hunkitzen; eta, beraz *(2. Zat., 17. Prop. arab.)* gauza horren irudiak gorputza hunkitzen du, gauza hori bera hor balego bezala.

Hala ere, nola maiz gertatzen den anitz gauzatan esperientzia dutenek dudamudak izatea, gauza bat etorkizunekoa ala iraganekoa bezala kontenplatzerakoan, eta nola gauza aterako den zalantza asko baduten *(ikus 2. Zat., 44. Prop.),* hortik dator gisa horrretako irudietatik sortzen diren afektuak hain iraunkorrak ez izatea, eta maizenik beste gauzen irudiek haiek nahastea, ziurtasun handiago bat izan arte gauzaren egoeraz.

II. Eskolioa

Erran berri dugunetik ulertzen dugu zer den Itxaropena, zer Beldurra, Segurantza, Etsipena, Bozkarioa eta Kontzientziaren ausikia.

*Itxaropena*, ez da besterik, alabaina, *haren geroaz zalantzak ditugun etorkizuneko edo iraganeko gauza baten iruditik sorturiko Poztasun aldakor bat* baizik.

*Beldurra* berriz, *zalantzazko gauza baten iruditik ere sorturiko Tristura aldakor bat da.*

Bestalde, afektu horietatik zalantza kentzen bada, Itxaropenetik *Segurantza* dator, eta Beldurretik *Etsipena*; hots, *haren beldur ginen edo itxaroten genuen gauza baten iruditik sorturiko Poztasuna edo Tristura.*

Gero, *haren egoeraz zalantzak genituen iraganeko gauza baten iruditik sorturiko Poztasuna* da *Bozkarioa.*
*Kontzientziaren ausikia,* azkenik, *Bozkarioari kontrajartzen zaion Tristura* da.
XIX. Proposizioa
*Maite duena suntsitu dela irudikatzen duena tristatuko da; aldiz, begiratu dela irudikatzen baldin badu, poztuko da.*
Demonstrazioa
Izpiritua lehiatzen da, ahal bezainbat, Gorputzaren iharduteko ahalmena handitzen edo laguntzen duten gauzak irudikatzen *(12. Prop. arab.)*, hau da *(13. Prop. Eskol. arab.)*, maite duena irudikatzen. Baina gauzaren existentzia jartzen duenak irudimena laguntzen du, eta, aldiz, haren existentzia baztertzen duenak, eragozten*(2. Zat., 17. Prop. arab.)*; beraz, maitatu gauzaren existentzia jartzen duten gauzen irudiek laguntzen dute gauza hura irudikatzeko Izpirituak egiten duen ahalegina, erran nahi baita *(11. Prop. Eskol. arab.)*, Poztasunez hunkitzen dutela Izpiritua; eta maitatu gauzaren existentzia baztertzen dutenek, berriz, eragozten dute Izpirituaren ahalegina, hots *(Eskol. berdin. arab.)* Tristuraz hunkitzen dute izpiritua. Honela bada, maite duena suntsitu dela irudikatzen duena Tristatuko da, etab. H.B.D.B.
XX. Proposizioa
*Gorroto duen hura suntsitua dela irudikatzen duena poztuko da.*
Demonstrazioa
Izpiritua *(13. Prop. arab.)* Gorputzaren iharduteko ahalmena tipitzen edo eragozten duten gauzen existentzia baztertzen duena irudikatzen lehiatzen da, hau da *(Prop. berdin. Eskol. arab.)*, gorroto dituen gauzen existentzia baztertzen duena irudikatzen ahalegintzen da; eta, beraz, Izpirituak gorroto duenaren existentzia baztertzen duen gauza baten irudiak laguntzen du izpirituaren ahalegina, erran nahi baita *(11. Prop. Eskol. arab.)*, Poztasunez hunkitzen duela Izpiritua. Honela bada, gorroto duen hori suntsitua dela irudikatzen duena poztu egingo da. H.B.D.B.
XXI. Proposizioa
*Maite duen hori Poztasunez edo Tristuraz hunkitua dela irudikatzen duena, halakoa ere Poztasunez edo Tristuraz hunkitua izanen da; eta maitatuaren baitan afektu bata eta bestea handiago edo tipiago denaren arabera, handiago edo tipiago izanen da maitalearen baitan.*
Demonstrazioa
Gauza maitatuaren existentzia ezartzen duten gauzen irudiek *(19. Proposizioan frogatu dugun bezala)* laguntzen dute Izpiritua gauza hura bera irudikatzeko ahaleginean. Poztasunak gauza pozgarrien existentzia finkatzen du, zenbat eta handiagoa baita Poztasunezko afektua, hainbat eta areago; zeren betegintzarre handiago baten bidea baita Poztasuna *(11. Prop. Eskol. arab.)*; eta beraz, maitatu gauzaren Poztasun irudiak maitalearen Izpirituaren ahalegina laguntzen du, erran nahi baita *(11. Prop. Eskol. arab.)*, Poztasunez hunkitzen duela maitalea, zenbat eta handiago baita afektu hori gauza maitatuaren baitan, hainbat eta Poztasun handiagoz. Hau baitzen lehen puntua.
Bestalde, gauza bat Tristuraz hunkitua den heinean, suntsitzen da hein berean, zenbat eta Tristura handiagoaz baitu hunkitzen hainbat eta areago *(11. Prop. Eskol. arab.)*. Eta, horrela *(19. Prop. arab.)*, maite duen hori Tristuraz hunkitua dela irudikatzen duena, Tristuraz ere hunkitua izanen da bera ere, zenbat eta handiago baita afektu hori gauza maitatuaren baitan, hainbat eta Tristura handiagoaz. H.B.D.B.
XXII. Proposizioa

*Maite dugun gauza bat edonork Poztasunez hunkitzen duela irudikatzen badugu, harenganako Maitasunak hunkituko gaitu. Baldin, ordea, Tristuraz hunkitzen duela irudikatzen badugu, haren kontrako Gorrotoak hunkituko gaitu.*

Demonstrazioa

Maite dugun gauza Poztasunez edo Tristuraz hunkitzen duenak, gu ere hunkitzen gaitu Poztasunez edo Tristuraz; maitaturiko gauza Poztasun edo Tristura horrek hunkiturik irudikatzen baldin badugu, jakina, *(aitzin. Prop. arab.).* Baina ematen dugu Poztasun edo Tristura hori kanpoko kausa baten ideiak lagundurik datorrela; eta, beraz, *(13. Prop. Eskol. arab.),* maite dugun gauza bat norbaitek Poztasunez edo Tristuraz hunkitzen duela irudikatzen baldin badugu, harekilako Maitasunak edo Gorrotoak hunkituko gaitu.

H.B.D.B.

Eskolioa

21. Proposizioak esplikatzen digu zer den *Gupida*, zeina honela defini baitezakegu: *besteen zoritxarretik sorturiko Tristura da.* Baina zer izenez deitu behar dugun besteen zorionetik sortzen den Poztasuna, ez dakit hori. Bestalde, *besteri ongi egin dionarenganako Maitasuna Begikotasuna* deituko dugu, eta *besteri gaizki egin dionarenganako Gorrotoa, Haserrea.*

Ohartu behar da, azkenik, ez dugula gupidarik maite dugun gauza batez, soil-soilik *(21. Proposizioan erakutsi dugunez)* baina, bai, aitzinetik neholako afekturik izan ez dugun gauza batez ere, gure iduria dela ikusten dugun ber *(laster erakutsiko dudan bezala).* Eta, ondorioz, ohartu behar da orobat begikoa dugula gure idurikoari ongi egin diona, eta, alderantziz, haserretzen garela gure idurikoari gaizki egin dionarekin.

XXIII. Proposizioa

*Gorroto duen hori Tristuraz hunkitua dela irudikatzen duena Poztuko da; Poztasunez hunkitua dela irudikatzen baldin badu, ordea Tristatuko da; eta bi afektu horiek handiago edo tipiago izanen dira, gorrotatu gauzaren kontrako afektua handiago edo tipiago denarean arabera.*

Demonstrazioa

Gauza gorrotagarri bat Tristuraz hunkitua denean, suntsitzen da hein batean; zenbat eta handiago baita hunkitzen duen Tristura, hainbat eta areago *(11.Prop. Eskol. arab.).* Honela bada, alderantziz *(20. Prop. arab.)* gorroto duen gauza Tristuraz hunkitua dela irudikatzen duena Poztasunak hunkituko du; zenbat eta Tristura handiagoz hunkitua irudikatzen baitu, hainbat eta gehiago. Hau baitzen lehen puntua.

Bestalde, gauza pozgarriaren existentzia ekartzen du Poztasunak *(11. Prop. Eskol. ber. arab.),* eta hori Poztasun handiagoa pentsatzen denaren arabera. Gorroto duena Poztasunez hunkitua dela irudikatzen badu edonork, irudikapen honek *(13. Prop. arab.)* eragotziko du haren ahalegina, erran nahi baita *(11. Prop. Eskol. arab.),* Tristuraz hunkitua izanen dela, etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Poztasun hori ez daiteke izan sendoa, eta barneko gatazkarik gabekoa. Zeren (27. Proposizioan berehala erakutsiko dudan bezala), bere irudikoa duen gauza bat Tristurazko afektu batek hunkitua duela irudikatzen duenean norbaitek, nor hura Tristatu behar da hein batean; eta alderantziz izanen da, Poztasunez hunkitua duela irudikatzen baldin badu. Baina hemen Gorrotoari bakarrik erreparatu diogu.

XXIV. Proposizioa

*Gorroto dugun gauza bat Poztasunez hunkitzen duela norbaitek irudikatzen baldin badugu, nor hari buruzko Gorrotoak hunkituko gaitu. Gauza hori bera, ordea, Tristuraz edonork hunkitzen duela irudikatzen baldin badugu, harenganako Maitasunak hunkituko gaitu.*

Demonstrazioa

Proposizio hau Zati honetako 22. Proposizioa bezala demonstratzen da; ikus hura.
Eskolioa
Gorrotozko afektu horiek eta horien idurikoak *Bekaizkerian* biltzen dira, zeina, horrexegatik, *Gorrotoa* besterik ez baita, *honek gizakia bestearen gaitzaz poztera eta haren onaz tristatzera daraman bezainbatean.*
XXV. Proposizioa
*Guri buruz eta maitaturiko gauzari buruz, Poztasunez hunkitzen gaituela edo hunkitzen duela irudikatzen dugun oro baieztatzera bermatzen gara; eta, alderantziz, lehiatzen gara, Tristuraz hunkitzen gaituela edo maitaturiko gauza hunkitzen duela irudikatzen dugun oro ezeztazera.*
Demonstrazioa
Poztasunez edo Tristuraz gauza maitatua hunkitzen duela irudikatzen dugunak, Poztasunez edo Tristuraz hunkitzen gaitu *(21. Prop. arab.)*. Baina Izpiritua lehiatzen da *(12. Prop. arab.)* Poztasunez hunkitzen gaituena, ahal bezainbatean irudikatzen, hots, *(17. Prop. eta hon. Korol. arab.)*, haren presentzia kontenplatzen; eta, alderantziz *(13. Prop. arab.)* Tristuraz hunkitzen gaituenaren existentzia baztertzen ahalegintzen da. Beraz, gutaz eta maitaturiko gauzaz, guhaur edo guk maitatu gauza Poztasunez hunkitzen gaituela irudikatzen dugun guztia baieztatzera bermatzen gara; eta alderantziz. H.B.D.B.
XXVI. Proposizioa
*Gorroto dugun gauza bati buruz, Tristuraz hunkitzen duela irudikatzen dugun guztia baieztatzen ahalegintzen gara; eta alderantziz, ahalegintzen gara ere Poztasunez hunkitzen duela irudikatzen dugun guztia ukatzen.*
Demonstrazioa
Proposizio hau 23. Proposizioari jarraikitzen zaio, aitzinekoa 21. Proposizioari darraion bezala.
Eskolioa
Hortik ikusten dugu erraz gertatzen dela gizakiak bere buruaz eta maitaturiko gauzaz bidezko den baino gehiago arduratzea, eta, alderantziz, gorroto duen gauza batez zuzen den baino gutiago, eta irudikapen hori, gizakiari berari dagokiolarik eta bere buruaz bidezko den baino gehiago arduratzen delarik, *Harrokeria* deitzen da, eta eldarnio gisako bat da, zeren gizakiak begiak irekirik amesten baitu bere irudimen soilak besarkatzen dituen gauza guztiak egin ditzakeela eta, horrexegatik, egiazkoak balira bezala kontenplatzen baititu eta zoratzen baitute, nehondik ez dezakeelarik aldiz irudika haien existentzia baztertzen duen eta haren iharduteko ahalmena mugatzen duen edozer gauza.
Hortaz, *Harrokeria da, gizaki batek bere burua zuzen den baino gehiago uste izatetik sortzen den Poztasuna.*
Bestalde, *gizaki batek beste bat bidezko den baino gehiago uste izatetik sortzen den Poztasuna, Handiespena* deitzen da.
Eta azkenik, *gizaki batek beste bat bidezko den baino gutiago uste izatetik sortzen den Tristura, Gutiespena* deitzen da.
XXVII. Proposizioa
*Gure irudikoa den gauza bat, zeinari buruz neholako afekturik ez baitugu izan, afektu batez hunkitua dela irudikatzen baldin badugu, ordu beretik antzeko afektu batek hunkitzen gaitu.*
Demonstrazioa
Gauzen irudiak giza Gorputzaren afekzioak dira, zeinen ideiek kanpoko gorputzak aitzinean balira bezala erakusten baitizkigute *(2. Zat., 17. Prop. Eskol. arab.)*, erran nahi

baita *(2. Zat., 16. Prop. arab.),* ideia haiek gure Gorputzaren izaera barne hartzen dutela, bai eta, aldi berean, kanpoko gorputzaren presenteko izaera ere.

Hortaz, kanpoko gorputz baten izaera gure Gorputzaren izaeraren irudikoa baldin bada, irudikatzen dugun kanpoko gorputzaren ideiak gure Gorputzaren afekzio bat barne hartuko du, kanpoko gorputzaren irudikoa izanen dena; eta, ondorioz, gure irudikoa den edonor afektu batez hunkitua dela irudikatzen baldin badugu, irudikapen horrek gure Gorputzaren afekzio bat barne hartuko du afektu haren irudikoa dena; eta, beraz, gure irudikoa den gauza bat, halako afektu batez hunkitua dela irudikatzen dugun ber, antzeko afektu batez hunkituak izanen gara gu ere. Eta gure irudikoa den gauza bat gorroto baldin badugu, orduan *(23. Prop. arab.)* kontrako afektu batez hunkituak izanen gara, baina ez antzeko afektu batez. H.B.D.B.

Eskolioa

Afektuen imitazio hori, Tristurari doakionean, *Gupida* deitzen da, *(ikus honi buruz 22. Prop. Eskol.)*; baina Desirari doakionean, *Emulazioa* deritza, zeina, honenbestez, *desiratzen dugun gauza bati buruz, gure irudikoak diren beste batzuek gure Desira bera dutela irudikatzeak sortzen digun Desira besterik ez baita.*

I. Korolarioa

Neholako afekturik izan ez dugun edonork, gure irudikoa den gauza bat Poztasunez hunkitzen duela irudikatzen baldin badugu, harenganako Maitasunez hunkituak izanen gara. Baldin, ordea, Tristuraz hunkitzen duela irudikatzen badugu, harenganako Gorrotoz hunkituak izanen gara.

Demonstrazioa

Aitzineko Proposizioan oinarrituz demonstratzen da hau, 22. Proposizioa 21. Proposizioari esker demonstratzen den bezala.

II. Korolarioa

Gupida dugun gauza bat ezin dugu gorrotatu, haren miseriak Tristuraz hunkitzen gaituenez geroz.

Demonstrazioa

Baldin eta gorrotatzen ahal bagenu, orduan *(23. Prop. arab.)* haren Tristuraz poztuko ginateke, eta hori hipotesiaren kontra doa.

III. Korolarioa

Gupida dugun gauza bat, bere miseriatik askatzen ahaleginduko gara, ahal bezainbatean.

Demonstrazioa

Gupida dugun gauza bat Tristuraz hunkitzen duenak gu ere hunkitzen gaitu antzeko Tristura batez *(aitzin. Prop. arab.)*; eta, beraz, gauza horren existentzia kentzen edo gauza hori suntsitzen duen guztia, gogoratzen ahaleginduko gara *(13. Prop. arab.)*, erran nahi baita, *(9. Prop. Eskol. arab.)* hori suntsitzeko guraria izanen dugula, hots, hori suntsitzera lehiatuko garela; eta, horrela, gupida dugun gauza bat bere miseriatik askatzen ahaleginduko gara. H.B.D.B.

Eskolioa

On egiteko borondate edo gurari hau, on egin nahi diogun gauzari diogun gupidatik sortzen delarik, *Onginahia* deitzen da, eta, horrenbestez, *Onginahia, Gupidatik sorturiko Desira bat* besterik ez da.

Gure antzeko dela irudikatzen dugun gauzari on edo gaitz egiten dionaren aldeko Maitasunari edo Gorrotoari dagokionez, ikus bestalde, 22. Proposizioko Eskolioa.

XXVIII. Proposizioa

*Poztasunera daramala irudikatzen dugun guztia gerta dadin lehiatzen gara; haren kontrako dena aldiz, edo, Tristurara daramala irudikatzen duguna, baztertzen edo suntsitzen ahalegintzen gara.*

Demonstrazioa

Poztasunera daramala irudikatzen dugun guztia irudikatzera lehiatzen gara, ahal bezainbatean *(12. Prop. arab.)*, erran nahi baita *(2. Zat., 17. Prop. arab.)* hura aitzinean balego bezala, hots, aktuan existitzen balitz bezala, kontenplatzen ahaleginduko garela, ahal bezainbatean. Baina Izpirituaren ahaleginaren edo pentsatzeko duen ahalmenaren, eta Gorputzaren ahaleginaren edo iharduteko duen ahalmenaren artean badugu, izatez, berdintasun eta aldiberekotasuna, *(2. Zat., 7. Prop. Korol. eta 11. Prop. Korolariotik argi datorren bezala)*. Beraz, absolutuki mintzatuz, ahalegintzen gara hori existi dadin, hots, *(gauza bera baita, 9. Prop. Eskol. arab.)* hori desiratzen dugu eta horretara jotzen. Hau baitzen lehen puntua.

Bestalde, Tristuraren kausa dela uste duguna, hots *(13. Prop. Eskol. arab.)* gorroto duguna suntsiturik irudikatzen baldin badugu, poztuko gara *(20 Prop. arab.);* eta, horregatik *(demonstrazio honetako lehen zatiaren arabera)* hori bera suntsitzen ahaleginduko gara, erran nahi baita *(13. Prop. arab.)* gureganik urruntzen, aitzinean bagenu bezala ez ikusteko. Hau baitzen bigarren puntua.

Beraz, Poztasunera daramala irudikatzen dugun guztia etab. H.B.D.B.

XXIX. Proposizioa

*Orobat, ahaleginduko gara gizakiek*[1] *Poztasunez begiratzen dutela irudikatzen dugun guztia egiten, eta, alderantziz, arbuiatuko dugu egitea gizakiek arbuiatzen dutela irudikatzen duguna.*

Demonstrazioa

Gizakiek zerbait maite edo higuin dutela irudikatzen baldin badugu, hori bera maitatuko dugu edo higuinduko *(27. Prop. arab.)*, hau da *(13. Prop. Eskol. arab.)* horrexegatik poztuko edo tristatuko gaitu gauza horren presentziak; eta, horrela *(aitzin. Prop. arab.)* ahaleginduko gara gizakiek Poztasunez begiratzen dutela irudikatzen dugun guztia egiten, etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Gizonei atsegin emate soilagatik zerbait egiteko edota ez egiteko ahalegina, *Handinahia* deitzen dugu, bereziki lehiatzen garenean herri arruntari atsegin ematen, halako arduraz non, guhauren edo besteen kalterako, gauza batzuk egiten baititugu, edo ez egiten; bestela, *Gizatasuna* deitu ohi dugu.

Gero, gure atseginerako, nor edo nor ahalegindu den ekintza irudikatzean izaten dugun Poztasuna deitzen dut *Gorespena*; eta besteen ekintza bat arbuiatzean izaten dugun Tristura, berriz, *Gaitzespena.*

XXX. Proposizioa

*Nor edo nork zerbait egin badu, besteak Poztasunez hunkitzen dituela irudikatzen duena, Poztasunez hunkitua izanen da halakoa, bere buruaren ideia bere Poztasunaren kausa bezala lagun daramala, hots, Poztasunez kontenplatuko du bere burua. Baina, alderantziz, halako horrek zerbait egin baldin badu besteak Tristuraz hunkitzen dituela irudikatzen duena, Tristuraz kontenplatuko du bere burua.*

Demonstrazioa

Besteak Poztasunez edo Tristuraz hunkitzen dituela irudikatzen duena, Poztasunez edo Tristuraz hunkitua izanen da, horrenbestez *(27. Prop. arab.).* Baina nola gizakia *(2. Zat., 19. eta 23. Prop. arab.)* bere buruari ohartzen den ihardutera determinatzen duten afekzioen bitartez, orduan, norbaitek zerbait egin badu, beste guztiak Poztasunez hunkitzen dituela irudikatzen duena, Poztasunez hunkitua izanen da halakoa, horren kausa bera dela ohartzearekin, hots, Poztasunez kontenplatuko du bere burua, eta alderantziz. H.B.D.B.

Eskolioa

Maitasuna *(13. Prop. Eskol. arab.)* kanpoko kausa baten ideiak lagun duen Poztasuna baita, eta Gorrotoa, kanpoko kausa baten ideiak ere lagun daraman Tristura, Poztasun edo Tristura hauek, Maitasun edo Gorroto modukoak izanen dira, beraz.

Baina, Maitasuna eta Gorrotoa kanpoko objektuei dagozkienez, Afektu horiek beste izenez adieraziko ditugu: hala nola, barneko kausa baten ideiak lagun daraman Poztasuna *Loria* deituko dugu, eta horren kontrako Tristura *Ahalkea*; hau da, Poztasuna edo Tristura sortzen da, gizakiak goretsia edo gaitzetsia dela uste duenean.

Bestela erranik, barneko kausa baten ideiak lagun daraman Poztasuna *Norberarekiko kontentua* deituko dut, eta horren kontrako Tristura *Damua.*

Bestalde *(2. Zat., 17. Prop. Korol. arab.)* gerta baitaiteke norbaitek besteak hunkitzen omen dituen Poztasuna irudipen hutsa izatea, eta *(25. Prop. arab.)* norbera saiatzen baita Poztasunez hunkitzen duela irudikatzen duen guztia bere buruaz irudikatzen, erraz gerta daiteke bere buruaz loriatzen dena harro izatea, eta bere burua denei maitagarri zaiela uste duelarik, denei gogaikarri izatea.

XXXI. Proposizioa

*Baldin eta maite, gura edo higuin dugun zerbait, beste norbaitek maite, gura edo higuin duela irudikatzen badugu, guk, horrenbestez, gauza hori sendotasun gehiagoz maiteko dugu etab. Baldin eta, ordea, halakoak guk maite duguna higuin duela irudikatzen badugu, edo alderantziz, orduan izpirituaren gora-behera bat pairatuko dugu.*

Demonstrazioa

Norbaitek zerbait maite duela irudikatzen dugunetik beretik, guk gauza hori bera maitatuko dugu *(27. Prop. arab.).*

Baina demagun hori gabe maite dugula jadanik: orduan, kausa berri bat eransten zaio gure Maitasunari, hau hazten duena; eta, horregatik, maite duguna sendotasun gehiagoz maitatuko dugu.

Gero, beste batek zerbait higuin duela irudikaten dugunetik beretik, gauza hori higuinduko dugu *(Prop. ber. arab.).*

Baina, demagun, aldi berean, maite dugula, orduan, aldi berean, maitatuko eta higuinduko dugu gauza hori bera, hots *(17. Prop. Eskol. arab.)* izpirituaren gorabehera bat pairatuko dugu. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik eta Zati honetako 28. Proposiziotik dator norbera, ahal bezainbat, bermatzen dela, berak maite duena, bakoitzak maita dezan, eta berak gorroto duena, bakoitzak gorrota dezan; hortik dator Poetaren errana:

*Atxik ditzagun batera, bai itxaropena, bai eta beldurra, maitaleok:*
*Burdina izan behar du, lagunak uzten diona maite duenak.*

Eskolioa

Norberak maite edo gorroto duena guztiek ontzat emateko ahalegin hau, egia erran, Handinahia da *(ikus 29. Prop. Eskol.)*; eta, horrela, ikusten dugu norberak, izatez, gura duela besteak haren jeinuaren arabera bizi daitezen, eta denek, berdin, gura dutenez, denek, berdin, elkarri poxelu egiten diote, eta, denek, beti, goretsiak edo maitatuak izan nahi baitute, denek elkar ezinikusia dute.

XXXII. Proposizioa

*Bakar batek baizik eduki ez dezakeen gauza bat norbaitek gozatzen duela irudikatzen baldin badugu, halakoak gauza hori goza ez dezan bermatuko gara.*

Demonstrazioa

Norbaitek gauza bat gozatzen duela irudikatze soilagatik *(27. Prop. arab. bere 1. Korol. barne)* maitatuko dugu gauza hori eta gozatu nahiko dugu. Baina, *(hipotesiaren arab.)* gure halakoak gauza hura gozatzeak gure Poztasuna eragozten duela irudikatzen dugu; eta,

ondorioz *(28. Prop. arab.)* delako gauza hura besteak ez dezan gehiago goza ahaleginduko gara.

Eskolioa

Ikusten dugu, bada, gehienetan, gizakien izaera halako gisaz egina dela, non gauzak gaizki doazkienak gupidesten baitituzte eta ongi doazkienak bekaizten, eta *(aitzin. Prop. arab.)* zenbat eta maiteago baitute beste batek eskuratu duela irudikatzen duten gauza hura, hainbat eta gorroto handiagoz.

Ikusten dugu, bestalde, gizakiak gupidatsuak izatea datorren giza izaeraren propietate beretik heldu dela, halaber, gizaki horiek berak bekaiztiak izatea eta handinahiak.

Azkenean, esperientzia bera kontsultatu nahiko bagenu, probatuko genuke honek ere horiek guztiak irakasten dizkigula, bereziki, gure bizitzako lehen urteak azter bagenitza. Ezen, esperientziaz badakigu, haurrek, haien gorputza beti hagoan bezala baitago, irri edo nigar egiten dutela beste batzuek irri edo nigar egiten dutela ikusten duten ber; eta, gainera, besteek egiten ikusten dutena, berehala imitatu gura dute, eta, azkenean, berentzat nahi dituzte besteei atsegin zaizkiela irudikatzen dituzten gauza guztiak; zeren eta gauzen irudiak, errana dugun bezala, giza Gorputzaren afekzioak berak baitira, hots, kanpoko kausek giza Gorputza hunkitzeko eta hau edo hura egitera bultzatzeko dituzten moduak.

XXXIII. Proposizioa

*Gure irudiko den gauza bat maite dugunean, hark ere, ordainez, maita gaitzan bermatzen gara, ahal bezainbatean.*

Demonstrazioa

Besteen gainetik maite dugun gauzaren irudikatzen bermatzen gara, ahal bezainbatean *(12. Prop. arab.)*. Hortaz, gauza hura gu iduria bada, ahaleginduko gara haren, besteen gainetik, Poztasunez hunkitzen *(29. Prop. arab.)* hots, bermatuko gara, ahal bezainbatean, maitaturiko gauza, gurekiko ideiak lagun daraman Poztasunez hunkitua izan dadin, erran nahi baita *(13. Prop. Eskol. arab.)* hark ere, ordainez, guhaur maita gaitzan. H.B.D.B.

XXXIV. Proposizioa

*Zenbat eta handiago baita irudikatzen dugun maitaturiko gauzak guretzat duen afektua, hainbat eta gehiago loriatuko gara.*

Demonstrazioa

Ahal bezainbat bermatzen gara *(aitzin. Prop. arab.)* maite dugun gauzak, ordainez, maita gaitzan guhaur, hots *(13. Prop. Eskol. arab.)*, maite dugun gauza, gurekiko ideiak lagun daraman Poztasunez hunkitua izan dadin. Honela bada, zenbat eta handiago baita irudikatzen dugun maitatu gauza guregatik hunkitua denaren Poztasuna, hainbat eta lagunduago izanen da gure ahalegina, hau da *(11. Prop. Eskol. arab.)* hainbat eta handiago izanen da hunkitzen gaituen Poztasuna.

Baina, gure irudiko den norbait Poztasunez hunkitu dugulako pozten garelarik, Poztasunez kontenplatzen dugu geure burua, *(30. Prop. arab.)*; beraz, zenbat eta handiago baitugu irudikatzen maite dugun gauzak gurekiko duen afektua, hainbat eta Poztasun handiagoz kontenplatuko dugu geure burua, hots *(30. Prop. Eskol. arab.)* hainbat eta areago loriatuko gara. H.B.D.B.

XXXV. Proposizioa

*Norbaitek irudikatzen badu maite duen gauzari beste lagun bat atxikia zaiola, bera bakarrik gauza haren jabe zelarik zeukan adiskidetasun lokarri berdinaz edo tinkoagoaz, halakoa gorrotoz hunkitua izanen da maite duen gauzarekiko, eta delako lagunaz bekaiztuko da.*

Demonstrazioa

Zenbat eta handiago den, norbaitek irudikatzen duen maitaturiko gauzak harentzat duen Maitasuna, hainbat eta gehiago loriatuko da nor hura *(aitzin. Prop. arab.)* hots *(30. Prop. Eskol. arab.)* hainbat gehiago Poztuko da; eta, beraz *(28. Prop. arab.)* bermatuko da, ahal bezainbat, maite duen gauza hura, ahalik eta tinkoena berari atxikia dela, irudikatzen; eta ahalegin edo gurari hori hazten zaio *(31. Prop. arab.)* irudikatzen baldin badu beste norbaitek, beretzat, gauza bera gura duela.

Baina demagun ahalegin edo gurari hori eragozten duela maitaturiko gauzaren irudiak berak, maitatuari atxikia zaionaren irudia lagun duelarik, eta, horrenbestez *(11. Prop. Eskol. arab.)* Tristuraz hunkitua izanen da, lagun daramatzala, kausa bezala, maitaturiko gauzaren ideia eta, aldi berean, beste haren irudia, erran nahi baita *(13. Prop. Eskol. arab.)* gorrotoz hunkitua izanen dela maitaturiko gauzarentzat, eta, aldi berean, beste harentzat *(15. Prop. Korol. arab.)*; eta beste delako hark gauza maitatuarekin plazer hartzen duenez *(23. Prop. arab.)* hartaz izanen da bekaizti.

Eskolioa

Bekaizkeriari loturik doan maitaturiko gauzaren Gorroto hori *Jeloskeria* deitzen da, zeina, horrenbestez, bekaizten den beste norbaitekiko ideiak lagun daramatzan Maitasunetik eta Gorrototik batera sortzen den Izpirituaren gora-behera besterik ez baita.

Gainera, maitaturiko gauzaren ordainezko Maitasunaren ondorioz Jeloskorra hunkitu ohi zuen Poztasuna, eta orobat, Jeloskorra hunkitzen zuen maitaturiko gauzarekin elkarturik irudikatzen zuen beste harenganako Afektua zenbat eta handiagoak izan, hainbat eta handiago izanen da maitaturiko gauzaren Gorroto hau. Ezen, beste lagun hura gorrotatzen baldin bazuen, horrexegatik *(24 Prop. arab.)*, gorrotatuko du maitaturiko gauza ere; zeren eta irudikatzen baitu gauza horrek Poztasunez betetzen duela berak gorrotatzen duena, eta bestalde *(15. Prop. Korol. arab.)* bera behartua baita, maitaturiko gauzaren irudia gorroto duenaren irudiari lotzera.

Arrazoi hau aurkitzen da, gehienetan, emazteenganako Maitasunean. Nork ere irudikatzen baitu, alabaina, maite duen emaztea zikintzen dela beste norbaitekin, pertsona hura tristatuko da, eta ez bakarrik bere guraria hertsatua gertatzeagatik, baina ere, maitaturiko gauzaren irudia bestearen lotsariei eta isuriei lotzera behartua izateagatik, eta hori guztia higuintzeagatik; eta horri eransten zaio, azkenik, Jeloskorrari maitaturiko gauzak ez diola egiten, aitzinean, erakusten zion begitarte bera; honek ere tristatzen duelarik maitalea, erakustera noan bezala.

XXXVI. Proposizioa

*Behin atsegina eman dion gauza bat gogoratzen duenak, desiratzen du horretaz jabetzea, lehen aldian gozatu zirkunstantzia beretan.*

Demonstrazioa

Atsegina eman dion gauzarekin batera gizakiak ikusi duen guztia *(15 prop. arab.)* Poztasun kausa izanen da ustekabez, eta, beraz *(28. Prop. arab.)* horretaz guztiaz jabetu nahiko da, atsegina eman dion gauzarekin batean; erran nahi da, lehen aldian atsegin eman dion zirkunstantzia beretan gauzaz jabetu nahiko dela. H.B.D.B.

Korolarioa

Honela bada, zirkunstantzia horietarik bat falta dela konturatzen bada, tristatuko da maitalea.

Demonstrazioa

Zirkunstantzia bat falta dela konturatzen den heinean, alabaina, irudikatzen du gauzaren existentzia baztertzen duen zerbait. Eta gauza edo zirkunstantzia hori *(aitzin. Prop. arab.)* maitasunez desiratzen duenez, orduan *(19 Prop. arab.)* zirkunstantzia hori falta dela irudikatzen duen aldetik, tristatuko da. H.B.D.B.

Eskolioa

Tristura hau, maite dugunaren gabeziari dagokionez, *Frustrazioa* deitzen da.

XXXVII. Proposizioa

*Zenbat eta handiago baita Afektua, hainbat eta handiago da Tristuratik edo Poztasunetik, Gorrototik edo Maitasunetik sortzen den Desira.*

Demonstrazioa

Tristurak tipitzen du, edo murrizten, gizakiaren iharduteko ahalmena *(11. Prop. Eskol. arab.)*, hots *(7. Prop. arab.)* gizakiak bere izanean irauteko eginahalean egiten duen ahalegina; eta, beraz *(5. Prop. arab.)* ahalegin horren kontrakoa da; eta Tristurak hunkitu gizakiak egiten duen ahalegin guztia Tristura hori baztertzeko da.

Baina, *(Tristuraren Def. arab.)* zenbat eta handiago baita Tristura, hainbat eta handiago da Tristurak aurre egin behar dion gizakiaren iharduteko ahalmen zatia; horregatik, zenbat eta handiago baita Tristura, hainbat eta handiago izanen da gizakiak Tristura horren baztertzeko eginahalean erabiliko duen ahalmena, hots *(9. Prop. Eskol. arab.)* hainbat eta handiago izanen da Tristura baztertzeko eginahalean baliatuko duen Desira edo guraria.

Gero, nola Poztasunak *(11. Prop. ber. arab.)*, gizakiaren iharduteko ahalmena handitzen edo laguntzen duen, bide beretik, errazki demonstratzen da Poztasunez hunkitu gizakiak Poztasun horren atxikitzea baizik ez duela desiratzen, eta hori, zenbat eta handiago baita Poztasuna, hainbat eta Desira handiagoz du desiratzen.

Azkenik, Gorrotoa eta Maitasuna, Tristuraren edo Poztasunaren Afektuak berak direnez geroz, hortik dator, era berean, Gorrototik edo Maitasunetik sortzen den ahalegin, gurari edo Desira hura, zenbat eta handiago baitira Gorrotoa edo Maitasuna, hainbat eta handiago izatea. H.B.D.B.

XXXVIII. Proposizioa

*Maitaturiko gauza bat gorrotatzen hasi bada norbait, halako moldez non, Maitasuna guztiz ezabatu baitu, arrazoi berdinaren kariaz, sekula maitatu izan ez balu baino gehiago gorrotatuko du; zenbat eta handiago izan Maitasuna, hainbat eta handiago izanen baita Gorrotoa.*

Demonstrazioa

Ezen norbait hasten bada maite duen gauza baten gorrotatzen, gauza hau maite izan ez balu baino gurari gehiago murrizten zaizkio orduan. Ezen, Maitasuna, *(13. Prop. Eskol. arab.)*, Poztasun mota bat da, gizakia ahal bezainbat atxikitzera bermatzen dena, *(28. Prop. arab.);* eta hori, *(Eskol. berdin. arab.)* maitaturiko gauza aitzinean balu bezala kontenplatuz, eta *(21. Prop. arab.)*, Poztasunez, ahal bezainbatean, hunkituz.

Ahalegin hau, ordea, *(aitzin. Prop. arab.)*, zenbat eta handiago baita Maitasuna, eta orobat, zenbat eta handiago baita ere maitaturiko gauzak hura ordainez maitatzeko ahalegina, hainbat eta handiago izanen da, *(33. Prop. arab.).*

Baina maitaturiko gauzarenganako Gorrotoak ahalegin horiek mendratzen ditu *(13. Prop. Korol. eta 23. Prop. arab.)*; eta beraz, maitalea, *(11. Prop. arab.)*, horregatik ere, Tristuraz hunkitua izanen da, zenbat eta handiago baitzen Maitasuna, hainbat eta Tristura handiagoz; erran nahi baita, Gorrotoaren kausa izan zen Tristuraz bestalde, beste Tristura bat sortzen dela maitatu izan gauzarengatik; eta, ondorioz, Tristurazko afektu handiago batez kontenplatuko du maitaturiko gauza, hots, *(13. Prop. Eskol. arab.)*, maitatu izan ez balu baino gehiago Gorrotatuko du, zeren zenbat eta handiago izan Maitasuna, hainbat eta handiago izanen baita Gorrotoa. H.B.D.B.

XXXIX. Proposizioa

*Norbait gorroto duena ahaleginduko da hari gaitz egiten, non ez den beldur gaitz handiago bat sor dakion hortik berari; eta, alderantziz, norbait maite duena, lege berarengatik, hari on egiten lehiatuko da.*

Demonstrazioa

Norbait gorroto izatea, hori da, *(13. Prop. Eskol. arab.)*, nor hura Tristura kausa bezala irudikatzea; eta, beraz, *(28. Prop. arab.)*, norbait gorroto duena ahaleginduko da nor hura baztertzen edo suntsitzen. Baina, horrenbestez, Tristura handiagoko zerbaiten beldur bada, hots, (orobat dena), gaitz handiago baten beldur bada, eta uste badu gaitz hori saihets dezakeela hausnartzen zuen kaltea ez eginez gorroto duenari, orduan, kalte egitetik begiratu nahiko du, *(28. Prop. ber. arab.);* eta hori, *(37. prop. arab.)*, kalte egitera bultzatzen zuen indarra baino indar handiago batekin; hau, ondorioz, nagusituko baita, guk nahi genuen bezala.
Bigarren zatiaren demonstrazioa modu berean dator. Beraz, Norbait gorroto duena etab. H.B.D.B.
Eskolioa
*Ongia*, hemen deitzen dut edozein motatako Poztasuna eta hartara daraman guztia ere, eta, nagusiki, irrika edozein betetzen duena. Eta, *Gaizkia* deitzen dut edozein motatako Tristura, eta, nagusiki, irrika zapuzten duena. Izan ere, lehenago erakutsi dugu *(9. Prop. Eskolioan)* guk ez dugula zerbait desiratzen ona dela pentsatzen dugulako, alderantziz baizik: desiratzen dugulako, deitzen dugu *ona*; eta, ondorioz, higuin duguna, *gaitza* deitzen dugu; eta, hortaz, nork bere afektuaren arabera erabakitzen edo estimatzen du zer den ongi, zer gaizki, zer hobe, zer txarrago, eta azkenik zer den onena edo zer txarrena.
Horrela, Zekenak uste du diru ugaria dela hoberena, eta diru gabea, berriz, txarrena. Eta Handinahiak, aldiz, ez du deusik desiratzen loria bezainbat, eta ez du deusek izutzen ahalkeak bezainbat. Bekaiztiari deus ez zaio atseginagorik besteen zorigaitza baino, eta deus ez zaio jasangaitzagorik besteen zoriona baino; eta, halatan, nork bere afektuaren arabera erabakitzen du gauza bat ona edo gaitza dela, baliagarria edo baliogabea.
Bestalde, nahi duena nahi ez izatera, edota nahi ez duena nahi izatera, gizakia daraman afektua *Beldurra* deitzen dugu, zeina, honenbestez, besterik ez baita, *ikara bat baizik, gizakia daramana, gaitz bat gertatuko delakoan, gaitz tipiago baten bitartez, haren saihestera (ikus 28. Prop.).* Baina izutzen gaituen gaitza Ahalkea bada, orduan beldur hura deitzen dugu *Lotsa*.
Azkenik, geroko gaitz bat saihesteko Desira, beste gaitz baten Beldurrak hertsatzen badu, zer nahi dugun ez dakigula, orduan Beldur hura deitzen dugu *Laztura*, batez ere, izutzen gaituzten gaitzak izugarrienetarik baldin badira.
XL. Proposizioa
*Norbaitek gorrotatzen duela irudikatzen, eta gorrotatzeko arrazoirik hari ez diola eman, uste duenak, gorrotatuko du, ordainez, nor hura.*
Demonstrazioa
Norbait gorrotoz hunkitua dela irudikatzen duena, gorrotoz hunkitua izanen da, horrenbestez, bera ere, *(27. Prop. arab.)*, erran nahi da, *(13. Prop. Eskol. arab.)*, kanpoko kausa baten ideiak lagun daraman Tristurak hunkitua izanen dela. Baina, gizaki horrek *(hipotesiaren arab.)* ez du Tristura horren beste kausarik irudikatzen, bera gorrotatzen duen nor hura baizik; beraz, norbaitek gorrotatua dela irudikatzeagatik, bera gorrotatzen duenaren ideiak lagun daraman Tristura batez hunkitua izanen da, hots, *(Eskol. berdin. arab.)*, gorrotatuko du hura. H.B.D.B.
Eskolioa
Gorrotorako arrazoi bidezkorik eman duela irudikatzen baldin badu, orduan, *(30. Prop. eta honen Eskol. arab.)*, Ahalkez hunkitua izanen da. Baina hori *(25. Prop. arab.)*, biziki bakan gertatzen da.
Gainera, elkarrekilako Gorroto hau sor daiteke ere, gorrotatzen denari kalte egiteko ahalegin bat Gorrototik etortzetik *(39. Prop. arab.)*. Hortaz, norbaitek gorrotatzen duela irudikatzen duenak, gaitz edo Tristura zerbaiten kausa bezala irudikatuko du nor hura;

eta, horrela, gorrotatzen duenaren ideiak, kausa bezala, lagun daraman Tristuraz edo Beldurraz hunkitua izanen da, hots, Gorrotoz hunkitua izanen da, gorago esan bezala.

I. Korolarioa

Maite duen norbait bereganako Gorrotoz hunkitua dela irudikatzen duenak, Gorrotoa eta Maitasuna elkarren lehian izanen ditu bere baitan. Ezen, hark gorrotatzen duela irudikatzen duen aldetik, hura ordainez gorrotatzera determinatua da, *(aitzin. Prop. arab.)*. Baina, horrela ere, *(hipotesiaren arab.)*, maite du; eta, beraz, Gorrotoa eta Maitasuna izanen ditu, elkarren lehian, bere baitan.

II. Korolarioa

Nornahik irudikatzen baldin badu berak lehenago afekturik izan ez dion norbaitek Gorrotoz gaitz egin diola, berehala lehiatuko da hari gaitz horren ordainez itzultzen.

Demonstrazioa

Norbait harenganako Gorrotoz hunkitua dela irudikatzen duenak, gorrotatuko du nor hura, ordainez, *(aitzin. Prop. arab.)*, eta, *(26. Prop. arab.)*, nor hura Tristuraz hunki dezakeen guztia gogoratzera lehiatuko da, eta, *(39. Prop. arab.)*, hori guztia hari egitera bermatuko. Baina *(hipotesiaren arab.)* honi buruz irudikatzen duen lehen gauza, berari egin dioten kaltea da; beraz, besteari kalte hori egitera bermatuko da berehala. H.B.D.B.

Eskolioa

Gorrotatzen dugunari kalte egiteko ahalegina, *Hira* deitzen da; eta egin diguten kaltea itzultzeko ahalegina, *Mendekua.*

XLI. Proposizioa

*Norbaitek maite duela irudikatzen badu batek, eta horretarako arrazoirik ez diola eman uste badu,* (15. Prop. Korol. eta 16. Prop. arab. gerta daitekeena), *maitatuko du hura ordainez.*

Demonstrazioa

Aitzinekoaren bide beretik demonstratzen da Proposizio hau, baina haren Eskolioa ere ikusi behar da.

Eskolioa

Maitasunerako arrazoi bidezko zerbait eman duela uste badu, loriatuko da *(30. Prop. arab. Eskol. barne)*, maiz gertatzen den bezala, *(25. Prop. arab.)*, eta kontrakoa gertatzen da, erran dugun bezala, batek irudikatzen duenean norbaitek bera gorrotatzen duela *(ikus aitzin. Prop. Eskol.)*.

Elkarrenganako Maitasun hori, bada, eta, ondorioz, *(39. Prop. arab.)*, maite gaituenari eta, *(39. Prop. ber. arab.)*, guri ongi egitera lehiatzen denari on egiteko ahalegina, *Eskerrona* edo *Ikustatea* deitzen da; eta, horrela, argi ageri da Mendekurako gertuago daudela gizakiak, ongi eginak ordaintzeko baino.

Korolarioa

Gorrotatzen duen hura, berak maite duela irudikatzen duenak, Gorrotoa eta Maitasuna elkarren lehian izanen ditu bere baitan. Hau demonstratzen da aitzineko Proposizioaren lehen Korolarioaren bide beretik.

Eskolioa

Baina Gorrotoa nagusitzen bada, bera maite duenari kalte egitera lehiatuko da; afektu hori *Krudeltasuna* deitzen da, bereziki, uste baldin bada maite duenak ez duela arrazoi komunik eman Gorrotorako.

XLII. Proposizioa

*Loriaren Maitasunak edo Itxaropenak bultzaturik norbaiti ongi egin diona Tristatuko da, baldin eta bere ongi egina esker txarrez hartzen dela ikusten badu.*

Demonstrazioa

Beraren irudiko gauza bat maite duena, lehiatzen da, ahal bezainbatean, gauza horrek hura maita dezan, ordainez, *(33. Prop. arab.)*. Hortaz, Maitasunez norbaiti ongi egiten

dionak, bera ere, ordainez, maitatua izateko gogoa duelako egiten du, erran nahi baita, *(34. Prop. arab.)*, Loriaren, edo, *(30. Prop. Eskol. arab.)*, Poztasunaren Itxaropenez; eta, beraz, *(12. Prop. arab.)*, lehiatuko da, ahal bezainbatean, Loriaren kausa horren irudikatzera edo haren aktuz existitzen balitz bezala kontenplatzera. Baina, *(hipotesiaren arab.)*, kausa horren existentzia baztertzen duen beste zerbait irudikatzen du; eta, beraz, *(19. Prop. arab.)*, horrengatik Tristatuko da. H.B.D.B.

XLIII. Proposizioa

*Gorrotoa, gorroto ordain batek handitzen du, eta, Maitasunak, alderantziz, suntsi dezake.*

Demonstrazioa

Gorrotatzen duena harenganako gorrotoz hunkitua dela irudikatzen duenak, beste Gorroto batek hunkitzen du, horrenbestez, *(40. Prop. arab.)*, lehengo Gorrotoak, *(hipotesiaren arab.)*, oraino dirauen bitartean.

Alderantziz, ordea, harenganako Maitasunez hunkitua dela irudikatzen badu, hori irudikatzen duen heinean, *(30. Prop. arab.)*, Poztasunez kontenplatzen du bere burua, eta hein berean, *(29. Prop. arab.)*, hari atsegin ematera bermatuko da, erran nahi baita, *(40. Prop. arab.)*, beti, hein berean, hura ez Gorrotatzen eta Tristuraz ez hunkitzen ahaleginduko dela; ahalegin hori, bestalde, *(37. Prop. arab.)*, bera sortzen duen afektuaren neurriaren arabera, handiago edo tipiago izanen da; eta, horrela, Gorrototik sortzen den afektua baino handiago baldin bada zeinaren bidez gorrotatzen duen gauza Tristuraz hunkitzera bermatzen baita, *(26. Prop. arab.)* ahalegin horri nagusituko zaio, eta Gorrotoa ohilduko du Izpiritutik.

XLIV. Proposizioa

*Maitasunak osoki garaitu duen Gorrotoa Maitasun bilakatzen da; eta, horrengatik, Maitasun hori aitzinetik Gorrotorik izan ez balitz baino handiagoa da.*

Demonstrazioa

Zati honetako 38. Proposizioarekin bezala egiten da. Ezen, gorrotatzen duen edo Tristuraz kontenplatzen ohi zuen gauza bat maitatzen hasten dena, maitatzearen berarengatik Pozten da, eta Maitasunak barne hartzen duen Poztasun horri, *(ikus honen Def.13. Prop. Eskolioan)*, gehitzen zaio Gorrotoak barne hartzen duen Tristura baztertzeko ahalegina, gorrotatzen zuenaren ideiak, kausa bezala, lagun daramala, *(37. Prop. erakutsi dugun bezala)*, handizki lagundua izatetik sortutako Poztasuna.

Eskolioa

Gauzak horrela, bizkitartean, nehor ez da gauza baten gorrotatzera, edo bere burua Tristuraz hunkitzera bermatuko, Poztasun handiago horretaz gozatzearren; hots, nehork ez du, kalte ordainaren itxaropenean, bere buruari kalterik egitea desiratuko, ez eta eritasunik irrikatuko, eriondoaren itxaropenean. Ezen, bakoitza lehiatuko da, beti, bere izatearen atxikitzen, eta, halaber, Tristuraren, ahal bezainbat, baztertzen.

Baina, alderantziz, pentsatzen ahal balitz gizaki batek norbaiten gorrotatzea desiratzen duela, gero harenganako Maitasun handiago baten ezagutzeko, orduan, hura gorrotatzea desiratuko luke beti. Ezen, zenbat eta handiago izan baita Gorrotoa, hainbat eta handiago izanen da Maitasuna, eta, beraz, gero eta Gorroto handiagoa izatea desiratuko du beti, eta arrazoi berarengatik gero eta eriago izaten lehiatuko da, gero eta Poztasun handiago batez gozatzearren, osasuna berreskuratu ondoan; eta, beraz, beti eri izaten bermatuko da, baina hori, *(6. Prop. arab.)*, absurdua da.

XLV. Proposizioa

*Bere irudiko gauza bat maite duen norbaitek irudikatzen baldin badu beraren iduriko bat Gorrotoz hunkitua dela gauza hari buruz, hura gorrotatuko du.*

Demonstrazioa

Zeren, maitaturiko gauzak gorrotatzen du, ordainez, hura gorrotatzen duena, *(40 Prop. arab.)*, eta, horrela, maitaturiko gauza nehork gorrotatzen duela irudikatzen duen maitaleak, maitaturiko gauza gorrotoz hunkitua dela irudikatzen du, horrenbestez, hots, *(13. Prop. Eskol. arab.)*, Tristuraz hunkitua dela irudikatzen du, eta, ondorioz, *(21. Prop. arab.)*, tristatzen da, maitatu gauza gorrotatzen duenaren ideiak, kausa bezala, lagun daraman Tristuraz; erran nahi baita, *(13. Prop. Eskol. arab.)*, nor hura gorrotatuko duela. H.B.D.B.

XLVI. Proposizioa

*Norbait, klase edo nazio ezberdineko norbaitek Poztasunez ala Tristuraz hunkiturik, norbait horren ideiak, bere klase edo nazio izen komunaren pean, kausa bezala, lagun daramala, hunkitua izan bada, hark honen klase edo nazio bereko guztiak maitatuko edo gorrotatuko ditu, eta ez bakarrik norbait hura.*

Demonstrazioa

Honen Demonstrazioa argi ageri da, Zati honetako 16. Proposiziotik.

XLVII. Proposizioa

*Gorroto dugun gauza bat suntsitua dela, edo beste gaitz batek hunkitua dela, irudikatzetik sortzen den Poztasuna, ez da izpirituaren Tristura zerbait gabe sortzen.*

Demonstrazioa

Argi ageri da, Zati honetako 27. Proposiziotik. Ezen, gure irudiko gauza bat Tristuraz hunkitua dela irudikatzen dugun heinean, tristatzen gara hein berean.

Eskolioa

Proposizio hau 2. Zatiko 17. Proposizioaren Korolariotik froga ere daiteke. Gauza batez oroitzen garen aldi bakoitzean, alabaina, aktuan existitzen ez bada ere, aitzinean bagenu bezala kontenplatzen dugu gauza hura, eta Gorputza modu berean hunkitua da; hortaz, gauzaren oroitzapena bizirik den hein berean gizakia determinatua da gauza haren Tristuraz kontenplatzera, eta determinazio hau, gauzaren irudiak diraueno, gauzaren existentzia baztertzen duten beste gauzen oroitzapenak, egiazki, hertsatzen du, baina ez deusezten; eta, ondorioz, determinazio hori murriztua den neurrian bakarrik da gizakia Pozik. Eta hortik dator, hain zuzen, gorroto dugun gauzak pairaturiko gaitzetik sortzen zaigun Poztasuna errepikatzen baita, gauza horretaz oroitzen garen aldikal. Zeren, erran dugun bezala, gauza horren irudia pizten denean, irudi horrek, gauzaren existentzia barne hartzen duenez geroz, gizakia determinatzen du haren kontenplatzera, existitzen zenean kontenplatzen ohi zuen Tristura berberaz.

Baina, nola gauzaren irudiari haren existentzia baztertzen duten beste zenbait irudi lotu baitizkio, Tristurarako determinazio hori berehala hertsatzen da, eta gizakia berriz pozten da, eta hori, oroitzapena errepikatzen den aldi oroz. Horra zergatik jadaneko iragan gaitz batez oroitzen diren aldi bakoitzean gizakiak pozten diren, eta zergatik ere lehen gainditu dituzten arriskuen kontatzea atsegin duten. Zeren, arrisku bat irudikatzen dutenean, etorkizun bezala kontenplatzen dute oraindik eta haren beldur izatera determinatuak daude; determinazio hau, ordea, berriz ere hertsatua da, behialako arrisku hartatik libratu zirenean arriskuaren ideiari lotu zioten libertatearen ideiaren eraginez; eta ideia honek berriz lasaitzen ditu, eta, ondorioz, pozten dira, berriz.

XLVIII. Proposizioa

*Nehorenganako adibidez, Petrirenganako Maitasuna eta Gorrotoa suntsitzen dira, batak barne hartzen duen Poztasuna eta besteak barne hartzen duen Tristura beste kausa baten ideiari lotzen baitzaizkio, eta biak tipitzen dira, bataren ala bestearen kausa bakarra ez dela Petri irudikatzen dugun neurrian.*

Demonstrazioa

Argi ageri da hau, Maitasunaren eta Gorrotoaren Definizio soiletik: ikusiko duzu 13. Proposizioaren Eskolioan. Petrirenganako Maitasuna Poztasuna deitzeko, eta Gorrotoa

Tristura deitzeko arrazoi bakarra da, alabaina, Petri hartzen dela afektu bataren zein bestearen kausatzat. Eta, beraz, kausa hau, osoki edo zatika kentzen bada, Petriren aldeko afektua ere tipituko da, osoki edo zatika.

XLIX. Proposizioa

*Libre dela irudikatzen dugun gauza baten aldeko Maitasunak eta Gorrotoak, kausa berdina izanez geroz, nahitaezko gauza baten aldekoak baino handiagoak izan behar dute.*

Demonstrazioa

Libre dela irudikatzen dugun gauza bat, berez hauteman behar da *(1. Zat., 7. Def. arab.)*, besteen beharrik gabe. Hortaz, gauza hori Poztasunaren edo Tristuraren kausa dela irudikatzen baldin badugu, horrenbestez, *(13. Prop. arab.)* maitatuko edo gorrotatuko dugu, eta hau *(aitzin. Prop. arab.)*, afektu jakin batetik sor daitekeen Maitasun edo Gorroto handienaz. Baina afektu horren kausa den gauza nahitaezkoa bezala irudikatzen badugu, orduan, *(1. Zat., 7. Def. ber. arab.)*, irudikatuko dugu beste zenbaitekin batera dela afektu horren kausa, eta ez afektu horren kausa bakarra; eta horrela, *(aitzin. Prop. arab.)*, gauzaren aldeko Maitasuna eta Gorrotoa tipiagoak izanen dira. H.B.D.B.

Eskolioa

Hortik dator gizakiek, libre direla uste dutelako, beste gauzekilako duten baino Maitasun edo Gorroto handiagoa sentitzen dutela elkarrekilako; eta honi gehitzen zaio afektuen imitazioa: ikus honi buruz 27. 34. 40. eta 43. Prop.

L. Proposizioa

*Edozein gauza izan daiteke, zeharbidez, itxaropen edo beldur kausa.*

Demonstrazioa

Proposizio hau Zati honetako 15. Proposizioaren bide beretik demonstratzen da, Zati honetako 18. Proposizioko Eskolioarekin batera ikusi behar dena.

Eskolioa

Zeharbidez itxaropen edo beldur kausa diren gauzak, *Zantzu onak edo txarrak* deitzen dira. Zantzu horiek, bestalde, Itxaropen edo Beldur kausa diren hein berean *(Itxaropenaren eta Beldurraren Definizioaren arabera, 18. Prop. 2. Eskolioan ikusi behar dena)* Poztasun edo Tristura kausa dira eta, ondorioz, *(15. Prop. Korol. arab.)*, Maitatzen ditugu edo Gorrotatzen, eta *(28. Prop. arab.)* lehiatzen gara, itxaroten dugun horretara heltzeko, bitartekoak bezala erabiltzen, edo beldurraren arrazoiak eta oztopoak baztertzen.

Gainera, Zati honetako 25. Proposiziotik dator, halako gisaz eginak garela izaeraz, non errazki sinesten baitugu itxaroten dugun hartan, nekez ordea beldur garen hartan, eta, neurri berean, bidezko den baino gehiago edo gutiago estimatzen baititugu bata eta bestea. Hortik sortzen dira ere sineskeriak, gizakiez nonahi jabetzen direnak.

Ez dut uste, bestalde, merezi duenik Itxaropenetik eta Beldurretik sortzen diren Izpirituaren gorabeherak hemen erakustea; zeren eta, afektu horien definizio soiletik baitator, Itxaropenik ez dela Beldurrik gabe, ez eta ere Itxaropenik gabeko Beldurrik, (bere aldian zehazkiago azalduko dugun bezala); eta, gainera, gauza bat itxaroten dugun edo haren beldur garen heinean maite edo gorroto baitugu, Maitasunaz eta Gorrotoaz erran dugun guztia Itxaropenari eta Beldurrari norberak aplika dezake errazki.

LI. Proposizioa

*Gizaki ezberdinak, objektu batek eta berak hunkituak izan daitezke modu ezberdinez, eta gizaki bat eta bera, aldi ezberdinetan, objektu batek eta berak hunkitua izan daiteke modu ezberdinez.*

Demonstrazioa

Giza gorputzak *(2. Zat., 3. Post. arab.)*, kanpoko gorputzek biziki modu anitzez hunkituak izan daitezke, eta, beraz, bi gizaki hunkituak izan daitezke, aldi berean, modu ezberdinez; eta horrela, *(2. Zat., 13. Prop. ondoko 3. Lem. ondotik datorren 1 Axiom. arab.)*, objektu batek eta berak, modu ezberdinez, hunkituak izan daitezke.
Bestalde, *(Post. ber. arab.)*, giza Gorputza, batean modu batez bestean beste batez hunkitua izan daiteke, eta, ondorioz, *(Axiom. ber. arab.)*, objektu batek eta berak, aldi ezberdinetan, modu ezberdinez, hunkitua izan daiteke. H.B.D.B.
Eskolioa
Ikusten dugu, bada, gerta daitekeela batek maite duena beste batek gorroto izatea, eta hau izutzen duenak hura ez izutzea, eta gizaki batek eta berak lehenago gorrotatu duena orain maitatzea, eta lehenago ikaratzen zuena, orain, hori bera egiteko beldurrik ez izatea, etab.
Bestaldetik, zer den ona, zer txarra, zer hobea eta zer txarragoa, nork bere afektuaren arabera erabakitzen duenez geroz *(ikus Zat., hon. 39. Prop. Eskol. arab.)*, hortik dator, gizakiak izan daitezkeela elkarretarik ezberdinak judizioan nola afektuan[1], eta, ondorioz, gizakiak elkarren artean erkatzen ditugunean beren afektuen ezberdintasun soilagatik bereizten ditugula elkarrengandik, eta batzuk ausartak deitzen ditugula, eta beste batzuk beldurtiak, eta beste zenbait, beste izenez.
Adibidez, *ausarta* deituko dut, ni izutzen ohi nauena, gutiesten duena; eta, gainera, ikusten badut gorroto duenari kalte egiteko eta maite duenari ongi egiteko bere Desira ez duela, ni gibelarazten ohi nauen gaitz baten beldurrak gibelatzen, *adoretsua* deituko dut halakoa.
Bestalde, *beldurtia* irudituko zait, nik gutiesten ohi dudan gaitz baten beldur dena; eta, gainera, ikusten badut ni geldiaraz ez nazakeen gaitz baten beldurrak haren Desira hertsatzen duela, hura *Koldarra* dela erranen dut, eta horrelatsu pentsatuko du bakoitzak.
Azkenik, gizakiaren izaera honengatik eta haren judizioaren aldakortasunarengatik, eta ere, gizakiak gauzei buruz afektu soilaren arabera erabaki ohi duelako, eta Poztasunari edo Tristurari begira egiten dituela uste duen gauzak eta horrexegatik *(28. Prop. arab.)*, haien erakartzera edo baztertzera bermatzen den gauzak maiz irudipenezkoak baizik ez direlako, (aipatu gabe uzten ditut, orain, gauza horien ziurgabetasunaz, 2. Zatian erakutsi ditugunak), horren guztiarengatik ulertzen dugu errazki, gizakia bera maiz izan daitekeela bere Tristuraren edo Poztasunaren kausa, hots, Tristuraz edo Poztasunez hunkitua izan daitekeela, beren buruaren ideia, kausa bezala, lagun daramala.
Eta, horrela, erraz ulertzen dugu zer den *Damua* eta zer *Norberarekiko Kontentua*. Hots, *Damua* da, *norberaren ideiak, kausa bezala, lagun daraman Tristura*, eta, *norberarekiko Kontentua* da *norberaren ideiak, kausa bezala, lagun daraman Poztasuna*, eta afektu horiek bizi-biziak dira, gizakiek libre direla uste dutelako *(ikus Zat., hon. 49. Prop.)*.
LII. Proposizioa
*Beste objektu batzuekin batera jada ikusia dugun objektua, edo beste zenbait objekturekin komunik deus ez duela irudikatzen dugun objektua, ez dugu kontenplatuko zerbait bereizi duela irudikatzen dugun objektua bezain luzaz.*
Demonstrazioa
Beste objektu batzuekin batera ikusi dugun objektu bat irudikatzen dugun bezain laster, beste horiez ere oroitzen gara *(2. Zat., 18. Prop. arab.; ikus ere haren Eskolioa)*; eta horrela, objektu baten kontenplatzetik beste baten kontenplatzera jotzen dugu berehala. Eta orobat, zenbait objekturekin deus komunik ez duela irudikatzen dugun objektuari dagokionez. Zeren eta, onartu baitugu horrenbestez objektu horretan ez dugula deus kontenplatzen, beste zenbait objekturekin batera lehenago ikusi ez dugunik. Baina,

objektu batean lehenago sekula ikusi ez dugun zerbait bereizirik irudikatzen dugula onartu dugunean, hauxe besterik ez dugu erran, baizik eta, Izpirituak, objektu hura kontenplatzen duen bitartean, ez duela bere baitan deusik aurkitzen haren kontenplatzeak beste delako objektuaren kontenplatzera eraman lezakeenik; eta, horrela, Izpiritua, objektu hura bakarrik kontenplatzera determinatua da. Eta beraz, beste objektu batzuekin batera etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Izpirituaren afekzioa, edo gauza singularraren irudikapena, Izpirituan bakarrik gertatzen den aldetik, *Mirespena* deitzen da, eta izutzen gaituen objektu batek eragina bada, *Laztura* erraten zaio, zeren gaitz baten Mirespenak gaitz horren kontenplatze soilean gizakia atxikitzen baitu, halako gisaz non, gaitz hori bazter diezaiokeen beste zerbait gauzari pentsatzeko ez baita gai.

Baina miresten duguna gizaki baten zuhurtzia, haren artezia edo gisa horretako zerbait bada, eta, honenbestez, gizakia, gu baino biziki baliosagotzat hartzen badugu, orduan, *Begirunea* deitzen da Mirespena; *Izugarrikeria* deitzen da, ordea, harritzen gaituena gizon baten hira, haren bekaizkeria, etab. baldin bada. Bestalde, maite dugun gizaki baten zuhurtzia, haren artezia, etab. miresten baditugu, gure Maitasuna, *(12. Prop. arab.)*, handiago izanen da orduan; eta Mirespenari edo Begiruneari loturiko Maitasun hori *Debozioa* deitzen dugu.

Eta gisa berean pentsa ditzakegu ere Gorrotoa, Itxaropena, Segurantza eta Mirespenari loturiko beste zenbait afektu; eta, horrela, ohiko hitzez izendatzen ohituak garen baino biziki Afektu gehiago eratortzen ahalko dugu. Hortik ageri da, Afektuen izenak, haien erabiltze arruntetik asmatu direla, haien beren ezagutze zorrotzetik baino areago.

Mirespenari kontrajartzen zaio *Mesprezua*, haren kausa hau baita gehienetan, norbaitek gauza bat miresten duela, maitatzen duela, haren beldur dela, etab. ikusten baitugu, edo oraino, gauza batek, lehenbizian, iduri baitu guk miresten ditugun gauzen, maite ditugunen, izutzen gaituztenen eta abarren antzekoa, eta determinatuak gara *(15. Prop., Korol. barne, eta 27. Prop. arab.)*, gauza horren mirestera, maitatzera, haren beldur izatera, etab. Baina, gauza beraren presentziak edo haren kontenplatze arretatsuagoak behartzen baldin bagaitu Mirespen, Maitasun, Beldur eta abarren kausa izan daitekeen guztia gauza horretaz ukatzera, orduan, Izpiritua, gauzaren presentziaren berarengatik, determinatua da objektuan ez denari pentsatzera objektuan denari baino areago. Alta, bada, objektu baten presentziagatik, gehienetan objektuan denari pentsatu ohi da bereziki.

Gainera, nola Debozioa maite dugun gauza baten aldeko Mirespenetik sortzen baita, hala, *Iseka* ere, Gorroto dugun edo beldur garen gauza baten aldeko Mesprezutik sortzen da, eta *Erdeinua*, berriz, Ergelkeriaren aldeko Mesprezutik, Begirunea, Zuhurtziaren aldeko Mirespenetik sortzen den bezala.

Azkenik, Maitasuna, Itxaropena, Loria eta beste Afektu batzuk Mesprezuari loturik asma ditzakegu, eta hortik beste zenbait Afektu deduzitzen ahal ditugu, ez ditugunak besteenganik izen berezi batez bereizi ohi ere.

LIII. Proposizioa

*Izpiritua, bere burua eta bere iharduteko ahalmena kontenplatzen dituenean, pozten da, zenbat eta garbiago irudikatzen baititu bere burua eta bere iharduteko ahalmena, hainbat eta gehiago.*

Demonstrazioa

Gizakiak ez du bere burua ezagutzen bere Gorputzaren afekzioen bidez eta hauen ideien bitartez baizik, *(2. Zat.,19. eta 23. Prop. arab.)*. Beraz, gertatzen denean Izpirituak bere burua kontenplatu ahal izatea, horrenbestez, onartzen da betegintzarre handiago batera iragaten dela, erran nahi baita, *(11. Prop. Eskol. arab.)*, Poztasunez hunkitua dela,

zenbat eta berezikiago irudikatzen ahal baitu bere iharduteko ahalmena, hainbat eta areago. H.B.D.B.

Korolarioa

Poztasun hau gero eta gehiago hazten da, besteek laudatzen dutela gehiago gizakiak irudikatzen duen arabera. Ezen, zenbat eta irudikatzenago baitu besteek laudatzen dutela, hainbat eta Poztasun handiagoz besteak hunkitzen dituela du irudikatzen, eta hori, bere buruaren ideiak lagun daramala, *(29 prop. eskol. arab.)*; eta, horrela, *(27. Prop. arab.)*, bere buruaren ideiak lagun daraman Poztasun handiago batez hunkitua da. H.B.D.B.

LIV. Proposizioa

*Bere iharduteko ahalmena finkatzen duenaren irudikatzera soilik da bermatzen Izpiritua.*

Demonstrazioa

Izpirituaren ahalegina edo ahalmena Izpiritu horren esentzia bera da, *(7. Prop. arab.)*; Izpirituaren esentziak, ordea, *(berez nabarmen den bezala)* Izpiritua dena eta Izpirituak dezakeena du bakarrik baieztatzen, baina ez, ez dena eta ez dezakeena; eta, horrela, bakarrik, bere iharduteko ahalmena finkatzen duenaren irudikatzera da bermatzen Izpiritua. H.B.D.B.

LV. Proposizioa

*Izpiritua, bere ezintasuna irudikatzen duenean, tristatzen da, horrenbestez.*

Demonstrazioa

Izpirituaren esentziak Izpiritua dena eta dezakeena baieztatzen du bakarrik, hots, Izpirituaren izaerari dagokio bere iharduteko ahalmena finkatzen duena soilik irudikatzea *(aitzin. Prop. arab.)* . Halatan, erraten dugunean Izpirituak, bere burua kontenplatzean, bere ezintasuna irudikatzen duela, hau baizik ez dugu erraten, hots, haren iharduteko ahalmena finkatzen duen zerbaiten irudikatzera lehiatzen denean Izpiritua, haren ahalegin hori hertsatua dela, eta, *(11. Prop. Eskol. arab.)*, bera tristatu dela. H.B.D.B.

Korolarioa

Tristura hau gero eta gehiago hazten da, besteek arbuiatzen dutela irudikatzen baldin badu norbaitek; 53. Proposizioaren Korolarioa frogatu den modu berean demonstratzen da hau ere.

Eskolioa

Gure ahuleziaren ideiak lagun daraman Tristura *Umiltasuna* deitzen da; eta geure buruaren kontenplatzetik sortzen den Poztasuna *Maitasun-propioa* edo *norberarekiko Kontentua*. Eta nola, gizakiak bere bertuteak, hots, bere iharduteko ahalmena, kontenplatzen duen aldi oroz gure Poztasun hau errepikatzen baita, hortik dator ere, bakoitza bere ekintzak kontatzen eta bere Gorputzaren zein Izpirituaren indarrak erakusten loriatzea, eta, horregatik, gizakiak elkarrentzat gogaikarri gertatzea.

Hortik dator ere, halaber, gizakiak, izaeraz, bekaiztiak izatea *(ikus 24. Prop. Eskol. eta 32. Prop. Eskol.)*, hots, beren heinekoen ahuleziarengatik poztea eta, alderantziz, haien bertutearengatik tristatzea. Ezen, nork bere ekintzak irudikatzen dituen aldi bakoitzean, Poztasunez hunkitua da, *(53. Prop. arab.)*, zenbat eta betegintzarre handiagoa adierazten baitute ekintza haiek, eta bereiziago irudikatzen baititu, hainbat eta gehiago; erran nahi baita, *(2. Zat., 40. Prop. 1. Eskol. erranaren arab.)*, zenbat eta berezikiago bereizten ahal baititu besteetarik, zenbat eta gauza bakanago bezala kontenplatzen ahal, hainbat eta areago.

Hortaz, norbera, bere burua kontenplatzean, gehienik bozkariotuko da, besteez ukatzen duena bere baitan aurkitzen duenean. Baina bere buruaz baieztatzen duena gizakiaren

edo animaliaren ideia unibertsalari badagokio, ez da, orduan, hainbat bozkariatuko; eta, alderantziz, tristatuko da, irudikatzen badu bere ekintzak, besteenekin konparatuz, apurragoak direla; Tristura hau, bada, *(28. Prop. arab.)*, baztertzera lehiatuko da, bere gisakoen ekintzak oker interpretatuz, edo bereak ahal bezain ederki apainduz.

Argi dago, hortaz, gizakiek Gorrotozko eta Bekaizgoko joera dutela izatez, eta honi hezkuntza bera gehitzen zaiola: zeren eta, gurasoek ohorearen eta bekaizkeriaren akuilu soilarekin akuilatzen ohi dituzte beren seme-alabak bertutera. Baina, menturaz zalantzaxka bat gelditzen zaigu, ez baita hain ezohikoa gizakien bertuteak mirestea eta haiek berak goraipatzea. Beraz, zalantza hau baztertzearren ondoko korolarioa erantsiko dut.

Korolarioa

Nehor ez da besteen bertuteaz bekaizten, non ez den bere heineko batenaz.

Demonstrazioa

Bekaizkeria Gorrotoa bera da *(ikus 24. Prop. Eskol.)*, edo, *(13. Prop. Eskol. arab.)*, Tristura, erran nahi da, *(11. Prop. arab.)*, gizakiaren ahalegina edo haren iharduteko ahalmena hertsatzen duen Afekzioa. Baina, gizakia *(9. Prop. Eskol. arab.)* ez da ezer egitera bermatzen, ez du deus desiratzen, non ez datorkiokeen hori ukana duen bere izaeratik; beraz, gizakiak ez du nahiko bere gain ematea, beste norbaiten izaera propioari datxekion eta bere izaerari arrotz zaion neholako ihardute ahalmenik edo, orobat, neholako bertuterik; eta, horregatik, ezin da bere haren Desira hertsatu, hots, *(11. Prop. Eskol. arab.)*, ezin da tristatu, bere heinekoa ez den norbaitengan bertute bat kontenplatzeagatik, eta, ondorioz, ezin da hartaz bekaiztu. Baina bekaiztuko da bere heinekoaz, bere izaera berekoa den hartaz. H.B.D.B.

Eskolioa

Hortaz, gorago Zati honetako 52. Proposizioko Eskolioan erran dugunean gizaki bat begiresten dugula, haren zuhurtzia, haren adorea, etab. miresten ditugulako, hori gertatzen da, *(Proposiziotik beretik nabarmen ageri denez)*, bertute horiek, haren baitan, modu singularrean, eta ez gure izaerari komunzki doakionean bezala, daudela irudikatzen dugulako; eta horrela ez gara haietaz bekaiztuko, zuhaitzen goratasunaz, lehoien adoreaz, etab. bekaizten ez garen baino areago.

LVI. Proposizioa

*Guhaur hunkitzen gaituzten objektu mota bezainbat Poztasun, Tristura eta Desira, eta, ondorioz, haietaz osaturiko edozein afektu, hala nola, izpirituaren gorabehera, edo haietarik eratorritako afektu, hots, Maitasun, Gorroto, Itxaropen, Beldur, etab. mota aurkitzen da.*

Demonstrazioa

Poztasuna eta Tristura, eta, ondorioz, haietaz osaturiko edo haietarik eratorritako afektuak, pasioak dira *(11. Prop. Eskol. arab.)*; baina, guk, *(1. Prop. arab.)*, ideia ezegokiak ditugunez, eta haiek ditugun neurrian, *(3. Prop. arab.)* pairatzen dugu nahitaez, erran nahi baita, *(2. Zat., 40. Prop. 1. Eskol. arab.)*, pairatzen dugula, soil-soilik, nahitaez, irudikatzen dugun neurrian, hots, *(ikus 2. Zat., 17. Prop., Eskol. barne)*, gure Gorputzaren izaera eta kanpoko gorputz baten izaera barne hartzen dituen afektu batez hunkituak garen neurrian. Hortaz, pasio bakoitzaren izaera nahitaez azaldu behar da hunkitzen gaituen objektuaren izaera adierazteko moduan.

Horrela bada, objektu batetik, demagun A-renganik sortzen den Poztasunak, A objektuaren izaera barne hartzen du, eta B objektu batetik sortzen den Poztasunak B objektuaren izaera barne hartzen du, eta, beraz, Poztasunezko bi afektu horiek izaeraz ezberdinak dira, izaera ezberdineko kausetatik sortzen direlako. Modu berean, objektu batetik sortzen den Tristurazko afektua, beste kausa batetik sortu Tristuraren ezberdina da, izaeraz; eta gauza bera ulertu behar da Maitasunaz,

Gorrotoaz, Itxaropenaz, Beldurraz, Izpirituaren Gorabeheraz, eta abarrez. Eta, ondorioz, zenbat eta objektu motek hunkitzen baikaituzte, hainbat eta Poztasun, Tristura, Maitasun, Gorroto, eta abar mota badugu nahitaez.
Baina, Desira norberaren esentzia edo izaera bera da, hau osatzen duen egituraren kariaz zerbaiten egitera determinatua dela pentsatzen den aldetik, *(ikus 9. Prop. Eskol.)*; eta, beraz, norbera, kanpoko kausen kariaz, honelako edo halako Poztasun, Tristura, Maitasun, Gorroto etab. motak hunkitu duenaren arabera, erran nahi da, norberaren izaera, honelako edo halako moduan osatzen den arabera, haren Desira honelakoa edo halakoa behar da izan, nahitaez; eta Desira baten izaera, beste Desira baten izaeraren ezberdina behar da izan; eta haietarik sortzen diren afektuak elkarren artean ezberdinak diren bezain ezberdinak izanen dira, Desira baten izaera, eta beste Desira batena. Honela, beraz, Poztasun, Tristura, Maitasun etab. mota baden, eta, ondorioz, (jadanik erakutsi bezala), hunkitzen gaituzten objektu mota baden bezainbat Desira mota, ere, bada. H.B.D.B.
Eskolioa
*(Aitzin. Prop. arab.)*, hain ugari izan behar duten afektu moten artean, *Sabelkeria*, *Hordikeria*, *Lizunkeria*, *Zekenkeria* eta *Handinahia* ditugu nabarienak, Maitasunaren edota Desiraren adigaiak baizik ez direnak, eta bi afektu hauen izaera, dagozkien objektuen bitartez azaltzen dutenak. Ezen, Sabelkeriaz, Hordikeriaz, Lizunkeriaz, Zekenkeriaz eta Handinahiaz hauxe baizik ez dugu adierazten, hots, jateko, edateko, kopulatzeko, aberasteko eta ospatua izateko Maitasun edota Desira neurrigabekoa.
Bestalde, afektu horiek, dagozkien objektuei esker, beste afektuetarik bereizten ditugunez, ez dute kontrariorik. Zeren eta, *Neurritasuna*, *Urritasuna* eta *Xahutasuna* Sabelkeriari, Hordikeriari eta Lizunkeriari kontrajarri ohi ditugunak ez dira afektuak edo pasioak, baina, bai, afektu horiek gobernatzen dituen izpirituaren ahalmenaren adierazleak.
Gainerako beste Afektu motak, ordea, ezin ditut hemen azaldu (objektu mota bezainbat baita), eta, egin ahalik ere, ez da beharrezko egitea. Ezen, gure asmorako, hots, afektuen indarra eta hauen gaineko Izpirituaren ahalmena determinatzeko, aski zaigu afektu bakoitzaren definizio orokor bat izatea. Aski zaigu, diot, Afektuen eta Izpirituaren propietate komunak ulertzea, determinatu ahal izateko, zein den, eta zenbatekoa den, Izpirituaren ahalmena, Afektuen gobernatzeko eta hertsatzeko ahaleginean. Eta, nahiz baden alde handia Maitasunezko, Gorrotozko edo Desirazko afektu baten edo besteren artean, hala-nola, seme-alabenganako Maitasunaren eta emaztearenganako Maitasunaren artean, ez dugu, halere, ezberdintasun horien ezagutze beharrik, ez eta afektuen etorkiaz eta izaeraz urrunago ikertzerik.
LVII. Proposizioa
*Gizabanako baten edozein afektuk beste baten afektuarekin duen ezberdintasuna, bataren esentziak bestearen esentziarekin duen ezberdintasuna bezain handia da.*
Demonstrazioa
Argi ageri da Proposizio hau 2. Zat., 13. Prop. Eskol. ondoko 3. Lemari darraion 1. Axiomatik. Bizkitartean, lehen hiru afektuen definizioetan oinarrituz frogatuko dugu.
Afektuak oro, Desirari, Poztasunari edo Tristurari dagozkie, haietaz eman definizioek erakusten duten bezala. Baina Desira da, bakoitzaren izaera bera, edo esentzia, *(ikus horren Def. 9. Prop. Eskolioan)*; beraz, gizabanako baten Desirak beste baten Desirarekin duen ezberdintasuna, bataren izaerak edo esentziak bestearen esentziarekin duen ezberdintasuna bezainbatekoa da.
Bestalde, Poztasuna eta Tristura pasio batzuk dira, eta haiek dute bakoitzaren ahalmena, edo bere izanean irauteko eginahala, handitzen edo tipitzen, laguntzen edo hertsatzen, *(11. Prop. arab., Eskol. barne)*. Baina, Izpirituari eta Gorputzari, batera, dagokienez,

bere izanean irauteko eginahala, Guraria eta Desira deitzen dugu, *(ikus 9. Prop. Eskol.)*; beraz, Poztasuna eta Tristura, Desira bera da edo Guraria, kanpoko kausa batzuek handitzen edo tipitzen, laguntzen edo hertsatzen duten bezainbatean, hots, *(Eskol. ber. arab.)*, norberaren izaera bera da; eta, horrela, bakoitzaren Poztasunak edo Tristurak beste baten Poztasunarekin edo Tristurarekin duen ezberdintasuna, bataren izaerak edo esentziak bestearen esentziarekin duen ezberdintasuna bezainbatekoa da; eta, ondorioz, gizabanako baten edozein afektuk, beste baten afektuarekin duen ezberdintasuna, bataren esentziak..., etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Hortik dator, arrazoi gabekoak deitzen ditugun animalien afektuek (ez baitugu zalantzarik, animaliek sentitzen dutela, Izpirituaren etorkia ezagutzen dugunez geroz) gizakien afektuekin duten ezberdintasuna, haien izaerak giza izaerarekin duen ezberdintasuna bezainbatekoa izatea.

Zaldia eta gizona, alabaina, ugaltzeko irritsak bultzatzen ditu biak, baina bata zaldi irritsak, eta bestea giza irritsak. Gisa berean, intsektuen, arrainen eta hegaztien irritsek eta gurariek, elkarren arteko ezberdinak behar dute izan. Nahiz, beraz, gizabanako bakoitza, bera egina den izaeraz kontentu den eta hartaz bozkariatzen, bizi hori, bizkitartean, hartaz norbera kontentu baita eta bozkariatzen baita, gizabanako horren ideia edo arima besterik ez da; eta, horrela, bataren bozkarioa bestearen bozkarioaren ezberdina da, nola bataren esentzia bestearen esentziaren ezberdina baita.

Azkenik, aitzineko proposiziotik dator ez dela ere alde tipia hordiari adibidez nagusitzen zaion bozkarioaren eta filosofoak gozatzen duen bozkarioaren artean, horixe baita, hemen, bidenabar, egin nahi izan dudan oharra.

Horra, bada, pairatzen duen aldetik, gizakiari dagozkion afektuei buruzko guztia. Zerbaiska eranstea gelditzen zait, gizakiari doazkionez, eragiten duen aldetik.

LVIII. Proposizioa

*Pasioak diren Poztasunaz eta Desiraz bestalde, badira ere, ekiten dugun aldetik, dagozkigun Poztasunezko eta Desirazko beste afektu batzuk.*

Demonstrazioa

Izpirituak, bere buruari eta bere iharduteko ahalmenari pentsatzen duenean, pozten da *(53. Prop. arab.)*, eta Izpirituak bere burua kontenplatzen du, nahitaez, ideia egoki edo egiazko bati pentsatzen duenean *(2. Zat., 43. Prop. arab.)*. Baina, Izpirituak, behar ere, ideia egoki zenbait gogoan izaten ditu *(2. Zat., 40. Prop. 2. Eskol. arab.)*. Beraz, pozten da ideia egokiei pentsatzen duen bezainbatean, erran nahi baita, *(1. Prop. arab.)*, diharduen bezainbatean. Izpiritua, bestalde, bai ideia argiak eta bereiziak dituen aldetik, bai ideia nahasiak dituen aldetik ere, ahalegintzen da bere izanean irauten *(9. Prop. arab.)*. Baina, ahalegin hori, Desira deitzen dugu, *(Eskol. ber. arab.)*; beraz, Desira guri ere badagokigu, pentsatzen dugun bezainbatean, hots, *(1. prop. arab.)*, iharduten dugun bezainbatean. H.B.D.B.

LIX. Proposizioa

*Diharduen aldetik Izpirituari dagozkion afektu guztien artean, ez da bihirik, Poztasunari edo Desirari ez dagokionik.*

Demonstrazioa

Afektu guztiak Desirari, Poztasunari edo Tristurari dagozkie, eman ditugun definizioek erakusten duten bezala. Eta Tristuraz adierazten dugu Izpirituaren pentsatzeko ahalmena tipitua edo hertsatua dela, *(11. Prop. arab., Eskol. barne)*; eta, beraz, Izpiritua tristatzen denez, haren pentsatzeko, hots, haren iharduteko ahalmena, *(1. Prop. arab.)*, tipiturik edo hertsaturik gertatzen da; eta, horrenbestez, neholaz ere, Tristurazko afekturik ez dagokio Izpirituari, berak iharduten duen bezainbatean; aldiz, Poztasunezko eta

Desirazko afektuak, bakarrik, dagozkioke, hauek baitira *(aitzin. Prop. arab.)* Izpirituari dagozkionak.

Eskolioa

Pentsatzen duen aldetik Izpirituari dagozkion afektuetatik datozen ekintza guztiak eratxikitzen dizkiot Barne-Indarrari, eta hau bitan: Tinkotasunean eta Bihotz-zabaltasunean, banatzen da.

*Tinkotasuna* deitzen dut, *bakoitza, Arrazoiaren agindu soilari jarraikiz, bere izana atxikitzeko, lehiarazten duen Desira*.

*Bihotz-zabaltasuna*, aldiz, deitzen dut, *bakoitza, Arrazoiaren agindu soilari jarraikiz, beste gizon guztien laguntzeko, eta haiekin adiskide izateko, lehiarazten duen Desira.*

Horrela, beraz, egilearen baliagarritasunari bakarrik dagozkion ekintzak Tinkotasunari lotzen dizkiot, eta besteen baliagarritasunari dagozkionak, berriz, Bihotz-zabaltasunari.

Hortaz, Neurritasuna, Urritasuna, eta arriskuaren erdian Ernetasuna, etab. Tinkotasun mota batzuk dira; eta Apaltasuna, Bihozberatasuna, etab., Bihotz-zabaltasun mota batzuk.

Honekin guztiarekin uste dut azaldu ditudala eta beren lehen kausetarik argitu, Desira, Poztasuna eta Tristura diren hiru lehen afektuen konposaketatik sorturiko afektu eta Izpirituaren gorabehera nagusiak. Hortik ageri da, kanpoko kausek, modu askotara, inarrosten gaituztela eta, kontrako haizeek darabiltzaten itsasoko uhinak bezala, gorabeheraka gabiltzala; gure etorkizuna zer den, eta zer gure helburua, ez dakigula.

Errana dut, bizkitartean, Izpirituaren gatazka larrienak bakarrik ditudala erakutsi, eta ez gerta daitezkeen guztiak. Zeren, aitzineko bideari jarraikiz, erakuts dezakegu, errazki, Maitasuna lotzen zaiola Damuari, Erdeinuari, Lotsari, etab.

Areago, oraino, uste dut, erran dugunetik argi zehaztua dela, afektuak anitz moldez konposa daitezkeela elkarren artean, eta elkarketa horretatik hainbeste mota aterako direla, non ez baitaiteke haien kopururik finka. Baina, ene asmorako, aski zait, larrienak izendatu baititut; bazter utzi ditudan besteak, baliagarriak baino gehiago, bitxikeriak lirateke.

Maitasunaz den bezainbatean, haatik, ohar bat egin behar dut oraino, hots, maiz gertatzen dela, gura genuen gauza bat gozatzen dugunean, Gorputzak, gozatze hori dela medio, egoera berri bat izaten duela, eta, beraz, bestela determinaturik gertatzen dela, eta, haren baitan, gauzen beste irudi batzuk iratzartzen direla, eta, aldi berean, beste gauza batzuen irudikatzen eta desiratzen hasten dela Izpiritua.

Adibidez, haren zaporeak gozamenik eman ohi digun gauza bat irudikatzen dugularik, hartaz gozatzea desiratzen dugu, erran nahi da, haren jatea. Baina, gero, hartaz gozatzen ari garelarik, gure urdaila betetzen da, eta gure Gorputzak beste egoera bat hartzen du.

Gorputzeko egoera berri horretan, ordea, jatekoaren irudia iratzarririk baldin badago, jatekoa bera hor delako, eta, ondorioz, jateko Desira edo eginahala ere, orduan, Gorputzeko egoera berria, Desira edo ahalegin horri kontrajarriko zaio, eta, ondorioz, aitzinean gura genuen jatekoaren presentzia, higuingarri gertatuko zaigu, eta, hori da, *Nazka* eta *Gohaindura* deitzen duguna.

Gainerakoan, alde batera utzi ditut, afektuetan gertatzen diren Gorputzaren kanpoko afekzioak, hala nola, ikara, zurpaildura, negar zotinak, irri-barreak, eta abar, Gorputzari bakarrik baitagozkio, Izpirituarekin batere erlaziorik izan gabe.

Azkenean, ohar batzuk egin behar ditut afektuen definizioei buruz, eta, horrengatik, errepikatuko ditut, hemen, lerroan, definizio horiek, bakoitzari egiteko diren oharrak tartekatuz.

Afektuen definizioak

*I. Desira* gizakiaren esentzia bera da, hau, bere edozein afekzio dela medio, zerbait egitera deliberatua dela pentsatzen den aldetik.

Azalpena

Gorago errana dugu, Zati honetako 9. Proposizioaren Eskolioan, bere buruaren kontzientzia duen guraria dela Desira, eta guraria gizakiaren esentzia bera dela, hau bere iraupenerako baliagarri diren gauzen egitera deliberatzen den aldetik.

Baina Eskolio berean jakinarazi ere dut ez dudala, izatez, ezberdintasunik ezagutzen giza gurariaren eta Desiraren artean. Zeren gizakia bere gurariaz kontziente izan ala ez izan, bera da beti guraria; eta, beraz, tautologia bat egiten dudala ez iruditzearren, ez dut gurariaren bidez esplikatu nahi izan Desira, baina saiatu naiz, "guraria", "nahia", "desira" edo "bulkada" izenez izendatzen ditugun giza izaeraren ahalegin guztiak batera horretan sartzeko moduan hitz honen definitzen.

Erran nezakeen Desira gizakiaren esentzia bera dela, hau zerbait egitera deliberatzen den aldetik; baina definizio honetatik, *(2. Zat., 23. Prop. arab.),* ez litzateke aterako Izpiritua bere gurari edo Desiraz kontziente izan daitekeenik.

Beraz, kontzientzia horren kausa ene definizioan barne hartzeko, erantsi behar izan diot, *(Prop. ber. arab.)*: *hau, bere edozein afektu dela medio, zerbait egitera deliberatua dela pentsatzen den aldetik*. Zeren, "giza esentziaren afekzioz hauxe ulertzen baitugu: esentzia horren edozein egoera berezkoa dela ala ez, Pentsatzeko atributu soilaren bidez ala Hedaduraren atributu soilaren bitartez pentsatua dela, edo, azkenik, bi atributu horiekin batera lotua dela.

Hemen, bada, Desira hitzaz gizakiaren ahalegin, bulkada, gurari eta nahikari guztiak aditzen ditut, hauek gizaki beraren egoera aldakorrarren arabera aldatzen baitira, eta ez da handi berak elkarren artean hain kontrajarriak izatea, non gizakia alde ezberdinetara erakartzen baitute, nora jo ez dakiela.

*II. Poztasuna* da betegintzarre tipiago batetik handiago baterako gizakiaren iragaitea.

*III. Tristura* da, betegintzarre handiago batetik tipiago baterako gizonaren iragaitea.

Azalpena

"Iragaitea" diot. Zeren Poztasuna ez baita betegintzarrea bera. Baldin eta gizakia, alabaina, iragaten den betegintzarrearekin sortzen balitz, Poztasunezko afekturik gabe edukiko luke orduan betegintzarrea; hau argiago ageri da, afektu horrek kontrako duen Tristurazko afektuaren aldetik.

Zeren, Tristura betegintzarre tipiago baterako iragaitean datzala, eta ez betegintzarre tipiago horretan berean, nehork ezin du ukatu, zeren gizakia ezin baita tristatu betegintzarre zerbaiten partzuer den aldetik.

Ezin dugu ere erran betegintzarre handiago baten gabezian datzala Tristura, zeren "gabezia" ez baita ezer. Tristurazko afektua, ordea, aktu bat da, eta aktu hau, horrenbestez, ez daiteke izan betegintzarre tipiago batera iragaiteko aktua baizik, hau da, gizakiaren iharduteko ahalmena tipitzen edo eragozten duen aktua, *(Ikus 11. Prop. Eskol.)*.

Gainerakoan, Alaitasunaren, Kilikaren, Malenkoniaren eta Oinazearen definizioak ez ditut aipatzen, Gorputzari baitagozkio bereziki, eta Poztasun eta Tristura mota batzuk baitira.

*IV. Harridura* da, Izpiritua harri eta zur utzi duen gauza baten irudikapena, irudikapen berezi horrek beste irudikapenekin neholako loturarik ez duelako. *(Ikus 52. Prop., Eskol. barne).*

Azalpena

2. Zatiko 18. Proposizioaren Eskolioan erakutsi dugu zergatik Izpiritua gauza baten kontenplatzetik berehala beste baten gogoratzera lerratzen den: alegia, gauza horien irudiak elkarren artean kateatuak daudelako eta halako ordenan emanik, non bata besteari jarraikitzen zaion; eta hau ezin da ulertu, gauzaren irudia berria denean;

baina, Izpiritua gauza beraren kontenplatzen geldituko da, beste kausa batzuek beste gauza batzuei pentsatzera eragin ez diezaioten arte.
Gauza berri baten irudikapena, bere baitan harturik, besteen izaera berekoa da, eta arrazoi honengatik ez dut nik afektuen lerroan sartzen Mirespena, eta ez dut hori egiteko arrazoirik ikusten, zeren Izpirituaren barraiatze hori ez baita heldu beste gauza batzuetatik hura baztertzen duen kausa positibo batetik, gauza baten kontenplatzetik beste batzuei pentsatzera determinatuko duen kausa bat eskas izateagatik baizik.
Hiru dira, beraz, *(11. Prop. Eskol. ohartarazi dudanez)*, onartzen ditudan afektu lehenak edo oinarrizkoak, hots, Poztasuna, Tristura eta Desira; eta zerbait erran badut Mirespenaz, hori izan da bakarrik, ohituak gaudelako lehen hiru afektu horietarik eratorritako zenbait afektu beste izenez izendatzen, ezusteko objektuei dagozkienean; eta arrazoi berarengatik Mesprezuaren definizioa ere hemen erantsiko dut.
*V. Mesprezua*, Izpiritua guti hunkitzen duen gauza baten irudikapena da, hain guti hunkitzen duena, non haren presentziaren kariaz gauzaren baitan dena baino areago han ez dena irudikatzera baitarama Izpiritua, *(Ikus 52. Prop. Eskol.).*
Bazter uzten ditut hemen Mirespenaren eta Erdeinuaren definizioak, afektu bihi batek, nik dakidala, ez duelako horietatik izenik hartzen.
*VI. Maitasuna*, kanpoko kausa baten ideiak lagun daraman Poztasuna da.
Azalpena
Definizio honek aski argi azaltzen du Maitasunaren esentzia; aldiz, *maitaturiko gauzarekin elkartzeko maitaleak duen borondatea* bezala *Maitasuna* definitzen duten autoreen definizioak ez du Maitasunaren esentzia adierazten, haren propietate bat baizik, eta nola autore horiek ez duten Maitasunaren esentzia aski ongi ikusi, ez dute ere propietate horren kontzeptu argirik ukan ahal izan, eta hortik etorri da, denek haien definizioa guztiz iluna kausitu dutela. Ohartu behar da, haatik, erraten dudanean maitalearen propietate bat dela maitaturiko gauzarekin bere borondatez elkartu nahi izatea, ez dudala "borondate" hitzaz adostasuna edo Izpirituaren deliberoa ulertzen, hots, erabaki libre bat (fikzio bat baita hori, 2. Zatiko 48. Proposizioan frogatu dugun bezala), ez eta ere maitaturiko gauzarekin elkartzeko Desira, hura hor ez dagoenean, edota hura hor dagoenean haren aitzinean gelditu nahi izatea; Maitasuna pentsa baitaiteke Desira horietatik bata edo bestea gabe; baina borondatez aditzen dut, maitalearengan maitaturiko gauzaren presentziak eragiten duen Kontentua, honek maitalearen Poztasuna indartzen edo bederen hazten duelarik.
*VII. Gorrotoa*, kanpoko kausa baten ideiak lagun daraman Tristura da.
Azalpena
Hemen ohartarazi beharrekoak erraz hautematen dira, aitzineko definizioaren Azalpenean erran dugunetik. *(Ikus halaber 13. Prop. Eskol.).*
*VIII. Jaidura*, ustekabez Poztasun kausa den gauza baten ideiak lagun daraman Poztasuna da.
*IX. Higuina*, ustekabez Tristura kausa den gauza baten ideiak lagun daraman Tristura da. *(Ikus hauei buruz 15. Prop. Eskol.)*
*X. Debozioa* da, miresten dugunarenganako Maitasuna.
Azalpena
Mirespena gauza baten berritasunetik sortzen da, 52. Proposizioan erakutsi dugunez. Beraz, miresten dugun gauza hura maiz irudikatzea gertatzen bazaigu, ez dugu gehiago miretsiko; eta, ondorioz, ikusten dugu Debozioaren afektua Maitasun hutsa bilakatzen dela errazki.

*XI. Iseka* da, gorroto dugun gauza batean zerbait mespreziagarri badela irudikatzetik sorturiko Poztasuna.

Azalpena

Gorroto dugun gauza bat, mespreziatzen dugun hein horretan, haren existentzia ezeztatzen dugu *(ikus 52. Prop. Eskol.)*, eta, hein berean, *(20. Prop. arab.)* pozten gara. Baina, zerbaiti iseka egiten dionak, zer hura gorroto duela onartzen dugunez geroz, hortik dator Poztasun hori sendoa ez izatea. *(ikus 47. Prop. Eskol*.).

*XII. Itxaropena* da, haren gertatzeaz nolazpait zalantzak ditugun etorkizuneko edo iraganeko gauza baten ideiatik sorturiko Poztasun aldakorra.

*XIII. Beldurra* da, haren gertatzeaz nolazpait zalantzak ditugun etorkizuneko edo iraganeko gauza baten ideiatik sorturiko Tristura iraunkorra. *(Ikus hauei buruz 18. Prop. 2. Eskol.).*

Azalpena

Definizio hauetarik dator, Beldurrik gabeko Itxaropenik ez dagoela, ez eta Itxaropenik gabeko Beldurrik.

Izan ere, gauza baten Itxaropenari dagokionak eta gauza horren gertatzeaz zalantzak dituenak, uste izateko da etorkizuneko gauza horren existentzia baztertzen duen zerbait irudikatzen duela; eta, honenbestez, *(19. Prop. arab.)*, tristatzen da, eta, ondorioz, Itxaropenari dagokion bitartean, beldur da gauza hori ez dadin gerta.

Beldur denak, aldiz, Gorroto duen gauza baten gertatzeaz zalantzak dituenak, gauza horren existentzia baztertzen duen zerbait irudikatzen du ere; eta, honenbestez, *(20. Prop. arab.)*, pozten da, eta, ondorioz, hein horretan, gauza hori ez dela gertatuko Itxaropena badu.

*XIV. Segurantza*, hartaz zalantzak izateko gehiago arrazoirik ez den etorkizuneko edo iraganeko gauza baten ideiatik sorturiko Poztasuna da.

*XV. Etsipena*, hartaz zalantzak izateko gehiago arrazoirik ez den etorkizuneko edo iraganeko gauza baten ideiatik sorturiko Tristura da.

Azalpena

Itxaropenetik sortzen da, beraz, Segurantza, eta Beldurretik, Etsipena, gauzaren gertatzeaz zalantzak izateko arrazoiak desagertzen direnean; eta hau gertatzen da, gizakiak iraganeko edo etorkizuneko gauza hor dela irudikatzen eta, aitzinean balu bezala, kontenplatzen duelako, edota zalantzatan jartzen zuten gauzen existentzia baztertzen duten beste gauza batzuk irudikatzen dituelako. Zeren, gauza singularren gertatzeaz, *(2. Zat., 31. Prop. Korol. arab.)*, ez bagaitezke ere sekulan ziur egon; gerta daiteke, halere, haien gertatzeaz guk zalantzarik ez izatea. Erakutsi dugu, alabaina, *(ikus 2. Zat., 49. Prop. Eskol.)* gauza bat dela zerbaitetaz zalantzarik ez izatea, eta beste bat, gauza horren ziurtasuna izatea; eta, horregatik, gerta daiteke, iraganeko edo etorkizuneko gauza baten irudiak, eta presenteko gauza baten irudiak, Poztasunezko edo Tristurazko afektu berberaz gu hunkitzea, Zati honetako 18. Proposizioan frogatu dugun bezala; ikus hura bere Eskolioarekin batera.

*XVI. Bozkarioa* da, Itxaroten genuenaren kontra gertatu den iragan gauza baten ideiak lagun daraman Poztasuna.

*XVII. Kontzientziaren ausikia* da, Itxaroten genuenaren kontra gertatu den iragan gauza baten ideiak lagun daraman Tristura.

*XVIII. Gupida* da, gure irudikoa dela irudikatzen dugun beste bati gertatu gaitz baten ideiak lagun daraman Tristura. *(Ikus 22. Prop. Eskol. eta 27. Prop. Eskol.).*

Azalpena

Gupidaren eta Urrikalmenduaren artean badirudi ez dela neholako ezberdintasunik, non ez den, beharbada, Gupida afektu singular bati dagokiola eta Urrikalmendua, berriz, afektu horren ohiturari.

*XIX. Begikotasuna*, besteei ongi egin dionarenganako Maitasuna da.
*XX. Haserrea*, besteei gaitz egin dionarenganako Gorrotoa da.
Azalpena
Badakit izen horiek beste zerbait adierazten dutela ohiko usadioan. Baina ene xedea ez da hitzen adierazpena aztertzea, gauzen izaera esplikatzea baizik, eta gauzen adieraztea halako hitzez non, haien ohiko adierazpena ez dadin guztiz bateraezina gerta, nik neuk eman nahi diedanarekin; eta bego hau behingoan errana. Gainerakoan, afektu hauen kausari dagokionez, ikus Zati honetako 27. Proposizioaren 1. Korolarioa eta 22. Proposizioko Eskolioa.
*XXI. Handiespena* da, Maitasunagatik norbait bidezko den bainon baino gehiago preziatzea.
*XXII. Gutiespena* da, Gorrotoagatik norbait bidezko den baino gutiago preziatzea.
Azalpena
Handiespena eta Gutiespena, bada, Maitasunaren eta Gorrotoaren ondorio edo propietate batzuk dira; eta, beraz, honela ere defini daiteke *Handiespena*, erranez: *Maitasuna da, gizakia hunkitzen duen aldetik, halako moldez egiten duena, non maite duena bidezko den baino gehiago prezatzen baitu*; eta, alderantziz, berriz, defini daiteke *Gutiespena* erranez: *Gorrotoa da, gizakia hunkitzen duen aldetik halako moldez egiten duena, non gorroto duena, bidezko den baino gutiago preziatzen baitu.* (ikus hauei buruz 26. Prop. Eskol.).
*XXIII. Bekaizkeria* da, Gorrotoa, gizakia hunkitzen duen aldetik, halako moldez egiten duena, non besteen zorionaz tristatzen baita eta, alderantziz, besteen gaitzaz bozkariatzen.
Azalpena
Bekaizkeriari Urrikalmendua kontrajartzen zaio komunzki, zeina, honenbestez, eta hitzaren erranahia gorabehera, honela defini baitaiteke:
*XXIV. Urrikalmendua* da, Maitasuna, gizakia hunkitzen duen aldetik, halako moldez egiten duena, non besteen onaz bozkariatzen baita eta, alderantziz, besteen gaitzaz tristatzen.
Azalpena
Bekaizkeriari buruz, ikus halaber 24. Proposizioko Eskolioa eta 32. Proposizioaren Eskolioa.
Hauek dira, bada, kanpoko gauza baten ideiak, berezko nahiz ustekabezko kausa bezala, lagun daramatzan Poztasunezko eta Tristurazko afektuak. Beste batzuetara iragaten naiz orain, barneko gauza baten ideiak, kausa bezala, lagun daramatzanetara.
*XXV. Norberarekiko Kontentua* da, gizaki batek bere burua eta bere iharduteko ahalmena kontenplatzetik sorturiko Poztasuna.
*XXVI. Umiltasuna* da, gizaki batek bere ezintasuna edo bere ahulezia kontenplatzetik sorturiko Tristura.
Azalpena
Norberarekiko Kontentua Umiltasunari kontrajartzen zaio, horrela gure iharduteko ahalmena kontenplatzetik sorturiko Poztasuna aditzen dugun aldetik; baina, bestela, gure ustez, Izpirituaren erabaki librez, egin dugun zerbaiten ideiak lagun daraman Poztasuna ulertzen dugun aldetik, orduan Damuari kontrajartzen zaio; hau honela definitzen dugularik:
*XXVII. Damua* da, gure ustez, Izpirituaren erabaki librez egin dugun zerbaiten ideiak lagun daraman Tristura.
Azalpena

Erakutsiak ditugu afektu hauen kausak, 51. Proposizioaren Eskolioan eta 53., 54., eta 55. Proposizioetan, eta, orobat, azken honen Eskolioan. Izpirituaren erabaki libreaz, ikus 2. Zatiko 35. Proposizioaren Eskolioa.

Baina, gainera, hemen ohartu behar da, ez dela harritzekoa Tristura gertatzea, usadioz *gaiztoak* deitu ohi diren ekintza guztien ondotik, eta Poztasuna gertatzea *zuzenak* deitu ohi diren ekintzen ondotik. Ezen, gorago erranetarik errazki ulertzen baitugu hori datorkigula, oroz gainetik, izan dugun hezibideagatik. Gurasoek, alabaina, lehen motako ekintzak gaitzetsiz eta horiengatik beren seme-alabak maiz erasiatuz, eta, alderantziz, bigarren motakoak aholkatuz eta haiek goraipatuz, lortu dute ekintza haiei Tristurazko zirrarak lotzea eta hauei, berriz, Poztasunezkoak.

Esperientziak berak ere egiaztatzen du hori. Ezen ohitura eta Erlijioa ez dira gauza bera guztientzat; aitzitik, batzuentzat sakratua dena, profanoa da besteentzat, eta batzuentzat bidezkoa dena itsusia da besteentzat. Hortaz, bat bedera, hezia izan denaren arabera, damutzen da, edo loriatzen, ekintza beraz.

*XXVIII. Hantustea* da, Maitasunagatik nork bere burua bidezko den baino gehiago preziatzea.

Azalpena

Hantustea, bada, honetan bereizten da Handiespenetik: azken hau kanpoko objektu bati baitagokio eta Hantustea, berriz, bere burua bidezko den baino gehiago prezatzen duen gizakiari.

Gainera, Handiespena, Maitasunaren ondorioa edo propietatea den bezala, Hantustea ere bere buru-Maitasunarena da halaber, eta, horrenbestez, honela defini daiteke: Hantustea da, *Norberarekiko Maitasuna, hots, norberarekiko Kontentua, gizakia hunkitzen duen aldetik, halako moldez egiten duena, non bere burua bidezko den baino gehiago preziatzen baitu (ikus Zati honetako 26. Proposizioko Eskolioa).*

Afektu honek ez du kontrakorik. Ez baita nehor, bere buruaren gorrotoagatik, bidezko den baino gutiago bere burua preziatzen duenik; areago, ez da nehor bere burua bidezko den baino gutiago preziatzen duenik, honelako edo halako gauza ezin duela egin irudikatzeagatik. Gizakiak ezin egin dezakeela irudikatzen duen guztia nahitaez irudikatzen du, alabaina, eta irudikapen honek hala moldatzen du gizakia, non egiaz ez baitezake egin, ezin egin dezakeela irudikatzen duena. Zeren eta, honelako edo halako gauza ez dezakeela egin irudikatzen dueno, ez du deliberatzen haren egiterik eta, ondorioz, ezin egin dezake.

Baina, alderantziz, iritzi soilari dagokionaz arduratzen baldin bagara, orduan, bai, pentsatuko dugu gerta daitekeela gizaki batek bere burua bidezko den baino gutiago preziatzea. Gerta daiteke, alabaina, gizaki batek, bere ahulezia tristeki kontenplatzean, denek mespreziatzen dutela irudikatzea, nahiz besteei horrelakorik gogoratu ere ez zaien.

Gainera, gizaki batek bere burua bidezko den baino gutiago preza dezake, orain bere buruaz ukatzen baldin badu etorkizunari doakion eta zalantzak dituen zerbait; hala nola, ukatzen baldin badu berak deus ziurrik ezin duela pentsatu, edo deus gaiztorik edo itsusirik baizik, ezin duela desiratu edo egin, etab.

Erran dezakegu oraino, norbaitek bere burua gehiegi gutiesten duela, ikusten dugunean ez dela menturatzen, ahalketu beldurrez, bere kidekoak ausartzen direna egitera. Afektu hau, beraz, Hantusteari kontrajartzen ahal diogu, Xumetasuna deituko dudana, ezen norberarekiko Kontentutik Hantustea sortzen den bezala, Umiltasunetik ere Xumetasuna sortzen da, eta, honenbestez, honela definitzen dugu:

*XXIX. Apaltasuna* da, Tristuragatik bere burua bidezko den baino gutiago preziatzea.

Azalpena

Hantusteari, egia erran, Umiltasuna kontrajarri ohi diogu askotan, baina, orduan, haien izaerari baino gehiago haien ondorioei gagozkie. Zeren, *Harroa* deitzen ohi dugu, bere burua gehiegi goraipatzen duena *(Ikus 30. Prop. Eskol.)*, bere bertuteez eta besteen bizioez baizik mintzo ez dena, beste guztien gainetik bere burua hobetsi nahi duena, eta, azkenik, bera baino biziki gorago direnek agertu ohi dituzten seriotasuna eta apaindura agertzen dituena. *Umila*, ordea, deitzen dugu maiz gorritzen dena, bere bizioak aitortzen eta besteen bertuteak aipatzen dituena, denei amore ematen diena, eta, gainera, burua apal dabilena eta bere apainduraz axolarik ez duena. Gainerakoan, afektu hauek, hots, Umiltasuna eta Apaltasuna, guztiz bakanak dira. Zeren giza naturak, bere hartan utziz geroz, kontra egiten die bere ahal guztiez, *(ikus 13. eta 54. Prop.)* eta, horrela, apalenak eta umilenak dauzkagunak dira, maizenik, handinahienak eta bekaiztienak.

*XXX. Loria* da, besteek laudatzen dutela irudikatzen dugun gure ekintza baten ideiak lagun daraman Poztasuna.

*XXXI. Ahalkea* da, besteek arbuiatzen dutela irudikatzen dugun gure ekintza baten ideiak lagun daraman Tristura.

Azalpena

Hauei buruz, ikus Zati honetako 30. Proposizioaren Eskolioa. Baina ohartu behar da hemen, zer den Ahalkearen eta Lotsaren arteko ezberdintasuna. Ahalkea da, alabaina, ahalketzen gaituen ekintza bati darraion Tristura. Lotsa, berriz, Ahalkearen izua edo beldurra da, gizakia itsuskeria baten egitetik begiratzen duena.

Lotsari kontrajarri ohi zaio Lotsagabekeria, zeina, egia erran, ez baita afektu bat, bere tokian erakutsiko dudan bezala: baina afektuen izenak (jadanik jakinarazi dudanez), beren erabilerari dagozkio beren izaerari baino areago.

Eta, honenbestez, amaitu dut azaldu nahi nituen Poztasunezko eta Tristurazko afektuekin. Eta, horrela, Desirari doazkion afektuetara nator.

*XXXII. Frustrazioa* da, gauza baten oroimenak sustaturiko gauza batez jabetzeko Desira edo Guraria; guraritutako gauzaren existentzia baztertzen duten beste zenbait gauzaren oroimenak, aldi berean, eragozten duena.

Azalpena

Gauza batez oroitzen garenean, maiz sarri errana dudanez, horrenbestez gauza hori aitzinean bagenu bezalako afektuarekin kontenplatzeko prest gaude; baina egoera hau, edo, ahalegin hau, atzarri garenean, eragozten dute, maizenik, gogoratu zaigun gauzaren existentzia baztertzen duten gauzen irudiek. Eta, beraz, Poztasun mota batez hunkitzen gaituen gauza batez oroitzen garenean, ahalegintzen gara, horrenbestez, aitzinean bagenu bezala gauza haren kontenplatzen, Poztasun afektu berdinarekin; ahalegin hori ordea, delako gauzaren existentzia baztertzen duten gauzen oroimenak eragozten du, berehala. Hortaz, Frustrazioa da, egiazki, gorroto dugun gauza baten gabeziak sortzen den Poztasunari kontrajartzen zaion tristura; ikus honi buruz Zati honetako 47. Proposizioko Eskolioa. Baina, *Frustrazio* hitzak Desira bati dagokiola iduri duenez, afektu hau Desirazko afektuen artean sartzen dut.

*XXXIII. Emulazioa* da, besteek gauza baten Desira bera dutela irudikatzeak sortzen digun gauza haren Desira.

Azalpena

Beste batzuk beldur direlako beldur denak, edo beste batzuek ihes egiten dutelako ihes egiten duenak, edota, beste batek eskua erre duela ikustearekin, berak eskua erre balu bezala, bere eskua gibelatzen duenak eta bera aldaratzen denak, halakoak, beste baten afektua imitatzen duela erraten dugu, bai, baina ez beste haren lehiakide edo emulo dela; eta ez dugu hori erraten badakigulako imitazioaren kausa eta emulazioarena ez direla berdinak, baina ohituak gaudelako, atsegin, baliagarri edo bidezko daukagun

zerbait imitatzen duena, soilik, deitzen lehiakide. Gainerakoan, Emulazioaren kausari dagokionez, ikus Zati honetako 27. Proposizioa, Eskolioa barne. Eta afektu honi, gehienetan, zergatik lotzen zaion Bekaizkeria jakiteko, ikus Zati honetako 32. Proposizioa, Eskolioa barne.

*XXXIV. Esker ona edo Ikustatea* da, ongi egin digunari, Maitasun afektu berberaz, ongi egitera lehiarazten gaituen Desira edo Maitasungarra. *Ikus 39. Prop., 41. Prop. Eskol. barne*

*XXXV. Onginahia* da, Gupida izan gaituenari, ongi egiteko Desira. *Ikus 27. Prop. Eskol.*

*XXXVI. Hira* da, Higuin dugunari, Gorrotoz, gaitz egitera bultzatzen gaituen Desira. *Ikus 39. Prop.*

*XXXVII. Mendekua* da, Gorrotozko afektu berberaz kalte egin digunari, Gorroto ordainez gaitz egitera bultzatzen gaituen Desira. *Ikus 40. Prop. 2. Korol. Eskol. barne.*

*XXXVIII. Krudeltasuna* edo *Ankerkeria* da, Maite edota Gupida duenari gaitz egitera, norbait bultzatzen duen Desira.

Azalpena

Krudeltasunari Bihozberatasuna kontrajartzen zaio, eta hau ez da pasio bat, Izpirituaren ahalmen bat baizik, gizakiaren Hira eta Mendekua jabaltzen dituena.

*XXXIX. Beldurra* da, gaitz tipiago baten bidez, izutzen gaituen gaitz handiago baten saihesteko Desira.

*XL. Ausardia* da, haren lagunak beldur diren arrisku baten hartzekotan, zerbaiten egitera nehor bultzatzen duen Desira.

*XLI. Koldarkeria* erraten da, lagunek hartzen duten arriskuaren hartzeko Desira, beldurrak hertsatzen duen gizakiaz.

Azalpena

Koldarkeria, hortaz, gehienak izutzen ohi ez dituen gaitz baten Beldurra besterik ez da: horregatik ez dut Desirazko afektuekin lotzen. Bizkitartean, hemen azaldu nahi izan dut, zeren eta, Desira kontu ari garenez, Ausardiaren afektuari kontrajartzen baitzaio.

*XLII. Laztura* erraten da, izutzen duen gaitz baten beldurrak, beste baten saihesteko Desira kentzen dion gizakiaz.

Azalpena

Laztura da, beraz, Koldarkeria mota bat. Baina Laztura, Beldur bikoitz batetik datorrenez, honela defini daiteke erosoago erranez: *Beldurra dela, gizakia halako moldez txunditurik edo noraezean daukana, non ezin baitu gaitza baztertu.*

Txunditurik diot, gaitza baztertzeko Desira Harridurak kentzen diola gizakiari pentsatzen dugunez. *Noraezean* diot, pairatzen duen beste gaitz baten Beldurrak ere Desira hori kentzen diola pentsatzen dugun aldetik: hortik datorkio bi gaitz horietarik zein baztertu ez jakitea. Honi buruz, ikus Zati honetako 39. Proposizioaren Eskolioa eta 52. Proposizioaren Eskolioa.

Bestalde, Koldarkeriari eta Ausardiari buruz, ikus Zati honetako 51. Proposizioaren Eskolioa.

*XLIII. Gizatasuna* edo *Xumetasuna* da, gizakiek atsegin dutena egiteko eta gaitzitzen zaiena ez egiteko Desira.

*XLIV. Handinahia* da, loriaren Desira neurrigabekoa.

Azalpena

Handinahia da afektu guztiak hazten eta indartzen dituen Desira bat *(27. eta 31. Prop. arab.)*; eta, beraz, nekez mendera daiteke afektu hori. Zeren, Desira batek gizakia atxikitzen dueno Handinahiak ere hartzen du nahitaez, aldi berean. *Oroz gainetik, loriak ditu erakartzen hoberenak*, dio Zizeronek. *Loria gutiesteko liburuak izkiriatzen dituzten Filosofoek berek, hor ezartzen dituzte beren izenak*, etab.

*XLV. Sabelkeria* da, janaren neurrigabeko Desira, eta, are gehiago, Maitasuna.

*XLVI. Hordikeria* da, edanaren neurrigabeko Desira, eta Maitasuna.

*XLVII. Zekenkeria* da, ondasunen neurrigabeko Desira, eta Maitasuna.

*XLVIII. Lizunkeria* da, gorputzak batzeko Desira, eta halaber Maitasuna.

Azalpena

Kopulatzeko Desira hori neurriduna izan ala ez, lizunkeria deitzen ohi zaio. Bestalde, azken bost afektu hauek, *(56. Prop. Eskolioan jakinarazi dudan bezala)*, ez dute kontrariorik. Zeren, Xumetasuna Handinahi mota bat da: *(ikus honi buruz 29. Prop. Eskol.).* Gero errana dut Neurritasuna, Urritasuna eta Xahutasuna Izpirituaren ahalmenak direla eta ez grinak. Nahiz eta gerta daitekeen gizon zeken, handinahi edo beldurti bat gehiegi jatetik, edatetik edo kopulatzetik begiratzea, Zekenkeria, Handinahia eta Beldurra ez dira horregatik sabelkeriaren, hordikeriaren edo lizunkeriaren kontrakoak.

Zeren, Zekenak, gehienetan, nahi du besteen kostuz, janez eta edanez asebete.

Handinahiak, aldiz, nehork ez duela jakinen uste dueno, ez du neholako neurririk begiratuko, eta baldin hordien eta lizunen artean bizi bada, handinahi izatetik beretik, bizio horietara beretara ixuriago izanen da.

Beldurtiak, azkenik, nahi ez duena egiten du. Zeren, hil beldurrez bere ondasunak itsasora aurtikitzen baldin baditu ere, berdin zekena gelditzen da; eta lizuna, bere jaidura ezin asez tristatzen baldin bada ere, ez dio horregatik lizunkeriari uko egiten.

Eta, orokorki mintzatzeko, afektu hauek ez dagozkie hainbat, jateko, edateko edo holako ekintzei, nola ekintza horien Gurariari eta Maitasunari. Hortaz, ezin dakieke deusik kontrajar afektu hauei, urrunago aipatuko ditugun Bihotzabaltasuna eta Gogotinkotasuna baizik.

Ez dut deusik erraten Jeloskeriaz eta Izpirituaren beste gorabeherez, bai jadanik definitu ditugun afektuen elkarketatik sortzen direlako, bai eta horietarik gehienek izenik ez dutelako; horrek erakusten baitu aski dela, Bizitzaren ihardunerako, horien orokorki ezagutzea.

Bestalde, jadanik esplikatu ditugun afektuen definizioen arabera, argi dago afektu guztiak Desiratik, Poztasunetik edo Tristuratik sortzen direla, edo, hobeki errateko, hiru afektu horiek berak direla, guztiak izen ezberdinez deitu ohi direnak, beren erlazio ezberdinengatik eta beren kanpotikako deiturengatik.

Eta orain, hiru afektu lehen horiek, eta Izpirituaren izaeraz gorago erran duguna, kontutan hartzen baldin baditugu, honela, Izpiritu soilari dagokion aldetik, Afektuak definitzen ahalko ditugu.

Afektuen Definizio Orokorra

Afektua, edo Izpirituaren Grina, deitzen da, ideia nahasi bat, haren bitartez Izpirituak bere Gorputzaren edo honen zati baten existitzeko indar bat, aitzinean zuen baino indar handiagoa edo tipiagoa, baieztatzen baitu, eta ideia hau emanez geroz, Izpiritua determinatzen du, gauza bati pentsatzera, beste bati baino areago.

Azalpena

Lehenik diot, Afektua, edo Izpirituaren grina, *ideia nahasi* bat dela. Zeren, erakutsi dugu *(ikus 3. Prop.)* Izpirituak ideia ezegokiak edo nahasiak dituen aldetik bakarrik pairatzen duela.

Gero diot: *haren bitartez Izpirituak bere Gorputzaren edo honen zati baten existitzeko indar bat, aitzinean zuen baino handiagoa edo tipiagoa, baieztatzen baitu.* Gorputzei buruz ditugun ideia guztiek, alabaina, gehiago erakusten digute gure Gorputzaren presenteko egoera, *(2. Zat., 16. Prop. 2. Korol. arab.),* kanpoko Gorputzaren izaera baino; eta afektuaren forma osatzen duen ideiak Gorputzaren egoera, edo honen zati batena, seinalatu edo adierazi behar du; zeren eta horien iharduteko ahalmena edo existitzeko indarra handitu edo tipitu, lagundu edo murriztu baita.

Ohartu behar da, bizkitartean, *aitzinean zuen baino existitzeko indar handiagoa edo tipiagoa,* erraten dudanean, ez dudala erran nahi Izpirituak Gorputzaren presenteko egoera iraganarekin konparatzen duenik, afektuaren forma osatzen duen ideiak Gorputzaz zerbait baieztatzen duela baizik, hots, aitzinean baino errealitate gehiago edo gutiago egiazki barne hartzen duen zerbait.

Nola, bada, Izpirituaren esentzia bere Gorputzaren presenteko existentzia baieztatzean datzan, *(2. Zat. 11. eta 13. Prop. arab.),* eta nola betegintzarrez gauza baten esentzia bera aditzen dugun, hortik dator Izpiritua betegintzarre handiago edo tipiago batera iragaten dela, bere Gorputzaz edo honen zati batez aitzinean baino errealitate gehiago edo gutiago barne hartzen duen zerbait baieztatzen duenean.

Beraz, lehenago erran dudanean Izpirituaren pentsatzeko ahalmena handitu edo tipitu dela, ez dut besterik erran nahi izan, Izpirituak bere Gorputzaz edo honen zati batez ideia bat osatu duela, berak Gorputzaz baieztatua zuen baino errealitate gehiago edo gutiago adierazten duena, baizik. Zeren eta, Ideien balioa eta pentsatzeko ahalmen aktuala objektuaren balioaren arabera neurtzen baitira.

Azkenik erantsi dut: *eta, ideia hau emanez geroz, Izpiritua determinatzen du gauza bati pentsatzera beste bati baino areago,* Poztasunaren eta Tristuraren izaera adierazi ondoan definizioaren lehen parteak azaltzen duena Desiraren izaera, orobat, adierazteko xedetan.

Hirugarren Zatiaren Amaia

[1] 2. Zat., 11. Prop. Korol. erakutsi dugu hori gerta daitekeela Giza Izpiritua Jainko adimenaren zati izanik ere (Spinozaren oharra)

Etikaren Laugarren Zatia
Giza Morrontzaz
edo Afektuen Indarrez
Aitzinsolasa

*Afektuak gobernatzeko eta hertsatzeko giza ezintasuna deitzen dut Morrontza; afektuen mende dagoen gizakia, alabaina, ez da beregain, zortearen esku baizik eta honen boterepean hala gertatzen da non, sarritan, txarrena egitera behartua baita, nahiz ikusten duen zer litekeen beretzat hoberena. Zati honetan hartu dut gauza horren kausa azaltzeko xedea eta, halaber, zer duten onik eta zer gaiztorik afektu hauek agertzekoa. Hasi aitzin, ordea, badagokit bi hitz erratea, sarrera gisa, betegintzarreaz eta betegingabetasunaz, ongiaz eta gaizkiaz.*

*Gauza baten egitea deliberatu eta hura bururatu duenak, gauza hori betegina dela erranen du eta ez hark bakarrik, baizik eta lan horren Egilearen gogoa eta xedea zuzen ezagutu edo ezagutu uste duen nornahik. Adibidez, norbaitek lan bat (demagun oraino bururatu gabe dena) ikusi baldin badu eta jakin badu lan horren Egilearen xedea etxe baten eraikitzea zela, halakoak erranen du etxea betegingabea dela eta betegina dela erranen du, aldiz, Egileak lanari eman nahi zion helburua bururaino eramana izan dela ikusi orduko. Baina, ordurartean ikusi duenarekin batere eiterik ez duen lan bat ikusten badu edonork eta Egilearen gogoaren berririk ere ez badu, ezingo du jakin halakoak lan hori betegina den ala betegabea. Eta hori izan behar da hitz hauen lehen erranahia.*

*Baina gizakiak hasi zirenean ideia unibertsalak moldatzen eta etxeen, eraikinen, dorreen eta abarren ereduak irudikatzen eta, orobat, gauza batzuen ereduak beste batzuei hobesten, orduan gertatu zen bakoitzak betegina deitu zuela haren irudiko gauzei esker osatua zuen ideia unibertsalari zegokiola ikusten zuena eta, betegingabea, aldiz, berak pentsatu ereduari horrenbeste ez zegokiola ikusten zuena, nahiz Egileak bere egitasmoaren arabera osoki osatua izan. Eta ez dirudi beste arrazoirik badela Naturako gauzak, erran nahi baita, gizakiaren eskuz eginak ez direnak beteginak edo betegingabeak eskuarki deitzeko. Ezen, gizakiak ohituak dira ala Naturako gauzen ala beren eskulanen ideia unibertsalak osatzen, gauzen eredutzat hartzen dituztenak; eta pentsatzen dute Natura (honek helburu batekin baizik ez duela deus egiten uste baitute) ideia horiei dagokiela eta eredutzat hartzen dituela. Ikusten dutenean, beraz, Naturan zerbait gertatzen dela, bat ez datorrena berek horren irudiko gauza batentzat pentsatu duten ereduarekin, orduan, uste dute Naturak berak huts egin edo bekatu egin duela eta gauza hura betegingabe utzi duela. Horregatik ikusten dugu, bada, gizakiak ohituak direla naturako gauzen beteginak edo betegingabeak deitzen, gauzen egiazko ezagutzarengatik baino gehiago aurreiritzi batengatik.*

*Lehen Zatiko Eranskinean erakutsi dugu, alabaina, Naturak ez diharduela helburu batengatik: Jainkoa edo Natura deitzen dugun betiereko eta mugagabeko Izateak iharduten baitu bera existiarazten duen beharrezkotasun berarengatik. Ezen, erakutsi dugu* (1. Zat. 16. Prop.) *bere izaerari esker existitzen den ezinbestekotasun berdinaz iharduten duela Jainkoak. Eta, beraz, Jainkoak edo Naturak duen iharduteko eta existitzeko arrazoia edo kausa, bat eta bera dugu. Ondorioz, neholako helbururik ez duen bezala existitzeko, neholako helbururik ez du ere behar iharduteko; eta, horrela, ez du existitzeko ez lehenik ez azkenik, ez eta iharduteko ere. Eta xedezko kausa deitzen dena ez da giza guraria baizik, gauza baten printzipioa edo kausa lehena bezala hartzen den aldetik.*

*Adibidez, erraten dugunean han bizitzea izan dela etxe honen edo haren xedezko kausa, hau baizik ez dugu adierazten, hots, gizon batek etxeko biziaren gozoak*

*irudikatu dituelako izan duela etxe baten eraikitzeko guraria. Horregatik han bizitzea, xedezko kausa bezala hartzen denez, ez da gurari jakin hori baizik, eta hau, egia erran, kausa erazlea baita, lehen kausatzat hartzen da, gizakiek komunzki ez dakizkitelako beren gurarien kausak. Zeren gizakiak, maiz errana dudan bezala, beren ekintzen eta gurarien jakitun dira, bai, baina zerbait guraritzera behartzen dituzten kausen ez jakinean daude.*

*Gainera, arruntki erraten dena, hots, Naturak batzuetan huts egiten edo bekatu egiten duela eta gauza betegingabeak ekoizten dituela, hori lehen Zatiko Eranskinean tratatu ditudan asmakerien zerrendan sartzen dut. Betegintasuna eta betegingabetasuna ez dira, bada, egiazki, pentsatzeko moduak besterik, hau da, mota bereko edo genero bereko banakoak elkarren artean konparatuz osatzen ditugun adigaiak: eta horrengatik erran dut gorago (2. Zat., 6. Def.) errealitateaz eta betegintzarreaz gauza bera adierazten dudala.*

*Ohitura badugu, alabaina, Naturako banako guztiak genero bakar batera, Orokorrena deitzen denera, hots, Izatearen adigaira biltzeko, Naturako banako guztiei absolutuki dagokien horretara, hain zuzen ere. Honela, bada, Naturako banakoak genero horretara biltzen ditugunez eta beren artean konparatzen eta batzuek besteek baino izate edo errealitate gehiago badutela iduritzen zaigun neurri horretan erraten dugu batzuk besteak baino beteginagoak direla; eta barne hartzen duen zerbait ezeztapen zedarri, helburu, ezintasun, etab. egozten diegun hein horretan deitzen ditugu betegingabeak, beteginak deitzen ditugunek bezala gure Izpiritua hunkitzen ez dutelako, baina ez, ordea, dagokien zerbait falta zaielako edota Naturak huts egin dukeelako. Zeren, gauza baten izaerari kausa erazlearen izaeraren beharrezkotasunetik datorrena baizik ez dagokio eta kausa erazlearen izaeraren ezinbestekotasunetik datorren guztia, nahitaez, gertatzen da.*

*Ongiari eta gaizkiari dagokienez, nozio horiek ere ez dute deus positiborik adierazten gauzetan -gauzak beren baitan hartuz geroz-eta ez dira pentsatzeko moduak besterik edo gauzak elkarren artean konparatzetik osatzen ditugun adigaiak baizik. Zeren, gauza bat eta bera ona eta txarra izan daiteke, aldi berean, eta, orobat, ez on eta ez txar. Adibidez, ona da musika malenkoniatsuarentzat; txarra, berriz, atsekabetuarentzat; gorrarentzat, aldiz, ez ona ez txarra. Dena den, gauzak horrela izanik ere, behar ditugu hitz hauek atxiki. Zeren, nola nahi dugun gizakiaren ideia bat giza izaeraren eredu gisa osatu guretzat ikusgai izateko, baliagarri gertatuko zaigu hitz horiek atxikitzea, erran dudan zentzuan.*

*Ongia, beraz, deituko dut engoitik, helburu dugun giza izaeraren eredura gero eta gehiago hurbiltzeko bidea dela segur dakigun zer hura. Eta, Gaizkia, berriz, eredu horretara berera heltzeko eragozpena dela segur dakigun zer hura.*

*Bestalde, gizakiak beteginagoak edo betegingabeagoak direla erranen dugu, eredu horretara berera gehiago edo gutiago hurbiltzen diren bezainbatean. Zeren, ororen buru, ohartu behar da, erraten dudanean norbait betegintzarre tipiago batetik handiago batera eta alderantziz iragaten dela, ez dudala erran nahi, esentzia batetik edo forma batetik beste batera aldatzen dela. Zeren, zaldi bat, adibidez, berdin suntsitzen da, ala gizaki ala intsektu bilakatzen denean; haren iharduteko ahalmena, ordea, haren izaeraren arabera ulertzen den bezainbatean, hura dugu ulertzen handiturik edo tipiturik.*

*Azkenik, betegintzarrea, oro har, errealitatea deituko dut, jada erran dudanez, hau da, edozein gauzaren esentzia, modu jakin batez existitzen den eta iharduten duen bezainbatean, haren iraupena ezertarako kontutan hartu gabe. Eta ez da, beraz, neholako gauza singularrik, beteginago dela erran daitekeenik, existitzen denbora gehiago iraun duelako; gauzen iraupena ezin baitu haien esentziak determinatu, gauzen*

*esentziak existitzeko ez duelako neholako denbora jakin eta zehatzik barne hartzen; baina, edozein gauzak, betegintzarre gehiagokoa edo gutiagokoa izan arren, beti existitzen irauten ahalko du, existiarazten hasi den indar beraren bidez eta honetan, bada, gauza guztiak berdinak dira.*

Definizioak

*I. Ongia* deituko dut baliagarri zaigula segur dakigun zer hura.

*II. Gaizkia*, aldiz, ongi bat edukitzea eragozten digula segur dakigun zer hura.

(Ikus hauei biei buruz, Aitzinsolasaren azken partea).

*III.* Gauza singularrak *kontingenteak* deitzen ditut, haien esentzia soila kontutan izanez geroz, haien existentzia, nahitaez baieztatzen edo nahitaez baztertzen duenik ezer aurkitzen ez dugun bezainbatean.

*IV.* Gauza singular horiek berak *ahalezkoak* deitzen ditut, ekoiztu behar dituzten kausak kontutan izanez geroz, kausa hauek gauza haien ekoiztera determinatuak ote diren ez dakigun bezainbatean.

(Lehen Zatiko 33. Proposizioko 1. Eskolioan ez dut nehongo ezberdintasunik egin ahalezkoaren eta kontingentearen artean, han ez zelako beharrezkoa horien zehazki bereiztea).

*V. Kontrako afektuak,* aurrerantzean, deituko ditut gizakia alde orotara daramatenak, genero berekoak badira ere, hala nola nasaikeria eta zekenkeria, maitasun mota batzuk direnak; baina ez dira kontrakoak izaeraz, gertuz baizik.

*VI. Etorkizuneko, oraingo eta iraganeko gauza batekilako afektuez* zer adieraziko dudan, 3. Zatiko 18. Proposizioaren 1. eta 2. Eskolioetan azaldu dut; han ikus bitez.

(Alta bada, ohar hau ere egin behar da hemen: nola leku-arte bat ez baitezakegu bereiziki irudika muga batetik landa, hala denbora-arte bat ere ez dezakegu bereiziki irudika muga batetik landa; hau da, nola gureganik berrehun oin baino gehiagora diren objektu guztiak hots, gu gauden tokitik haien distantzia, guk bereiziki irudika dezakeguna, gainditzen dutenak gureganik denak distantzia berean eta plano berean balira bezala irudikatu ohi baititugu, hala existitzeko denbora, orainalditik urrun dagoen tartea bereiziki irudikatzen ohi duguna baino luzeagoa duten objektuak ere, orainalditik distantzia berean irudikatzen ditugu eta, nolazpait errateko, denboraren une bakar eta berari egokitzen).

*VII.* Harengatik zerbait egiten dugun *helburua* deitzen dut guraria.

*VIII. Bertutea eta ahalmena* gauza bera deitzen dut, hots, *(3. Zat., 7. Prop. arab.)* bertutea, gizakiari dagokion aldetik, gizakiaren esentzia bera edo haren izaera da, haren izaeraren lege soilei esker uler daitezkeen zenbait gauza egiteko ahalmena duen bezainbatean.

Axioma

Gauzen Naturan ez da neholako gauza singularrik aurkitzen, non ez den hura baino beste ahaltsuago eta indartsuago bat izaten. Baina, edozein gauza emanez geroz, beste ahaltsuago bat aurkitzen da, hura suntsi dezakeena.

I. Proposizioa

*Ideia faltsu batek duen positiborik deus ez da galtzen, zerbait egiaren presentziagatik, egia den aldetik*.

Demonstrazioa

Faltsutasuna, ideia ezegokiek barne hartzen duten ezagutzaren gabezia soilean datza *(2. Zat., 35. Prop. arab.)* eta hauek ez dute deus positiborik haren kausaz deituak izateko faltsuak *(2. Zat., 33. Prop. arab.).* Baina, alderantziz, Jainkoari dagozkion bezainbatean, egiazkoak dira *(2. Zat., 32. Prop. arab.).* Eta, beraz, ideia faltsu batek duen positibotik zerbait ken baledi egiaren presentziagatik, egia den bezainbatean, orduan, egiazko ideia batek bere burua deuseztuko luke eta, hori, *(3. Zat., 4. Prop. arab.)* absurdua da. Beraz, ideia faltsu batek duen positiborik deus etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Proposizio hau argiago ulertzen da 2. Zatiko 16. Proposizioko 2. Korolariotik. Zeren, irudikapen bat ideia bat da, giza Gorputzaren presenteko egoera gehiago adierazten duena, kanpoko gorputzaren izaera baino, ez ordea bereiziki, jakina, nahasiki baizik; horra zergatik erraten den Izpiritua errebelatzen dela.

Adibidez, eguzkia begiratzen dugunean, gureganik berrehun bat oinetara aurkitzen dela irudikatzen dugu eta honetan huts egiten dugu, egiazko distantzia ez dakiguno; baina, behin distantzia jakinez geroz, hutsa zuzentzen da, bai, baina ez irudikapena, hots, eguzkiaren ideia, honek Gorputza hunkitzen duen hein soilean haren izaera azaltzen baitu; eta, horrela, haren egiazko distantzia jakin arren, gureganik hurbil dela irudikatuko dugu bizkitartean. Ezen, 2. Zat., 35. Prop. Eskolioan erran dugunez, eguzkia hain hurbil irudikatzen baldin badugu, ez da haren egiazko distantzia ez dakigulako, Izpirituak eguzkiaren handitasuna irudikatzen duelako baizik, eguzkiak berak Gorputza hunkitzen duen arabera.

Gisa berean, eguzkiaren izpiak uraren azal gainera erortzean, gure begietarantz bihurtzen direlarik, uretan balitz bezala irudikatzen dugu eguzkia, honen egiazko lekua ezagutzen baldin badugu ere; eta berdin da Izpiritua galtzen duten beste irudikapenentzat Gorputzaren egoera naturala adieraz dezaten edo haren iharduteko ahalmenaren handitzea edo tipitzea ez dira egiaren kontrakoak eta ez dira egiaren presentziagatik desagertzen.

Gertatzen da eiki, gaitz baten beldur garenean arrazoirik gabe, beldurra desagertzea egiazko berria entzutean; baina, alderantziz, gertatzen da ere, segur helduko den gaitz baten beldur garenean, beldurra ere desagertzea berri faltsu bat entzutean; eta, horrela, irudikapenak ez dira egiaren presentziagatik desagertzen egia den aldetik, baizik eta beste irudikapen indartsuago batzuk agertzen baitira eta hauek irudikatzen ditugun gauzen presenteko existentzia baztertzen baitute, 2. Zatiko 17. Proposizioan erakutsi dugun bezala.

II. Proposizioa

*Naturaren parte garen aldetik dugu pairatzen, zeina ez baita ulertzen ahal bere baitan beste parteak gabe.*

Demonstrazioa

Jasaten dugula erraten dugu, geure baitan zerbait sortzen denean, horren kausa partziala baizik ez garelarik *(3. Zat., 2. Def. arab.)*, hau da, *(3. Zat., 1. Def. arab.)* gure izaeraren lege soiletarik ezin deduzi daitekeen zerbait. Hortaz, Naturako beste parteak gabe bere baitan pentsa ez daitekeen Naturako parte bat garen aldetik pairatzen dugu. H.B.D.B.

III. Proposizioa

*Gizakia existentzian iraunarazten duen indarra mugatua da eta kanpoko kausen ahalmenak neurririk gabe gainditzen du.*

Demonstrazioa

Argi ageri da hau, Zati honetako Axiomatik. Zeren eta, gizaki bat hartzen bada beste zerbait indartsuago emanen baita, demagun A, eta A emanez geroz, beste zerbait emanen baita, demagun B, A baino indartsuago dena eta horrela azkenik gabe. Eta, beraz, gizaki baten ahalmena beste gauza baten ahalmenak mugatzen du eta kanpoko kausen ahalmenak mugarik gabe gainditzen du. H.B.D.B.

IV. Proposizioa

*Ez daiteke izan gizakia Naturaren parte bat ez izatea eta haren izaera soilaz uler daitezkeen aldaketak, eta hauen kausa egokia hura delarik, baizik ez jasatea.*

Demonstrazioa

Gauza singularrei eta, beraz, gizakiari beren izana atxikarazten dien ahalmena, Jainkoaren ahalmena da, hots, Naturarena *(1. Zat., 24. Prop. Korol. arab.),* ez mugagabea den aldetik, baizik eta gizakiaren esentzia aktualaren arabera azaltzen den aldetik, *(3. Zat., 7. Prop. arab.).* Honela, bada, gizakiaren ahalmena, bere esentzia aktualaren arabera azaltzen den aldetik, Jainkoaren, hots, Naturaren mugagabeko ahalmenaren hau da, esentziaren parte bat da *(1. Zat., 34. Prop. arab.).* Hori baitzen lehen puntua.

Eta gero, gerta ahal baledi gizakiak bere izaera soilaz uler daitezkeen aldaketak baizik pairatu ahal ez izatea, ondorioa litzateke, *(3. Zat., 4. eta 6. Prop. arab.)* ez lukeela bizia galtzen ahal, baizik eta, nahitaez, existituko litzatekeela beti; eta hori ondorioztatuko litzateke ahalmen mugatuko edo mugagabeko kausa batetik, hots, edo gizakiaren ahalmen soiletik, hau, orduan gai bailitzateke kanpoko kausetarik sor litezkeen gainerako aldaketa guztiak bereganik baztertzeko, edo Naturaren ahalmen mugagabetik, honek gauza singular guztiak zuzenduko bailituzke gizakiak bere iraupenerako balio duten aldaketak bakarrik paira ahal izateko moduan. Baina lehen hipotesia *(aitzin. Prop. arab., honen demonstrazioa unibertsala baita eta gauza singular guztiei aplika baitakieke)* absurdua da; beraz, gerta ahal baledi gizakiak haren izaera soilaz uler daitezkeen aldaketak baizik ez pairatzea, eta, ondorioz, *(jadanik erakutsi dugunez),* nahitaez, existitzea beti, hori Jainkoaren ahalmen mugagabetik etorri behar litzateke; eta, ondorioz, *(1. Zat., 16. Prop. arab.)* Jainko izaeraren ezinbestekotasunetik, gizaki baten ideiak hunkiturik hartzen dugun aldetik, Natura osoaren ordena deduzitu behar litzateke, hau Hedaduraren eta Pentsamenduaren atributuen arabera ulertzen dugun bezainbatean; eta, horrela, *(1. Zat., 21. Prop. arab.)* gizakia mugagabea dela letorke, baina hori, *(Demonstrazio honen lehen zatiaren arabera)* absurdua da. Honela, bada, ezinezkoa da, gizakiak kausa egokia hura bera duten aldaketak baizik ez pairatzea. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator gizakia beti, nahitaez, pasioen mende dagoela, Naturaren ordena komunari jarraikitzen zaiola eta Hura sinesten duela eta gauzen izaerak eskatzen duen adina Hari egokitzen zaiola.

V. Proposizioa

*Edozein pasioren indarra eta hazkundea eta existitzeko iraupena ez dira definitzen, gure existitzen irauteko eginahalaren arabera, baizik eta kanpoko kausaren ahalmena konparatuz gurearekin.*

Demonstrazioa

Pasio baten esentzia ezin da gure esentzia soilaren arabera azaldu *(3. Zat., 1. eta 2. Def. arab.),* hau da, *(3. Zat. 7. Prop. arab.)* pasio baten ahalmena ezin da, gu geure izanean

iraunarazten gaituen ahalmenaren arabera definitu; baizik eta, *(2. Zat., 16. Proposizioan erakutsi den bezala)* kanpoko kausaren ahalmena gurearekin konparatuz definitu behar da, nahitaez. H.B.D.B.

VI. Proposizioa

*Pasio edo afektu baten indarrak gizakiaren gainerako ekintza guztiak, hots, haren ahalmena hainbestetaraino gaindi dezake non afektu hori gizakiari tinko loturik geldi dakiokeen.*

Demonstrazioa

Edozein pasioren indarra eta hazkundea, eta existitzeko iraunkortasuna, kanpoko kausaren ahalmena, gurearekin konparatuz, definitzen da *(aitzin. Prop. arab.)* eta, beraz, *(3. Prop. arab.)* gizakiaren ahalmena gaindi dezake, etab. H.B.D.B.

VII. Proposizioa

*Afektu bat ezin da ez hertsatu ez suntsitu, horren kontrako den eta hori baino indartsuago den afektu baten bidez baizik.*

Demonstrazioa

Afektua, Izpirituari dagokion aldetik, ideia bat da, eta honen bitartez Izpirituak bere Gorputzaren lehen baino handiagoko edo tipiagoko indarra baieztatzen du *(Afektuen Definizio orokorraren arabera, 3. Zatiaren amaieran aurkitzen dena).* Eta, beraz, Afektu bat Izpirituaz jabetzen delarik, Gorputza, aldi berean, haren iharduteko ahalmena handitzen edo tipitzen duen afekzio batek hunkitzen du.

Eta gainera, Gorputzaren afekzio honek *(5. Prop. arab.)* bere izanean irauteko indarra ukaiten du bere kausaren aldetik eta, beraz, ezin da ez hertsatu ez eta suntsitu kausa gorpuztun baten bidez baizik *(2. Zat., 6. Prop. arab.),* zeinak bere kontrako afekzio batez hunkiko baitu Gorputza *(3. Zat., 5. Prop. arab.)* eta, bera baino indartsuago batez *(Axiom. arab.)* eta, orduan, *(2. Zat., 12. Prop. arab.)* Izpiritua lehen afekzioaren kontrako eta hura baino indartsuago baten ideiak hunkituko du, hau da, *(Afektuen Def. orokor. arab.)* Izpiritua lehen afektuaren kontrako eta hura baino indartsuagoko batek hunkituko du, zeinak lehen afektuaren existentzia baztertuko edo suntsituko baitu. Eta, beraz, afektu bat ezin da hertsatu ez eta suntsitu, kontrako eta indartsuagoko afektu baten bidez baizik. H.B.D.B.

Korolarioa

Afektu bat, Izpirituari dagokion bezainbatean, ezin da hertsatu ez eta suntsitu, jasaten dugun afekzioaren kontrako eta hau baino indartsuagoko Gorputzeko afekzio baten ideiaren bidez baizik. Zeren, pairatzen dugun afektua ez daiteke ez hertsa ez suntsi, bere kontrako eta bera baino indartsuagoko afektu baten bidez baizik *(aitzin. Prop. arab.),* hau da, *(Afektuen Def. orokor. arab.)* pairatzen dugun afekzioaren kontrako eta hau baino indartsuagoko Gorputzeko afekzio baten ideiaren bidez baizik.

VIII. Proposizioa

*Ongiaren eta Gaizkiaren ezagutza ez da Poztasunaren edo Tristuraren afektua baizik, horren kontziente garen bezainbatean.*

Demonstrazioa

Ongia ala Gaizkia deitzen dugu gure izanaren iraupenari fabore edo kalte egiten diona *(1. eta 2. Def. arab.),* hau da, *(3. Zat., 7. Prop. arab.)* gure iharduteko ahalmena handitzen edo tipitzen, laguntzen edo hertsatzen duena. Honela, bada, *(Poztasunaren edo Tristuraren Def. arab.; ikus 3. Zat., 11. Prop. Eskolioa)* gauza batek Poztasunez edo Tristuraz hunkitzen gaituela hautematen dugun heinean ona edo gaiztoa deitzen dugu gauza hori; eta, beraz, ongiaren eta gaizkiaren ezagutza hauxe besterik ez da, hots, Poztasunezko edota Tristurazko afektuari berari, nahitaez, darraion Poztasunaren edo Tristuraren ideia *(2. Zat., 22. Prop. arab.).* Baina ideia hau afektuari lotua da, Izpiritua Gorputzari lotua den modu berean *(2. Zat. 21. Prop. arab.),* erran nahi baita, *(Prop.*

*beraren Eskolioan erakutsi bezala)* ideia hau ez dela afektutik beretik bereizten, hots, *(Afektuen Def. orokor. arab.)* ez dela Gorputzaren afekzioaren ideiatik, egia erran, bereizten, honen kontzeptu soilarengatik ez bada. Beraz, ongiaren eta gaizkiaren ezagutza hori ez da afektua bera baizik, horren kontziente garen bezainbatean. H.B.D.B.

IX. Proposizioa

*Afektu bat indartsuago da, haren kausa presentean hor dugula irudikatzen baldin badugu, kausa bera hor ez dugula irudikatzen bagenu baino.*

Demonstrazioa

Irudikapena ideia bat da, zeinaren bidez Izpirituak gauza bat kontenplatzen baitu presenteko bezala *(ikus haren Def. 2. Zat., 17. Prop. Eskolioan)* baina, giza Gorputzaren egoera gehiago adierazten du kanpoko gauzaren izaera baino *(2. Zat., 16. Prop. 2. Korol. arab.)*. Afektua, hortaz, *(Afektuen Def. orokor. arab.)* irudikapen bat da, Gorputzaren egoera adierazten duenez. Irudikapen bat, ordea, *(2. Zat., 17. Prop. arab.)* biziagoa da, kanpoko gauzaren presenteko existentzia baztertzen duen zerbait irudikatzen ez duguno; beraz, afektu bat biziago edo indartsuago da, haren kausa presentean hor dugula irudikatzen dugularik, hori bera ez dela hor irudikatzen bagenu baino. H.B.D.B.

Eskolioa

3. Zatiko 18. Proposizioan, erran dudalarik, etorkizuneko edota iraganeko gauza baten irudiak hunkitzen gaituela, irudikatzen dugun gauza aitzinean balitz hunkituko gintuzkeen afektu beraz, ohartarazi nuen, espreski, hori egia dela, gauzaren beraren irudi soila kontutan hartzen dugun neurrian; izan ere, izaera berekoa da irudi hori, gauzak hor balira bezala irudikatu ala ez. Baina, ez nuen ukatu irudi hori bera ahultzen dela, geure aitzinean beste gauza batzuk kontenplatzen ditugunean, etorkizuneko gauzaren presenteko existentzia baztertzen dutenak; eta ez nuen hori, orduan, ohartarazi, erabakia nuelako afektuen indarrez Zati honetan ihardutea.

Korolarioa

Etorkizuneko edo iraganeko gauza baten irudia, hau da, orainaldia bazter utzirik, geroaldiarekin edota iraganaldiarekin loturik kontenplatzen dugun gauza baten irudia, besteak beste, presenteko gauza baten irudia baino ahulagoa da; eta, ondorioz, etorkizuneko nahiz iraganeko gauza batekilako afektua, besteak beste, motelagoa da, presenteko gauza batekilako afektu bat baino.

X. Proposizioa

*Berehala gertatuko dela irudikatzen dugun etorkizuneko gauza batek azkarkiago hunkitzen gaitu, haren existitzeko aldia oraikotik urrunago dagoela irudika bageneza baino; eta duela guti gertatu dela irudikatzen dugun gauza baten oroitzapenak azkarkiago hunkitzen gaitu aspaldi gertatu dela irudika bageneza baino.*

Demonstrazioa

Izan ere, gauza bat berehala gertatuko dela edo duela guti gertatu dela irudikatzen dugun heinean berean irudikatzen dugu gauzaren presentzia gutiago baztertzen duen zerbait, haren existitzeko etorkizuna oraikotik urrun dela edo aspaldian gertatua dela irudika bageneza baino *(berez nabarmen den bezala)* eta, beraz, *(aitzin. Prop. arab.)* hein berean azkarkiago hunkituko gaitu. H.B.D.B.

Eskolioa

Zati honetako 6. Definizioari erantsi oharpenetik dator, irudimenez zehatz dezakeguna baino tarte handiago batez orainalditik urrunduak diren objektuek, jakinik ere tarte luze batek bereizten dituela elkarretarik, berdin motelki hunkitzen gaituzte.

XI. Proposizioa

*Nahitaezko bezala irudikatzen dugun gauza batekilako afektua biziagoa da, besteak beste, ahalezko edo kontingente, hots, ezinbesteko ez den batekilakoa baino.*

Demonstrazioa

Gauza bat, ezinbesteko dela irudikatzen dugun bezainbatean, haren existentzia baieztatzen dugu eta, alderantziz, gauza baten existentzia ezeztatzen dugu, hura ez dela ezinbesteko irudikatzen dugun heinean *(1. Zat., 33. Prop. 1. Eskol. arab.)* eta, beraz, *(Zat. hon. 9. Prop. arab.)* nahitaezko gauza batekilako afektua, besteak beste, biziagoa da, nahitaezko ez den gauza batekilakoa baino. H.B.D.B.

XII. Proposizioa

*Orain ez dela existitzen dakigun eta ahalezko bezala irudikatzen dugun gauza batekilako afektua, besteak beste, gauza kontingente batekilakoa baino biziagoa da.*

Demonstrazioa

Gauza bat kontingente bezala irudikatzen dugun heinean, gauza horren existentzia baieztatzen duen gauza baten neholako irudiak ez gaitu hunkitzen *(3. Def. arab.);* aitzitik, ordea, *(hipotesiari jarraikiz)* gauza horren presenteko existentzia baztertzen duten gauza batzuk irudikatzen ditugu. Baina, gauza bat ahalezko dela etorkizunean irudikatzen dugun bezainbatean, gauzaren existentzia baieztatzen duten gauza batzuk irudikatzen ditugu *(4. Def. arab.)*; hots, *(3. Zat. 18. Prop. arab.)* Itxaropena edo Beldurra faboratzen dutenak; eta, ondorioz, ahalezko gauza batekilako afektua sutsuagoa da. H.B.D.B.

Korolarioa

Orain ez dela existitzen dakigun, eta kontingente bezala irudikatzen dugun gauza batekilako afektua biziki motelagoa da, gauza hura orain aitzinean daukagula irudika bageneza baino.

Demonstrazioa

Orain existitzen dela irudikatzen dugun gauza batekilako afektua biziagoa da gauza hori etorkizunekoa bezala irudika bageneza baino, *(9. Prop. arab.)* eta etorkizun hori orainalditik biziki urrun irudika bageneza baino biziki sutsuagoa da *(10. Prop. arab.).*

Honela, bada, haren existitzeko aldia oraikotik urrun dela irudikatzen dugun gauza batekilako afektua biziki motelagoa da, gauza hori bera geure aitzinean dela irudika bageneza baino, eta, bizkitartean, *(aitzin. Prop. arab.)* kontingente bezala gauza bera irudika bageneza baino biziagoa da; eta, beraz, gauza kontingente batekilako afektua biziki motelagoa izanen da, gauza hori orain geure aitzinean dela irudika bageneza baino. H.B.D.B.

XIII. Proposizioa

*Orain ez dela existitzen dakigun gauza kontingente batekilako afektua, besteak beste, iraganeko gauza batekilako afektua baino motelagoa da.*

Demonstrazioa

Gauza bat, kontingente bezala irudikatzen dugun bezainbatean, gauza hori baieztatzen duen beste gauza baten neholako irudiak ez gaitu hunkitzen *(3. Def. arab.).* Aitzitik, ordea, *(hipotesiari jarraikiz)* gauza horren presenteko existentzia baztertzen duten gauza batzuk irudikatzen ditugu. Baina, gauza hori bera iraganaldiari dagokiola irudikatzen dugun bezainbatean, hein horretan onartzen da zerbait irudikatzen dugula, gauza hori oroimenera dakarrena, hots, gauzaren irudia iratzartzen duena *(ikus 2. Zat., 18. Prop., Eskolioa barne)* eta, ondorioz, egiten du aitzinean bagenu bezala *(2. Zat. 17. Prop. Korol. arab.)* bera kontenpla dezagun. Eta, horrela, *(9. Prop. arab.)* orain ez dela existitzen dakigun gauza kontingente batekilako afektua, besteak beste, iraganeko gauza batekilako afektua baino motelagoa izanen da. H.B.D.B.

XIV. Proposizioa

*Ongiaren eta gaizkiaren egiazko ezagutzak, egiazkoa den aldetik, ez dezake neholako afekturik hertsa, afektu bezala hartzen den aldetik baizik.*

Demonstrazioa

Afektua ideia bat da, haren bidez Izpirituak bere Gorputzaren existitzeko indarra lehen baino handiago edo tipiago dela baieztatzen baitu *(Afekt. Def. orokor. arab.)* eta, beraz, *(1. Prop. arab.)* afektuak ez du deus positiborik egiaren presentziak suntsi dezakeenik; eta, ondorioz, ongiaren eta gaizkiaren egiazko ezagutzak, egiazkoa den aldetik, neholako afekturik ezin du hertsatu. Afektua den aldetik, ordea, *(ikus 8. Prop.)* hertsatu beharreko afektua baino indartsuagoa baldin bada, neurri horretan bakarrik, *(7. Prop. arab.)* afektu hura hertsatzen ahalko du. H.B.D.B.

XV. Proposizioa

*Ongiaren eta gaizkiaren egiazko ezagutzatik sortzen den Desira, josten gaituzten afektuetatik sortzen diren beste desira anitzek hertsatzen edo itzaltzen ahal dute.*

Demonstrazioa

Ongiaren eta gaizkiaren egiazko ezagutzatik, hau (*8. Prop. arab.*) afektu bat den aldetik, Desira bat sortzen da, nahitaez, *(Afektuen 1. Def. arab.)*; zenbat eta handiago baita sortzen den afektua, hainbat eta handiago da Desira *(3. Zat., 37. Prop. arab.).* Baina, nola delako Desira *(hipotesiaren arab.)* guk zerbait egiazki ezagutzetik sortzen baita, gure baitan aurkitzen da, iharduten dugun bezainbatean, *(3. Zat., 3. Prop. arab.)*; eta, beraz, gure esentziaren arabera ezagutu behar da, soilik, (*3.Zat., 2. Def. arab.*); eta, ondorioz, *(3. Zat., 7. Prop. arab.)* haren indarra eta hazkundea gizakiaren ahalmen soilaren arabera definitu behar da.

Gainera, josten gaituzten afektuetarik sortzen dira Desirak; zenbat eta sutsuago baitira afektu horiek, hainbat eta handiago ere Desirak; eta, beraz, hauen indarra eta hazkundea *(5. Prop. arab.)* kanpoko kausen ahalmenaren arabera definitu behar da; ahalmen horrek, gurearekin konparatuz geroz, mugarik gabe gainditzen duelarik gurea*(3. Prop. arab.)*. Eta, beraz, horrelako afektuetarik sortzen diren Desirak, ongiaren eta gaizkiaren egiazko ezagutzatik sortzen dena baino sutsuagoak izan daitezke eta, horrela, *(7. Prop. arab.)* azken hau hertsatzen edo itzaltzen ahalko dute. H.B.D.B.

XVI. Proposizioa

*Ongiaren eta gaizkiaren ezagutzatik sortzen den Desira, ezagutza hori etorkizunari dagokionez, errazkiago hertsa edo itzal dezake presentean atseginak diren gauzen Desira batek.*

Demonstrazioa

Etorkizun bezala irudikatzen dugun gauza batekilako afektua, presenteko gauza batekilakoa baino motelagoa da *(9. Prop. Korol. arab.)*. Baina ongiaren eta gaizkiaren egiazko ezagutzatik sortzen den Desira, nahiz eta ezagutza hori presentean onak diren gauzei dagokien, hertsa edo itzal dezake beste Desira ausart batek *(aitzin. Prop. arab.; haren Demonstrazioa orokorra baita)* eta, beraz, etorkizunari dagokion ezagutza ber horretarik sortzen den Desira errazkiago hertsatzen edo itzaltzen ahalko da, etab. H.B.D.B.

XVII. Proposizioa

*Ongiaren eta gaizkiaren egiazko ezagutzatik sortzen den Desira, ezagutza hori gauza kontingentei dagokienez, biziki errazkiago hertsa dezake presenteko gauzen Desirak.*

Demonstrazioa

Proposizio hau, aitzineko Proposizioaren bide beretik demonstratzen da, 12. Prop. Korolariotik abiatuz.

Eskolioa

Horrekin uste dut erakutsi dudala, zergatik egiazko Arrazoiak baino gehiago besteen iritziak hunkitzen dituen gizakiak eta zergatik ongiaren eta gaizkiaren egiazko

ezagutzak izpirituaren zalantzak pizten dituen eta, maiz, edozein lizunkeria motari amore ematen dion.
Hortik sortu da beihalako Poetaren erran hura: *Hoberena dakusat eta ontzat ematen dut, baina txarrena egiten dut.*
Horixe bera izan bide zuen gogoan Eklesiastesek erran zuenean: *Jakitatea emendatzen duenak, oinazea ere emendatzen du.*
Eta hori baldin badiot, ez da, segurki, hortik ateratzeko, ez jakitea hobe dela jakitea baino edota afektuak menderatzerakoan ez dela bereizterik ergelaren eta adimentsuaren artean; geure izaeraren ahalmena, nola haren ezintasuna, ezagutu behar ditugu, ordea, determinatu ahal izateko Arrazoiak zer egin dezakeen eta zer ez, afektuak menperatzerakoan; eta jada errana dut, Zati honetan ez nuela giza ezintasunaz baizik hitz eginen, erabaki baitut bereiz mintzatzea afektuen gaineko Arrazoiaren ahalmenaz.
XVIII. Proposizioa
*Poztasunetik sortzen den Desira, besteak beste, indartsuagoa da Tristuratik sortzen den Desira baino.*
Demonstrazioa
Desira, gizakiaren esentzia bera da *(Afektuen 1. Def. arab.)*, hau da *(3. Zat. 7. Prop. arab.)* gizakiak, bere izanean irauteko eginahalean egiten duen ahalegina. Poztasunetik sortzen den Desira, bada, Poztasunaren afektuak berak laguntzen edo emendatzen du *(Poztasunaren Def. arab., 3. Zat., 11. Prop. Eskolioan ikus daitekeena)*; Tristuratik sortzen dena, aldiz, Tristuraren afektuak berak hertsatzen edo tipitzen du *(Eskol. beraren arab.)* eta, beraz, Poztasunetik sortzen den Desiraren indarra, gizakiaren ahalmenaren arabera definitu behar da eta, aldi berean, kanpoko kausaren ahalmenaren arabera; eta Tristuratik sortzen den afektuaren indarra, berriz, gizakiaren ahalmen soilaren arabera definitu behar da; eta, horrengatik, Desira hura indartsuagoa da, hau baino. H.B.D.B.
Eskolioa
Proposizio apur hauekin esplikatu ditut gizakiaren ezintasunaren eta aldakortasunaren kausak, eta zergatik gizakiek ez dituzten betetzen Arrazoiaren aginduak. Erakusteko gelditzen zait oraino, zer agintzen digun Arrazoiak, zein afektu dagozkien giza Arrazoiaren arauei, eta zein diren haien kontrakoak. Baina hori guztia gure ordena Geometriko zehatzaren arabera demonstratzen hasi baino lehen, Arrazoiaren agindu horiek laburki erakustea dagokit, lehenik, hemen, bakoitzak errazago uler dezan zer pentsatzen dudan.
Arrazoiak ez duenez geroz deus eskatzen Naturaren kontra, nork bere burua maita dezan eskatzen du berak; bakoitzari onuragarri zaiona zinez onuragarri zaiona bila dezan; eta, gizakia betegintzarre handiago batera egiazki daraman guztia gutizia dezan; eta, absolutuki mintzatuz, bat bedera, haren esku den neurrian, bere izana atxikitzen lehia dadin. Eta hau guztia hain da nahitaez egia, non egia baita ere handiago dela osoa bere zatia baino *(ikus 3. Zat. 4. Prop.).*
Bestalde, nola bertutea, *(8. Def. arab.)* bere izaera propioaren legeen arabera ihardutea baizik ez baita eta nola nehor ez baita bere izaera propioaren legeen arabera baizik bere izanaren atxikitzera bermatzen *(3. Zat., 7. Prop. arab.). H*ortik dator, *lehenbizikorik*, bere izan propioari atxikitzeko ahalegina bera dela bertutearen funtsa eta gizakiak bere izana atxiki ahal izatean datzala zoriona. *Bigarrenekorik* dator, bertutea, berarengatik gutiziatu behar dela eta bera baino hoberik edo guretzat onuragarriagorik deus ez dugula aurkituko, guraritzeko. *Hirugarrenekorik*, dator, beren buruaz beste egiten dutenak Izpiritu ezinduak direla eta haien izaera arbuiatzen duten kanpoko kausengatik garaituak direla.

Gainera, 2. Zat. 4. Postulatutik dator ez dakigukeela gerta geure izana atxikitzeko kanpoko deusen beharrik ez izatea eta gureganik kanpo diren gauzekin batere harremanik izan gabe bizitzea; eta, bestalde, geure Izpirituari begiratzen badiogu, egia da gure adimena eskasago litzatekeela Izpiritua bakarrik balego eta bere burua baizik uler ez baleza.

Badira, hortaz, gureganik kanpo onuragarri zaizkigun gauza anitz, horren berarengatik guraritu behar ditugunak. Eta, hauen artean, gure izaerarekin guztiz bat datozenak baino hoberik ez daiteke asma. Izan ere, bi gizabanako, adibidez izaera bereko bi gizabanako, elkartzen baldin badira, gizabanako bat osatzen dute, bakoitza baino bi aldiz ahaltsuagoa dena. Gizakiari ez zaio, hortaz, deus onuragarriagorik gizakia baino. Erran nahi dut, beren izana atxikitzeko, gizakiek gutizia dezaketen deus hoberik ez dela denak orotan bat etortzea baino, halako gisaz non denen Izpirituek eta Gorputzek Izpiritu bat bezala eta Gorputz bat osatzen baitute, denak batean, ahal bezainbatean, beren izana atxikitzera bermatzen baitira eta denek batera bilatzen baitute guztiek komunean baliagarri dutena; hortik dator, Arrazoiak gobernatzen dituen gizakiek, hots, Arrazoiaren gidaritzapean onuragarri zaiena bilatzen duten gizakiek ez dutela berentzat deus gutiziatzen beste gizakientzat desiratzen ez dutenik eta, horrengatik, dira zuzenak, zintzoak eta zuhurrak.

Hauek dira, bada, Arrazoiaren aginduak, hitz gutxitan erakutsi gogo nituenak, ordena zehatzago baten arabera demonstratzeari ekin baino lehen; eta hala egin badut, honengatik izan da, nereganatzeko xedea nuelako, ahal bezainbatean, hauxe bera pentsatzen dutenen arreta: hots, bakoitza berari onuragarri zaiona bilatzera behartua dela eta, printzipio hau ezmoraltasunaren eta ez bertutearen eta moraltasunaren oinarria dela uste dutenen arreta nereganatzea. Horrela, laburki erakutsi ondoan alderantziz dela, hori bera demonstratzera nator, orain arte egin dugun bide beretik.

XIX. Proposizioa

*Bakoitzak bere izaeraren legeen arabera, nahitaez, guraritzen du edo arbuiatzen ongi edo gaizki dela uste duena.*

Demonstrazioa

Ongiaren eta gaizkiaren ezagutza *(8. Prop. arab.)* Poztasunaren edo Tristuraren afektua bera da, horren kontziente garen bezainbatean; eta, beraz, *(3. Zat., 28. Prop. arab.)* bakoitzak, nahitaez, guraritzen du ongi dela uste duena eta, alderantziz, arbuiatzen gaizki dela uste duena. Baina gurari hau ez da gizakiaren esentzia edo izaera bera baizik *(Gurariaren Def. ikus 3. Zat. 9. Prop. Eskolioan eta Afektuen 1. Def. arab.)*. Beraz, bakoitzak bere izaeraren legeen arabera, nahitaez, guraritzen edo arbuiatzen due etab. H.B.D.B.

XX. Proposizioa

*Zenbat eta bakoitza onuragarri zaiona bilatzeko, hots, bere izana atxikitzeko gehiago lehiatzen baita eta gehiago ahalmen baitu, hainbat eta bertutetsuago izaten da; eta, alderantziz, bakoitza onuragarri zaionaz, hots, bere izana atxikitzeaz arduratzen ez den neurrian, hein horretan ezindua da.*

Demonstrazioa

Bertutea, gizakiaren ahalmena bera da, gizakiaren izaera soilaren arabera definitzen dena *(8. Def. arab.)*, hots, *(3. Zat. 7. Prop. arab.)* gizakiek bere izana atxikitzeko egiten duten ahalegin soilaren arabera definitzen dena. Beraz, zenbat eta bere izana atxikitzeko gehiago lehiatzen baita eta gehiago ahalmen baitu, hainbat eta bertutetsuago izaten da, eta, ondorioz, *(3. Zat. 4. eta 6. Prop. arab.)* norbait bere izana atxikitzeaz arduratzen ez den neurrian, hein horretan ezindua da. H.B.D.B.

Eskolioa

Nehork ez dio, beraz, onuragarri zaionari, hots, bere izana atxikitzeko gurariari uko egiten, non ez duten kanpoko eta bere izaeraren kontrako kausa batzuek garaitu. Erran nahi dut, nehork ez duela jatekorik arbuiatzen ez eta bere buruaz beste egiten bere izaeraren ezinbesteak beharturik, baina, bai, kanpoko kausa batzuek hertsaturik; anitz gisatara gerta baitaiteke hori, hala nola, batek bere burua hiltzen du beste norbaitek behartu duelako, ustekabetarik, ezpata bat zeukan eskua bihurtu baitio eta ezpata hura bere bihotzaren kontra bihurrarazi; beste batek, Senekak bezala, tirano baten aginduz bere zainak bortxaz irekitzen dituelako, hau da, gaitz handiago bat gaitz tipiago baten bidez saihestu nahian; beste batek, azkenik, kanpoko kausa gordeek haren irudimena hartaratzen dutelako eta haren Gorputza halako moldez hunkitzen, non aitzinekoari beste kontrako izaera bat ordezkatzen baitzaio, zeinaren ideia ez baita Izpirituan aurkitzen ahal *(3. Zat., 10. Prop. arab.).* Baina gizakia, bere izaeraren beharrez, berma dadin ez existitzera edo beste forma batera aldatzera lehiatzea, hori, deusezetik zerbait gertatzea bezain ezinezkoa da, nornahik ikus dezakeenez, apur bat hausnartuz geroz.

XXI. Proposizioa

*Nehork ez du zoriontsu izatea, ongi ihardutea eta ongi bizitzea desiratzen ahal, ez baldin badu, aldi berean, izatea, ihardutea eta bizitzea desiratzen, hots, ez badu aktuan existitzea desiratzen.*

Demonstrazioa

Proposizio honen demonstrazioa edo, hobeki, gauza bera, nabarmen da, bere baitarik, bai eta Desiraren definiziotik ere. Izan ere, *(Afekt.1. Def. arab.)* dohatsu edo ongi bizitzeko, iharduteko, etabarren Desira, gizakiaren esentzia bera da, hau da, *(3. Zat., 7. Prop. arab.)* bakoitzak bere izana atxikitzeko eginahalean egiten duen ahalegina. Beraz, nehork ez du zoriontsu izatea etab. H.B.D.B.

XXII. Proposizioa

*Neholako bertuterik ez daiteke ulertu, aipatu dugun horren aitzinetik (hots, nork bere izana atxikitzeko ahaleginaren aitzinetik).*

Demonstrazioa

Nork bere burua atxikitzeko ahalegina, gauza baten esentzia bera da *(3. Zat., 7. Prop. arab.)*. Hortaz, aipatu honen aitzinetik, hots, ahalegin honen aitzinetik beste bertute bat pentsa ahal baledi, orduan, *(8. Def. arab.)* gauzaren esentzia gauza bera baino lehen ulertuko litzateke eta hori *(berez nabarmen denez)* absurdua da. Beraz, neholako bertuterik ez daiteke... etab. H.B.D.B.

Korolarioa

Nork bere burua atxikitzeko ahalegina bertutearen oinarri lehen eta bakarra da. Printzipio hau baino lehen ez baitaiteke beste bihirik pentsa *(aitzin. Prop. arab.)* eta printzipio hori gabe *(21. Prop. arab.)* ez baitaiteke neholako bertuterik uler.

XXIII. Proposizioa

*Ez daiteke neholaz ere erran gizakiak bertutearen arabera iharduten duela, ideia ezegokiak izateagatik ihardutera determinatua den bezainbatean; baina, bai, soilik, zerbait ulertzeagatik determinatua den heinean.*

Demonstrazioa

Ideia ezegokiak izateagatik gizakia ihardutera determinatua den bezainbatean, hein horretan *(3. Zat. 1. Prop. arab.)* pairatu egiten du, hots, *(3. Zat., 1. eta 2. Definizioen arab.)* zerbait egiten du, haren esentzia soilaren bidez hauteman ez daitekeena, hau da, *(8. Def. arab.)* haren bertutetik ez datorrena. Baina ulertzeagatik zerbait egitera determinatua den bezainbatean, hein horretan, *(3. Zat., 1. Prop. arab.)* ihardun egiten du, hots, (*3. Zat. 2. Def. arab.)* zerbait egiten du, haren esentzia soilaren bidez hautematen dena, hots, *(8. Def. arab.)* haren bertutetik, egokiro, datorrena. H.B.D.B.

XXIV. Proposizioa

*Bertutearen arabera, absolutuki, ihardutea, gure baitan hauxe baizik ez da: Arrazoiaren gidaritzapean ihardutea, bizitzea, nork bere izana atxikitzea (hirurek gauza bera adierazten dute) bakoitzak onuragarri zaiona bilatzeko oinarriaren arabera.*

Demonstrazioa

Bertutearen arabera, absolutuki, ihardutea, hauxe baizik ez da, *(8. Def. arab.)*, nork bere izaera propioaren legeen arabera ihardutea. Baina, guk ez dugu iharduten ulertzen dugun heinean baizik, *(3. Zat., 3. Prop. arab.)*. Beraz, bertutearen arabera ihardutea, gure baitan hauxe baizik ez da: Arrazoiaren gidaritzapean ihardutea, bizitzea, nork bere izana atxikitzea, eta hau *(22. Prop. Korol. arab.)* norberari onuragarri zaiona bilatzeko oinarriaren arabera. H.B.D.B.

XXV. Proposizioa

*Nehor ez da beste gauza batengatik bere izana atxikitzera bermatzen.*

Demonstrazioa

Bere izanean irauteko, gauza bakoitzak eginahalean egiten duen ahalegina gauza horren esentzia soilaren arabera definitzen da *(3. Zat., 7. Prop. arab.)* eta esentzia soil hori emanez geroz, horretarik eta ez beste gauza baten esentziatik dator, nahitaez, *(3. Zat., 6. Prop. arab.)* bakoitza ahalegintzen dela bere izana atxikitzeko. Proposizio hau nabarmen da, gainera, Zati honetako 22. Proposizioaren Korolariotik. Ezen, beste gauza batengatik ahaleginduko balitz gizakia bere izana atxikitzeko, orduan, gauza hori litzateke bertutearen lehen oinarria *(berez nabarmen denez)* eta hori *(aipatu Korol. arab.)* absurdua da. Beraz, nehor ez da beste gauza batengatik... etab. H.B.D.B.

XXVI. Proposizioa

*Arrazoiaren arabera ahalegintzen garen guztia, ulertze bat baizik ez da; eta Izpirituak, Arrazoiaz baliatzen den aldetik, zerbait ulertzera daramana beste deusik ez du beretzat onuragarri hartzen.*

Demonstrazioa

Bere burua atxikitzeko ahalegina gauzaren beraren esentzia baizik ez da *(3. Zat., 7. Prop. arab.)* eta gauza hori, den bezala existitzen den aldetik, existitzen irauteko indarra duena bezala pentsatua da *(3. Zat. 6. Prop. arab.)* eta emana zaion izaeratik, nahitaez, datozen ekintzak egiteko indarra duena bezala *(ikus Gurariaren Def. 3. Zat., 9. Prop. Eskolioan).*

Arrazoiaren esentzia, ordea, gure Izpiritua baizik ez da, modu argi eta bereizian ulertzen duen aldetik *(ikus haren Def. 2. Zat., 40. Prop. Eskolioan)*. Beraz, *(2. Zat., 40. Prop. arab.)* Arrazoiaren arabera ahalegintzen garen guztia ulertze bat baizik ez da. Bestalde, nola Izpirituak, arrazoitzen duen aldetik, bere izana atxikitzeko egiten duen ahalegina ulertze bat baizik ez den *(Demonstrazio honen lehen partearen arab.)*, ondorioz, ulertzeko ahalegin hau *(22. Prop. Korol. arab.)* bertutearen oinarri lehen eta bakarra da eta ez gara edozein helbururengatik *(25. Prop. arab.)* gauzen ulertzera lehiatuko; Izpirituak, aitzitik, arrazoitzen duen aldetik, zerbait ulertzera daramana baizik ez du beretzat on bezala ulertzen ahalko *(1. Def. arab.)*. H.B.D.B.

XXVII. Proposizioa

*Deus ez da ongi edo gaizki dela segur dakigunik, zerbait ulertzera egiazki daramana edo zerbait ulertzea eragotz diezagukeena baizik.*

Demonstrazioa

Izpirituak, arrazoitzen duen aldetik, ulertzea besterik ez du gura eta zerbait ulertzera daramana baizik ez du beretzat onuragarri bezala ikusten *(aitzin. Prop. arab.)*. Baina, Izpirituak *(2. Zat., 41. eta 43. Prop. arab., azken honen Eskolioa ere barne)* ez du gauzei buruzko ziurtasunik ideia egokiak dituen heinean baizik, hots, *(gauza bera dena, 2. Zat., 4O. Prop. 2. Eskol. arab.)*, arrazoitzen duen neurrian baizik. Beraz, ez da deus

segur ongi dela dakigunik, zerbait ulertzera egiazki daramana baizik; eta, alderantziz, ez da deus gaizkirik, zerbait ulertzea eragotz diezagukeena baizik. H.B.D.B.

XXVIII. Proposizioa

*Izpirituaren ongi gorena Jainkoaren ezagutza da eta Izpirituaren bertute gorena Jainkoaren ezagutzea.*

Demonstrazioa

Izpirituak uler dezakeen objektu gorena Jainkoa da, hots, *(1. Zat., 6. Def. arab.)* Izate absolutuki mugagabea, eta Hura gabe *(1. Zat., 15. Prop. arab.)* ez da deus ez izaten ez ulertzen ahal; eta, ondorioz, *(26. eta 27. Prop.en arab.)* Izpirituaren onurarik gorena edo *(1. Def. arab.)* haren ongirik gorena Jainkoaren ezagutza da.

Bestalde, Izpirituak ulertzen duen bezainbatean, hein horretan soilik du iharduten *(3. Zat., 1. eta 3. Prop.en arab.)* eta hein berean bakarrik *(23. Prop. arab.)* erran daiteke absolutuki bertutearen arabera duela iharduten. Ezagutzea da, beraz, Izpirituaren bertute absolutua. Baina, Izpirituak uler dezakeen gorena Jainkoa da *(jadanik demonstratu dugun bezala)*, eta, beraz, Izpirituaren bertuterik gorena Jainkoa ulertzea edo ezagutzea da. H.B.D.B.

XXIX. Proposizioa

*Bere izaera gurearen guztiz ezberdina duen edozein gauza singularrek ezin du gure iharduteko ahalmena lagundu ez eta ere hertsatu, eta, absolutuki mintzatuz, edozein gauza ez da guretzat on edo txar izaten ahal zerbait komunik ez baldin badu gurekin.*

Demonstrazioa

Edozein gauza singularren eta, ondorioz, *(2. Zat., 10. Prop. Korol. arab.)* gizakiaren existitzeko eta iharduteko ahalmena ez du sekula beste gauza singular batek baizik determinatzen *(1. Zat., 28. Prop. arab.)*, eta honen izaera *(2. Zat., 6. Prop. arab.)* ulertu behar da, giza izaera ulertarazten duen atributu beraren bidez. Eta, beraz, gure iharduteko ahalmena, zeinahi modutan ulerturik ere, gurekin zerbait komunik baduen beste gauza singular baten ahalmenak determinatzen eta ondorioz laguntzen edo hertsatzen ahal du; ez ordea, bere izaera gurearen guztiz ezberdina duen gauza baten ahalmenak; eta nola on edo txar deitzen dugun Poztasunaren edo Tristuraren kausa dena *(8. Prop. arab.)*, hots, *(3. Zat., 11. Prop. Eskol. arab.)* gure iharduteko ahalmena handitzen edo tipitzen, laguntzen edo hertsatzen duena, ondorioz, bere izaera gurearen guztiz ezberdina duen gauza bat ez da guretzat ez ona ez txarra izaten ahal. H.B.D.B.

XXX. Proposizioa

*Edozein gauza ez da txarra izaten ahal gure izaerarekin zerbait komunik baduelako; baina guretzat txarra den neurrian gure kontrakoa da.*

Demonstrazioa

Txarra deitzen dugu Tristuraren kausa dena *(8. Prop. arab.)*, hots, *(Tristuraren Def. arab.; ikus 3. Zat., 11. Prop. Eskolioan)* gure iharduteko ahalmena tipitzen edo hertsatzen duena. Eta, beraz, gauza bat guretzat txarra balitz gurekin zerbait komunik baduelako, gurekin komun duena bera tipitzen edo hertsatzen ahal luke gauza horrek, eta hori *(3. Zat., 4. Prop. arab.)* absurdua da.

Edozein gauza, beraz, ez daiteke txarra izan guretzat gurekin zerbait komunik baduelako; aldiz, txarra den neurrian, hots, *(jadanik erakutsi dugunez)* gure iharduteko ahalmena tipitzen edo hertsatzen ahal duen neurrian *(3. Zat., 5. Prop. arab.)* gure kontrakoa da. H.B.D.B.

XXXI. Proposizioa

*Gauza bat, gure izaerarekin bat datorren neurrian, nahitaez ona da.*

Demonstrazioa

Izan ere, gauza bat, gure izaerarekin bat datorren neurrian *(aitzin. Prop. arab.)* ezin da txarra izan. Edo ona edo indiferentea izanen da, nahitaez. Demagun azken hau dela, erran nahi baita, ez dela ez ona ez txarra, orduan, *(1. Def. arab.)* gauza horren izaeratik ez da deus aterako gure izaera atxikiko duenik, hots, *(hipotesiaren arab.)* gauzaren beraren izaera atxikitzeko balioko duenik; baina hori absurdua da *(3. Zat., 6. Prop. arab.)*, eta, beraz, gure izaerarekin bat datorren neurrian, nahitaez ona izanen da. H.B.D.B.

Korolarioa
Hortik dator, bada, zenbat eta edozein gauza gure izaerarekin gehiago bat etortzen baita, hainbat eta guretzat onuragarriagoa edo hobea izatea eta, alderantziz, zenbat eta edozein gauza guretzat onuragarriago baita, hainbat eta gure izaerarekin batuagoa gertatzea. Zeren, gure izaerarekin bat ez datorren bezainbatean, gure izaeraren ezberdina edota kontrakoa izanen da, nahitaez.
Ezberdina baldin bada, orduan, *(29. Prop. arab.)* ezin izanen da ez ona ez txarra; eta kontrakoa baldin bada, gure izaerarekin bat datorren izaeraren kontrakoa ere izanen da, hau da, *(aitzin. Prop. arab.)* onaren kontrakoa, hots, txarra.
Honela, bada, deus ez daiteke ona izan non ez datorren bat gure izaerarekin, eta, beraz, zenbat eta gure izaerarekin gehiago bat baitator edozein gauza, hainbat eta onuragarriagoa da, eta alderantziz. H.B.D.B.
XXXII. Proposizioa
*Gizakiak pasioen menpe diren neurrian, ezin da erran beren izaerarekin bat datozela.*
Demonstrazioa
Beren izaerarekin gauzak bat datozela erratean, ahalmenean bat datozela ulertzen da *(3. Zat., 7. Prop. arab.)* baina ez ezintasunean edo ezeztapenean eta, ondorioz, *(ikus 3. Zat., 3. Prop. Eskolioa)* ez ere pasioan; horrenbestez, gizakiak, pasioen mende diren bezainbatean, ez daiteke erran beren izaerarekin bat datozela. H.B.D.B.
Eskolioa
Gauza hau, berez, nabarmen da; izan ere, erraten duenak zuria eta beltza bat datozela, soilki, ez bata ez bestea gorria ez izatean, absolutuki baieztatzen du zuria eta beltza ez datozela deusetan bat.
Nork ere erraten baitu, halaber, harria eta gizakia bat datozela, soilki, bata eta bestea mugatuak eta ezinduak izatean edo beren izaeraren beharrezkotasunagatik ez existitzean edo azkenik bata eta bestea kanpoko kausen ahalmenak mugarik gabe gainditzean, horrelakoak absolutuki baieztatzen du ere harria eta gizakia ez datozela deusetan bat; zeren, ezeztapenean baizik bat ez datozenak edo ez duten hartan baizik bat ez datozenak, ez datoz egiazki deusetan bat.
XXXIII. Proposizioa
*Gizakiak ez dira izaeran bat izaten ahal, pasioak diren afektuek josten dituzten bezainbatean, eta hein berean ere, gizaki bat eta bera aldakorra da eta egonezina.*
Demonstrazioa
Afektuen izaera edo esentzia ez daiteke gure esentziaren edo izaera soilaren bidez argitu *(3. Zat., 1. eta 2. Def. arab.)*; aldiz, kanpoko kausen ahalmena edo izaera gurearekin konparatuz behar da hura definitu *(3. Zat., 7. Prop. arab.)*; hortik dator hunkitzen gaituzten objektu mota bezainbat afektu mota bereizi badirela *(ikus 3. Zat., 56. Prop.);* eta objektu batek eta berak gisa askotan hunkitzen dituela gizakiak *(ikus 3. Zat., 51. Prop.);* eta, hauek, horrela, ez datozela bat izaeran; eta, azkenik, gizaki bat eta bera *(3. Zat., 51. Prop. ber. arab.)* modu ezberdinez hunkitua dela, objektu berari dagokionez; eta hein horretan aldakorra dela, etab. H.B.D.B.
XXXIV. Proposizioa
*Gizakiak, pasioak diren afektuek josten dituzten bezainbatean, elkarren kontrakoak izan daitezke.*
Demonstrazioa
Gizon bat, Petri, adibidez, Paulo Tristatzearen kausa izan daiteke, Paulok higuin duen gauza baten antzeko zerbait baduelako, *(3. Zat., 16. Prop. arab.)* edo Paulok ere maite duen zerbaiten jabe bakarra delako Petri *(ikus 3. Zat., 23. Prop. eta haren Eskolioa)* edo beste arrazoi batzuengatik *(ikus garrantzitsuenak 3. Zat. 55. Prop. Eskolioan);* eta, beraz, hortik gertatuko da *(Afektuen 7. Def. arab.)* Paulok Petri higuinduko duela eta,

ondorioz, errazki gertatuko da *(3. Zat., 40. Prop. arab.)* Petrik, ordainez, Paulo gorrotatzea eta, horrela, *(3. Zat., 39. Prop. arab.)* biak elkarri kalte egitera lehiatzea, erran nahi baita, *(30. Prop. arab.)* elkarren kontrakoak izatea.
Tristurazko afektua, bada, pasio bat da beti *(3. Zat., 59. Prop. arab.)* eta, beraz, gizakiak, pasioak diren afektuek josten dituzten bezainbatean, elkarren kontrakoak izan daitezke. H.B.D.B.
Eskolioa
Erran dut Paulok Petri gorrotatzen duela, irudikatzen duelako Petrik badaukala berak ere Paulok maite duena; badirudi hortik datorrela, lehen begiratuan, bi gizon horiek elkarri kalte egiten diotela, biek gauza bera maite dutelako eta, ondorioz, izaeran bat datozelako; eta, beraz, hori egia baldin bada, Zati honetako 30. eta 31. Proposizioak gezurrak lirateke.
Baina gauza balantza zuzenean aztertu nahi badugu, ikusiko dugu horiek guztiak osoki bat datozela elkarrekin. Bi gizonak ez baitzaizkio elkarri gogaikarri izaeran bat datozenez, hots, biek gauza bera maite duten bezainbatean, baina, bai, elkarren artean ados ez daudelako.
Biek gauza bera maite dutenez, bakoitzaren maitasuna faboratua da, horrenbestez, *(3. Zat., 31. Prop. arab.)*, erran nahi da, *(Afektuen 6. Def. arab.)* horrenbestez, bakoitzaren Poztasuna faboratua dela. Horrengatik, elkarri gogaikarri baldin bazaizkio, ez da, urrundik ere, gauza bera maite duten aldetik ez eta izaeran bat datozen bezainbatean. Eta horren kausa, erran dudan bezala, hau baizik ez da, izaeran bat ez datozela onartu izana.
Onartu dugu, alabaina, Petrik jadanik beretua duen gauza maitatuaren ideia duela eta Paulok, aldiz, galdua duen gauza maitatuaren ideia. Hortik dator hau Tristuraz hunkitua izatea eta hura, aldiz, Poztasunez; eta, neurri horretan, biak elkarren kontrakoak izatea. Eta gisa horretan, erakuts dezakegu, errazki, gorrotoaren beste kausa guztiak, gizakiak izaeran bat ez etortzearen menpe daudela soilik, eta ez bat etortzearen menpe.
XXXV. Proposizioa
*Gizakiak Arrazoiaren gidaritzapean bizi diren neurrian soilik etortzen dira nahitaez beti bat izaeran.*
Demonstrazioa
Pasioak diren afektuek josten dituzten neurrian, gizakiek izaera ezberdinak izan ditzakete *(33. Prop. arab.)* eta elkarren kontrakoak izan daitezke *(aitzin. Prop. arab.)*. Baina, Arrazoiaren gidaritzapean bizi diren neurrian soilik erraten da gizakiek iharduten dutela*(3. Zat. 3., Prop. arab.)* eta, beraz, Arrazoiaren arabera definitzen denez, giza izaeratik datorren guztia *(3. Zat., 2. Def. arab.)* giza izaera soil horren arabera ulertu behar da, bere kausa hurbilaren arabera bezala.
Baina bakoitzak, bere izaeraren legeen arabera, ona deritzana guraritzen duenez geroz, eta txarra deritzana urruntzera saiatzen denez geroz *(9. Prop. arab.)* eta nola, gainera, Arrazoiaren agindupean, ona edo txarra deritzaguna nahitaez ongi edo gaizki den *(2. Zat. 41. Prop. arab.)*, orduan, gizakiek Arrazoiaren gidaritzapean bizi diren neurrian soilik egiten dituzte nahitaez giza izaerarentzat eta, ondorioz, gizaki bakoitzarentzat nahitaez onak diren gauzak, erran nahi baita, *(31. Prop. Korol. arab.)* edozein gizakiren izaerarekin bat datozen gauzak. Eta, horrengatik, gizakiak ere nahitaez beti bat etortzen dira elkarrekin, Arrazoiaren gidaritzapean bizi diren bezainbatean. H.B.F.B.
I. Korolarioa
Ez da Naturaren baitan gizakiarentzat gauza singular onuragarriagorik, Arrazoiaren gidaritzapean bizi den gizakia baino. Zeren eta, gizakiarentzat onuragarriena dena,

haren izaerarekin gehienik bat datorrena baita *(31. Prop. Korol. arab.)* erran nahi baita, *(berez nabarmen denez)* gizakia dela.
Baina, gizaki batek, absolutuki errateko, bere izaeraren legeen arabera iharduten du Arrazoiaren gidaritzapean bizi delarik *(3. Zat., 2. Def. arab.)* eta neurri horretan bakarrik etortzen da bat, nahitaez, beti beste gizaki baten izaerarekin *(aitzin. Prop. arab.)*; eta, beraz, ez da gauza singularren artean gizakiarentzat, gizakia baino gauza onuragarriagorik, etab. H.B.F.B.
II. Korolarioa
Gizaki bakoitzak, gehienik, beretzat onuragarri dena bilatzen duenean, orduan dira onuragarrienak, elkarrentzat, gizakiak. Zeren, zenbat eta gehiago bilatzen baitu bakoitzak onuragarri zaiona, zenbat eta gehiago bere burua atxikitzera baita lehiatzen, hainbat eta bertutetsuago da *(20. Prop. arab.)* edo, berdin dena, *(8. Def. arab.)* hainbat eta handiago da norberaren ahalmena bere izaeraren legeen arabera iharduteko, erran nahi baita, *(3. Zat., 3. Prop. arab.)* Arrazoiaren gidaritzapean bizitzeko.
Baina Arrazoiaren gidaritzapean bizi direlarik, *(aitzin. Prop. arab.)*, orduan datoz gizakiak gehienik bat beren izaerarekin; eta, beraz, *(aitzin. Korol. arab.)* gizakiak elkarrentzat gehienik onuragarri izanen dira, beretzat gehienik onuragarri dena bilatuko duenean bakoitzak. H.B.D.B.
Eskolioa
Erakutsi berri duguna, esperientziak berak ere adierazten du, egunero, horrenbeste lekukotasun argigarriz non, kasik denen aho mihitan baitabil erran hau: gizakia gizakiarentzat Jainko.
Alta bada, ez zaie maiz gertatzen gizakiei Arrazoiaren gidaritzapean bizitzea; zeren, halako moldez eginak dira non gehienak bekaizti baitira eta elkarrentzat gogaikarri. Baina, bizkitartean, nekez iragan dezakete gehienek bizia, gizakia animalia soziala dela dioen definizioa guztiz atsegin izan gabe; eta, egia erran, gauzak halako gisaz eratuak dira non, kalte baino biziki gehiago abantaila sortzen baitzaie gizakien gizarte komunetik.
Irri egin dezatela, bada, Satirikoek nahi duten bezainbat, gizakien gauzez, eta Teologoek arbuia ditzatela gauza horiek, eta Malenkoniatsuek goraipa dezatela, ahal duten guztia, larreko bizitza landugabea, gizakiak mespreziatuz eta abereak miretsiz; gizakiek esperientziaz ikasiko dute, bizkitartean, elkar lagunduz dituztela eskuratuko biziki errazkiago eskas dituztenak eta beren indarrak batuz baizik ez dituztela nonahi mehatxatzen dituzten arriskuak saihesten ahalko; erran gabe doa, orain, biziki hobe dela eta gure ezagutzarentzat duinago, gizakien egitateak begiestea, abereenak baino. Baina beste nonbait mintzatuko gara horretaz zabalago.
XXXVI. Proposizioa
*Bertuteari jarraikitzen zaizkionen ongi gorena, denek dute komuna eta hura denek berdin goza dezakete.*
Demonstrazioa
Bertutearen arabera ihardutea, Arrazoiaren gidaritzapean ihardutea da *(24. Prop. arab.)* eta Arrazoiaren arabera egitera bermatzen garen guztia, ulertzea da *(26. Prop. arab.)* eta, beraz, *(28. Prop. arab.)*, bertuteari jarraikitzen zaizkionen ongi gorena, Jainkoa ezagutzea da, hots, *(2. Zat., 47. Prop. eta honen Korol. arab.)* gizaki guztiek komuna duten ongi bat, eta gizaki guztiek, izaera berekoak diren aldetik, berdin ukan dezaketena. H.B.D.B.
Eskolioa
Nehork galda baleza: Zer gertatuko litzateke bertuteari jarraikitzen zaizkionen ongi gorena ez balute denek komuna? Ez ote litzateke hortik etorriko, gorago zirudien bezala, *(ikus 34. Prop.)* Arrazoiaren gidaritzapean bizi diren gizakiak, hots, *(35.*

*Prop. arab.)* izaeran bat datozen heineko gizakiak elkarren kontrakoak izatea? Erantzun hau har beza horrek: Gizakiaren ongi gorena denek komuna badute, hori ez da ezusteko batetik sortzen, Arrazoiaren izaeratik beretik baizik, gizakiaren esentziatik beretik deduzitzen baita, esentzia hori Arrazoiaren arabera definitzen den aldetik, eta gizakia ez bailitzateke ez izaten ez ulertzen ahal, ongi goren horren gozatzeko ahalmenik ez balu. Zeren, *(2. Zat., 47. Prop. arab.)* giza Izpirituaren esentziari dagokio Jainkoaren betiereko eta mugagabeko esentziaren ezagutza egokia izatea.

XXXVII. Proposizioa

*Bertuteari jarraikitzen zaion gizaki bakoitzak beretzat guraritzen duen ongia beste gizakientzat ere gurarituko du, zenbat eta Jainkoaren ezagutza handiagoa izanen baitu, hainbat eta gehiago.*

Demonstrazioa

Gizakiak, Arrazoiaren gidaritzapean bizi direnez, gizakiarentzat onuragarrienak dira *(35. Prop. 1. Korol. arab.)* eta, beraz, *(19. Prop. arab.)* Arrazoiaren gidaritzapean lehiatuko gara, nahitaez, gizakiak Arrazoiaren gidaritzapean biziarazten. Baina, Arrazoiaren gidaritzapean bizi den gizaki bakoitzak, hots, *(24. Prop. arab.)* bertuteari jarraikitzen zaion gizaki bakoitzak beretzat guraritzen duen ongia, ulertzea da, *(26. Prop. arab.)*; eta, beraz, bertuteari jarraikitzen zaion gizaki bakoitzak beretzat desiratzen duen ongia, beste gizakientzat ere desiratuko du.

Bestalde, Desira, Izpirituari dagokion bezainbatean, Izpirituaren esentzia bera da *(Afekt. 1. Def. arab.)*; eta Izpirituaren esentzia ezagutzean datza *(2. Zat., 11. Prop. arab.)* Jainkoaren ezagutza barne hartzen duen ezagutzean, alegia, *(2. Zat.,47. Prop. arab.)*, zeina gabe, *(1. Zat., 15. Prop. arab.)* ez baita ez izaten ez ulertzen ahal ere. Eta, beraz, zenbat eta handiago den Izpirituaren esentziak barne hartzen duen Jainkoaren ezagutza, hainbat eta handiago izanen da ere da gizakiaren Desira, zeinaren bidez, bertuteari jarraikitzen zaion gizakiak besteentzat desiratuko baitu beretzat desiratzen duen ongia. H.B.D.B.

Bestela

Gizakiak maite duen eta beretzat guraritzen duen ongi bat, maitasun iraunkorragoaz maitatuko du, ikusten baldin badu beste batzuek hori bera maite dutela *(3. Zat., 3I. Prop. arab.)*; eta, beraz, *(Prop. ber. Korol. arab.)* lehiatuko da bestek ere hura maita dezaten; eta ongi hori, *(aitzin. Prop. arab.)* denek komuna dutenez geroz eta denek berdin goza dezaketenez geroz, ahaleginduko da, beraz, *(arrazoi berarengatik)* denek goza dezaten, eta *(3. Zat., 37. Prop. arab.)* zenbat eta gehiago gozatuko baitu berak delako ongi hori, hainbat eta gehiago haiek. H.B.D.B.

I. Eskolioa

Nor ere ahalegintzen baita, bere afektu hutsaren eraginez, besteek maita dezaten hark maite duena eta haren jitearen arabera bizi daitezen, hura oldar hutsez ari da eta, horregatik higuingarria da, batez ere beste gauza batzuk gustuko dituztenentzat eta, horren berarengatik lehiatzen ere direnentzat eta, oldar berez ahalegintzen direnentzat, besteak, alderantziz, bizi daitezen beren jite propioaren arabera.

Bestalde, nola gizakiek afektuaren eraginez desiratzen duten goreneko ongia gizaki bakar batek eduki dezakeen modukoa baita, maiz hortik dator maitaleak ez egotea lasai beren buruarekin eta, maite duten gauzaren laudorioak aipatzearekin bozkariatzen direlarik, sinetsiko dituzten beldur izatea. Baina, nor ere ahalegintzen baita besteak Arrazoiaren arabera gidatzen, hura ez da oldarrez ari, gizatasunez eta bihozberatasunez baizik, eta guztiz lasai dago bere buruarekin.

Gainera, Jainkoaren ideia dugun aldetik edo Jainkoa ezagutzen dugun aldetik, haren kausa garelako, desiratzen eta egiten dugun guztia, *Erlisioneari* lotzen diot. Eta

Arrazoiaren gidaritzapean bizitzeak gure baitan eragiten duen ongi egiteko Desira deitzen dut *Moraltasuna*. Gero, Arrazoiaren gidaritzapean bizi den gizakia adiskidetasunez besteei lotzeko hartzen duen Desira, *Zintzotasuna* deitzen dut; eta *Zintzoa* deritzat Arrazoiaren gidaritzapean bizi diren gizakiek goraipatzen dutenari; eta *Itsusia*, berriz, adiskidetasuna sortzearen kontra doanari.

Bestalde, egiazko bertutearen eta ezintasunaren arteko ezberdintasuna errazki hautematen da gorago erranarekin, hots, egiazko bertutea ez dela Arrazoiaren gidaritzapean bizitzea besterik; eta beraz, ezintasuna honetan bakarrik datza, gizakiak uzten duela bere burua kanpoan diren gauzek eramaten eta gauza horiek determinatzen dutela kanpoko gauzen egoera komunak eskatzen duena egitera eta ez bere izaera propioak, bere baitarik, eskatzen diona.

Horra, Zati honetako 18. Proposizioko Eskolioan demonstratzea agindua nuena. Hortik ageri da, abereak hiltzea debekatzen duen legea, alferreko sineskeria batean eta emazteen urrikalkeria batean oinarritzen dela, zentzuzko Arrazoian baino segurago. Zeren, onuragarri zaiguna bilatu behar dugula dioen arauak ongi erakusten du gizakiekin elkartzeko beharra, baina ez animaliekin edo giza izaeraz bestelako izaera duten gauzekin elkartzekoa; gauza horiek gure gain duten eskubide bera baitugu guk haien gain. Areago, norberaren eskubidea, norberaren bertutearen edo ahalmenaren arabera definitzen denez geroz, gizakiek biziki eskubide handiagoa daukate animalien gain, hauek gizakien gain dutena baino.

Ez dut ukatzen, bizkitartean, abereek sentitzen dutela, baina ukatzen dut horrek eragotz diezagukeela gure abantaila kontutan hartzea eta abereez gogo dugun bezala baliatzea eta hobekienik komeni zaigun bezala haiek tratatzea, ez baitatoz izaeran gurekin bat eta haien afektuak giza afektuez bestelakoak baitira izaeraz, *(ikus 3. Zat., 57. Prop. Eskolioa).* Azaltzeko gelditzen zait zer den zuzena, zer zuzengabea, zer bekatua eta zer, azkenik, meritua. Erakutsiko dut ere zer diren estatuaren oinarriak. Baina, horiei buruz, ikus ondoko Eskolioa.

II. Eskolioa

Lehen Zatiko Eranskinean hitz eman nuen esplikatzea zer den gorespena eta zer gaitzespena, zer meritua eta zer bekatua, zer zuzena eta zer zuzengabea. Gorespenari eta gaitzespenari dagokiona 3. Zatiko 29. Proposizioko Eskolioan azaldua dut; eta besteei dagokienez, orain dukegu mintzatzeko unea. Baina, lehenik, gizakiaren egoera naturalaz eta egoera zibilaz zerbait erran behar dugu.

Bakoitza Naturaren goreneko eskubidez existitzen da, eta, ondorioz, Naturaren goreneko eskubidez egiten du bakoitzak bere izaeraren beharrezkotasunetik datorrena; eta, beraz, Naturaren goreneko eskubidez erabakitzen du bakoitzak zer den ongi eta zer gaizki eta bere abantaila kontutan hartzen du, bere jite propioaren arabera, *(ikus Zat. hon. 19. eta 20. Prop.)* eta mendekatzen da *(ikus 3. Zat., 40. Prop. 2. Korol..)* eta ahalegintzen da, maite duena begiratzen eta higuintzen duena suntsitzen *(ikus 3. Zat., 28. Prop.).*

Gizakiak, bada, Arrazoiaren gidaritzapean bizi balira, bakoitzak bere eskubide hori edukiko luke, nehorentzat kalterik gabe *(35. Prop. 1. Korol. arab.).* Baina, *(6. Prop. arab.)* giza bertutea edo ahalmena errazki gainditzen duten afektuen menpe daudenez geroz *(4. Prop. Korol. arab.)* gizakiak alde orotara eramanak dira *(33. Prop. arab.)*, eta elkarren kontrakoak gertatzen dira, *(34. Prop. arab.)* elkarren laguntza beharretan litezkeelarik *(35. Prop. Eskol. arab.).*

Hortaz, gizakiak adostasunean bizi daitezen eta elkar lagunt dezaten, baitezpadako da beren eskubide naturalari uko egin diezaiotela eta elkarri hitzeman ez dutela deus eginen besteei kalte egin liokeenik. Nola hori gerta daitekeen, hots, gizakiek, afektuen mende daudelarik, nahitaez, *(4. Prop. Korol. arab.)* eta ezegonkorrak eta aldakorrak direlarik *(33. Prop. arab.)* nola elkarri bermerik eman diezaioketen eta elkarren baitan konfidantza izaten ahal

duten, hori nabari da Zati honetako 7. Proposizotik eta 3. Zatiko 39. Proposiziotik. Hor erraten dut, alabaina, neholako afekturik ez daitekeela hertsatu, non ez den hertsatu nahi den afektua baino indartsuagoa eta haren kontrakoa den afektu baten bitartez, eta gainera, bakoitza kalte handiago baten beldurrez begiratzen dela besteei kalte egitetik.

Lege horri esker, beraz, osatzen ahalko da *Gizarte* bat, baldin eta honek beretzat eskatzen badu bakoitzak mendekatzeko eta ongiaz eta gaizkiaz erabakitzeko duen eskubidea eta orobat, beraz, elkarbizitzako arau bat agintzeko eta legeak egiteko eta hauen, ez Arrazoiaren bidez honek ezin baititu afektuak hertsatu, *(17. Prop. Eskol. arab.)*, baizik eta mehatxu bidez, bermatzeko ahalmena baldin badu.

Gizarte hau, bada, zeina legeek eta bere iraupenerako botereak bermatzen baitute, *Estatua* deitzen da eta honen zuzenbideak zaintzen dituztenak *Hiritarrak* dira. Hortik errazki ulertzen dugu naturazko egoeran deusik ez dela, guztien aburuz, ongi edo gaizki denik, naturazko egoeran bakoitzak ez baitu bere interesa baizik kontutan hartzen eta bere jitearen arabera eta bere abantaila soilik arautzat izanez, norberak erabakitzen baitu zer den ona eta zer txarra eta, nehoren, bere buruaren baizik, sinestera, ez baitu nehongo legeak behartzen.

Eta, horrela, naturazko egoeran, ez daiteke bekaturik pentsatu ere, baina bai egoera Zibilean, non adostasun komunez erabakitzen baita zer den ona eta zer txarra eta non bakoitza behartua baita Estatuaren sinestera. Eta, beraz, *bekatua* ez da desobedientzia baizik eta, horrengatik Estatuko zuzenbide soilaren arabera zigortua da eta, alderantziz, obedientzia *meritu*tzat hartzen zaio Hiritarrari zeren eta, horrenbestez, Estatuko abantailez gozatzeko duin baitaukate.

Bestalde, naturazko egoeran nehor ez da, adostasun komunez, zerbaiten Jabe, eta ez da deusik aurkitzen Naturan norbaitena dela eta ez beste nehorena erran daitekeenik; baina hor denak denonak dira; eta, beraz, naturazko egoeran, ez da pentsatzen ahal, nori berea emateko, ez eta nori berea kentzeko, neholako borondaterik, erran nahi baita, naturazko egoeran ez dela deusik gertatzen *zuzen* edo *zuzengabe* dei daitekeenik, baina bai egoera zibilean, non adostasun komunez erabakitzen baita zer dagokion honi edo hari.

Hortik ageri da zuzena eta zuzengabea, bekatua eta meritua, kanpotikako adigaiak direla eta ez Izpirituaren izaera azaltzen duten atributuak. Baina, nahikoa erran dut horretaz.

XXXVIII. Proposizioa

*Zerk ere giza Gorputza modu anitzez hunkitua izatera egokitzen baitu edo kanpoko gorputzak modu anitzez hunkitzeko gai egiten, hura onuragarri zaio gizakiari, zenbat eta gehiago Gorputza gai egiten baitu modu anitzez hunkitua izateko edo beste gorputzak modu anitzez hunkitzeko, hainbat eta onuragarriago; kaltegarri zaio, aldiz, Gorputza hartarako gaitasun gutiagokoa egiten duena.*

Demonstrazioa

Zenbat eta gehiago gai egiten baita hartarako Gorputza, hainbat eta gehiago gai egiten da Izpiritua hautemateko, *(2. Zat., 14. Prop. arab.)*; eta, beraz, Gorputza modu honetara egokitzen eta gai egiten duena, nahitaez ona da edo onuragarria, *(26. eta 27. Prop. arab.)*; zenbat eta gehiago Gorputza gai egin baitezake hartarako, hainbat eta onuragarriago; eta, alderantziz, *(2. Zat., Prop. ber. arab., hau alderantzikaturik, eta Zat. hon. 26. eta 27. Prop. arab.)* gauza bat kaltegarria da, hartarako Gorputzaren gaitasuna tipitzen baldin badu. H.B.D.B.

XXXIX. Proposizioa

*Giza gorputzeko atalek elkarren artean duten mugimendu eta gelditasun erlazioa iraunarazten duen guztia ona da; eta txarra, berriz, giza Gorputzeko atalek beren artean duten mugimendu eta gelditasun erlazioa bestelakatzen duena.*

Demonstrazioa

Giza Gorputzak irauteko beste gorputz anitzen beharra badu, *(2. Zat., 4. Post. arab.).* Baina, giza Gorputzaren forma osatzen duena, haren atalek beren mugimenduak erlazio jakin baten arabera elkarri komunikatzean datza, hain zuzen ere, *(4. Lem. aitzin. Def. arab., hau 2. Zat., 13. Prop. ond. ikusi behar baita).* Beraz, Giza gorputzeko atalek elkarren artean duten mugimendu eta gelditasun erlazioa iraunarazten duenak, giza Gorputzaren forma bera iraunarazten du; eta, ondorioz, *(2. Zat., 3. eta 6. Post. arab.)* giza Gorputza modu anitzez hunkitua ahal izatea, eta berak kanpoko gorputzak modu anitzez hunki ahal izatea eragiten du; eta, beraz, *(aitzin. Prop. arab.),* hori ona da.

Gainera, giza Gorputzeko atalek beren artean duten mugimendu eta gelditasun erlazioa bestelakatzen ahal duenak, eragiten ere du, *(2. Zat., Def. ber. arab.),* giza Gorputzak beste forma bat jaunztea, erran nahi baita, *(berez nabarmen denez, eta Zati honetako Aitzin-solasaren amaieran ohartarazi dugun bezala),* giza Gorputza suntsitzea eragiten du, eta, ondorioz, modu anitzez hunkitua izateko guztiz ezgai izatea, eta, beraz, *(aitzin. Prop. arab.),* txarra da. H.B.D.B.

Eskolioa

Zein heinetaraino gauza hauek Izpirituari on edo kalte egiten dioten, bosgarren Zatian azalduko dugu. Baina, hemen ohartu behar da Gorputzaren heriotza, nik ulertzen dudanez, gertatzen dela, halako moldez non, haren atalak aldatzen baitira, beste mugimendu eta gelditasun erlazio batean sartzeko gisan, beren artean.

Ez naiz menturatzen, alabaina, ukatzera giza Gorputzak, haren odolaren zirkulazioak eta Gorputza gure ustez bizi delako marka batzuek iraun arren, bere izaera alda dezakeela, halere, beste izaera guztiz ezberdin batera. Zeren ez da neholako arrazoirik behartzen nauenik erabakitzera, hilotz denean baizik ez dela Gorputza hiltzen; izatekotan ere, esperientziak besterik uste izatera erakartzen gaituela iduri luke.

Batzuetan gerta daiteke gizon batek halako aldaketak jasatea non nekez erran baikenezake gizaki hura bera dela; hala nola, Espainiako poeta batez entzun nuen erraten, eri egon ondoan eta gaitz horretarik sendatu izanagatik, bere bizitza iragana hainbesteraino ahantzia zuela non ez baitzuen sinesten bereak zirela berak eginak zituen Alegiak eta Tragediak; eta, zinez, haur heldu batentzat har zitekeen, bere ama hizkuntza ere galdu izan balu.

Eta horrek sinestezina badirudi, zer erranen dugu haurrez? Hain baita hauen izaera, adineko gizon baten ustez, berearen ezberdina, non ez bailezake sinets bera ere behin haur izan zela, beste gizakiengatik ohartuko ez balitz zer gertatu zaiokeen berari. Baina sineskorrei beste galdera batzuentzat hizpide ez emateko, nahiago dut hau bere horretan utzi.

XL. Proposizioa

*Onuragarria da gizakiak Gizarte komunera eramaten dituena, hots, gizakiak adostasunean bizitzera erakartzen dituena; eta kaltegarria, aldiz, Estatuan ezadostasuna dakarrena.*

Demonstrazioa

Zeren, gizakiak adostasunean bizitzera erakartzen dituenak eragiten du, aldi berean, Arrazoiaren gidaritzapean bizi daitezen, *(35. Prop. arab.)* eta, beraz, *(26. eta 27. Prop. arab.)* hori onuragarria da; eta, horrela, *(arrazoi berarengatik)* kaltegarria da, aldiz, ezadostasunak pizten dituena. H.B.D.B.

XLI. Proposizioa

*Poztasuna ez da nehoiz, berez, txarra, ona baizik; Tristura, ordea, txarra da, berez.*

Demonstrazioa

Poztasuna *(3. Zat., 11. Prop. arab. eta bere Eskol.)* Gorputzaren iharduteko ahalmena handitzen edo laguntzen duen afektu bat da; eta Tristura, berriz, Gorputzaren iharduteko

ahalmena tipitzen edo murrizten duen afektu bat da; eta, beraz, *(38. Prop. arab.)* Poztasuna, berez, ona da, etab. H.B.D.B.

XLII. Proposizioa

*Alaitasuna ez daiteke gehiegizkoa izan, baina, beti ona da; Malenkonia, aldiz, beti txarra da.*

Demonstrazioa

Alaitasuna, *(ikus honen Def. 3. Zat., 11. Prop. Eskolioan)* Poztasun bat da, Gorputzari dagokionez, Gorputzeko alde guztiak berdin hunkituak izatean datzana, erran nahi baita, *(3. Zat., 11. Prop. arab.)* Gorputzaren iharduteko ahalmena halako moldez handitzen edo laguntzen dela, non haren atal guztiek mugimendu eta gelditasun erlazio bera gordetzen baitute; eta, horrela, *(39. Prop. arab.)* Alaitasuna beti ona da eta ez daiteke gehiegizkoa izan.

Malenkonia, aldiz, *(honen Def. ere ikus 3. Zat., 11. Prop. Eskol. berean)* Tristura bat da, Gorputzari dagokionez, Gorputzaren iharduteko ahalmena absolutuki tipitzean edo murriztean datzana; eta, horrela *(38. Prop. arab.)* Malenkonia beti txarra da. H.B.D.B.

XLIII. Proposizioa

*Kilika, gehiegizkoa eta txarra izan daiteke; Oinazea, aldiz, ona izan daiteke, Kilika edo Poztasuna txarra den bezainbatean.*

Demonstrazioa

Kilika, Poztasun bat da, Gorputzari dagokionez, honen parte bat edo batzuk, besteak baino gehiago hunkituak baitira *(ikus honen Def. 3. Zat., 11. Prop. Eskolioan)* eta afektu honen ahalmena hain handia izan daiteke, non Gorputzaren beste ekintza guztiak gainditzen baititu *(6. Prop. arab.)* eta hari finki lotzen baitzaio eta, horrela, eragozten baitu Gorputza beste anitz gisatara hunkitua izateko gai izan dadin; eta, beraz, *(38. Prop. arab.)* Kilika izan daiteke txarra.

Bestalde, Oinazea, zeina alderantziz Tristura bat baita, ez daiteke, bere baitan hartuz geroz, ona izan *(41. Prop. arab.).* Baina, haren indarra eta hazkundea kanpoko kausaren ahalmena gurearekin konparatuz definitzen baita *(5. Prop. arab.)* afektu honen indarren graduak eta moduak kontaezinezkoak izatea ulertzen ahal dugu

*(3. Prop. arab.)* eta, beraz, halako Oinaze bat uler dezakegu, zeinak Kilika hertsa baitezake gehiegizkoa ez izateko gisan eta, hein horretan, *(Prop. hon. lehen partearen arab.)* Gorputzaren gaitasuna ez tipitzeko moduan eta, beraz, hein horretan, ona izan daiteke Oinazea. H.B.D.B.

XLIV. Proposizioa

*Maitasuna eta Desira gehiegizkoak izan daitezke.*

Demonstrazioa

Kanpoko kausa baten ideiak lagun daraman Poztasuna da Maitasuna, *(Afekt. 6. Def. arab.)*; hortaz, kanpoko kausa baten ideiak lagun daraman Kilika, *(3. Zat., 11. Prop. Eskol. arab.),* Maitasuna da; eta, beraz, Maitasuna *(aitzin. Prop. arab.)* gehiegizkoa izan daiteke.

Bestalde, zenbat eta handiago baita hura sortzen duen afektua, hainbat eta handiago da Desira*(3. Zat., 37. Prop. arab.).* Eta, nola afektu batek *(6. Prop. arab.)* gizakiaren beste ekintza guztiak gaindi baititzake, hala afektu beretik sortzen den Desirak ere gainditzen ahalko ditu gainerako Desira guztiak eta, beraz, aitzineko Proposizioan erakutsi dugun bezala, Kilikak duen gehiegikeria bera izaten ahalko du. H.B.D.B.

Eskolioa

Alaitasuna, ona dela erran baitut, errazkiago ulertzen da, hautematen den baino. Zeren, egunero menperatzen gaituzten afektuak, Gorputzeko beste aldeak baino hunkituago den parte bati dagozkio eta, beraz, afektuak, gehiegizkoak dira gehienak eta objektu bakar baten kontenplatzen atxikitzen dute Izpiritua, hainbesteraino non ezin baitu beste objektuei pentsatu; eta, nahiz gizakiak afektu askoren menpe diren eta, beraz, gizaki guti den beti afektu bakar berak josten duenik, asko dira, bizkitartean, afektu bakar berak finki lotzen dituenak.

Zeren, ikusten ditugu batzuetan gizaki zenbait, objektu bakar batek halako gisaz hartuak, non objektua bera hor ez izanik ere uste baitute aitzinean daukatela, eta lo ez den gizon bati gertatzen zaionean horrelakorik, burutik joana edo erotua dela diogu; eta, are mentsago dauzkagu Maitasunak erretzen dituenak eta beren amorantearekin edo ohaidearekin gau eta egun ametsetan dihardutenak, barregura eragin ohi baitigute.

Zekena, aldiz, diruari eta probetxuari baizik pentsatzen ez duena, eta loriari baizik pentsatzen ez duena, eta besteak, horiek ez dugu uste burutik joanak direla, besteentzat aspergarri izan ohi baitira, eta gorrotagarri izatea merezi dutela daukagu. Baina, egia erran, Zekenkeria, Handinahia, Lizunkeria, etab. erokeria mota batzuk dira, nahiz ez diren eritasunen lerroan sartzen.

XLV. Proposizioa

*Gorrotoa, ez daiteke nehoiz ona izan.*

Demonstrazioa

Higuin dugun gizakia suntsitzera ahalegintzen gara *(3. Zat., 39. Prop. arab.)* erran nahi baita, *(37. Prop. arab.)* txarra den zerbaiten egitera bermatzen garela. Beraz, etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Ohar zaitez, hemen eta jarraian, Gorrotoa aipatzean, gizakienganako Gorrotoaz bakarrik mintzo naizela.

I. Korolarioa

Bekaizkeria, Iseka, Mesprezua, Hira, Mendekua, eta Gorrotoari dagozkion, edo hartarik sortzen diren beste afektu guztiak txarrak dira, eta hau argi ageri da 3. Zatiko 39. Proposiziotik eta Zati honetako 37. Proposiziotik.

II. Korolarioa

Gorrotoak hunkituak garelako gura dugun guztia itsusia da eta Estatuaren barnean zuzenkontrakoa. Hau ere argi ageri da, 3. Zatiko 39. Proposiziotik eta Zati honetako 37. Proposizioaren Eskolioko Itsusi-ren eta Zuzenkontrako-ren Definizioetarik.

Eskolioa

Isekaren, zeina txarra dela erran baitut 1. Korolarioan, eta Irriaren artean bereizketa handia egiten dut. Irria, Jolasa bezala, Poztasun hutsa baita, eta, beraz, gehiegizkoa ez bada, segurik, ona da berez, *(41. Prop. arab.).* Eta, sineskeria maltzur eta ilun batek baizik ez dezake plazer hartzea debeka. Zeren, nola daiteke hobe egarria eta gosea asetzea, Malenkonia ohiltzea baino?

Hau da ene pentsamoldea, eta hau hartua dut gogoan: Ez dela Jainkorik, ez beste nehor, bekaizti hutsa ez bada, ene ezinbesteaz eta nahigabeaz plazer har dezakeenik, ez eta gure malkoak, negar zotinak, beldurra eta beste horrelakoak gure Izpirituaren ezintasunaren seinale direnak bertutetzat har ditzakeenik. Baina, aitzitik, zenbat eta handiago den hunkitzen gaituen Poztasuna, hainbat eta handiago da erdiesten dugun betegintzarrea, hainbat eta gehiago parte hartu behar dugu ere Jainkoaren izaeran.

Honela, bada, gauzez baliatzea eta haiekin, ahal den neurrian, plazer hartzea, (ez goragalea izateraino, jakina, ez bailitzateke orduan plazer hartzerik), gizon zuhurrari dagokio. Erran nahi baita, gizon zuhurrari dagokiola, janari eta edari goxoak hartuz, izarian, bere burua indarberritzea eta suspertzea, eta orobat lurrinez, etxeko landareen

graziaz, apainduraz, musikaz, gorputza lantzeko jokoez, antzerkiez eta horrelako beste gauzez, nehori kalterik egin gabe balia daitezkeenez baliatzea.
Zeren, giza Gorputza izaera ezberdineko parte anitzek osatzen dute, eta hauek hazkurri berri eta ezberdinak behar dituzte beti, Gorputz osoa, bere izaeratik datorkeen guztiaren egiteko berdin gai izan dadin eta, ondorioz, Izpiritua ere, gauza batzuk batera ulertzeko berdin gai izan dadin.
Honela bada, bizi-arau hau biziki ongi dator bat ala gure printzipioekin ala ohiko praktika komunarekin; horregatik, hau dugu bizi-araurik hoberena eta gisa oroz gomendagarriena; eta ez da honetaz argiago eta zabalago ihardun beharrik.
XLVI. Proposizioa
*Arrazoiaren gidaritzapean bizi dena, ahal bezainbat lehiatzen da Maitasunez edo Bihotz-zabaltasunez ordaintzen norbaitek harentzat duen Gorrotoa, Hira, Mesprezua eta abar.*
Demonstrazioa
Gorrotozko afektu guztiak txarrak dira *(aitzin. Prop. 1. Korol. arab.);* eta, beraz, Arrazoiaren gidaritzapean bizi dena, ahal bezainbat ahaleginduko da Gorrotozko afektuak hartaz jabe ez daitezen, *(19. Prop. arab.)* eta, ondorioz, *(37. Prop. arab.)* ahaleginduko da beste nehork jasan ez ditzan afektu horiek. Baina, Gorroto ordainak Gorrotoa handitzen du eta Maitasunak, aldiz, suntsi dezake *(3. Zat., 43. Prop. arab.)*, Gorrotoa, Maitasun bilakatzeko gisan, *(3. Zat., 44. Prop. arab.).*
Arrazoiaren gidaritzapean bizi dena, beraz, lehiatuko da Maitasunez, hau da, Bihotz-zabaltasunez *(ikus Def. 3. Zat., 59. Prop. Eskol.)* ordaintzen besteen Gorrotoa, etab. H.B.D.B.
Eskolioa
Irainak Gorroto ordainez mendekatu nahi dituena dohakabe bizi da ezpairik gabe. Gorrotoa Maitasunez garaitzera lehiatzen dena, ordea, Pozik eta segurki gudukatzen da, eta berdin errazki buru egiten die gizon saldo bati ala bakar bat, eta ez du batere zortearen laguntza beharrik. Eta garaitzen dituenek ere pozik amore ematen diote, zeren ez baitute galtzen indar eskasez, beren indartzeagatik baizik; horiek guztiak hain argi datoz Maitasunaren eta Adimenaren definizioetarik, non ez baita bakoitzaren, bederazka, demonstratzearen beharrik.
XLVII. Proposizioa
*Itxaropenezko eta Beldurrezko afektuak ez daitezke, berez, onak izan.*
Demonstrazioa
Itxaropenezko edo Beldurrrezko afekturik ez da Tristurarik gabe. Beldurra *(Afekt. 13. Def. arab.)* Tristura mota bat baita eta Itxaropena *(ikus Afekt. 12. eta 13. Def. Azalp.)* ez baita nehoiz beldurrik gabe aurkitzen; beraz, *(41. Prop. arab.)* afektu hauek ez daitezke berez onak izan, baina, bai, soilik, gehiegizko Poztasun bat hertsa dezaketen bezainbatean,*(43. Prop. arab.).* H.B.D.B.
Eskolioa
Honi eransten zaio, afektu hauek ezagutza eskas bat eta Izpirituaren ezintasun bat adierazten dutela; eta honengatik ere Segurantza, Etsipena, Bozkarioa eta Kontzientziako ausikia Izpiritu ezindu baten adierazle dira. Zeren, Segurantza eta Bozkarioa Poztasunezko afektuak izanagatik, suposatzen dute, bizkitartean, aitzinetik Tristura zerbait izan badutela, hots, Itxaropena edo Beldurra.
Eta, horrela, zenbat eta gehiago Arrazoiaren gidaritzapean bizitzera bermatzen garen, hainbat eta gehiago lehiatuko gara Itxaropenaren mende ez izaten, beldurretik askatzen, zorteari ahal bezainbatean nagusitzen eta gure ekintzak Arrazoiaren aholku ziurraren arabera zuzentzen.
XLVIII. Proposizioa

*Handiespenezko eta Gutiespenezko afektuak txarrak dira beti.*
Demonstrazioa
Izan ere, afektu hauek *(Afekt. 21. eta 22. Def. arab.)* Arrazoiak higuin ditu; eta, beraz, *(26. eta 27. Prop.)* txarrak dira. H.B.D.B.
XLIX. Proposizioa
*Handiespenak hantustetsu egiten du, errazki, handietsia den gizona.*
Demonstrazioa
Ikusten badugu norbaitek, maitasunez, balioesten gaituela zuzen den baino gehiago, erraz loriatuko gara *(3. Zat., 41. Prop. Eskol. arab.)*, hots, Poztasunez hunkiak izanen gara *(Afekt. 30. Def. arab.)* eta sinetsiko dugu, errazki, gutaz erraten omen duten on guztia *(3. Zat., 25. Prop. arab.)* eta, beraz, zuzen den baino gehiago gure burua balioetsiko dugu, geurekiko maitasunarengatik; erran nahi baita *(Afekt. 28. Def. arab.)* hantustetsuak izanen garela, errazki. H.B.D.B.
L. Proposizioa
*Arrazoiaren gidaritzapean bizi den gizakiaren baitan, Gupida, berez, txarra da eta alferrikakoa.*
Demonstrazioa
Gupida, alabaina, *(Afekt. 18. Def. arab.)*, Tristura bat da eta, beraz, *(41. Prop. arab.)* txarra da, berez; Gupidatik datorren onari dagokionez, ordea, Gupida dugun gizona bere zoritxarretik askatzera lehiatzen garelarik *(3. Zat., 27. Prop. 3. Korol. arab.)* Arrazoiaren agindu soilez dugu desiratzen egitea, *(37. Prop. arab.)* eta, Arrazoiaren agindu soilez ez dezakegu egin segur ona dela dakigun zerbait baizik, *(27. Prop. arab.)*; eta, beraz, Arrazoiaren gidaritzapean bizi den gizakiaren baitan, Gupida, berez, txarra da eta alferrikakoa. H.B.D.B.
Korolarioa
Hortik dator Arrazoiaren gidaritzapean bizi den gizakia lehiatzen dela, ahal bezainbatean, Gupidak ez dezan hunki.
Eskolioa
Nork ere zuzen jakinen baitu gauza guztiak Jainko izaeraren beharrezkotasunetik datozela, eta Naturaren betiereko legeen eta arauen arabera gertatzen direla, ez du hark, zinez, deusik aurkituko Gorroto, Iseka edo Mesprezu izateko on denik eta ez du, ere, nehor Gupida izanen baina, giza bertuteari zilegi zaion neurrian, *ongia egiten* erran ohi den bezala eta orobat, pozik egoten ahaleginduko da.
Horri eransten zaio, Gupidazko afektuak erraz hunkitzen duenak eta besteen zoritxarrak eta malkoek hunkitzen dutenak maiz egiten duela gero damutzen zaion zerbait; zeren eta, alde batetik ez baitugu afektu batengatik deusik egiten, ona dela segur ez dakigunik, eta bestaldetik negar faltsuek erraz engainatzen baikaituzte.
Eta hemen Arrazoiaren gidaritzapean bizi den gizakiaz mintzo naiz, espreski. Zeren, besteei laguntza ematera ez Arrazoiak ez Gupidak erakartzen ez duena, zuzenez hura deitzen da *aberea*.; ez baitirudi *(3. Zat., 27. Prop. arab.)* halakoak gizaki itxurarik ere baduenik.
LI. Proposizioa
Begikotasuna ez du Arrazoiak arbuiatzen, baina harekin bat etortzen, eta hartarik sortzen ere ahal da.
Demonstrazioa
Begikotasuna, alabaina, besteei on egiten dienaren aldeko Maitasuna da, *(Afekt.19. Def. arab.)*, eta, beraz, Izpirituari dagokioke, honek diharduela erraten denez, *(3. Zat., 59. Prop. arab.)* erran nahi baita,*(3. Zat., 3. Prop. arab.)* ulertzen duen aldetik eta, ondorioz, bat dator Arrazoiarekin, etab. H.B.D.B.
Bestela

Arrazoiaren gidaritzapean bizi denak besteentzat ere desiratzen du beretzat gura duen ona *(37. Prop. arab.),* horregatik, norbaitek besteei on egiten diola ikustean, haren on egiteko ahalegin propioa lagundua da, hots, *(3. Zat., 11. Prop. Eskol. arab.)* pozik izanen da, eta hau *(hipotesiaren arab.)* besteei on egiten dionaren ideiak lagun daramala, eta, ondorioz, *(Afekt. 19. Def.)* begiko izanen zaio. H.B.D.B.

Eskolioa

Haserrea, definitu dugun bezala *(ikus Afekt. 2O. Def.)* nahitaez txarra da, *(45. Prop. arab.)* baina, ohartu behar da botere nagusiak, bakea zaintzeko xedetan, beste hiritar bati bidegabekeria bat egin dion hiritar bat zigortzen duenean, ez dudala erraten agintaria haserretzen dela hiritar horrekin, zeren eta zigortzen baldin badu, ez da, hiritarra galarazteko gorrotoak sustaturik, moraltasunak beharturik baizik.

LII. Proposizioa

Norberak bere buruarekin atsegina sentitzea sor daiteke Arrazoitik, eta Arrazoitik, soilik, sortzen den atsegina da izan daitekeen handiena.

Demonstrazioa

Norberak bere buruarekin sentitzea da, gizakiak bere burua eta bere iharduteko ahalmena kontenplatzetik sortzen den Poztasuna *(Afekt. 25. Def. arab.).* Baina, gizakiaren egiazko iharduteko ahalmena edo haren bertutea Arrazoia bera da *(3. Zat. 3., Prop. arab.),* hau gizakiak, argi eta bereiziki, kontenplatzen duenez *(2. Zat., 40. eta 43. Prop. arab.).* Beraz, Norberak bere buruarekin atsegina sentitzea Arrazoitik sortzen da.

Bestalde, gizakiak bere burua kontenplatzen duenean, ez da deusik, argi eta bereiziki, hots, egokiro, hautematen duenik, haren iharduteko ahalmenetik datorrena baizik, *(3. Zat., 2. Def. arab.)* erran nahi da, *(3. Zat., 3. Prop. arab.)* haren ulertzeko ahalmenetik datorrena; eta, beraz, kontenplatze honetatik, soilik, sortzen da, izan daitekeen atseginik handiena. H.B.D.B.

Eskolioa

Egia erran, Norberak bere buruarekin atsegin sentitzea da itxaron dezakegun ontasunik handiena. Zeren, *(25. Proposizioan erakutsi dugun bezala)* nehor ez da bere izana atxikitzeko ahalegintzen edozein helbururengatik; eta nola goresmenek atsegin hau gero eta gehiago hazten eta sendotzen duten *(3. Zat., 53. Prop. arab.)* eta, alderantziz, *(3. Zat., 55. Prop. Korol. arab.)* gaitzespenek gero eta gehiago nahasten, horrengatik ospeak gaitu gehienik gidatzen eta laidoa dugu nekez jasaten.

LIII. Proposizioa

*Umiltasuna ez da bertute bat, hots, ez da Arrazoitik sortzen.*

Demonstrazioa

Umiltasuna, Tristura mota bat da, gizakiak bere ezintasuna kontenplatzetik sortzen dena, *(Afekt. 26. Def. arab.).* Baina gizakiak, egiazko Arrazoiaren arabera bere burua ezagutzen duen bezainbatean, bere esentzia ulertzen duela onartzen da, erran nahi baita, *(3. Zat., 7. Prop. arab.).*

Horregatik, gizakiak bere burua kontenplatzean, ezintasun bat hautematen badu bere baitan, hori ez dator bere burua ulertzetik, baizik eta *(3. Zat., 55. Proposizioan erakutsi dugun bezala),* haren iharduteko ahalmena hertsatua izatetik. Onartzen badugu, ordea, gizakiak bere ezintasuna ulertzen duela, bera baino ahaltsuago den zerbait ezagutzetik, eta ezagutza horrekin bere iharduteko ahalmena mugatzen duela, orduan, hauxe baizik ez dugu ulertzen, hots, gizaki horrek bere burua bereiziki ezagutzen duela edo *(26. Prop. arabera)* bere iharduteko ahalmena lagundua dela.

Horra zergatik, Umiltasuna, edo, gizakiak bere ezintasuna kontenplatzetik sortzen den Tristura, ez den egiazko kontenplatzetik edo Arrazoitik sortzen, eta ez den bertute bat, pasio bat baizik. H.B.D.B.

LIV. Proposizioa

*Damua ez da bertute bat, hots, ez da Arrazoitik sortzen; baina, nork ere egin duena damu baitu, hura dohakabea da edo ezindua, bi aldiz.*

Demonstrazioa

Proposizio honen lehen partea aitzineko Proposizioa bezala demonstratzen da. Eta bigarren partea argi ageri da afektu honen Definizio soiletik, *(ikus Afekt. 27. Def.)*. Zeren, lehenik Desira gaizto bat pairatzen duzu eta gero Tristurak garaitzen zaitu.

Eskolioa

Gizakiak, Arrazoiaren gidaritzapean nekez bizi direnez geroz, bi afektu horiek, hots, Umiltasunak eta Damuak eta, orobat, Itxaropenak eta Beldurrak, kalte baino onura gehiago egiten diete; eta, beraz, bekatu eginen dutenez geroz, alde horretarik bekatu egitea hobe dute. Zeren, gizaki Izpirituz ezinduak, denak berdin hantustetsu balira, deusen ahalkerik ez balute ez deusen beldurrik, zein lokarriz elkarturik eta loturik atxikitzen ahal litezke? Jendea izugarria da beldurrik ez duenean; ez da, beraz, harritzekoa profetek, ez guti batzuen baina herri osoaren onuraz arduraturik, gomendatzea Umiltasuna, Damua eta Begirunea. Eta, egia erran, afektu hauen mende daudenak biziki errazkiago eraman daitezke, azkenean, Arrazoiaren gidaritzapean bizitzera, erran nahi da, libre izatera eta dohatsuen biziaz gozatzera.

LV. Proposizioa

*Norberaren Hantusterik edo Apaltasunik handiena, norberaren ezjakintasunik handiena da.*

Demonstrazioa

Nabari da, Afektuen 28. eta 29. Definizioetarik.

LVI. Proposizioa

*Hantusterik edo Apaltasunik handienak, Izpirituaren ezintasunik handiena adierazten du.*

Demonstrazioa

Bertutearen lehen oinarria, nork bere izana atxikitzea da *(22. Prop. Korol. arab.)* eta hau Arrazoiaren gidaritzapean, *(24. Prop. arab.).* Hortaz, bere burua ezagutzen ez duenak bertute guztien oinarria ere ez du ezagutzen eta, ondorioz, bertuteak ez ditu batere ezagutzen.

Bestalde, bertutearen arabera ihardutea Arrazoiaren gidaritzapean ihardutea baizik ez da, *(24. Prop. arab.)* eta, Arrazoiaren gidaritzapean iharduten duenak jakin behar du, nahitaez, Arrazoiaren gidaritzapean iharduten duela, *(2. Zat., 43. Prop. arab.)*. Eta, beraz, nork ere baitu bere burua gutienik ezagutzen eta, ondorioz, baititu ere *(jada erakutsi dugun bezala)* gutienik ezagutzen bertuteak, hark du gutienik ihardukitzen bertutearen arabera, hots, *(8. Definiziotik argi ageri denez)* haren Izpiritua guztiz ezindua da; eta, horrela, *(aitzin. Prop. arab.)* Hantusterik edo Apaltasunik handienak Izpirituaren ezintasunik handiena adierazten du. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik, guztiz argi dator Hantustetsuak eta Etsituak afektuen menpe daudela osoki.

Eskolioa

Apaltasuna, haatik, errazago zuzen daiteke Hantustea baino, hau Poztasunezko afektu bat baita eta hura, berriz, Tristurazko afektu bat; eta, horrengatik, *(18. Prop. arab.)* Hantustea indartsuagoa da.

LVII. Proposizioa

*Hantustetsuak bizkarkinen edo lausengarien presentzia maite du, baina bihozdunena higuin du.*

Demonstrazioa

Hantustea da, gizakiak bere burua zuzen den baino gehiago balioestetik sortzen den Poztasuna *(Afekt. 28. eta 6. Def. arab.)* eta hantustetsua lehiatuko da, ahal bezainbat,

iritzi horren bazkatzen *(ikus 3. Zat., 13. Prop. Eskol.)* eta, horrengatik, bizkarkinen edo lausengarien *(hauek definitu gabe utzi ditut, aski ezagunak direlako)* presentzia maitatuko du, baina, bere neurrian zuzen balioesten duten bihoztunen presentziatik ihes eginen du. H.B.D.B.

Eskolioa

Luze joko luke hemen Hantustearen gaitz guztien lerrokatzeak, hantustetsuak gaitz guztien menpe baitaude; baina Maitasunezko eta Gupidazko afektuen gutiago beste edozein afekturen baino. Ez dugu, ordea, ahantzi behar hantustetsu deitzen dela ere besteak zuzen den baino gutiago balioesten dituena, eta, beraz, zentzu honetan, honela definitu behar da Hantustea, hots, besteak baino gehiago dela gizaki bati sinestarazten dion iritzi okerretik sortzen den Poztasuna bezala. Eta, Hantuste horren kontrako Apaltasuna honela definitu beharko litzateke, hots, besteak baino gutiago dela gizaki bati sinetsarazten dion iritzi okerretik sortzen den Tristura bezala. Eta hau finkatuz geroz, ulertzen dugu, errazki, hantustetsua, nahitaez, bekaiztia dela, *(ikus 3. Zat., 55. Prop. Eskol.)* eta higuin dituela, oroz gainetik, beren bertuteengatik gehienik goraipatzen direnak; eta, haienganako haren Gorrotoa ez dela Maitasunaren edo Ongieginaren bidez, errazki, garaitzen, *(ikus 3. Zat., 41. Prop. Eskol.)* eta, haren Izpiritu ezinduari amen egiten diotenen, eta hura den ergela, ero egiten dutenen presentzian baizik, ez duela berak atseginik hartzen.

Nahiz Apaltasuna Hantustearen kontrakoa den, hantustetsuarenganik biziki hurbil dabil bere burua apalesten duena. Zeren eta, Apalustearen Tristura sortzen baita haren ezintasuna besteen ahalmenari edo bertuteei konparatzetik, haren Tristura eztituko da, hots, bera poztuko da, besteen bizioen kontenplatzeari irudimena lotzen bazaio; eta hortik dator erran zahar hau: *Dohakabeak soleitzen, lagunen minak*.

Baina, alderantziz, zenbat eta gehiago usteko baitu besteen atzetik dela, hainbat eta areago tristatuko da; hortik dator nehor ez izatea Bekaizkeriari isuriagorik, beren burua apalesten dutenak baino, eta hauek ahalegintzen dira, oroz gainetik, besteen ekintzak zelatatatzen, haien zuzentzeko baino gehiago, haien atzemateko, eta, azken finean, beren Apaltasuna baizik ez dute ederresten, eta hartaz dira loriatzen; baina, bizkitartean, beren burua apalesten dutela agertzeko gisan.

Eta hau guztia, hala dator, nahitaez, afektu honetatik, nola baitator, baitezpada, triangeluaren izaeratik, hiru angeluak berdin bi angelu izatea. Eta, errana dut, jadanik, afektu horiek eta horien antzekoak, txarrak deitzen ditudala, gizakiaren onura soila kontutan hartzen dudan aldetik. Baina, Naturaren legeak gizakia parte den Naturaren ordena komunari dagozkio; eta hau, bidenabar, ohartarazi nahi izan dut, nehork ez dezan uste izan gizakien bizioak eta egitate zentzugabeak kontatu nahi izan ditudala hemen, baina ez gauzen izaera eta propietateak demonstratu.

Zeren, hirugarren Zatiko Aitzinsolasean erran dudan bezala, giza afektuak eta hauen propietateak, beste izaki naturalak bezala hartzen ditut. Eta, segur, giza afektuek, gizakiarenak ezpada, Naturaren indarrak eta artezia ez dituzte gutiago adierazten, miresten eta atseginez kontenplatzen ditugun beste anitz gauzarenak baino. Baina, aitzina eginen dut afektuekin, zer onura eta zer kalte dakarten gizakientzat, ohartaraziz.

LVIII. Proposizioa

Loriak ez dio higuin ematen Arrazoiari, baina, hartarik sor daiteke.

Demonstrazioa

Argi ageri da Afektuen 30. Definiziotik eta, orobat, 37. Proposizioko 1. Eskolioan ikusiko den Zintzo-ren Definiziotik.

Eskolioa

Harrokeria deitzen dena, jende arruntaren iritziak, soilik, bazkatzen duen norberarekiko atsegin mota bat da; iritzi hori galtzen bada, atsegin hura ere galtzen da, erran nahi baita, *(52. Prop. Eskol. arab.)* guztiek maite duten goreneko ongi

hura; hortik dator, jende arruntaren iritziaz loriatzen dena, egunero, beldurrak aztoraturik, bere omen onaren zaintzeko lehiatzen dela, bermatzen eta ahalegintzen. Zeren eta, jende xehea aldakorra baita, eta ezegonkorra, eta, beraz, zaintzen ez den omena berehala galtzen baita. Areago oraino, guztiek desiratzen baitute herriaren txaloak berenganatzea, bakoitzak bestearen omena apaltzen du errazki; eta hortik sortzen da ustezko ongia gorenaren alde borrokatzen denez geroz edozein gisaz elkar lehertzeko irrits ikaragarria, eta, azkenean, garaile ateratzen dena, gehiago loriatzen da, besteei egin kaltearengatik, bere buruari egin mesedearengatik baino. Loria hau edo atsegin hau, bada, zinez hutsala da, deus ez baita.

Ahalkeari buruz erran beharrekoak eratortzen dira, errazki, Gupidaz eta Damuaz erranetarik. Hauxe gaineratzen dut soilik: Gupida bezala, Ahalkea ere, bertutea ez izanagatik, ona da halere, Ahalkeak hartu gizakiarengan zintzoki bizitzeko desira bat adierazten duelako; oinazea ere ona den bezala, mindutako partea oraino ez dela usteldua adierazten duen bezainbatean; horregatik, egin duen gauza baten ahalke den gizona triste bada ere, izatez beteginagoa da, lotsagabea baino, honek ez baitu zintzoki bizitzeko neholako desirarik.

Eta, hauek dira, bada, Poztasunezko eta Tristurazko afektuei buruz egin gogo nituen oharrak. Desirei buruz den bezainbatean, onak edo txarrak dira, afektu onetarik edo gaiztoetarik sortzen diren arabera. Baina, guztiak, egia erran, itsuak dira, pasioak diren afektuek gure baitan sortzen dituzten bezainbatean *(44. Prop. Eskolioan erran dugunetik,*

*erraz, ageri den bezala)* eta ez lukete deus balioko, gizakiak, Arrazoiaren agindu soilaren arabera, errazki, biziarazten ahal balira, labur erakutsiko dudan bezala.

LIX. Proposizioa

Pasio bat den afektu batek determinatzen gaituen ekintza guztietara, hura gabe, determina gaitzake Arrazoiak berak.

Demonstrazioa

Arrazoiaren arabera ihardutea, hau baizik ez da *(3. Zat., 3. Prop. eta 2. Def. arab.)* gure izaeraren ezinbestekotasunetik bere baitan soilik harturik datozen ekintzak egitea. Baina, Tristura txarra da iharduteko ahalmen hori tipitzen edo hertsatzen duen neurrian, *(41. Prop. arab.)*; beraz, afektu honek ez gaitzake determina, Arrazoiak gidatuz geroz, egin ez genezakeen neholako ekintzatara.

Bestalde, Poztasuna txarra da iharduteko gai izatetik gizakia eragozten duen bezainbatean *(41. eta 43. Prop. arab.)* eta, beraz, Poztasunak ere ez gaitzake determina, Arrazoiak gidatuz geroz, egin ez genezakeen neholako ekintzatara. Azkenik, Poztasuna, ona den aldetik, bat dator Arrazoiarekin (giza iharduteko ahalmenaren handitzean edo laguntzean baitatza) eta ez da pasio bat izaten, non ez duen gizakiaren iharduteko ahalmena aski handitzen, bere burua eta bere ekintzak, egoki, ulertzeko, *(3. Zat., 3. Prop. arab. eta honen Eskol.)*.

Horregatik, Poztasunak hunki gizaki bat, bere burua eta bere ekintzak egokiro ulertzeko betegintzarrera eramana balitz, pasioak diren afektuek orain determinatzen duten ekintza horietarako gai litzateke, eta gehiago gai ere. Baina, afektu guztiak, Poztasunari, Tristurari edo Desirari dagozkio, *(ikus Afekt. 4. Def. azalp.)* eta Desira *(Afekt. 1. Def. arab.)* iharduteko ahalegina bera baizik ez da; beraz, pasio bat den afektu batek determinatzen gaituen ekintza guztietara, hura gabe, Arrazoi soilak ere eraman gaitzake. H.B.D.B.

Bestela
Edozein ekintza txarra dela erraten da, gu Gorrotoak edo beste afektu gaizto batek hunkitzetik sortu den bezainbatean *(ikus 45. Prop. 1. Korol.).* Baina, bere baitan soilik harturik, neholako ekintza ez da, ez ona ez txarra *(Aitzinsolasean erakutsi dugun bezala)* eta ekintza bat eta bera, nahiz ona nahiz txarra izan daiteke; eta, beraz, orain txarra den, hots, afektu txar batetik sortzen den ekintza honetara berera Arrazoiak eraman gaitzake, *(19. Prop. arab.)*. H.B.D.B.
Eskolioa
Azal ditzakegu hauek hobeki, adibide bati esker: Jotzeko ekintza, fisikoki ikusten den aldetik, eta hori bakarrik kontutan harturik, hots, gizon batek besoa altxatu duela, ukabila hetsi, eta beso betea goitik-behera indarrean erabili, bertute bat da, giza Gorputzaren egituraren arabera ulertzen dena. Eta beraz, Hirak edo Gorrotoak bultzaturik, gizon bat determinatua baldin bada eskua hestera edo besoa altxatzera, hori gertatzen da, bigarren Zatian erakutsi dugun bezala, ekintza bat eta bera lotzen ahal zaiolako gauzen edozein irudiri; eta, horrengatik, ekintza bat eta bera egitera berdin determinatzen ahal gaituzte, ala pentsatzen ditugun gauzen irudi nahasiek, ala haien irudi argi eta bereiziek. Argi dago, beraz, pasioa den afektu batetik sortzen den Desira orok ez lukeela deus balioko, Arrazoiak gizakiak gida ahal balitza.
Dakusagun orain, zergatik deitzen dugun Itsua, pasioa den afektu batetik sortzen den Desira.
LX. Proposizioa
Gorputzeko parte bati edo parte batzuei, baina ez guztiei, dagokien Poztasunetik edo Tristuratik sortzen den Desira batek ez du gizaki osoaren onura kontutan hartzen.
Demonstrazioa
Demagun, adibidez, Gorputzeko A partea kanpoko kausa baten indarrak hainbestetaraino azkartzen duela, non beste parte guztiei nagusitzen baitzaie, *(6. Prop. arab.).* Parte hori ez da ahaleginduko bere indar propioak galtzen, Gorputzeko beste parteek beren eginkizuna bete dezaten. Bestela, parte horrek bere indar propioak galtzeko indarra edo ahalmena izan behar luke, eta hori, *(3. Zat., 6. Prop. arab.)* absurdua da.
Honela, bada, parte hori, eta, ondorioz, Izpiritua ere *(3. Zat., 7. eta 12. Prop. arab.)* ahaleginduko da egoera horren atxikitzen; eta, horrengatik, Poztasunezko horrelako afektu batetik sortzen den Desira batek ez du osotasuna kontutan hartzen.
Baina, alderantziz, A partea hainbestetaraino hertsatua dela onartzen badugu, non beste parteak nagusitzen baitzaizkio, orduan, modu berean demonstratzen dugu Tristuratik sortzen den Desirak ere ez duela osotasuna kontutan hartzen. H.B.D.B.
Eskolioa
Eta nola Poztasuna, gehienetan *(44. Prop. Eskol. arab.)* Gorputzeko parte bakar bati dagokion, gehienetan gura dugu geure izana atxikitzea, geure osasun osoa kontutan hartu gabe; honi eransten zaio, gehienik gauzkaten Desirek, *(9. Prop. Korol. arab.),* oraina soilik dutela kontutan hartzen, baina ez geroa.
LXI. Proposizioa
Arrazoitik sortzen den Desira ezin daiteke gehiegizkoa izan.
Demonstrazioa
Desira, *(Afekt. 1. Def. arab.),* absolutuki harturik, gizakiaren esentzia bera da, hau zerbait egitera, nolazpait, determinatua dela ulertzen den bezainbatean; eta, beraz, Arrazoitik sortzen den Desira, hots, *(3. Zat., 3. Prop. arab.)* iharduten dugun aldetik geure baitan sortzen den guraria, gizakiaren esentzia edo izaera da, gizakiaren esentzia

soilaren bidez, egoki pentsatzen dena egitera determinatua dela ulertzen den bezainbatean, *(3. Zat., 2. Def. arab.)*.
Honela, bada, Desira hori gehiegizkoa izaten ahal balitz, giza izaerak, bere baitan soilik harturik, bere burua gaindi lezake, hots, dezakeena baino gehiago egin lezake, eta hau kontraesan nabarmena da, eta, beraz, Desira hori ez daiteke gehiegizkoa izan. H.B.D.B.
LXII. Proposizioa
Arrazoiaren gidaritzapean gauzak ulertzen dituen heinean, Izpiritua berdin hunkitzen du etorkizuneko edo iraganeko gauza baten ideiak ala presenteko gauza baten ideiak.
Demonstrazioa
Izpirituak, Arrazoiaren gidaritzapean ulertzen duen guztia, betierekotasun edo beharrezkotasun beraren ikuspegitik ulertzen du, *(2. Zat., 44. Prop. 2. Korol. arab.)*, eta ziurtasun berak hunkitzen du, *(2. Zat., 43. Prop. eta haren Eskol. arab.)*. Horregatik, nahiz etorkizuneko edo iraganeko gauza baten ideia izan, nahiz presenteko gauza baten ideia izan, Izpirituak beharrezkotasun beraz ulertzen du gauza hura, eta ziurtasun berdinak hunkitzen du; eta, nahiz etorkizuneko edo iraganeko gauza baten ideia izan, nahiz presenteko gauza baten ideia izan, nolanahi ere, orobat, egiazkoa izanen da, *(2. Zat., 41. Prop. arab.)*, erran nahi baita, *(2. Zat., 4. Def. arab.)*, nolanahi ere, ideia egokiaren propietate berak izanen dituela; eta, horrela, Izpiritua, Arrazoiaren gidaritzapean gauzak ulertzen dituen heinean, orobat hunkitzen du, nahiz etorkizuneko edo iraganeko gauza baten ideiak, nahiz presenteko gauza baten ideiak. H.B.D.B.
Eskolioa
Gauzen iraupenaren ezagutza egoki bat izaten ahal bagenu, eta haien existentziaren iraupena Arrazoiaren arabera determinatzen, etorkizuneko gauzak kontenplatuko genituzke presentekoak egiten ditugun afektu beraz; eta etorkizuneko bezala Izpirituak pentsatuko lukeen ongi bat, presenteko ongi bat balitz bezala desiratuko luke, eta, ondorioz, presenteko ongi tipiago bat, nahitaez, gutietsiko luke, geroko ongi handiago baten menturan, eta ez luke batere desiratuko, orain ona, baina gero gaitz baten kausa litzatekeen gauza bat, berehala demonstratuko dugun bezala.
Baina, gauzen iraupenaren ezagutza ezegokia baizik ez dezakegu izan *(2. Zat., 31. Prop. arab.)* eta, *(2. Zat., 44. Prop. Eskol. arab.)* gauzen izateko denbora irudimen bidez determinatzen dugu soilik, baina irudimena, presenteko gauza baten ideiak eta geroko gauza batenak ez dute berdin hunkitzen; hortik dator, ongiaz eta gaizkiaz dugun egiazko ezagutza abstraktua edo orokorra baizik ez izatea, eta, hortik dator ere, guretzat orain zer den ona edo zer den txarra determinatu ahal izateko, gauzen ordenaz eta kausen lokarriaz egiten dugun judizioa, egiazkoa baino seguruago, irudimenezkoa izatea. Ez da, beraz, harritzekoa, etorkizunari dagokionez ongiaren eta gaizkiaren ezagutzatik sortzen den Desira, presentean atseginak diren gauzen Desirak hain errazki hertsatu ahal izatea; *(ikus horri buruz 16. Prop.)*.
LXIII. Proposizioa
Beldurrak gidatzen duena eta gaizkia saihesteko ongia egiten, hura ez du Arrazoiak gidatzen.
Demonstrazioa
Iharduten duen bezainbatean, Izpirituari dagozkion afektu guztiak, hots, *(3. Zat., 3. Prop. arab.)*, Arrazoiari dagozkionak ez dira Poztasunezko eta Desirazko afektuak besterik, *(3. Zat., 59. Prop. arab.)*; eta, beraz, *(Afekt.13. Def. arab.)*, Beldurrak gidatzen duena eta gaizkia saihesteko ongia egiten duena, hura ez du Arrazoiak gidatzen. H.B.D.B.
Eskolioa
Superstiziosoek badakite hobeki bizioen gaitzesten, bertuteen erakusten baino, eta eginahalak egiten dituzte, ez gizakiak Arrazoiaren bidetik eramateko, baina, bai,

Beldurraren medioz haien zentzatzeko, halako gisaz non, gaizkitik ihes egiten duten, bertuteak maitatzen dituzten baino gehiago, eta beste guztiak berak bezain dohakabe izateaz beste asmorik ez dute; eta, horrenbestez, ez da harritzekoa, besteentzat gogaikarriak eta higuingarriak izatea, gehienetan.

Korolarioa

Arrazoitik sortzen den Desirak, ongiari jarraiarazten gaitu zuzenki eta gaizkitik urruntzen zeharka.

Demonstrazioa

Arrazoitik sortzen den Desira, ezin da pasioa ez den Poztasunezko afektu batetik baizik sortu *(3. Zat., 59. Prop. arab.),* hots, gehiegizkoa ezin izan daitekeen Poztasun batetik *(61. Prop. arab.)*; ez, ordea, Tristura batetik. Eta, ondorioz, Desira hau *(8. Prop. arab.)* ongiaren ezagutzatik sortzen da eta ez gaizkiarenetik; eta, beraz, Arrazoiaren gidaritzapean ongia, zuzenki, desiratzen dugu eta, hein horretan bakarrik ihes egiten dugu gaizkitik. H.B.D.B.

Eskolioa

Korolario hau, eriaren eta sendoaren adibidearekin argitzen da. Eriak, higuintzen duena jaten du herioaren beldurrez; osasuntsuak, berriz, janaria gozatzen du eta, gisa horretan, hobeki gozatzen du bizia, herioaren beldur balitz eta hura zuzenki saihestu nahiko balu baino.

Gisa berean, ez gorrotoaren edo hiraren, etabarrengatik, baina, ongi publikoaren Maitasun soilez, hobendun bat hiltzera zigortzen duen epailea, Arrazoi soilaren arabera gobernatzen da.

LXIV. Proposizioa

Gaizkiaren ezagutza, ezagutza ezegokia da.

Demonstrazioa

Gaizkiaren ezagutza *(8. Prop. arab.)* Tristura bera da, honetaz kontziente garen bezainbatean. Tristura, ordea, betegintzarre tipiago baterako iragaitea da, *(Afekt. 3. Def. arab.)* eta, horregatik, ezin da gizakiaren esentziaren beraren bidez ulertu *(3. Zat., 6. eta 7. Prop. arab.)* eta, beraz, *(3. Zat., 2. Def. arab.)* pasio bat da *(3. Zat., 3. Prop. arab.)* ideia ezegokien menpe dagoena eta, ondorioz, *(2. Zat., 29. Prop. arab.)* haren ezagutza, hots, gaizkiaren ezagutza, ezegokia da. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator, bada, baldin giza Izpirituak ideia egokirik baizik ez balu, ez lukeela neholako gaizkiaren noziorik osatuko.

LXV. Proposizioa

Arrazoiaren gidaritzapean, bi ontasunetarik handiena bilatuko dugu eta bi gaitzetarik tipiena.

Demonstrazioa

Ongi handiago batez gozatzea eragozten digun ongia, egia erran, gaitz bat da; zeren eta, txar eta on *(Aitzinsolasean erakutsi dugun bezala)* gauzez erraten da gauzak elkarren arten konparatzen ditugun bezainbatean, eta *(arrazoi berarengatik)* gaitz tipi bat egiazki ona da; horra zergatik *(63. Prop. Korol. arab.)* Arrazoiaren gidaritzapean, on handiagoa bakarrik eta gaitz tipiagoa hobetsiko edo bilatuko dugun. H.B.D.B.

Korolarioa

Arrazoiaren gidaritzapean gauza txar tipiago bat bilatuko dugu on handiago baten erdiesteko, eta gauza txar handiago baten kausa den on tipiago bati uko eginen diogu.

Hemen tipi deitzen den gauza txarra egiazki ona baita, eta tipi deitzen den gauza ona, berriz, txarra; horrengatik, *(63. Prop. Korol. arab.),* txar hura desiratuko dugu, eta on hau arbuiatuko. H.B.D.B.

LXVI. Proposizioa

Arrazoiaren gidaritzapean etorkizuneko on handiagoa hobetsiko dugu presenteko on tipiagoa baino eta presenteko gauza txar tipiagoa hobetsiko dugu etorkizuneko txar handiagoa baino.

Demonstrazioa

Izpirituak etorkizuneko gauza baten ezagutza egokia izaten ahal balu, presenteko gauza batekilako ala etorkizuneko gauza batekilako dukeen afektu berak hunki lezake *(62. Prop. arab.)*; eta horrengatik, Arrazoia bera kontutan hartzen dugun bezainbatean, Proposizio honetan onartzen dugun bezala, gauza bera da etorkizuneko ala presenteko gauza on bati edo gauza txar bati dagokiola; eta, beraz *(65. Prop.* arab.) etorkizuneko on handiagoa hobetsiko diogu presenteko on tipiagoari, etab. H.B.D.B.

Korolarioa

Arrazoiaren gidaritzapean, etorkizuneko gauza on handiagoaren kausa den presenteko txar tipiago bat gurarituko dugu, eta etorkizuneko gauza txar handiagoaren kausa den on tipiago bati uko eginen diogu. Korolario hau aitzineko Proposizioari dagokio, 65. Proposizioaren Korolarioa 65. Proposizioari berari dagokion bezala.

Eskolioa

Hortaz, hemen orain erranak parekatzen baldin baditugu Zati honetako 18. Proposizioraino Afektuen indarrez erakutsi dugunarekin, ikusiko dugu errazki zer diferentzia den afektu soilak edo iritziak gidatzen duen gizakiaren eta Arrazoiak gidatzen duenaren artean. Zeren, lehenak, nahi ala ez, ez dakizkien gauzak egiten ditu; bigarrenak, berriz, ez dio nehori, bere buruari baizik atsegin egiterik, eta egiten ditu, bakarrik, bizian lehen direla dakizkien, eta, horrenbestez, ororen gainetik desiratzen dituen gauzak; eta horrengatik *esklaboa* deitzen dut lehena eta *librea* bigarrena eta azken honen jeinuaz eta bizimoldeaz bizpalau ohar oraino egitea zilegi izanen zait.

LXVII. Proposizioa

*Gizaki libreak ez du deus gogoan hartzen herioa baino gutiago eta haren zuhurtzia ez da herioaren baina biziaren meditazioa baizik.*

Demonstrazioa

Gizaki librea, hots, Arrazoiaren gidaritza soilaren pean bizi dena, ez du herioaren beldurrak gidatzen, *(63 Prop. arab.)* baina ongia du desiratzen, zuzenki, *(Prop. ber. Korol. arab.)*, erran nahi baita, *(24. Prop. arab.)*, bere onura propioaren bilketa oinarri harturik duela desiratzen ihardutea, bizitzea, bere izana atxikitzea; eta, ondorioz, ez du deusik heriotzea baino gutiago gogoan hartzen, baina biziaren meditazioa da haren jakinduria. H.B.D.B.

LXVIII. Proposizioa

*Gizakiak libre jaiotzen balira, ez lukete neholako gaizkiaren edo ongiaren noziorik osatuko libre liratekeeno.*

Demonstrazioa

Erran dut libre dela, Arrazoi soilak gidatzen duena; honela, bada, libre jaiotzen denak eta hala dirauenak ideia egokirik baizik ez du eta, beraz, ez du neholako gaizkiaren kontzepturik *(64. Prop. Korol. arab.)* eta, ondorioz, (ongia eta gaizkia korrelatiboak baitira) ez du neholako ongiaren noziorik ere. H.B.D.B.

Eskolioa

Zati honetako 4. Proposizioaren arabera, argi ageri da Proposizio honen hipotesia okerra dela, eta ez daitekeela uler giza izaera hutsa, edo hobeki errateko, Jainkoa, ez mugagabea den aldetik, baina gizakiaren existitzeko kausa den aldetik, soilik, kontutan hartzen dugun bezainbatean baizik. Eta hori da, orobat, jada demonstratu ditugun beste hainbat gauzarekin, Moisesek adierazi nahi zukeena, lehen gizonaren bere historia hartan.

Historia horretan, alabaina, ez da Jainkoaren beste ahalmenik asmatzen, gizonaren kreatzeko dena baizik, hots, gizakiaren onurak baliatzen duen ahalmena bakarrik; eta, zentzu honetan, kontatzen du Jainkoak debekatu ziola gizon libreari ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren arbolatik jatea, eta janez geroz berehala izanen zela herioaren beldurrago, biziari atxikia baino.

Kontatzen du, gero, nola gizonak emaztea aurkitzean, guztiz bat zetorrena haren izaerarekin, ezagutu zuen ez zezakeela Izadian, beretzat, deus aurki hura baino onuragarriagorik; baina, animaliak haren irudiko zirela uste izanik, berehala hasi zen haien afektuen imitatzen *(ikus 3. Zat., 27. Prop.)* eta bere libertatearen galtzen; eta libertate hura Patriarkek geroago berreskuratu zuten, Kristoren Izpirituak gidaturik, hots, Jainkoaren ideiak gidaturik, ideia honi baitagokio soilik, gizakia libre izatea eta besteentzat desiratzea bere buruarentzat desiratzen duen ongia, gorago demonstratu dugun bezala, *(37. Prop. arab.).*

LXIX. Proposizioa

*Gizaki librearen bertutea, arriskuak garaitzean bezain handi agertzen da arriskuak saihestean.*

Demonstrazioa

Afektu bat, ezin du hertsatu ez deuseztu kontrako afektu batek, eta hertsatu behar den afektua baino indartsuago batek, baizik, *(7. Prop. arab.).* Ausardia itsua, bizkitartean, eta Beldurra afektu batzuk dira, handitasun berekoak asma daitezkeenak *(5. eta 3. Prop. arab.).* Beraz, Izpirituaren bertuteak edo indarrak berdin handi behar du izan, nola Beldurra hala Ausardia hertsatzeko *(ikus honen Def. 3. Zat., 59. Prop. Eskolioan)*; erran nahi baita, *(Afekt. 4O. eta 41. Def. arab.)* gizaki libreak arriskuak saihesten dituela horien garaitzeko baliatzen duen izpirituaren bertute berarekin. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortaz, gizon askearen baitan, Tinkotasun berdina erakusten du une egokiko ihesak nola borrokak; hots, gizon askeak Tinkotasun edo Izpiritu erne bera erakusten du, ihesa ala borroka hautatzean.

Eskolioa

Tinkotasuna zer den, edo horretaz zer aditzen dudan, 3. Zatiko 59. Proposizioaren Eskolioan azaldu dut. Eta arriskua, berriz, deitzen dut gaitz baten, hau da, Tristuraren, Gorrotoaren, Liskarraren, etabarren kausa izan daitekeen edozein gauza.

LXX. Proposizioa

Ezjakinen artean bizi den gizon librea, haien faboreak saihestera lehiatzen da ahal bezainbat.

Demonstrazioa

Nork bere jitearen arabera erabakitzen du zer den ona *(ikus 3. Zat., 39. Prop. Eskol.)*; hortaz, ezjakinak bere jitearen arabera balioetsiko du nornahiri egin dion faborea eta fabore egin dion pertsonak gutiesten duela ikusten baldin badu, bera tristatuko da, *(3. Zat., 42. Prop. arab.).*

Baina, gizaki librea ahalegintzen da besteekin adiskidetasunez elkartzen *(37. Prop.)* eta ez besteei beren afektuen araberako ordaintzat hartzen dituzketen faboreak bihurtzen, baina bere burua eta beste guztiak Arrazoiaren judizio librearen arabera gidatzen eta berak lehen dakizkien gauzak soil-soilik egiten; eta, beraz, gizaki librea, ezjakinek higuin ez dezaten eta ez haien gurariari baina Arrazoi soilari jarraikitzeko, haien faboreak saihestera lehiatuko da ahal bezainbat. H.B.D.B.

Eskolioa

*Ahal bezainbat* diot. Ezjakinak izanik ere, gizonak baitira, alabaina, eta behar orduan, giza laguntza, beste zernahi baino prezatuagoa, eman baitezakete; eta, horrela, maiz gertatzen da, haien fabore bat onartu behar dela eta, ondorioz, ordainez, eskertu behar

zaiela, beren jitearen arabera; honi eransten zaio, haien faboreak saihesturik ere, kasu egin behar dugula gutiesten ditugulako, edo, zikoizkeriagatik zor zaiena ordaintzeko beldur garelako itxurarik ez dezagun izan, zeren bestela, haien Gorrotoari ihes egin nahian, guhaurk iraintzen baititugu. Horrengatik faboreak saihestean, kontutan hartu behar da, orobat, onuragarri eta zuzen dena.

LXXI. Proposizioa

Gizaki libreak bakarrik dira elkarrentzat, zinez, eskerdun.

Demonstrazioa

Gizaki libreak bakarrik dira elkarrentzat, zinez, baliagarriak eta haiek ditu adiskidetasun lokarri tinkoenak elkartzen *(35. Prop. eta honen Korol. arab.)* eta haiek dira Maitasun berarekin elkarri ongi egitera bermatzen *(37. Prop. arab.)* eta, beraz, *(Afekt. 34. Def. arab.)* gizaki libreak bakarrik dira, egiazki, eskerdun elkarrekiko. H.B.D.B.

Eskolioa

Desira itsuak gidaturiko gizakiek elkarri dioten esker ona, ikustatea baino areago, trafikua da edo iruzurra. Gainera, eskergabetasuna ez da afektu bat. Eskergabetasuna, bizkitartean, itsuskeria da, gehienetan gehiegizko Gorrotoak, Hirak, Hantusteak, Zekenkeriak, etabarrek hunki gizakia adierazten duelako.

Bere ergelkeriagatik opariak ordaintzen ez dakiena, ez da eskergabea eta, are gutiago, bere opariengatik emagalduaren lizuntasunaren zerbitzura makurtzen ez dena, ez eta ere lapurraren lapurketak estaltzen ez dituena, ez eta beste baten horrelakorik. Horrelako batek, alderantziz, erakusten du Izpiritu iraunkor baten jabe dela, hots, nork bere edo besteen galtzea dakarren neholako oparirekin bere burua erostera ez duela uzten.

LXXII. Proposizioa

Gizaki libreak ez du sekula engainuz iharduten, beti fede onez baizik.

Demonstrazioa

Gizaki libreak, libre den aldetik, zerbait engainu egin baleza, Arrazoiaren aginduz egin lezake (horrela baizik ez baitugu deitzen libre); eta, beraz, engainuz ihardutea bertute bat litzateke *(24. Prop. arab.)* eta, ondorioz, *(Prop. ber. arab.)* zuhurrago litzateke engainuz ihardutea, nork bere izana atxikitzeko, erran nahi baita, *(berez nabarmen denez)* zuhurrago litzatekeela gizakientzat, hitzez baizik ez elkar aditzea, berez elkarren kontrakoak izanez egiazki, baina, hori *(31. Prop. Korol. arab.)* absurdua da. Beraz, gizaki libreak etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Galdetzen badigute: baldin eta, desleialkeriaren bidez, berehala hiltzeko arriskutik gizon bat libra ahal baledi, bere izana atxikitzeko arauak ez ote lioke aginduko, garbiki, desleial izatea? Gisa berean ihardetsiko dugu: Arrazoiak hori agintzen baldin badu, gizaki guztiei aginduko diela eta, orduan, Arrazoiak orokorki aholkatuko diela gizakiei beren indarrak batzeko eta lege komunak izateko engainuzko hitzarmenik baizik ez egitea, erran nahi baita, lege komunik ez izatea aholkatuko diela funtsean, baina hori absurdua da.

LXXIII. Proposizioa

Arrazoiak gidatzen duen gizakia, libreago da Estatuko lege komunaren arabera bizi denean, bakartasunean, bere buruari soilik obeditzen dionean baino.

Demonstrazioa

Arrazoiak gidatzen duen gizakia, ez du Beldurrak eramaten obeditzera *(63. Prop. arab.)*; baina, Arrazoiaren aginduaren arabera, bere izanaren atxikitzera bermatzen denez, hau da *(66. Prop. Eskol. arab.)* aske bizitzeko ahalegintzen den bezainbatean, bizitza eta onura komunen arauak bete gura ditu *(37. Prop. arab.)* eta, ondorioz, *(37. Prop. Eskolioan erakutsi dugun bezala)* Estatuko lege komunaren arabera bizi nahi du.

Beraz, Arrazoiak gidatzen duen gizakiak, libreago bizitzeko, Estatuko lege komunak bete nahi ditu. H.B.D.B.

Eskolioa

Gauza hauek eta gizakiaren egiazko askatasunaz erakutsi ditugunak Barne-Indarrari dagozkio, hots, *(3. Zat., 59. Prop. Eskol.arab.)* Tinkotasunari eta Bihotz-zabaltasunari. Baina, ez dut uste, hemen merezi duen Barne-Indarrarraren propietate guztiak bederazka demonstratzea eta, are gutiago demonstratzea gizon indartsuak ez duela nehorentzat Gorrotorik, ez Hirarik, Bekaizgorik, ez Haserrerik, ez duela nehor gutiesten, eta ez duela den gutieneko Hantusterik ere. Zeren, hauek guztiak eta egiazko biziarekin eta erlijioarekin zerikusia duten guztiak 37. eta 46. Proposizioetarik frogatzen dira errazki; erran nahi dut, Gorrotoa Maitasun ordainez garaitu behar dela, eta Arrazoiak gidatzen duen bakoitzak beretzat gura duen ongia besteentzat ere desiratzen duela.

Honi eransten zaio 50. Proposizioko Eskolioan eta beste zenbait tokitan egin dugun oharra: hots, gizaki indartsuak, oroz gainetik, gogoan hartzen du denak Jainkozko izaeraren ezinbestekotasunetik datozela eta, beraz, jasanezina eta txarra dela pentsatzen duen guztia eta gainera ezmorala, izugarria, bidegabea eta itsusia iruditzen zaion guztia heldu dela,

gauza horiek berak, modu uher, motz eta nahasi batez ikustetik; eta arrazoi honengatik, ahalegintzen da oroz gainetik gauzak bere baitan diren bezala ulertzen eta egiazko ezagutza eragozten duten guztien baztertzen, hala nola Gorrotoa, Hira, Bekaizkeria, Iseka, Hantustea, eta gorago aipatu ditugun beste horrelakoak; eta, beraz, lehiatzen da, erran bezala, ahal bezainbatean ongi egiten eta pozik izaten. Baina, giza bertutea noraino heltzen ahal den eta zer egin dezakeen, hurrengo partean demonstratuko dut orain.

Eranskina

*Bizi-arau zuzenari buruz Zati honetan tratatu dudana ez da begiratu batean ikusi ahal izateko moduan paratua izan, baina demonstratu dut modu nahasian, hots, egia bat bestetik deduzitzeko modu errazenean. Horiek guztiak hemen biltzeko eta kapitulu nagusitan laburtzeko xedea hartu dut, beraz.*

I. Kapitulua

Gure ahalegin edo Desira guztiak gure izaeraren ezinbestekotasunetik halako gisaz datoz, non uler baitaitezke, bai izaera soil horren bidez, beren kausa hurbilaz bezala, bai Naturaren zati bat garenez, hau ez baita egokiro ulertzen ahal, berez, beste banakorik gabe.

II. Kapitulua

Gure izaera soilaren bidez ulertzeko moduan gure izaerari darraizkion Desirak, Izpirituari dagozkionak dira, Izpiritua ideia egokiz osatua dela pentsatzen den aldetik; beste Desirak, aldiz, ez dagozkio Izpirituari, gauzak ezegokiro pentsatzen dituen aldetik baizik; eta Desira hauen indarra eta hazkundea, ez gizakiaren baizik eta gutarik kanpo diren gauzek duten ahalaren arabera definitu behar dira. Eta horrengatik, lehen Desira haiek *ekintzak* deitzen dira, eta azken hauek *pasioak*; haiek gure ahalmena adierazten baitute beti, eta hauek, aldiz, gure ezintasuna eta gure ezagutza motza.

III. Kapitulua

Gure ekintzak, hau da, gizakiaren ahalmenaren arabera, hots, Arrazoiaren arabera, definitzen diren Desirak, onak dira beti; besteak, berriz, onak ala berdin txarrak izan daitezke.

IV. Kapitulua

Honela, bada, bizian ororen gainetik onuragarria da Adimena edo Arrazoia ahal bezainbat hobetzea, eta horretan baizik ez datza gizakiaren zorion gorena edo dohatsutasuna; zeren, dohatsutasuna hau baizik ez da: Jainkoaren ezagutza intuitibotik sortzen den Izpirituaren atsegina bera; baina Adimena hobetzea ere, hauxe besterik ez da: Jainkoa eta Jainkoaren atributuak eta ekintzak, Haren izaeraren ezinbestekotasunari darraizkionak, ezagutzea, alegia. Horra zergatik Arrazoiak gidatzen duen gizakiaren azken helburua, hots, haren Desira gorena, haren bidez beste guztien neurtzera baita saiatzen bere burua eta bere Adimenaren menpe sar daitezkeen gauza guztiak egoki ulertzera daraman Desira da.

V. Kapitulua

Ez da, beraz, Adimenik gabe, arrazoizko bizirik, eta gauzak ez dira onak, Izpirituaren biziaz gozatzen gizakia laguntzen duten neurrian baizik; baina, Izpirituaren bizia Adimenaren arabera definitzen da. Eta, Arrazoia hobetzea eta arrazoizko biziaz gozatzea eragozten dutenak, berriz, haiek, bakarrik, txarrak direla diogu.

VI. Kapitulua

Baina, nola gizakia kausa eragile duten gauza guztiak nahitaez onak diren, ez dakioke gizakiari deus txarragorik gerta, kanpoko kausengatik ez bada; erran nahi dut, Natura osoaren zati bat den bezainbatean, giza izaera, haren legeei menperatu behar baitzaie, eta, kasik kontaezinezko modutan, hari egokitu.

VII. Kapitulua

Ezinezkoa da gizakia Naturaren parte bat ez izatea, eta haren ordena komunari ez jarraikitzea; bizkitartean, gizakia, bere giza izaerarekin bat datozen gizakien artean gertatzen bada, horrenbestez, haren iharduteko ahalmena lagundua eta faboratua izanen da. Baina, alderantziz, bere izaerarekin batere bat ez datozen gizakien artean gertatzen bada, bere buruaren aldaketa handi bat gabe nekez egokituko zaie.

VIII. Kapitulua

Gauzen Izaeran txarra dela uste dugun guztia, hots, gure izatea eta arrazoizko biziaz gozatzea eragotz diezagukeela iduritzen zaigun guztia, zilegi zaigu, ziurrena deritzagun moduan, gureganik urruntzea; baina, alderantziz, ona dela, hots, gure izanaren atxikitzeko eta arrazoizko biziaz gozatzeko baliagarri dela uste dugun guztia, zilegi zaigu guk erabiltzeko hartzea eta, edozein gisatan, hartaz baliatzea; eta, absolutuki mintzatuz, Naturaren eskubide gorenari esker, bakoitzari zilegi zaio bere onurari, ustez, dagokiona egitea.

IX. Kapitulua

Edozein gauzaren izaerarekin ez datorke deus hobeki bat espezie bereko beste kide batzuk baino; eta, beraz, *(7. Kap. arab.)*, bere izanaren atxikitzeko, eta arrazoizko biziaz gozatzeko, ez da gizakiarentzat deus onuragarriagorik, Arrazoiak gidatzen duen gizakia baino. Eta gainera, nola gauza singularren artean ez dugun deus ezagutzen Arrazoiak gidatzen duen gizakia baino baliosagorik, ez da ere modu hoberik, nork bere antzeak eta talentuak zenbat balio duen erakusteko, gizakiak modu honetan altxatzea baino, hots, azkenean, Arrazoiaren agindu propioaren arabera bizitzeko gisan.

X. Kapitulua

Bekaizkeriak edo Gorrotozko afektu batek elkarren aurka erakartzen dituen neurrian, gizakiak elkarren kontrakoak dira, eta ondorioz, zenbat eta Naturako beste gizakiak baino ahaltsuago baitira, hainbat eta beldurgarriago ere dira.

XI. Kapitulua

Izpirituak, haatik, ez dira armaz garaitzen, Maitasunez eta Bihotz-zabaltasunez baizik.

XII. Kapitulua

Gizakientzat, oroz gainetik, baliotsua da ohiturak jostea, eta, berenaz, guztiak hobekienik bat egiten dituzten lokarriez elkarri lotzea, eta absolutuki adiskidetasunak finkatzen dituzten gauzen egitea.

XIII. Kapitulua

Baina horretarako, trebe eta erne behar da izan. Gizakiak, alabaina, aldakorrak dira -bakanak baitira Arrazoiaren agindupean bizi direnak- eta, halere, gehienak bekaiztiak dira, eta Mendekuari emanagoak, urrikalmenduari baino. Izpirituaren ahalmen berezia behar da, beraz, bakoitzaren jitea jasateko, eta haien afektuak imitatzetik norbera begiratzeko. Bestalde, besteen judikatzen dabiltzanak, eta bertuteen erakusten baino gehiago bizioen gaitzesten dihardutenak, eta gizakien bihotzak sendotzeko ordez haien hondatzen dakitenak, gogaikarri dira, bai beren buruentzat, bai besteentzat. Horrela, anitzek, gehiegizko Izpirituaren jasanezinagatik, eta erlijiozko kartsutasun oker baten ondorioz, nahiago izan zuten animalien artean bizi, gizartean baino; eta, orobat, haurrek edo nerabeek, gurasoen gaizkiak narotasunez ezin jasanik, soldaduzkara ihes egiten dute; eta, etxeko abantailak eta gurasoen erasiak baino lehen, gerlako penak eta botere tiranikoa hautatzen dituzte eta edozein zamaren pairatzea onartzen dute, gurasoez mendekatzen diren ber.

XIV. Kapitulua

Hortaz, nahiz maizenik gizakiak beren irritsen arabera gobernatzen diren, kalte baino abantaila gehiago heldu zaie gizarte komunetik. Horregatik, hobe da haien laidoak naretasunez jasatea, eta eginahalak egitea, elkartasuna eta adiskidetasuna finkatzeko balio duten gauzetan.

XV. Kapitulua

Elkartasuna sortzen duena, zuzentasunari, berdintasunari eta zintzotasunari dagokiena da. Zeren, gizakiek, zuzen ez denaz eta gaizki denaz bestalde, itsusi dena ere, hots, Estatuko ohitura onartuak arbuiatzea ere, nekez jasaten dute. Maitasuna finkatzeko, ordea, Erlijioari eta Moraltasunari dagokiona baitezpadakoa da, oroz gainetik. *(Ikus, Zati honetako 37. Prop. 1. eta 2. Eskol., 46. Prop. Eskol. eta 73. Prop. Eskol.)*

XVI. Kapitulua

Elkartasuna, gainera, Beldurretik sortu ohi da, maizenik, baina konfidantzarik gabe. Bestalde, Beldurra Izpirituaren ezintasunetik heldu da, eta ez, beraz, Arrazoiaren ildotik; ez eta Gupida ere, honek, itxuraz, Moraltasunaren eite izanagatik.

XVII. Kapitulua

Gizakiak, gainera, biltzen dira eskuzabaltasunez, eta, bereziki, bizitzeko baliabide beharrenen eskuratzeko doirik ez dutenak. Bizkitartean, behartsu bakoitzari laguntza emateak gizon pribatu soil baten ahalak eta interesa, anitzez, gainditzen ditu. Zeren eta, gizon pribatu baten ontasunak ez baitira horretarako doi, eta, bestalde, gizon bakar baten ahalmena laburregia baita gizon guztiengana adiskidetasunez heltzeko; horregatik, pobreen arreta gizarte osoaren ardura da, eta interes publikoari, soilik, dagokio.

XVIII. Kapitulua

Faboreak onartzeari eta esker onak bihurtzeari dagokienez, guztiz bestelako arretarik behar da. *(Ikus, honi buruz, Zat. hon., 70. Prop. Eskol. eta 71. Prop. Eskolioa).*

XIX. Kapitulua

Gainera, amodio lizuna, hau da, eder itxuraren ernaltze irrits sortzailea, eta, absolutuki mintzatuz, Izpirituaren askatasunaz beste edozein kausa nabari duen Maitasuna, Herra

bilakatzen da errazki, non ez den, okerrago oraino, eldarnio mota bat bihurtzen, eta, orduan, adiskidetasuna baino areago, desadostasuna da sustatzen *(Ikus 3. Zat., 31. Prop. Eskolioa)*.

XX. Kapitulua

Ezkontzaz denaz bezanbatean, gauza segurua da Arrazoiarekin bat datorrela, gorputzak elkartzeko Desira ez badu eder itxurak soilik sortzen, baina, bai, orobat, seme-alabak sortzeko eta haien zuhurki altxatzeko Maitasunak; eta, bestalde, elkarren arteko, hots, gizonaren eta emaztearen arteko Maitasunak ez baldin badu kausa bakartzat eder itxura, baina, bereziki, Izpirituaren askatasuna.

XXI. Kapitulua

Lausenguak ere sortzen du elkartasuna, baina menpetasunaren edo fede txarraren kutsuarekin; zeren, nehor ez da, hantustetsuak baino errazkiago, lausengarien sareetan erortzen, lehenak izan nahi baitute, hala ez direlarik.

XXII. Kapitulua

Apaltasunak badu berekin sasi-moraltasun eta erlijio itxura bat. Eta, nahiz Apaltasuna Hantustearen kontrakoa den, bere burua apalesten duena ez dabil hain urrun hantustetsuarenganik *(Ikus 57. Prop. Eskolioa)*.

XXIII. Kapitulua

Gainera, Ahalkeak ez dio elkartasunari errazten bidea, ezkutatzen ahal ez diren gauzetan baizik. Bestalde, Ahalkea bera Tristura mota bat denez geroz, ez dagokio Arrazoiaren iharduerari.

XXIV. Kapitulua

Gizakien alderako beste Tristurazko afektuak, zuzentasunari, berdintasunari, zintzotasunari, moraltasunari eta erlijioari kontrajartzen zaizkie, zuzenki, eta nahiz haserreak nolabaiteko berdintasun itxura baduen, jendea, bizkitartean, legerik gabe bizi da, bakoitzari zilegi baldin bazaio besteen ekintzen jujatzea eta bere ala besteen eskubidea mendekatzea.

XXV. Kapitulua

Xumetasuna, hau da, gizakiei plazer egiteko Desira, Arrazoiak determinatzen duenean, Moraltasunari dagokio, *(37. Prop. 1. Eskolioan esan dugun bezala)*. Baina afektu batetarik sortzen bada, Handinahia da, hots, Desira bat, haren bidez gizakiek, sasi-Moraltasun baten itxuran, maizenik liskarrak eta jazarketak sustatzen baitituzte. Zeren, nork ere, aholkuz ala ekintzez, besteak lagundu nahi baititu ongi gorenaz elkarrekin gozatzen, hark eginahalak egiten ditu, oroz gainetik, haien Maitasuna irabazteko, eta, ez du haien mirespena bilatzen ikastaldi batek haren izena ukan dezan, eta ez die ere neholako aitzakiarik ematen hartaz bekaizteko. Bestalde, eguneroko solasetan gizakien bizioak aipatzetik begiratuko da, eta giza ezintasunaz labur hitz egiteaz axolatuko, baina luze eta zabal mintzatuko da giza bertuteaz edo ahalmenaz eta hau osabete dezakeen bideaz, eta gisa horretan, gizakiak lehia daitezen, ez Beldurrak, ez Gohaindurak, baina, Poztasunaren afektu soilak, bultzaturik, haien esku dituen neurrian, Arrazoiaren agindupean bizitzen.

XXVI. Kapitulua

Gizakiak aparte, ez dugu Naturaren baitan deus berezirik ezagutzen haren Izpirituak bozkaria gaitzakeenik, eta harekin adiskidetasunak edo beste kidetasun mota batek lotzen ahal gaituenik; eta, beraz, gizakiez bestalde, Naturan diren gauza guztiak atxikitzen, edo suntsitzen, edo, gure erabilpenari begira, edozein modutan egokitzen erakusten digu gure interes propioaren arauak.

XXVII. Kapitulua

Gureganik kanpo diren gauzetarik ateratzen dugun onura nagusia, haiei so egitean eta haiek formaz aldatzean erdiesten dugun esperientziaz eta ezagutzaz bestalde, gure Gorputzaren iraupena da, oroz gainetik; eta arrazoi horrengatik, Gorputzeko parte guztiek beren zeregina zuzen betetzeko moduan, Gorputza mantentzen eta hazten ahal duten gauzak dira, onugarrienak. Zeren, zenbat eta Gorputza gehiago

gai izaten baita modu anitzez hunkitua izateko, eta kanpoko gorputzak modu anitzez hunkitzeko, hainbat eta gehiago gai da ere, Izpiritua pentsatzeko. *(Ikus Zat. hon. 38. eta 39. Prop.).* Badirudi, ordea, horrelako gauzak biziki guti direla Naturan; horregatik, Gorputza behar bezala hazteko, baitezpadakoa da izaera ezberdineko janari mota askoz baliatzea. Giza Gorputza, alabaina, izaera ezberdineko parte anitzez osatua da, eta hauek beti janari ezberdinak behar dituzte Gorputz osoa orobat gai izan dadin haren izaerari darraizkiokeen guztien egiteko eta, ondorioz, Izpiritua ere berdin gai izan dadin gauza ezberdin askoren pentsatzeko.

XXVIII. Kapitulua

Eta hori eskuratzeko, bakoitzaren indarrak ez lirateke ez nahikoak, gizakiek elkarri zerbitzu egin ez baliezaie. Baina, egia erran, dirua gauza guztien bilduma bilakatu da, hainbestetaraino, non diruaren irudiak herri xehearen Izpiritua hartzen ohi baitu beste zernahik baino areago; zeren, ez dezakete neholako Poztasunik irudika, non ez duen honek lagun, kausa bezala, diruaren ideia.

XXIX. Kapitulua

Bizio hori, bizkitartean, daukate, ez pobretasunez edo bizibeharrez dirua bilatzen dutenek, baina, bakarrik, aberasteko ofizioak ikasi dituztenek eta, haiei esker besteen gainetik jartzen direnek. Gainerakoan, halakoek ohiko janaria ematen diote Gorputzari, baina xuhurki, uste baitute beren ontasunentzat galduak direla beren Gorputzaren mantentzeko xahutu guztiak. Alta bada, diruaren egiazko balioa ezagutzen dutenentzat, eta beren ontasunak beren beharren arabera gobernatzen dituztenentzat, gutirekin pozik bizi dira.

XXX. Kapitulua

Hortaz, nola Gorputzeko parteak beren zeregina betetzeko laguntzen duten gauzak onak baitira, eta nola Izpirituak eta Gorputzak gizakia osatzen duten aldetik, gizakiaren ahalmena laguntzean edo handitzean baitago Poztasuna, onak dira, beraz, Poztasuna dakarten gauza guztiak. Bizkitartean, gauzek, halere, ez baitihardute Poztasunez gure hunkitzeko xedetan, eta haien iharduteko ahalmena ez baitzaio gure onurari begira egokitzen, eta, azkenik, Gorputzeko parte bakar bati baitoakio, bereziki, maizenik Poztasuna, horien guztiengatik, Poztasunezko afektu gehienak eta, beraz, hortik sortzen diren Desirak ere (non ez duten Arrazoiak eta oharmenak begi hartzen) gehiegizkoak dira; eta gainera, gertatzen zaigu, afektu baten ondorioz, lehentasuna ematea mementuan atsegin dugunari eta etorkizunekoak ezin ditugu Izpirituko afektu berdinaz estimatu *(Ikus 4. Zat., 44. Prop. Eskol. eta 60. Prop. Eskolioa.).*

XXXI. Kapitulua

Badirudi, ordea, superstizioak ontzat ematen duela Tristurak dakarrena, eta txartzat, berriz, Poztasunak dakarrena. Baina, jada errana dugun bezala, *(Ikus 45. Prop. Eskolioa)* nehork ez du, bekaiztia ez bada, ene ezintasunaz eta atsekabeaz atsegin hartzen. Zeren, zenbat eta handiago baita hunkitzen gaituen Poztasuna, hainbat eta handiago da heltzen garen betegintzarrea, eta, ondorioz, hainbat eta gehiago parte hartzen dugu ere Jainkozko izaeran; eta nehoiz Poztasuna ez daiteke txarra izan, egiaz, gure onuraren arabera arautzen baldin bada. Nor ere, ordea, Beldurrak gidatzen baitu, eta hark, gaizkia saihestearren ongia egiten, ez du hura Arrazoiak gidatzen.

XXXII. Kapitulua

Baina, gizakiaren ahalmena izugarri neurtua da, eta kanpoko kausen ahalmenak mugarik gabe gainditzen du; eta, horregatik, ez dugu gutarik kanpo dauden gauzak gure erabilpenera moldatzeko ahalmen absoluturik. Alta bada, naretasunez jasaten ditugu gure onuraren arauak eskatzen duenaren kontra gertatzen zaizkigunak, ikusten baldin badugu geure eginkizuna bete dugula, eta gure ahalmena ez zitekeela hel haien

gureganik baztertzeraino, eta Natura osoaren parte bat besterik ez garela, eta haren ordenari jarraikitzen gatzaizkiola. Hori, argi, eta bereziki, ulertzen baldin badugu, adimenak osatzen duen gure parteak, hots, gure parterik hoberenak aurkituko du horretan gozo osoa, eta, gozo horretan irauten lehiatuko da. Zeren eta, ulertzen dugun bezainbatean, ez baitugu ezinbestekoa ez den zerbait desiratzen ahal, ez eta, absolutuki mintzatuz, egia ez den zerbaitetan gozorik hartzen ahal, eta, beraz, hauek zuzen ulertzen ditugunez, gure baitako parterik hoberenaren ahalegina bat dator Natura osoaren ordenarekin.

Laugarren Zatiaren Amaia

Etikaren Bosgarren Zatia
Adimenaren Ahalmenaz
edo Giza Askatasunaz
Aitzinsolasa

*Azkenean iraganen naiz Etikaren bigarren partera, azaltzeko zer gisaz edo zein bidetarik heltzen den Askatasunera. Hemen beraz arrazoiaren ahalmenaz ariko gara, erakusteko arrazoiak berak zer egin dezakeen afektuei buruz eta gero Izpirituaren Askatasuna edo dohatsutasuna zer den; ikusiko da horrela gizaki jakintsua zein ahaltsuago den ezjakina baino.*

*Adimena nola betegintzarrera helaraz ordea eta zer bidetarik eta gero Gorputza zer gisatara arta bere egitekoa zuzen bete dezan ez dagozkio liburu honi; Medikuntzari dagokio, alabaina, azken hau eta bestea, aldiz, Logikari. Hemen, beraz, erran bezala, Izpirituaren edo arrazoiaren ahalmenaz ariko naiz, soil-soilik, eta erakutsiko dut, oroz lehen, zer nolako nagusitasuna duen afektuen gainean, haien hezteko eta kudeatzeko.*

*Erakutsi dugu ezen jadanik, ez duela nagusitasun osorik. Estoikoek, egia erran, uste izan dute gure nahimenaren esku daudela absolutuki afektu horiek eta guhaurek agintzen ahal geniela absolutuki. Esperientziaren oharrek ordea, baina ez beren printzipio propioek, erakarri dituzte aitortzera delako afektuen hezteko eta kudeatzeko ohitura eta ahalegin handia behar izan dutela. Eta haietarik batek hori erakutsi nahi izan digu -ontsa oroit banaiz- bi txakurren adibidearekin: bat etxe-txakurra baitzen bestea ehizora, hots, ohiturak egin omen dezake azkenean etxe-txakurrak ehizan ikastea eta ehizora, alderantziz, erbien lasterkatzetik gelditzea.*

*Descartes-ek onar lezake gogotik horrelako iritzia, zeren uste baitu Izpiritua edo Pentsamendua garunaren parte jakin bati, hots, pineala deitu guruintxoari datxekiola bereziki. Honen bitartez Izpirituak sendi litzake Gorputzean gertatzen diren mugimendu guztiak eta kanpoko objektuak eta hau bera Izpirituak alde askotara mugi dezake bere gogo soilaren arabera.*

*Eta gainera, haren ustetan, delako guruintxoa garunaren erdian zintzilik dago, animali izpirituen demendreneko bultzadak mugitzeko gisan. Bestalde, animali izpirituen bultzadek jotzen duten bezainbat gisatara egokitzen da garunaren erdian zintzilik dagoen guruintxoa eta hari buruz animali izpirituak bultzatzen dituzten kanpoko objektu bezainbat aztarna ezberdin inprimatzen dira haren baitan eta, horrela, geroxeago, guruintxoak hara eta hona darabilan Izpirituaren gogara hartzen badu aitzinean hara-hona zebiltzan animali izpirituen eraginaz zeukan egoera, orduan, guruintxoak berak animali izpiritu haiek eragotziko ditu eta determinatuko aitzineko egoeran eragozten zituen bezala.*

*Bestalde, pentsatzen du Izpirituaren nahi izate bakoitza guruintxoaren mugimendu jakin bati lotzen diola Naturak, hala nola, urruneko objektu bati nahi badiogu begiratu gure nahiak eraginen du begi-niniaren irekitzea; baina pentsatzen baldin badugu bakarrik begi-ninia ireki beharko dela, debalde izanen da horren nahi izatea, zeren eta Naturak ez baitio lotu animali izpirituak begiko zainari buruz bultzatzen dituen guruinaren mugimendua, begi-niniaren irekitzeko edo ixteko gisan, begi-niniaren irekitzeko edo ixteko nahi izateari, baina bai urruneko edo hurbileko objektuak begiratzeko nahiari.*

*Azkenean, pentsatzen du oraino, gure biziaren hastapenetik Naturak lotu baldin badio ere gure pentsamendu berezi bakoitza guruintxo pinealaren mugimendu berezi bakoitzari, beste zenbait pentsamendu eratxikitzen ahal zaizkiela halere haieri ohituraren indarrez; frogatu nahi duen bezala Izpirituaren Pasioen 1. Zatiko 50. Artikuluan. Eta hortik ateratzen du nehongo Izpiriturik ez dela, nahi bezain ahula izanagatik, bere Pasioen absolutuki menperatzeko ahalmena, ongi bideratuz geroz, erdiets ez dezakeenik. Pasio hauek, ezen, haren definizioen arabera,* Izpirituaren

hautemateak dira edo sentipenak edo hunkipenak, hari bakarrik dagozkionak eta *(Nota bene)* izpirituen mugimendu batzuek sortzen, hazten eta indartzen dituztenak *(ikus Izpirit. Pas. 1. Zat. 27. Art.).*

*Baina, guruintxoaren eta beraz izpirituen edozein mugimenduri edozein nahi izate lotzen ahal diogunaz geroz eta, ondorioz, gure ahalmen soilari dagokionaz gure nahiaren deliberoa, gure nahia determinatzen baldin badugu gure biziaren gidatzeko nahi ditugun judizio sendo eta ziur batzuen arabera eta judizio horiei eratxikitzen badizkiegu izan nahi ditugun pasioen mugimenduak, orduan, nagusitasun absolutua izanen dugu gure Pasioen gainean.*

*Horra zer den Gizon guztiz argi horren aburua (haren erranetarik asmatzen dudanaren arabera); ez bainuen sinetsiko ere harena izan zitekeenik, hain xorrotxa ez balitz. Nola ez naiz bada harrituko, horrelako Filosofo batek hain gogorki erabaki ondoan berenaz argi diren printzipioetarik baizik deusik ez deduzitzea eta argi eta berezi hautematen dituenak baizik ez baieztatzea, eta hainbeste aldiz Eskolastikoak gaitzetsi dituelarik gauza ilunak propietate ilunagoen bitartez argitu nahi dituztelako, berak onartzen baldin badu propietate ilun guztiak baino ilunagoko Hipotesia?*

*Jakin nahi nuke, bada, zer deitzen duen Izpirituaren eta Gorputzaren batasuna? Zein konzeptu argi eta berezi duen hedaduraren zati tipi bati hoin hertsiki lotzen dion pentsamenduaz? Nahi nuke, bai segur, batasun hori argitzen baliezagu bere kausa hurbilaren arabera. Baina, berak Izpiritua asmatua zuen halako gisaz Gorputzaren ezberdina non ez baitzegokiokeen neholako kausa singularrik ez haien batasunari ez Izpirituari berari eta dei egin behar izan baitzion Mundu Osoaren Kausari, erran nahi baita Jainkoari .*

*Nahi nuke ere jakin zenbat gradutako mugimendua emaiten ahal dion Izpirituak guruintxo pinealari eta zer indarrekin atxik dezakeen hura dilindan. Zeren, ez dakit animali izpirituek baino emekiago ala lasterrago darabilan, hara-honaka, guruintxo hura Izpirituak ez eta ere judizio gogor batzuei hertsiki lotu ditugun Pasioen mugimenduak haietarik bereizten ahal dituztenentz, alderantziz, kausa gorpuztun batzuek, hortik bailetorke lanjerari buru egitea fermuki deliberaturik eta mugimendu ausartak eginik ere, guruintxoa horrela dilindan aurkitzeko arriskua ikustean Izpirituak ihesari baizik ezin duela pentsatu; eta, ondorioz, ez baldin bada nehongo erlaziorik nahimenaren eta mugimenduaren artean, ez da ere Izpirituaren eta Gorputzaren ahalen edo indarren neholako parekatzerik izanen, eta, beraz, azken honen indarrek ez ditzakete neholaz ere haren indarrak determina. Eta gainera, ikus ezazu nehondik ere ez duzula aurkitzen ahal garunaren erdian hain errazki eta hainbeste gisatara, hara-honaka, mugi litekeen guruintxo bat eta, bestalde, garuneko husgunetaraino ez direla zain guztiak heltzen.*

*Bazter uzten dut azkenean, nahimenaz eta haren libertateaz dioen guztia, aski eta sobera erakutsia baitut ez dela zuzena. Eta beraz, jakintza soilaz definitzen denaz geroz Izpirituaren ahalmena, gorago erakutsi dudan bezala, Izpirituaren ezagutza soilaz zehaztuko ditugu afektuen sendagailuak, guztiek apur bat probatu ditugunak baina ez ditugunak aski artarekin ikertu ez aski bereziki ikusi, nik uste, eta hortik aterako ditugu Izpirituaren dohatsutasunari dagozkion guztiak.*

Axiomak

I. Bi aurkako ekintza zuzpertzen baldin badira subjektu berean, aldaketa bat gertatu beharko da, nahitaez, edo bietan edo bietarik batean, biak aurkako izatetik gelditu arte.

II. Ondorioaren ahalmena definitzen du haren kausaren ahalmenak, kausa beraren esentziak ondorioaren esentzia azaltzen edo definitzen duen bezainbatean.

*(2. Zatiko 7. Proposizioaren arabera nabarmen da Axioma hau)*

I. Proposizioa

Gauzen pentsamenduak eta ideiak Izpirituan ordenatzen eta kateatzen direnean, Gorputzeko afekzioak, hots, gauzen irudiak, haien arabera ordenatzen eta kateatzen dira Gorputzean.

Demonstrazioa

Ideien ordena eta katea, ala gauzen ordena eta katea berberak dira *(2. Zat., 7. Prop. arab.)* eta, alderantziz, gauzen ordena eta katea, ala ideien ordena eta katea berberak dira *(2. Zat., 6. & 7. Prop. Korol. arab.).* Eta, beraz, Izpirituko ideien ordena eta katea, Gorputzeko afekzioen ordenaren eta katearen arabera arautzen diren bezala *(2. Zat., 18. Prop. arab.)* alderantziz, halaber *(3. Zat., 2. Prop. arab.)* Gorputzeko afekzioen ordena eta katea arautzen dira, gauzen pentsamenduak eta ideiak Izpirituan ordenatzen eta kateatzen diren arabera. H.B.D.B.

II. Proposizioa

Kanpoko kausa baten pentsamendutik Izpirituko hunkipen edo afektu bat banatzen baldin badugu eta beste pentsamendu batzuekin batzen, kanpoko kausaren aldeko Maitasuna eta Gorrotoa, eta afektu horietarik datozen Izpirituaren gora-beherak suntsitzen dira.

Demonstrazioa

Kanpoko kausa baten ideiak laguntzen duen Poztasuna edo Tristura da, alabaina, Maitasunaren edo Gorrotoaren forma *(Afekz. 6. & 7. Def. arab.);* ideia hori kenduz geroz, beraz, Maitasunaren edo Gorrotoaren forma, aldi berean, galtzen da; eta, horrela, afektu horiek eta horietarik sortzen direnak suntsitzen dira. H.B.D.B.

III. Proposizioa

Pasioa den afektua ez da gehiago pasioa, haren ideia argi eta berezia osatzen dugun ber.

Demonstrazioa

Pasioa den afektua ideia nahasi bat da *(Afekz. Def. orok. arab.).* Eta, beraz, afektu horren ideia argi eta berezia osatzen baldin badugu, ideia horren eta afektuaren beraren artean, hau Izpiritu soilari dagokion bezainbatean, ez da arrazoizko bereizketa bat baizik *(2. Zat., 21. Prop. eta haren Eskol. arab.)*; eta, horrela *(3. Zat., 3. Prop. arab.)* afektua ez da gehiago pasio bat izanen. H.B.D.B.

Korolarioa

Zenbat eta hobeki ezagutzen baitugu, beraz, afektu bat, hainbat eta gehiago daukagu hura gure esku; hainbat eta gutiago du hartarik pairatzeko Izpirituak.

IV. Proposizioa

Ez da nehongo Gorputzaren afekziorik, haren konzeptu argi eta berezi zerbait osa ez dezakegunik.

Demonstrazioa

Gauza guztiek amankomunean dituztenak ez dira pentsatzen ahal modu egokian baizik *(2. Zat., 38. Prop. arab.);* eta, ondorioz, *(2. Zat., 13. Prop. eskol. ondotik datozen 12. Prop. eta 2. Lem. arab.)* ez da Gorputzaren afekziorik, haren konzeptu argi eta berezi zerbait osatzen ahal ez dugunik. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator nehongo Izpirituaren afekturik ez izatea, haren konzeptu argi eta berezi zerbait osa ez dezakegunik. Gorputzeko afekzioaren ideia besterik ez da, alabaina, Izpirituaren afektua *(Afekz. Def. orok. arab.)* eta, beraz, *(aitzin. Prop. arab.)* barne hartu behar du konzeptu argi eta berezi zerbait.

Eskolioa

Deus ez denaz geroz gertatzen zerbait ondorio ez dakarkeenik *(1. Zat., 36. Prop. arab.)* eta gure baitan egokia den ideia batetik datorren guztia ezagutzen dugunaz geroz modu argi eta berezian *(2. Zat., 40. Prop. arab.),* hortik dator gutarik bakoitzak baduela bere buruaren eta bere afektuen, absolutuki ez bada, zatika

bederen, modu argi eta egokian ezagutzeko ahalmena eta, ondorioz, haietarik ez hainbeste pairatzeko bidea. Horretan beraz behar dugu lehiatu, hots, gure afektu bakoitza modu argi eta egokian, ahal bezainbatean, ezagut dezagun eta, horrela, gure Izpiritua afektu bakoitzak ekar dezan modu argi eta berezian hautematen dituenei eta gozo osoa ematen diotenei pentsatzera. Orduan gure afektu bakoitza banatuko dugu kanpoko kausaren pentsamendutik eta pentsamendu egokiekin batuko eta, horrela, gertatuko da, ez bakarrik Maitasuna eta Gorrotoa eta besteak suntsitzea *(2. Prop. arab.)* baina afektu horretarik sortzen ohi diren gutiziak edo Gurariak ez gainditzea *(4. Zat., 61. Prop. arab.).* Ezen, oroz lehen, ohartu behar da gurari bakar eta beraren bitartez duela gizakiak pairatzen nola ekiten: adibidez, erakutsi dugularik giza izaera gisa hartara egina dela non bakoitzak gura baitu besteak bizi daitezen haren jitearen arabera (ikus 3. Zat., 31. Prop. Eskol.); eta gurari honek, adimenak ez darabilan gizakiaren baitan Handinahiaren pasioa osatzen du, Harrokeriaren berdintsua dena; adimenaren arabera bizi den gizakiaren baitan, aldiz, gurari bera egitate edo bertute bat da, Pietatea deitzen dena *(ikus 4. Zat., 37. Prop. Eskol. eta Prop. bereko 2. Demonstrazioa).* Eta, horrela, gurari edo Gutizia guztiak pasioak dira ideia ezegokietarik sortzen diren bezainbatean; eta Gutizia horiek berak, ideia egokietarik heltzen edo sortzen direlarik, bertute kontu doaz. Zeren eta Gutizia guztiak, zerbaiten egitera garamatzatenak, berdin sor daitezke ideia egokietarik ala ezegokietarik *(4. Zat., 59. Prop. arab.)* eta -baztertu naizen solasera itzultzeko- afektuen sendagailutzat ez dezakegu asma sendagailu hoberik, gure esku daitekeenik, haien egiazko ezagutza baino, Izpirituak ez duenaz geroz beste ahalmenik, pentsatzekoa baizik eta ideia egokien osatzekoa, jadanik erakutsi dugun bezala *(3. Zat. 3. Prop. arab.)*.

V. Proposizioa

Ez ezinbesteko ez ahalezko ez kontingente bezala, baina sinpleki irudikatzen dugun gauzaren Afektua da, besteak beste, izan daitekeen handiena.

Demonstrazioa

Libre bezala irudikatzen dugun Afektu baten aldeko gauza, ezinbesteko bezala egiten duguna baino handiago da *(3. Zat., 49. Prop. arab.),* eta ondorioz, ahalezko ala kontingente bezala irudikatzen duguna baino are handiago *(4. Zat., 11. Prop. arab.).* Baina gauza baten libre bezala irudikatzea, gauza baten sinpleki irudikatzea baizik ez da, ondorio zerbaiten ekoiztera hura determinatzen duten kausak ezagutzen ez ditugularik *(2. Zat., 35. Prop. Eskolioan, erakutsi dugunaren arab.).* Eta beraz sinpleki irudikatzen dugun gauza baten aldeko afektua, besteak beste, handiago da, ezinbesteko, ahalezko edo kontingente bezala irudikatzen dugunaren aldekoa baino, eta ondorioz denetarik handiena da. H.B.D.B.

VI. Proposizioa

Gauza guztiak ezinbesteko bezala ezagutzen dituen bezainbatean, Izpirituak esku gehiago badu afektuen gainean, eta haien aldetik jasateko gutiago izaten du.

Demonstrazioa

Izpirituak badaki gauza guztiak ezinbestekoak direla *(1. Zat., 29. Prop. arab.),* eta existitzera eta ihardutera kontaezinezko kausa kateak determinatzen dituela *(1. Zat., 28. Prop. arab.),* eta horrela *(aitzin. Prop. arab.),* berak duen gauzen ezagutzaren neurrian, gauza haietarik datozen afektuetarik gutiago jasaten du *(3. Zat., 48. Prop. arab.),* eta gutiago jasaten ere gauza haien beren aldetik. H.B.D.B.

Eskolioa

Zenbat eta gehiago gauza bereziei baitagokie ezinbestekoak direla gauzak jakitea, hanbat eta modu argiagoan eta bereziagoan irudikatzen dira gauza haiek, hanbat eta handiagoa ere Izpirituak afektuen gainean duen ahalmena: esperientziak berak erakusten duen bezala.

Ikusten dugu alabaina, galdu den ontasun baten Tristura eztitzen dela, ontasun hura neholaz ere ez zela begiratzen ahal, galtzailea ohartzen den une berean.

Ikusten dugu halaber, nehork ez duela haur bat urrikari, haur horrek ez dakielakotz mintzatzen, ibiltzen, arrazoinatzen, eta hainbeste urtetan bizi bere buruari ohartu gabe; aldiz haur gehienak sortzen balira jende heldu bezala, eta nor edo nor sor baledi haur bezala, orduan bai haurrak urrikari genituzke, ez bailiguke naturazko eta ezinbesteko gauza bat iduri haurtasuna, baina Naturaren huts edo oker bat bailirudike gauza horrek.

Eta horrelako beste ohar asko egin genitzake.

VII. Proposizioa

Arrazoiaren ganik datozen edo pizten diren afektuak ahaltsuago dira, denbora kontutan hartuz geroz, kanpokotzat hartzen diren gauza bereziei dagozkienak baino.

Demonstrazioa

Gauza bat ez dugu kanpo bezala hartzen, hura irudikarazten digun afektuarengatik, baina bai gauza haren existentzia baztertzeko, Gorputza hunki duen beste afektu batengatik, *(2. Zat., 17. Prop. arab).* Horra zergatik, kanpokotzat hartzen den gauzari dagokion afektua, ez den izatez gai, gizakiaren beste ahalak eta ekintzak gainditzeko *(ikus horretaz 4. Zat., 6. Prop.);* baina alderantziz, haren izaerari dagokio, haren kanpoko kausaren existentzia baztertzen duten afekzioek hura nolazpait garaitu ahal izatea, *(4. Zat., 9. Prop. arab.)* .

Arrazoiaren ganik sortzen den afektua bada, *(ikus Arrazoiaren Definizioa 2. Zat., 4O. Prop. 2. Eskolioan)* dagokie nahitaez, *(2. Zat., 38. Prop. arab.)* (haien presenteko existentzia ukatzeko ez delakotz deus izaten ahal) beti presentetzat dauzkagun, eta beti modu berean irudikatzen ditugun, gauzen bereizgarri arruntei.

Horra zergatik horrelako afektua beti bera gelditzen den, eta ondorioz *(1. Axiom. arab.)* haren aurkako afektuak, beren kanpoko kausek hazten ez dituztenak, egokitu beharko zaizkio gero, haren aurkako ez izateraino gehiago; eta horrela, Arrazoiaren ganik datorren afektua ahaltsuago da. H.B.D.B.

VIII. Proposizioa

Zenbat eta kausa gehiago baitatoz elkarrekin, afektu baten pizteko, hanbat eta handiago da ere delako afektua.

Demonstrazioa

Kausa anitzek batean gehiago ahal dute, guti diren batzuek baino *(3. Zat., 7. Prop. arab.) ;* eta ondorioz *(4. Zat. 5. Prop. arab.),* zenbat eta kausa gehiagok baitute elkarrekin afektu bat pizten, hanbat eta indartsuago dute ere hura egiten. H.B.D.B.

Eskolioa

Proposizio hau nabarmen agertzen da ere 2. Axiomaren arabera.

IX. Proposizioa

Zenbait kausa ezberdinei dagokien afektua, Izpirituak bera hunkia den aldi berean kontenplatzen duena, ez da hain kaltegarri, ez hain jasangaitz, eta ez gaitu kausa berezi bakoitzaren aldetik hainbeste hunkitzen, nola baikenitzake hunki edo kausa gutiagori edo kausa bakarrari legokiokeen beste afektu berdin handi batek.

Demonstrazioa

Afektu bat ez da txarra edo kaltegarria, Izpirituari pentsatzea eragozten diolako baizik *(4. Zat., 26. &27. Prop.)*; eta horregatik, zenbait objektu batean kontenplantzera Izpiritua determinatzen duen afektua, ez da, beste batzuei ez pentsatzeko gisan, objektu gutiagoren edo bakar baten kontenplatzen soilik dadukan beste afektu berdin handi bat baino kaltegarriago: Hau baitzen lehena.

Bestalde, Izpirituaren esentzia, hau da *(3. Zat., 7. Prop. arab.)* haren ahalmena, pentsamenduan datzanez geroz soilik *(2. Zat., 11. Prop. arab.),* gutiago jasaten du zenbait objektu batean kontenplatzera determinatzen duen afektuaren aldetik, objektu gutiagoren edo bakar baten soilik kontenplatzen dadukan beste afektu berdin handi baten aldetik baino: Hau baitzen bigarrena.

Azkenean, afektu hau *(3. Zat., 48. Prop. arab.),* kanpoko kausa askori dagokien aldetik, haietarik bakoitzari buruz ahulago da. H.B.D.B.

X. Proposizioa

Gure izaeraren kontrako afektuek josten ez gaituzteno, Gorputzeko afekzioak adimenari dagokion ordenaren arabera ordenatzeko eta kateatzeko ahalmena badugu.

Demonstrazioa

Gure izaeraren kontrako diren afektuak, hau da *(4. Zat., 30. Prop. arab.)* gaiztoak direnak, Izpiritua ezagutzatik eragozten dutenez dira gaiztoak *(4. Zat., 27. Prop. arab.).* Gure izaeraren kontrako afektuek josten ez gaituzteno, gauzen ezagutzen lehiatzeko Izpirituak duen ahalmena *(4. Zat., 26. Prop. arab.)* ez da eragozten; eta ideia argi eta bereziak osatzeko, eta batzuk bestetarik deduzitzeko ahalmena badauka *(ikus 2. Zat., 4O. Prop. 2. Eskol. eta 47. Prop. Eskolioa);* eta beraz tarte horretan *(1. Prop. arab.),* adimenari dagokion ordenaren arabera Gorputzaren afekzioen ordenatzeko eta kateatzeko ahalmena badaukagu. H.B.D.B.

Eskolioa

Gorputzeko afekzioen zuzenki ordenatzeko eta kateatzeko ahalmen horri esker ardiets dezakegu afektu gaiztoek ez gaitzaten erraz hunki. Zeren *(7. Prop. arab.)* indar handiagoa behar da adimenari dagokion ordenaren arabera ordenatuak eta kateatuak diren afektuak menderatzeko, zehazgabeak eta aldakorrak baino. Egin dezakegun hoberena da beraz, gure afektuen ezagutza beterik ez duguno izanen da bizilege zuzena edo bizitzako printzipio seguruak asmatzea, eta oroimenari haiek gomendatzea, eta bizian barrena maiz gertatzen diren gauza berezien kasuan haiek beti aplikatzea, gure irudimenaz horrela haiek nasai jabe daitezen, eta beti gogoan atxiki ditzagun.

Bizitzako printzipio bezala, adibidez, jarri dugu, alabaina, *(ikus 4. Zat., 46. Prop. eta haren Eskolioa)* Maitasunak eta Bihotz zabaltasunak behar dutela Herra garaitu, eta ez beste Herra mota batez hura ordaindu. Eta, behar orduan, Arrazoiaren agindu hori beti gogoan izateko, maiz pentsatu behar da gizakiek komunzki elkarri egiten dituzten laidoei eta haiek hausnartu, ikusteko nola eta zer moduz ohilduko diren, ahal bezain ongi, Bihotz zabaltasunez, ezen horrela laidoaren iduriarekin lotuko dugu aginduaren irudikapena, eta hau, laidoa jasan orduko, *(2.Zat., 18. Prop. arab.),* gogoratuko zaigu berehala.

Eta gogoan atxikitzen baldin bagenu, ere, gure egiazko interesa, eta elkarrekilako adiskidetasunetik eta elkartasun amankomunetik datorren ongia, eta, gainera, gure bizia bide zuzenean eramatetik *(4. Zat., 52. Prop. arab.),* sortzen den barneko gozo izigarria,

eta, beste izaki guztiek bezala, beren izaeraren beharrezkotasunaren arabera dihardutela gizakiek, orduan laidoak, edo hartarik sortzen ohi den Herrak leku guti har lezake gure irudimenean, eta errazki gaindi genezake; edo laido gaiztoenetarik sortzen ohi den Haserrealdia ez bageneza hain errazki gaindi, gaindi genezake bizkitartean, nahiz ez izpirituaren gorabeherarik gabe, aitzineko gogoetak ausnartu ez bagenitu baino biziki denbora laburragoz, 6, 7, eta 8. Proposizioen arabera.

Oroitu behar gara, halaber, Beldurraren ohiltzeko erabilgarri den izpirituaren Sendotasunaz; bizitzaren ohiko arriskuak behar ditugu gogoan iragan eta maiz irudikatu, ikusteko nola, hobekienik, saihesten ahal ditugun eta gainditzen, izpirituaren ernetasunari eta sendotasunari esker. Ohartzeko da, ordea, gure gogoetak eta irudikapenak ordenatzean, *(3. Zat., 59. Prop. eta 4. Zat., 63. Prop. Korol. arab.)*, beti, kontutan hartu behar dela zer duen onik gauza bakoitzak, beti, behartuak izan gaitezen, horrela, Bozkariozko afektu batengatik ihardutera.

Norbaitek, adibidez, ikusten baldin badu Loria gose dela, gogoan har dezala nola onerako erabiltzen ahal duen, eta zer xedetan bilatu behar duen, bai eta zer bitartekoz erdietsiko duen, baina ez dezala pentsa haren erabilze gaiztoari, edo haren hutsalkeriari, edo gizakien aldakortasunari, edo nehork bihozminik gabe gogoratzen ez dituen beste horrelako gauza batzuei; pentsamendu hauengatik, alabaina, gehienik gose direnek dute gehienik pairatzen, gutiziatzen duten ohoreraino ezin helduz etsitzen dutelarik, eta, haserre gorrian izanki-eta, prestu iduri nahiz lehiatzen direlarik. Horra, beraz, zergatik segura den, gehienik Loria gose direnak, mintzo direla gorenik haren abusuaz eta munduaren hutsalkeriaz.

Ez da hau, ordea, ohoregose direnen berezitasuna, baina, bai, zorigaitzak jotzen dituen eta barne ilauna duten guztiena. Ezen, zikoitza, ere, behartsua delarik, ezin isildua da diruaren abusuaz, eta dirudunen bizioez; horrek ez baitu beste ondoriorik norbera mintzea baizik, eta bestei erakustea zein gaizki hartzen duen ez bakarrik bere pobretasuna, baina, ere, besteen aberastasuna.

Eta, halaber, beren maitaleak gaizki hartu dituen gizonek ez dakite beste deusi pentsatzen emazteen aldakotasunari, haien faltsukeriari, eta kantuak aipu dituen beste bizioei baizik; eta horiek guztiak ahantziak dira, maitaleak berriz ongi etorri egin orduko.

Nor ere, beraz, lehiatzen baita, Libertatearen amodio soilaz bere afektuak eta bere gutiziak kudeatzera, hura saiatzen da, ahal bezainbatean, bertuteen eta haien kausen ezagutzen, eta haien ezagutza egiazkotik sortzen den gozoaz asebetetzen; eta ez, ordea, batere, gizakien bizioen kontenplatzen edo gizakien gutiesten eta libertate itxura faltsu batez gozatzen. Eta lege hau artoski gogoratuko -ez baita hori neke- eta begiratuko duenak, denbora guti barne, bere egintzak Arrazoiaren agintepean, gehienetan, bideratzen ahalko ditu.

XI. Proposizioa

Zenbat eta gauza gehiagori baitagokie edozein irudi, hanbat eta arruntago da, hots, hanbat eta maizago agertzen da eta hanbat leku gehiago hartzen du Izpirituan.

Demonstrazioa

Zenbat eta gauza gehiagori baitagokie, alabaina, edozein irudi edo afektu, hura pitz edo haz dezakete hanbat kausa gehiagok, zeinak guztiak batean kontenpla baititzake Izpirituak *(Hipotesiaren arabera)*, afektuaren beraren bertutez; eta horregatik delako irudia hanbat eta arruntago da, hots, hanbat eta maizago agertzen da eta hanbat gehiago leku hartzen du Izpirituan. H.B.D.B.

XII. Proposizioa

Modu argi eta berezian ezagutzen ditugun gauzei dagozkien irudiekin, bestelakoekin baino errazkiago, bat egiten dute gauzen irudiek.

Demonstrazioa
Modu argi eta berezian ezagutzen ditugun gauzak, edo gauzen proprietateak dira edo haietarik deduzitzen direnak *(ikus 2. Zat., 40. Prop. 2. Eskol. Arrazoiaren Def.)* eta, beraz, *(aitzin. Prop. arab.),* maizago irudikatzen ditugunak; eta horregatik errazago izanen da gauza haiekin batean beste objektu batzuen kontenplatzea, beste batzuekin batean baino, eta, ondorioz, errazago ere *(2. Zat., 10. Prop. arab.),* haiekin berekin gauza batzuek bat egitea, beste batzuekin baino. H.B.D.B.
XIII. Proposizioa
Zenbat eta gauza gehiagorekin baitu bat egiten irudi edozeinek, hanbat eta maizago argitzen du irudi hark.
Demonstrazioa
Zenbat eta gauza gehiagori baitagokie, alabaina, edozein irudi, hanbat eta gehiago kausa badira *(2. Zat., 18. Prop. arab.),* hura pizten ahal dutenak. H.B.D.B.
XIV. Proposizioa
Izpirituak egin dezake Jainkoaren ideiari dagozkiola Gorputzeko afekzio guztiak, erran nahi baita gauzen irudi guztiak.
Demonstrazioa
Gorputzaren afekziorik ez da, non ez duen haren kontzeptu argi eta berezirik Izpirituak osatzen ahal, *(4. Prop. arab.),* eta, beraz, *(1. Zat., 15. Prop. arab.)* Izpirituak egin dezake Jainkoaren ideiari dagozkien guztiak. H.B.D.B.
XV. Proposizioa
Modu argi eta berezi batean ezagutzen dituenak bere burua eta bere afektuak maite du Jainkoa; zenbat eta hobeki ere ezagutzen baititu bere burua eta bere afektuak, hanbat eta gehiago.
Demonstrazioa
Bere burua eta bere afektuak ezagutzen dituena bozkariotan da *(3. Zat., 53. Prop. arab.),* eta hori, *(aitzin. Prop. arab.),* Jainkoaren ideiak lagundurik; eta, ondorioz, *(Afekz. 6. Def. arab.)* maite du Jainkoa eta *(arrazoi berarengatik)* eta zenbat eta gehiago bere burua eta bere afektuak ezagutzen baititu, hanbat eta gehiago maite du. H.B.D.B.
XVI. Proposizioa
Jainkoaren aldeko Maitasun horrek biziki leku hartu behar du Izpirituan.
Demonstrazioa
Maitasun horrek, alabaina, bat egiten du, *(aitzin. Prop. arab.),* Gorputzaren afekzio guztiekin eta *(15. Prop. arab.),* guztiek hazten dute; behar du, beraz, *(16. Prop. arab.),* biziki leku hartu Izpirituan. H.B.D.B.
XVII. Proposizioa
Jainkoak ez du pasiorik, eta ez du afekzio bihirik pairatzen, ez bozkariorik ez tristurarik.
Demonstrazioa
Jainkoari dagozkien aldetik, ideia guztiak egiak dira, *(2. Zat., 32. Prop. arab.),* hau da, *(2. Zat., 4. Def. arab.),* egokiak; eta horrela, *(Afekz. Def. orok. arab.),* Jainkoak ez du pasiorik. Jainkoa, gainera, *(51. Zat., 40. Prop. 2. Korol. arab.),* ez da iragaiten ahal perfekzio handiagora ez tipiagora; eta, ondorioz, *(Afekz. 2. & 3. Def. arab.)* ez du afekzio bihirik pairatzen, ez bozkariorik ez tristurarik. H.B.D.B.
Korolarioa
Jainkoak, garbi mintzatzeko, ez du nehorentzat ez herrarik ez maitasunik, zeren eta Jainkoak, *(aitzin. Prop. arab.),* ez baitu nehongo afekziorik ez bozkariorik ez tristurarik pairatzen, eta, ondorioz, *(Afekz. 6. & 7. Def. arab.),* ez du nehorentzat ez herrarik ez maitasunik izaten.
XVIII. Proposizioa
Nehork ez du Jainkoa hastiatzen ahal.

Demonstrazioa
Gure baitan den Jainkoaren ideia egokia da eta betegina, *(2. Zat., 46. &47. Prop. arab.)* eta, ondorioz, Jainkoa kontenplatzen dugun aldetik aktibo gara *(3. Zat., 3. Prop. arab.)* eta, beraz, *(3. Zat., 59. Prop. arab.),* Jainkoaren ideiarekin batean ez da izaten ahal Tristurarik; erran nahi da *(Afekz. 7. Def. arab.),* nehork ez duela hastiatzen ahal Jainkoa. H.B.D.B.
Korolarioa
Jainkoaren aldeko Maitasuna ez da gorroto bihurtzen ahal.
Eskolioa
Ohartaraziko digute menturaz, Jainkoa dela gauza guztien kausa pentsatzen baldin badugu, onartzen dugula, beraz, Jainkoa dela ere Tristuraren kausa. Baina, nik ihardetsiko dut, Tristuraren kausak ezagutzen ditugun neurrian, *(3. Prop. arab.)* ez dela gehiago hura pasio bat, hots, *(3. Zat., 59. Prop. arab.),* ez dela gehiago Tristura; eta, horrela, Tristuraren kausa Jainkoa dela badakigun ber, bozkariotan gara.
XIX. Proposizioa
Jainkoa maite duenak, Jainkoak ordainez hura maita dezan ez du lehiatzerik.
Demonstrazioa
Norbait, horrela, lehia baledi, nahi luke, beraz, *(17. Prop. Korol. arab.)* maite duen Jainkoa ez dadin izan Jainko eta, ondorioz, *(3. Zat., 19. Prop. arab.),* nahi luke atsekabetu, baina *(3. Zat., 28. Prop. arab.)* hori absurdua da. Jainkoa maite duenak, beraz, etab. H.B.D.B.
XX. Proposizioa
Jainkoaren aldeko Maitasuna ez dezake kutsa ez Inbidiazko ez Bekaizkeriazko afekzioak; baina Maitasunezko lokarri berak Jainkoari lotzen dizkion jende gehiago irudikatu arau, maitatzenago dugu Jainkoa.
Demonstrazioa
Jainkoaren aldeko Maitasuna da Arrazoiaren aginduari jarraikiz desiratzen ahal dugun ongirik handiena, (4. Zat., 28. Prop. arab.), gizaki guztien ontasun komuna da (4. Zat., 36. Prop. arab.), eta guztiek hura goza dezaten gura dugu (4. Zat., 37. Prop. arab.); eta, horrela, (Afekz. 23. Def. arab.), ez dezake kutsa Inbidiazko afektuak, ez eta ere (18. Prop. eta 3. Zat. 35. Prop. Eskol. den Bekaizkeriaren Def. arab.), Bekaizkeriazkoak; baina, alderantziz, (3. Zat., 31. Prop. arab.), gizaki gehiagok Maitasun hori gozatzen dutela irudikatu arau, handitzenago zaigu.
Eskolioa
Modu berean demonstratzen ahal dugu ez dela nehongo afekturik Maitasun horren aurka zuzenean doanik eta Maitasun hori bera suntsi dezakeenik eta hortik atera dezakegu Jainkoaren aldeko Maitasun hori dela afektu guztietarik iraunkorrena eta, Gorputzari dagokion aldetik, ez dela suntsitzen ahal Gorputzarekin batean baizik. Izpirituari dagokion aldetik, berriz, geroago ikusiko dugu zer den haren izaera.
Aitzineko Proposizioetan bildu ditut afektuen kontrako sendagailu guztiak, hots, Izpirituak berak bakarrik haien aurka egin ditzakeen guztiak, hortik nabari baita Izpirituak afektuen gainean duen ahalmena honetan datzala: 1.- ik, afektuen beren ezagutzan *(ikus 4. Prop. Eskol.)*; 2.-ik, afektuen eta irudikatzen dugun kanpoko kausa baten pentsamendu nahasiaren banaketan *(ikus 2. Prop. eta 4. Prop. Eskol. bera)*; 3.-ik, ezagutzen ditugun gauzei dagozkien afektuek, ideia nahasi eta murriztaileak ditugun gauzei buruz dagozkien afektuak gainditzeko eskatzen duen denbora *(ikus 7. Prop.)*; 4.-ik, Jainkoari edo gauzen propietate komunei dagozkien afektuak hazten dituzten kausen kopuru handian *(ikus 9. eta 11. Prop.)*; 5.-ik, azkenean Izpirituak bere afektuak ordenatzeko eta elkarrekin kateatzeko jar dezakeen ordenan *(ikus 10. Prop. Eskol. eta, gainera, 12., 13. eta 14. Prop.).*

Baina, Izpirituak afektuen gainean duen ahalmena hobeki ezagutzeko ohartu behar da, oroz lehen, afektu handiez mintzo garela, gizaki baten afektua beste baten afektuarekin konparatu eta ikusten dugularik afektu berak hau hura baino gehiago menperatzen duela; edo oraino, gizaki bat eta beraren afektuak elkarren artean konparatzen ditugularik, afektu batek besteak baino gehiago jotzen eta inarrosten duela kausitzean. Zeren eta *(4. Zat., 5. Prop. arab.)* kanpoko gauza baten ahalmena gurearekin

konparatuz neurtzen da edozein afektuen indarra; Izpirituaren ahalmena, ordea, ezagutzak soilik definitzen du; haren ezintasuna edo pasioa, aldiz, ezagutza gabeziak; erran nahi baita, ideiak ezegokiak deitzen direlako kausak duela hori neurtzen. Eta, hortik dator ideia ezegokiek gehienean osatzen duten Izpiritua izatea gehienik jasaten duena eta haren jasankortasuna izatea haren eraginkortasuna baino lehen hura bereizten duen ezaugarria; ideia egokiek gehienean osatzen dutena da, aldiz, Izpiritu eraginkorrena eta, gisa horretan, besteak bezainbat ideia ezegoki izanagatik, gizakiaren indarrari dagozkion ideia egokietan aurkitzen da haren ezaugarri berezia, gizakiaren ezintasuna frogatzen duten ideia ezegokietan baino lehen.

Ohartu behar da, bestalde, atsekabeek eta bihozminek beren iturburu nagusia daukatela guztiz aldakorra den eta sekula osoki gureganatzen ahal ez dugun gauza baten aldeko Maitasun gehiegizkoan. Nehor, ezen, ez da kezkatzen edo grinatzen maite duen gauza batengatik baizik. Ulertzen dugu, errazki, horrela, zer eragin izan dezakeen ezagutza egoki eta bereziak afektuen gainean eta, bereziki, Jainkoaren ezagutzan berean oinarria duen hirugarren mailako ezagutzak *(ikus 2. Zat., 47. Prop. Eskol.).* Zeren eta afektu horiek, pasioak izanagatik ez baldin baditu absolutuki kentzen *(ikus 3. eta 4. Prop. Eskol.)* Izpirituko parterik tipiena bederen harrarazten die *(14. Prop. arab.).* Ezagutza horrek, gainera, sortzen du aldaezinezko eta betiereko gauza baten aldeko Maitasuna *(15. Prop. arab.)* eta, egiazki, horren jabe egiten gaitu *(ikus 2. Zat., 45. Prop.)* eta, ondorioz, Maitasun hori ez dute kutsatzen ahal Maitasun arruntari dagozkien bizioek, baina, alderantziz, gero eta handiago bilaka daiteke *(17. Prop. arab.)* eta Izpirituaren baitan lekurik gehiena har dezake *(16. Prop. arab.)* eta hura hunki nasaiki.

Horrela amaitzen dut presenteko bizitzari dagozkion guztiekin; Eskolio honen hastetik erran dudanaz, hots Proposizio guti hauetan sarrarazten ditudala afektuen sendagailu guztiak, bakoitzak ikusten ahalko du, errazki, horrela denentz, Eskolio horretan erranak kontutan hartuz geroz eta, aldi berean, Izpirituaren eta haren afektuen Definizioak eta, azkenean, 3. Zatiko 1. eta 3. Proposizioak.

Ordu dugu, beraz, orain Gorputzaren existentziarekin ikustekorik ez duen Izpirituaren iraupenera iragaiteko.

XXI. Proposizioa

Izpirituak ez dezake deus irudika eta ez daiteke iraganeko deusez oroit, Gorputzak diraueno baizik.

Demonstrazioa

Izpirituak ez du bere Gorputzaren presenteko existentzia espresatzen eta ez ditu ere Gorputzaren presenteko afekzioak presenteko bezala pentsatzen, Gorputzak diraueno baizik *(2. Zat., 8. Prop. Korol. arab.)* eta, ondorioz *(2. Zat., 28. Prop. arab.)* ez du neholako gorputzik pentsatzen ahal aktuan existitzen den bezala, haren Gorputzak irauten dueno baizik eta, beraz, ez dezake deus irudika *(ikus Irudimenaren definizioa 2. Zat., 17. Prop. Eskol.)* eta ez daiteke iraganeko gauzez oroit, Gorputzak diraueno baizik *(ikus Oroimenaren definizioa 2. Zat., 18. Prop. Eskol.).* H.B.D.B.

XXII. Proposizioa

Jainkoaren baitan, bizkitartean, aurkitzen da, nahitaez, ideia bat, giza Gorputz honen edo haren esentzia halako betierekotasun baten arabera adierazten duena.

Demonstrazioa

Jainkoa ez da bakarrik giza Gorputz honen edo haren existentziaren kausa, baina esentziaren kausa ere *(1. Zat., 25. Prop. arab.)* eta esentzia hori ulertu behar da, nahitaez, Jainkoaren esentziaren beraren arabera *(1. Zat., 4. Axiom. arab.)* eta, bestalde, halako betiereko ezinbestekotasun baten arabera *(1. Zat., 16. Prop. arab.)* eta, segur,

kontzeptu hori Jainkoaren baitan aurkitu behar da, nahitaez, *(2. Zat., 3. Prop. arab.)*. H.B.D.B.

XXIII. Proposizioa

Giza Izpiritua ez da Gorputzarekin batean absolutuki suntsitzen ahal, baina haren zer edo zer gelditzen da betiereko dena.

Demonstrazioa

Giza Gorputzaren esentzia espresatzen duen kontzeptua edo ideia Jainkoaren baitan aurkitzen da, nahitaez, *(aitzin. Prop. arab.)* eta, beraz, kontzeptu hori giza Izpirituaren esentziari, nahitaez, dagokion gauza bat da *(2. Zat., 13. Prop. arab.)*. Ez diogu, ordea, nehongo denboraren arabera neurtzeko iraupenik eratxikitzen giza Izpirituari, non ez duen espresatzen presenteko Gorputzaren existentzia, iraupenean azaltzen dena eta denboraren arabera neurtzen; hots, *(2. Zat., 8. Prop. korol. arab.)* ez diogu beste iraupenik eratxikitzen Izpirituari Gorputzak diraueno baizik.

Jainkoaren esentziaren beraren halako betiereko ezinbestekotasun baten arabera pentsatzen dena *(aitzin. Prop. arab.)* zerbait baita, bizkitartean, Izpirituaren esentziari dagokion zerbait hori, nahitaez, betierekoa izanen da. H.B.D.B.

Eskolioa

Erran dugun bezala, halako betierekotasun batekin Gorputzaren esentzia espresatzen duen ideia, pentsatzeko modu jakin bat da, Izpirituaren esentziari dagokiona eta, nahitez, betierekoa dena. Ez gara, bizkitartean, Gorputza baino lehen existitu izanik oroitzen ahal, existentzia horren neholako aztarnarik ez baita Gorputzean aurkitzen eta, bestalde, ez baita betierea denborarekin neurtzen eta ez baitu betiereak neholako erlaziorik denborarekin. Eta senti dugu, bizkitartean, eta badakigu esperientziaz, betierekoak garela. Izpirituak, ezen, adimenaren egitez ezagutzen dituen gauzak senti ditu oroimenean dauzkanak bezain segur, zeren eta demonstrazioak berak baitira gauzei begiratzeko eta haien ikusteko Izpirituak dituen begiak. Eta beraz, nahiz Gorputza baino lehen existiturik ez garen oroitzen, senti dugu halaere gure Izpiritua, Gorputzaren esentzia halako betierekotasun batekin barne hartzen duen bezainbatean, betierekoa dela eta Izprituaren existentzia hori ez dela denborarekin neurtzen, ez eta iraupenaren arabera azaltzen ahal. Ez dezakegu erran, beraz, gure Izpirituak irauten duela ez eta haren existentzia denbora mugatu batek neurtzen duela, non ez duen presenteko Gorputzaren existentzia barne hartzen eta, hein horretan bakarrik, gauzen existentzia denboraz neurtzeko eta iraupenaren arabera haien pentsatzeko ahalmena badu.

XXIV. Proposizioa

Zenbat eta gauza berezi gehiago baitugu ezagutzen, hainbat eta hobeki dugu ere ezagutzen Jainkoa.

Demonstrazioa

Hori argi da, 1. Zatiko 25. Proposizioaren Korolarioaren arabera.

XXV. Proposizioa

Izpirituaren oldar handiena eta haren bertute gorena da hirugarren ezagutza mailaren arabera gauzen ezagutzea.

Demonstrazioa

Jainkoaren atributu batzuen ideia egokitik gauzen esentziaren ezagutza egokira buruz doa hirugarren mailako ezagutza *(ikus 2. Zat., 40. Prop. 2. Eskol. ezagutza maila horren Def.);* eta *(aitzin. Prop. arab.)* zenbat eta gehiago gauzak modu horretan ezagutuko baititugu, hainbat eta hobeki ezagutuko dugu Jainkoa eta, ondorioz, *(3. Zat., 28. Prop. arab.)* Izpirituaren bertute gorena; erran nahi baita *(4. Zat., 8. Def. arab.)*, Izpirituaren ahalmena edo izaera, hots, *(4. Zat., 7. Prop. arab.)* hirugarren ezagutza mailaren arabera gauzen ezagutzea izanen dela haren oldar handiena. H.B.D.B.

XXVI. Proposizioa

Zenbat eta gehiago gai baita Izpiritua hirugarren ezagutza mailaren arabera gauzen ulertzeko, hainbat eta gehiago lehia du haien horrela ezagutzeko.

Demonstrazioa

Hori argi da, ezen, ezagutza maila horren arabera gauzen ulertzeko Izpiritua gai dela pentsatzen dugun bezainbatean, ulertzen dugu ere hainbatean determinatua dela haien ezagutzera ezagutza maila berean eta, ondorioz, *(Afekz. 1. Def. arab.)* zenbat eta gehiago gai baita horretara Izpiritua, hainbat eta handiago da haren lehia. H.B.D.B.

XXVII. Proposizioa

Hirugarren ezagutza maila horretatik sortzen da izan daitekeen Izpirituaren gozorik handiena.

Demonstrazioa

Izpirituaren bertuterik gorena Jainkoaren ezagutza da *(4. Zat., 28. Prop. arab.)* erran nahi baita, *(25. Prop. arab.)* hirugarren ezagutza mailaren araberako ezagutza; zenbat eta gehiago gauzak ezagutzen baititu Izpirituak ezagutza maila horretan, hainbat eta handiago da haren bertutea; eta beraz ezagutza maila horretan gauzak ezagutzen dituena, giza betegintzarre gorenera heltzen da eta, ondorioz, Poztasun handienaz bozkariatzen *(Afekz. 2. Def. arab.)* eta hori *(2. Zat., 43. Prop. arab.)* bere buruaren eta bere bertute propioaren ideiak lagundurik; eta, horrenbestez, *(Afekz. 25. Def. arab.)* ezagutza maila horretatik sortzen da izan daitekeen gozorik handiena. H.B.D.B.

XXVIII. Proposizioa

Hirugarren ezagutza mailaren arabera gauzen ezagutzeko Oldarra edo Desira ez datorke lehen ezagutza mailatik baina bai bigarrenetik.

Demonstrazioa

Proposizio hau argi da, berez; ezen, modu argi eta berezian ezagutzen dugun edozein gauza ezagutzen dugu edo berez edo berez ulertzen den zerbaiten bitartez; erran nahi baita, gure baitan argi eta berezi diren ideiak edo hirugarren ezagutza mailari dagozkionak *(2. Zat. 40. Prop. 2. Eskol. arab.)* ez datozkeela lehen mailako ezagutzari dagozkion ideia murriztaile eta nahasietarik, baina bai ideia egokietarik; hots, *(Eskolio ber. arab.)* bigarren edo hirugarren mailako ezagutzatik eta, beraz, *(Afekz. 1. Def. arab.)* hirugarren ezagutza mailaren arabera gauzen ezagutzeko Desira ez datorke lehen ezagutza mailatik, baina bai bigarrenetik. H.B.D.B.

XXIX. Proposizioa

Izpirituak halako betierekotasun baten arabera ezagutzen duen edozein gauza ez du hori ezagutzen Gorputzaren presenteko existentzia aktuan pentsatzen duelako, baina bai Gorputzaren esentzia halako betierekotasun baten arabera pentsatzen duelako.

Demonstrazioa

Izpirituak bere Gorputzaren presenteko existentzia pentsatzen duen bezainbatean, denborak determina dezakeen iraupena ulertzen du eta hainbatean soilik gauzak denborarekilako erlazio batean pentsatzeko ahalmena badu *(21. Prop. eta 2. Zat., 26. Prop. arab.)*. Betierea, ordea, ez da iraupenaren arabera azaltzen ahal *(1. Zat., 8. Def. eta haren azalp. arab.).* Izpirituak ez du, beraz, hortik gauzen pentsatzeko ahalmenik, halako betierekotasun bat balute bezala.

Baina Arrazoiari dagokionez halako betierekotasun baten arabera gauzen pentsatzea *(2. Zat., 43. Prop. 2. Korol. arab.)* eta Izpirituaren izaerari dagokionez halako betierekotasun baten arabera Gorputzaren esentzia pentsatzea *(23. Prop. arab.)* eta beste deusik ez dagokionez Izpirituaren esentziari *(2. Zat., 13. Prop. arab.)*, ondorioz, halako betierekotasun baten arabera gauzen pentsatzeko ahalmena ez dagokio Izpirituari, Gorputzaren esentzia halako betierekotasun baten arabera pentsatzen duen bezainbatean baizik. H.B.D.B.

Eskolioa

Bi gisatara pentsatzen ditugu gauzak aktuan bezala: edo haien existentzia ulertzen dugu denbora eta toki determinatu batean kokaturik edo berak ulertzen ditugu Jainkoaren baitan harturik eta Jainko izaeraren ezinbestekotasunari loturik.
Eta bigarren modu honetan egoki edo egiazko bezala pentsatzen ditugunak, halako betierekotasun baten arabera pentsatzen ditugu eta haien ideiek barne hartzen dute Jainkoaren esentzia betierekoa eta mugarik gabea, 2. Zatiko 45. Proposizioan erakutsi dugun bezala. Ikus bedi ere horren Eskolioa.

XXX. Proposizioa

Gure Izpirituak bere burua eta bere Gorputza halako betierekotasun baten arabera ezagutzen dituen bezainbatean, Jainkoa ezagutzen du, hainbatean, nahitaez, eta badaki bera Jainkoaren baitan dela eta Jainkoaren bitartez ulertzen dela.

Demonstrazioa

Betierea da Jainkoaren esentzia bera, honek, nahitaez, existentzia barne hartzen duen bezainbatean *(1. Zat., 8. Def. arab.).* Gauzen halako betierekotasun baten arabera pentsatzea da, beraz, haien izate egiazko bezala pentsatzea Jainkoaren esentziaren bitartez, erran nahi baita, Jainkoaren esentziaren bertutez existentzia barne hartzen dutela. Eta, ondorioz, gure Izpirituak, bere burua eta bere Gorputza halako betierekotasun baten arabera pentsatzen dituen bezainbatean, Jainkoa ezagutzen du, nahitaez, eta badaki ezagutzen duela, etab. H.B.D.B.

XXXI. Proposizioa

Izpirituari dagokio, bere kausa formalari bezala, hirugarren mailako ezagutza, Izpiritua bera betierekoa den aldetik.

Demonstrazioa

Izpirituak ez du deus pentsatzen halako betierekotasun baten arabera, non ez duen bere Gorputzaren esentzia ulertzen halako betierekotasun baten arabera *(29. Prop. arab.)*; erran nahi baita, *(21. eta 23. Prop. arab.)* betierekoa den bezainbatean baizik; eta, horrela, *(aitzin. Prop. arab.)* betierekoa den bezainbatean, Jainkoa ezagutzen du; eta ezagutza hori, nahitaez, egokia da *(2. Zat., 46. Prop. arab.)*; Izpiritua, ondorioz, betierekoa den bezainbatean, emana zaion Jainkoaren ezagutza horretatik etor daitezkeen gauza guztien ezagutzeko gai da *(2. Zat., 40. Prop. arab.)*; erran nahi baita, hirugarren mailako ezagutzaren arabera gauzen ezagutzeko gai dela *(ikus haren definizioa 2. Zat., 40. Prop. 2. Eskolioan)*; eta, horrela, Izpiritua, betierekoa den bezainbatean, ezagutza horren kausa egokia edo formala *da (3. Zat. 1. Def. arab.).* H.B.D.B.

Eskolioa

Zenbat eta gorago iganen baita maila horretako bakoitzaren ezagutza, hainbat eta hobeki ezagutuko ditu bakoitzak bere burua eta Jainkoa, erran nahi baita hainbat ere beteginago eta zoriontsuago izanen dela, ondoko proposizioek hobeki erakutsiko duten bezala.
Baina oraidanik ohartu behar da, nahiz segur izan Izpiritua betierekoa dela halako betierekotasun baten arabera gauzak pentsatzen dituen bezainbatean, erakutsi nahi duguna errazkiago adierazteko eta hobeki ezagutarazteko, eginen dugula orain hasten balitz bezala izaten eta halako betierekotasun baten arabera orain hasten balitz bezala gauzen pentsatzen, orain arte egin dugun bezala; eta hori egin dezakegu errakuntza arriskurik gabe, premisa guztiz argirik gabe deusik ez erabakitzeko aitzinetik arta hartzen dugun ber.

XXXII. Proposizioa

Hirugarren mailako ezagutzaz ezagutzen dugun edozein gauza atsegin dugu eta hori Jainkoaren ideiak laguntzen du kausa bezala.

Demonstrazioa

Ezagutza maila horretatik sortzen da izan daitekeen Izpirituaren gozorik handiena, hots, Bozkariorik gorena *(Afekz. 25. Def. arab.)* eta hori, nor beraren ideiak (27. Prop. arab.) eta, beraz, Jainkoaren ideiak ere (30. Prop. arab.) kausa bezala lagundurik. H.B.D.B.

Korolarioa

Hirugarren ezagutza mailatik sortzen da, nahitaez, Jainkoaren adimen Maitasuna. Ezagutza horretatik dator, ezen, *(aitzin. Prop. arab.)* Jainkoaren ideiak kausa bezala laguntzen duen Bozkarioa, erran nahi baita *(Afekz. 6. Def. arab.)* Jainkoaren Maitasuna; ez ordea *(29. Prop. arab.)* presenteko bezala irudikatzen dugun bezainbatean, Jainkoa betierekoa dela ulertzen dugulakoan baizik; eta hori da Jainkoaren adimen Maitasuna deitzen dudana.

XXXIII. Proposizioa

Hirugarren ezagutza mailatik sortzen den Jainkoaren adimen Maitasuna betierekoa da.

Demonstrazioa

Hirugarren ezagutza maila, alabaina, *(31. Prop. eta 1. Zat., 3. Axiom. arab.)* betierekoa da; eta, beraz, *(1. zat., Axiom. ber. arab.)* harenganik sortzen den Maitasuna ere, nahitaez, betierekoa da. H.B.D.B.

Eskolioa

Nahiz Jainkoaren Maitasun horrek ez duen hastapenik izan, *(aitzin. Prop. arab.)* baditu bizkitartean Maitasunaren perfekzio guztiak sortu izan balitz bezala, aitzineko Proposizioaren Korolarioan hitzartu dugunaren arabera. Eta ez du horrek ezberdintasunik ekartzen, non ez den Izpirituak badituela betidanik hari orain eratxikitzen zitzaizkiola irudikatzen genituen perfekzio haiek eta hori Jainkoaren ideiak betiereko kausa bezala lagundurik.

Eta betegintzarre handiagora iragaiteak egiten baldin badu Poztasuna, betegintzarreaz beraz jabetzeak egin behar du eiki Izpirituaren dohatsutasuna.

XXXIV. Proposizioa

Gorputzak diraueno baizik ez du Izpirituak pairatzen pasioei dagokien afekturik.

Demonstrazioa

Irudimena ideia bat da, Izpirituak haren bitartez gauza bat kontenpla baitezake hor balitz bezala *(ikus definizioa 2. Zat., 17. Prop. Eskolioan)* eta, bizkitartean, giza Gorputzaren presenteko egoera adierazten du, kanpoko gauzaren izaera baino lehen *(2. Zat., 16. Korol. 2. Korol. arab.)*. Afektua, beraz, irudimen bat da *(Afekt. Def. orok. arab.)* Gorputzaren presenteko egoera adierazten duen bezainbatean; eta, ondorioz, *(21. Prop. arab.)* pasioei dagokien afekturik ez du pairatzen Izpirituak, Gorputzak diraueno baizik. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator ez dela nehongo Amodio betierekorik, adimen Maitasuna baizik.

Eskolioa

Gizakien aburu arruntari behatzen baldin badiogu, ikusiko dugu beren Izpirituaren betierekotasunari ohartuak direla, egiazki, baina hura nahasten dutela iraupenarekin eta eratxikitzen diotela irudimenari edo oroimenari, hil ondoan irauten duela uste dutenari.

XXXV. Proposizioa

Mugagabeko adimen Maitasunez maite du Jainkoak bere burua.

Demonstrazioa

Absolutuki mugagabea da Jainkoa *(1. Zat., 6. Def. arab.);* erran nahi baita, *(2. Zat., 6. Def. arab.)* Jainko izaera mugagabekoaren betegintzarrea gozatzen duela; eta hori *(2. Zat., 3. Prop. arab.)* bere buruaren ideiak lagundurik, hots, *(1. Zat., 11. Prop. eta 1. Def. arab.)* bere kausa propioaren ideiak lagundurik; baina hori adimen Maitasuna dela, errana dugu 32. Proposizioaren Korolarioan.

XXXVI. Proposizioa

Jainkoaren aldeko Izpirituaren adimen Maitasuna, Jainkoak bere burua maite duen Maitasun berbera da; ez mugagabea den bezainbatean, halako betierekotasun batek harturik, giza Izpirituaren esentziak azaltzen ahal duelako baizik; erran nahi baita, Jainkoaren alderako Izpirituaren adimen Maitasuna, Jainkoak bere burua maite duen Maitasun mugagabearen parte bat dela.

Demonstrazioa

Izpirituaren Maitasun hori Izpirituaren ekintzei dagokie *(Zat. honen 32. Prop. Korol. eta 3. Zat., 3. Prop. arab.);* eta, beraz, ekintza bat da haren bitartez Izpirituak bere burua kontenplatzen baitu, Jainkoaren ideiak kausa bezala lagundurik *(32. Prop. eta haren Korol. arab.),* erran nahi baita, *(1. Zat., 25. Prop. Korol. eta 2. Zat., 11. Prop. Korol. arab.)* ekintza bat, Jainkoak, giza Izpirituaren bitartez azaltzen den bezainbatean, bere buruaren ideia batek lagundurik bere buruaren kontenplatzeko; eta, horrela, *(aitzin. Prop. arab.)* Izpirituaren Maitasun hori Jainkoak bere burua maite duen Maitasun mugagabearen parte bat da. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator Jainkoak, bere burua maite duen bezainbatean, gizakiak maite dituela eta, ondorioz, gizakien aldeko Jainkoaren Maitasuna, eta Jainkoaren aldeko Izpirituaren adimen Maitasuna, gauza bat eta bera direla.

Eskolioa

Argi ikusten dugu horrela zertan datzan gure salbamena edo dohatsutasuna edo Askatasuna; erran nahi dut, Jainkoaren aldeko Maitasun iraunkor eta betierekoan edo gizakien aldeko Jainkoaren Maitasunean. Maitasun edo dohatsutasun hori Loria deitzen da Liburu Sainduetan eta ez zaio arrazoirik falta.

Jainkoari, ezen, ala Izpirituari dagokiola Maitasun hori, zuzenez, barneko Gozoa deitzen ahal da, eta delako Gozoa *(Afekz. 25. & 30. Def. arab.)* ez da egiazki Loriatik bereizten.

Jainkoari dagokion bezainbatean, alabaina, Poztasuna da; oraino haizu baldin bada izen horren erabiltzea, bere buruaren ideiak laguntzen duena, *(27. Prop. arab.)* Izpirituari dagokion bezainbatean.

Gainera, gure Izpirituaren esentzia, Jainkoaren baitan hastapena eta oinarria duen ezagutza soilak osatzen duenaz geroz, *(1. Zat., 15. Prop. eta 2. Zat., 47. Prop. Eskol. arab.)* hortik nabari zaigu nola eta zergatik gure Izpiritua, esentziaren ala existentziaren aldetik, Jainkoaren izaeratik datorren eta Jainkoari dagokion etengabe. Eta iduritzen zait merezi zuela oharpen horren egitea, adibide horrekin erakusteko zein baliotsua den gauza singularren ezagutza, ezagutza intuitiboa edo hirugarren mailako ezagutza deitu dudana *(ikus 2. Zat., 40. Prop. 2. Eskolioa)* eta zenbat gainditzen duen ezagutza orokorra, bigarren mailakoa deitu dudana. Nahiz erakutsi dudan, orokorki, lehen Zatian, gauza guztiak -eta beraz giza Izpiritua ere- Jainkoaren mende daudela esentziaren eta existentziaren aldetik, demonstrazio hark, legezko izanagatik, eta zalantza arriskuak bazterturik ere, ez du gure Izpiritua halere hunkitzen edozein gauza singularren esentziatik, Jainkoaren mende dagoela erraten dugularik, ateratzen dugun konklusioak bezala.

XXXVII. Proposizioa

Ez da Naturan deusik aurkitzen, adimen Maitasun horren kontrako denik, hots, hori suntsi dezakeenik.

Demonstrazioa

Adimen Maitasun hori, nahitaez, Izpirituaren izaeratik dator, hau bera, betiereko egia bezala ulertzen den bezainbatean Jainkoaren izaeraren arabera *(29. & 33. Prop. arab.).* Eta, beraz, Maitasunaren aurka lihoakeen zerbait aurkitzen balitz, zerbait hura egiaren aurka lirateke; eta, ondorioz, Maitasuna suntsi lezakeen gauza horrek eginen luke egia

dena gezurra izatea; hau, ordea, *(berenaz nabari den bezala)* absurdua da. Ez da, beraz, Naturan deusik aurkitzen, etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Laugarren Zatiko Axioma, gauza singularrei dagokie, denbora eta leku jakinekin duten erlazioan hartzen diren bezainbatean; pentsu dut ez duela nehork horretaz dudarik.

XXXVIII. Proposizioa

Zenbat eta gehiago gauza ezagutzen baitu Izpirituak bigarren eta hirugarren mailako ezagutzaren arabera, hainbat eta gutiago afekzio gaizto du pairatzen eta herioaren beldur gutiago ere sentitzen.

Demonstrazioa

Ezagutzak osatzen du Izpirituaren esentzia *(2. Zat., 11. Prop. arab.);* eta, beraz, Izpirituak bigarren eta hirugarren ezagutza mailaren arabera gauza gehiago ezagutzen duen arau, haren parte handiago batek ere irauten du *(23. & 29. Prop. arab.)* eta, ondorioz, gure izaeraren kontrako afekzioek, erran nahi da gaiztoak direnek, gutiago dute hura hunkitzen *(4. Zat., 3O. Prop. arab.)*. Zenbat eta gehiago gauza ezagutzen baitu Izpirituak bigarren eta hirugarren ezagutza mailaren arabera, hainbat eta haren parte handiagoa dagoke kalterik gabe eta, ondorioz, afekzio gutiago ere pairatzen duke, etab. H.B.D.B.

Eskolioa

Horrela ulertzen dugu 4. Zatiko 39. Proposizioaren Eskolioan hunki dudan puntua eta Zati honetan azaltzea hitzeman dudana; erran nahi dut, Izpirituak, Jainkoaren ezagutza argi eta berezi gehiago duen arau eta, beraz, Jainkoa gehiago Maite duen arau, hainbat kalte gutiago eginen diola herioak.

Bestalde, (27. Prop. arab.) izan daitekeen gozorik gorena hirugarren ezagutza mailatik datorrenaz geroz, hortik heldu da, izaeraz Gorputzarekin batean *(21. Prop. arab.)* erakutsi dugun bezala suntsitzen den giza Izpirituaren partea, irauten duenaren aldean, gauza guti izatea. Baina laster zehazkiago itzuliko gara horretara.

XXXIX. Proposizioa

Zernahitako gai den Gorputzaren jabe dena, parterik handiena betiereko duen Izpirituaren jabe da.

Demonstrazioa

Zernahi egiteko gai den Gorputzaren jabe dena ez dute kasik batere hunkitzen *(4. Zat., 38. Prop. arab.)* afekzio gaiztoek, erran nahi da *(4. Zat., 30. Prop. arab.)* naturaren kontrakoak direnek; eta, ondorioz, *(10. Prop. arab.)* badu hark Gorputzaren afekzioak adimenaren gisako ordenaren arabera ordenatzeko eta kateatzeko bidea eta, beraz, *(14. Prop. arab.)* Gorputzeko afekzio guztiak Jainkoaren ideiari hel dakizkion egiteko ahalmena; eta, horrenbestez, *(15. Prop. arab.)* hartaz jabetuko da Jainkoaren Maitasuna, Izpirituaren parterik handiena hartu edo osatu behar duena *(16. Prop. arab.);* eta, ondorioz, parterik handiena betiereko duen Izpirituaren jabe da *(33. Prop. arab.).* H.B.D.B.

Eskolioa

Ez da dudarik zernahi gauzatako gai diren giza Gorputzak gisa hartakoak izan daitezkeela non beren buruaren eta Jainkoaren ezagutza handia baitute eta parterik handienean eta nagusienean betiereko baitira eta, beraz, herioaren beldur handirik ez baitute. Baina gauza horren hobeki ulertzeko, hemen ohartu behar da etengabeko aldaketa batean bizi garela eta onera edo txarrera aldatzen garen arabera, dohatsu edo dohakabe deitzen gaituztela: haurtxo bat edo mutil bat zena hilotz bilakatzen delarik, alabaina, dohakabea deitzen da eta alderantziz, zorioneko daukagu bizi guztiaren betea higatu ahal izan duena Gorputzeko eta Izpirituko osasunean. Eta, egiazki, biziki gaitasun guti duen eta kanpoko kausei biziki dagokien haurtxo tipiak edo mutil gazteak

Izpiritu bat badu, bere baitarik, ez bere buruaren ez Jainkoaren ez gauzen ezagutzarik batere kasik ez duena. Eta, alderantziz, gaitasun anitzeko Gorputza duenak Izpiritu bat badu, bere baitarik, bere buruaren, Jainkoaren eta gauzen ezagutza aberatsa duena.
Bizi honetan, beraz, eginahalak egiten ditugu gure haurreko Gorputza -haren izaerak jasaten eta onartzen duen bezainbatean- aldatzeko gisan gaitasun askotako beste batera, bere buruaren, Jainkoaren eta gauzen ezagutza aberatsaren jabe den Izpirituari dagokion Gorputzera eta, beraz, aitzineko Proposizioaren Eskolioan erran dudan bezala, adimenaren aldean irudimenari edo oroimenari dagokion guztiak garrantziarik batere kasik ez izateko gisan.

XL. Proposizioa

Zenbat eta perfekzio gehiago baitu gauza batek, hainbat eta gehiago du egiten eta hainbat gutiago pairatzen; eta, alderantziz, zenbat eta eraginkorrago baita, hainbat eta beteginago da.

Demonstrazioa

Zenbat eta perfekzio gehiago baitu gauza batek, hainbat eta errealitate gehiago dauka *(2. Zat., 6. Def. arab.)* eta, ondorioz, *(3. Zat., 3. Prop. eta Eskol.)* hainbat eta gehiago du egiten eta gutiago pairatzen. Alderantzizko demonstrazioa modu berean egiten da, eta hortik dator beraz, alderantziz, zenbat eta eraginkorrago baita gauza, hainbat eta beteginago izatea. H.B.D.B.

Korolarioa

Hortik dator, dena dela, irauten duen Izpirituaren partea, tipi ala handi, bestea baino beteginagoa izatea. Izpirituaren betiereko partea, alabaina, *(23. & 29. Prop. arab.)* adimena da; eta parte honi esker baizik ez gaituzte eraginkor deitzen ahal *(3. Zat., 3. Prop. arab.);* beste partea, berriz, suntsitzen dela erakutsi dugun hura, irudimena bera da *(21. Prop. arab.)* eta parte horren gatik baizik ez gaituzte pairakor deitzen ahal *(3. Zat., 3. Prop. eta Afekz. Def. Orok. arab.);* eta, ondorioz, *(aitzin. Prop. arab.)* lehen parte hura -tipi ala handi, dena dela- bigarrena baino beteginago da. H.B.D.B.

Eskolioa

Horra beraz zer nuen erakutsi nahi Izpirituari buruz Gorputzaren existentziatik landa hartzen den bezainbatean. Hortik, eta ber denboran 1. Zatiko 21. Proposiziotik, eta beste pasarte batzuetarik ere, nabarmen da gure Izpiritua, adimenaren jabe den ber, pentsatzeko modu betiereko bat dela, beste pentsatzeko modu betiereko batek determinatzen duena eta, hau berriz, beste batek eta, horrela, azkenik gabe, denek batean Jainkoaren adimen betierekoa eta mugagabea osatzeko gisan.

XLI. Proposizioa

Ez bageneki ere gure Izpiritua betierekoa dela, Jainkozaletasuna eta Erlijioa eta, absolutuki, 4. Zatian Tinkotasunari eta Bihotz-zabaltasunari dagozkienez demonstratu gauza guztiak premiatsutzat geneuzkake.

Demonstrazioa

Baliagarri dugunaren bilaketa da *(4. Zat., 22. & 24. Prop. Korol. arab.)* bertutearen edo bizitzako bide zuzenaren oinarri lehen eta bakarra. Baina erabakitzeko, Arrazoiak zer daukan baliagarri ez dugu batere kontutan hartu Izpirituaren betierekotasuna, 5. Zati honetan baizik ezagutu ez duguna eta, beraz, Izpirituaren betierekotasuna ez jakinagatik, Izpirituaren Tinkotasunari eta Bihotz-zabaltasunari dagozkienez orduan erakutsi ditugunak premiatsutzat eduki ditugu eta, ondorioz, orain ere, betierekotasun hori ez jakinagatik, Arrazoiaren agindu horiek berak premiatsutzat geneuzkake. H.B.D.B.

Eskolioa

Jendearen iritzi arrunta besterik dela badirudi. Ezen, iduri luke gehienek uste dutela libre izatea beren irritsari jarraikitzen diren ber eta Jainko legearen arabera bizitzera behartuak baldin badira beren eskubideari uko egitea.

Debozioa, beraz, eta Erlijioa eta, absolutuki, izpirituaren Tinkotasunari dagozkien guztiak zama batzuk direla uste dute, hil ondoan bizkarretik kenduko dizkiotenak, beren morrontzaren, erran nahi baita Erlijioaren eta Debozioaren saria eskuratzeko itxaropenarekin; eta itxaropen hori ez da izaten izaten, hil ondoan gaztigu ikaragarriak pairatzeko beldurra baizik, erakartzen dituena oroz gainetik Jainko legearen aginduen arabera bizitzera, beren ahuleziak eta beren barneko ezinbesteak uzten dieten neurrian.
Eta gizakiek ez balute horrelako itxaropenik, ez beldurrik eta uste balute, alderantziz, Izpirituak suntsitzen direla Gorputzarekin batean eta Debozioaren zamak leherturik ez dutela dohakabeek luzazago bizitzerik itzul litezke beren jenioaren aldera eta nahi lituzkete guztiak beren irritsaren arabera kudeatu, zorteari fidatuz beren buruari baino lehen.
Hori guztia, iduritzen zait bada niri absurduago, Gorputza janari onez betierean asetzeko menturarik ez duelakoan norbait pozoiez eta janari hilgarriz galkatu nahi balitz baino; edo oraino, Izpiritua ez dela betierekoa edo hilezkorra uste delako nahiago balitz bezala ero izatea eta Arrazoirik gabe bizitzea; horrelako zentzugabekeriek ez ahal dute merezi aipatzea ere.
XLII. Proposizioa
Dohatsutasuna ez da bertutearen saria, bertutea bera baizik eta ez dugu hura gozatzen gure irritsak hezten ditugulako baina, alderantziz, hura gozatzen dugulako ditugu haiek hertsatzen ahal.
Demonstrazioa
Jainkoaren aldeko Maitasunean datza dohatsutasuna *(36. Prop. eta Eskol. arab.)* eta Maitasun hori bera sortzen da hirugarren ezagutza mailatik *(32. Prop. Korol. arab.);* Maitasun hori horrela Izpirituari dagokio, hau eraginkorra den bezainbatean eta, ondorioz, *(4. Zat., 8. Def. arab.)* bertutea bera da. Hau baitzen lehen puntua.
Bestalde, delako Jainko Maitasuna edo dohatsutasuna Izpirituak gozatzen duen bezainbatean, ezagutza gehiago ere badu *(32. Prop. arab.),* erran nahi baita, *(3. Prop. Korol. arab.)* ahalmen handiagoa duela afektuei buruz eta *(38. Prop. arab.),* pairatzeko gutiago duela afektu gaiztoen aldetik eta, beraz, Jainko Maitasuna edo dohatsutasuna gozatzen duenaz geroz, Izpirituak badu bere irritsak hertsatzeko ahalmena. Eta afektuak hertsatzeko gizakien ahalmena, soilik, adimenari baitagokio nehork ez du dohatsutasuna gozatzerik erdietsiko afektuak hezi dituelako baina, alderantziz, dohatsutasunetik beretik datorkioke bakoitzari haien hezteko ahalmena. H.B.D.B.
Eskolioa
Hemen bururatu dut Izpirituak afektuei buruz duen ahalmenaz eta Izpirituaren Libertateaz erakutsi nahi nuena.
Hortik ageri da zer indarra duen gizaki Prestuak eta zenbatez gainditzen duen bere irrits soilak darabilen ezjakina. Ezjakina, ezen, kanpoko kausek alde guztietara daramatena eta nehoiz barneko gozo egiazkorik gozatzen ez duena, bizi da gainera, bere buruaren, Jainkoaren, eta gauzen ezagutzarik batere kasik gabe eta pairatzetik gelditzearekin batean gelditzen da ere izatetik. Prestuak, aldiz, zuhurra den heinean, ez du senti barneko asaldurarik baina, beti, bere buruaren, Jainkoaren eta gauzen betiereko ezinbestekotasun haren jakinean izanez, izatetik ez da nehoiz gelditzen eta egiazko barne gozoaren jabe da beti.
Eta hona heltzeko erakutsi dudan bideak zaila iduri baldin badu ere, aurki daiteke bederen. Zaila izan behar da, eiki, hain bakan aurkitzen dena. Nola bada gerta liteke, salbamendua eskumenean balitz, eta zailtasun handirik gabe erdiesten ahal balitz, guztiek kasik huts egitea? Baina eder guztiak, bakanak bezain zailak dira.
Amaia

*Spinozaren* Etika-*ren hiztegia*

Hiztegi honetan Spinozak *ETIKA* bere liburuan darabilen funtsezko hiztegia bildu dugu. Latinezko hitzen euskal ordainak gure itzulpenean, hitz bakoitzaren testuingurua kontuan hartuz, erabili ditugunak dira soil-soilik.

**aberrare** = *errebelatu, urrundu*
**abjectio** = *bere buruaren mesprezu, etsipen;* Cf. **umilitas** = *umiltasun, apaltasun,* **modestia** = *xumetasun;* vs. **superbia** = *hantuste*
**abolescere** = *desagertu, itzali*
**absentia** = *gabezia*
**absolutus** = *absolutu, erabateko*
**absolute** = *absolutuki*
**abstracte** = *abstraktuki*
**absurdus** = *zentzugabe(keria), absurdu*
**accidens** = *akzidente;* **per accidens** = *akzidentez, ustekabez*
**accipere** = *jaso, hartu*
**accommodare** = *egokitu*
**acquiescentia in se ipso** = *norberarekiko kontentu*
**acquiescere** = *kontentu izan*
**actual** = a) *aktual* (aktuan izateari dagokionean); b) *oraiko, oraingo* (denborari doakionean)
**actualitas** = a) *aktualitate*; b) *oraingotasun*
**actus** = *aktu; egite*
**actu** = *aktuan, izanean;* vs. **potentia** = *potentzian, izangai*
**adaequate** = *egoki(ro*); vs. **inadaequate** = *ezegokiro*
**adaequatus** = *egoki*; vs. **inadaequatus** = *ezegoki*
**adhaerere** = *lotu, atxiki, itsatsi*
**admirari** = *miretsi, harritu*
**admiratio** = *mirespen, harridura*
**adulare** = *lausengatu*
**adulator** = *lausengari*
**adversario** = *kontrario, kontrako*
**aeger** = *eri*; vs. **sanus** = *sendo, osasuntsu*
**aemulatio** = *emulazio, zeingehiagoka, zeinlehenka*
**aequalis** = *berdin*
**aeque** = *berdin, orobat*
**aequitas** = *berdintasun*
**aestimare** = *balioetsi, estimatu, prezatu*
**aeternitas** = *betiere, betierekotasun*
**aeternus** = *betiereko*
**affectus** = *afektu*
**affectio** = *afekzio*
**afferre** = *ekarri*
**afficere** = *hunkitu*
**affingere** = *asmatu*
**affirmare** = *baieztatu, baietsi*
**affirmatio** = *baieztapen, baiespen*
**agere** = *ihardun, ari izan, egin*
**alere** = *bazkatu;* Cf. **nutrire** = *hazi, elikatu*
**amare** = *maite izan, maitatu*
**ambitio** = *handinahi*

**amicitia** = *adiskidetasun*
**amor** = *maitasun, amodio*
**amor meretricius** = *amodio lizun*
**analogus** = *analogo*
**anima** = *arima*
**animositas** = *tinkotasun*
**animus** = *izpiritu, gogo;* Cf. **mens** = *izpiritu*
**ante** = *lehen(ago), aitzin/aurre;* vs. **post** = *gero, ondoko*
**annihilare** = *suntsitu*
**apparere** = *(argi) ageri, argi izan*
**appellare** = *deitu*
**appendix** = *eranskin*
**appetere** = *guraritu, gura izan*
**appetitus** = *gurari*; Cf. **cupiditas** = *desira;* **volitio** = *nahi izate*
**applicare** = *aplikatu*
**a posteriori** = *a posteriori*
**a priori** = *a priori*
**aptare** = *egokitu, moldatu, antolatu*
**aptus** = *gai*
**arguere** = *argudiatu*
**argumentum** = *argudio*
**arte** = a) *arte, antze;* b) *amarru*
**artificium** = *antze*
**assignare** = *-i egotzi*
**attendere** = *kontu(t)an hartu, erreparatu*
**attributus** = *atributu*
**audacia** = *ausardia*
**augere** = *handitu*
**avaritia** = *zekenkeria, zikoizkeria*
**aversio** = *higuin, hastio, arbuio*
**axioma** = *axioma*
**beatitudo** = *dohatsutasun*
**benefacere** = *on egin, ongi egin*
**beneficium** =*fabore, on(tasun)*
**benevolentia** = *onginahi*
**bonum** = *ongi, on;* vs. **malum** = *gaizki, gaitz, txar*
**brutus** = *basa, basati*
**cadere** = *erori*
**caecus** = *itsu*
**caput** = *kapitulu*
**carpere** = *atzeman, gaizkitu*
**castitas** = *kastitate*
**causa** = *kausa, zergatik(o)*
**causa coacta** = *kausa hertsatu;* vs. **c. libera** = *k. aske/libre*
**causa efficiens** = *kausa eragile, kausa erazle*
**causa finale** = *azken(buruko) kausa*
**causa immanens** = *kausa immanente;* vs. **c. transiens** = *kausa iragankor*
**causa intermedia** = *ararteko kausa*
**causa libera** = *kausa aske, kausa libre;* vs. **c. coacta** = *kausa hertsatu*; **c. necessaria** = *kausa ezinbesteko/beharrezko*

**causa naturalis** = *kausa natural*
**causa necessaria** = *ezinbesteko kausa, beharrezko k.*
**causa per se** = *berezko kausa*
**causa per accidens** = *akzidentezko kausa, ustekabeko k.*
**causa prima** = *lehen kausa*
**causa primaria** = *oinarrizko kausa*
**causa proxima** = *kausa hurbil;* vs. **c. remota** = *k. urrun*
**causa remota** = *kausa urrun;* vs. **c. proxima** = *k. hurbil*
**causa transiens** = *kausa iragankor;* vs. **c. immanens** = *k. inmanente*
**causalitas** = *kausalitate*
**celeritas** = *lastertasun;* vs. **tarditas** = *geldotasun, hurritasun*
**celerus** = *laster;* vs. **tardus** = *geldo, hurri*
**cerebrum** = *garun*
**certitudo** = *segurtasun, segurtamen, ziurtasun*
**certus** = *segur, ziur*
**cessare** = *gelditu, desagertu*
**circulus** = *zirkulu*
**circumferentia** = *zirkunferentzia*
**clare** = *argi(ro)*
**clarus** = *argi;* vs. **confusus** = *nahasi*
**clementia** = *bihozberatasun*
**coactus** = *hertsatu, behartu*
**coercere** = *hertsatu, behartu;* vs. **iuvare** = *lagundu*
**cogitatio** = *pentsamendu, gogoeta*
**cogitare** = *pentsatu, gogoetatu;* Cf. **concipere** = *bururatu, pentsatu*
**cognitio** = *ezagutza, ezagutze*
**cognosco** = *ezagutu*
**cogo** = *behartu, hertsatu*
**colligere** : *ondorioztatu;* Cf. **concludere** = *ondorioztatu*
**commiseratio** = *gupida*; Cf. **misericordia** = *urrikalmendu*.
**compensare** = a) *ordaindu;* b) *bihurtu*
**comprobare** = *egiaztatu, frogatu*
**commodum** = *abantaila;* vs. **damnum** = *kalte*; Cf. **incommodum** = *atsekabe*
**commotio** = *zirrara*
**commovere** = *higitu, kantitu*
**communis** = *komun, amankomun*
**commune esse/habere** = *amankomunean izan, komun izan/ukan*
**communicare** = *komunikatu*
**compendium** = *laburpen, bilduma*
**competere** = *-(r) i egon*
**comprehendere** = *eduki, (barne) hartu*
**conatus** = *ahalegin, eginahal, lehia*
**conamen** = *oldar, bulkada*
**conari** = *ahalegindu, saiatu, lehiatu, bermatu;* Cf. **studere** = *saiatu, ahalegindu, lehiatu*
**concatenare** = *kateatu*
**concatenatio** = *kateamendu, kateatze*
**concedere** = *onartu*
**conceptus** = *kontzeptu, adigai*
**concipere** = *gogoratu, gogoan hartu, bururatu, pentsatu*
**concludere** = *ondorioztatu, -tik atera*

**concomitante ideâ** = (zerbaiten) *ideiak lagun daraman*
**concordia** = *elkartasun*
**concupiscentia** = *gutizia, desira*
**conducere** = *eraman*
**conscientia** = *kontzientzia*
**confundere** = *nahasi*
**confuse** = *nahasiro*
**confusio** = *nahasketa*
**componere** = *konposatu, osatu*
**conexus** = *lotu*
**consensus** = *adostasun*
**conservare** = *atxiki, begiratu, gorde*
**conservare suum esse** = *(nork) bere izana atxiki*
**considerare** = *kontsideratu, -tzat hartu*
**consternatio** = *harridura, etsipen*
**constituere** = a) *osatu*; b) *erabaki*
**constitutio** = *egoera, egitura*
**consuetudo** = *ohitura*
**consultus** = *zuhur*
**consumare** = *galdu, higatu*
**contemplare** = *begietsi; kontenplatu.*
**contemplatio** = *begieste, begiespen*
**contemptus** = *mesprezu*; Cf. **despectus** = *gutiespen;* vs. **admiratio** = mirespen
**continere** = *(bere baitan) eduki*
**contingere** = *gertatu, suertatu;* Cf. **evenire** = *suertatu, jazo*
**contingens** = *kontingente;* vs. **necessarius** = *ezinbesteko*
**continuare** = *jarraitu, jarraiki*
**contradictio** = *kontraesan*
**contrario** = *kontrako*
**contristare** = *tristatu*
**controversia** = *eztabaida*
**convenire** = *bat etorri*
**convenientia** = *bat etortze, adostasun*
**corollarium** = *korolario*
**corporeus** = *gorpuztun, gorpuzkin*
**corpus** = *gorputz*
**correlatus** = *korrelatibo*
**corrigere** = *zuzendu*
**corroborare** = *indartu*
**corrumpere** = *galdu, hondatu*; vs. **generare** = *sortu*
**corruptio** = *hondamen*
**creare** = *kreatu*
**crudelitas** = *krudeltasun, basakeria;* Cf. **saevitia** = *ankerkeria*
**cupiditas** = a) *desira;* b) *gutizia*
**cura** = *arreta, arta, arrangura, ardura*
**curare** = *artatu, arduratu, ardura hartu*
**damnare** = *zigortu, kondenatu*
**damnum** = *kalte, damu;* vs. **commodum** = *abantaila*
**dare** = *eman*
**debere** = *behar izan*

**debilis** = *ahul*
**declinare** = *saihetsi*
**decretare** = *erabaki, deliberatu*
**decretum** = *erabaki, deliberamendu*
**deducire** = *deduzitu*
**dedignatio** = *erdeinu*
**definire** = *definitu, ezaugarritu*
**definitio** = *definizio*
**deformitas** = *itsuskeria*
**delectare** = *plazer hartu, atsegin hartu, laket izan*
**deliberare** = *deliberatu, erabaki*
**deliberatio** = *deliberamendu, erabaki*
**demonstrare** = *demonstratu*
**demonstratio** = *demonstrazio*
**denominatio** = *izendapen*
**Deus** = *Jainko*
**dependere** = *-ren mende izan/egon*
**desesperatio** = *etsipen, etsimendu*
**desiderium** = a) *frustrazio;* b) *irrika*
**despectare** = *gutietsi*
**despectus** = *gutiespen;* Cf. **contemptus** = *mesprezu;* vs. **existimatio** = *handiespen*
**destruere** = *suntsitu*
**determinare** = a) *determinatu*; b) *zehaztu, mugatu*; c) *deliberatu*
**determinatio** = *determinazio*
**determinatus** = a) *determinatu*; b) *zehatz, jakin*; c) *deliberatu*
**devotio** = *debozio*
**dicere** = *erran*
**dictamen** = *agindu*
**differentia** = *ezberdintasun, diferentzia*
**differre** = *-tik bereizi*
**dignoscere** = *ezagutu*
**directe** = *zuzenki, zuzenean;* vs. **indirecte** = *zeharka, zeharbidez*
**dirigere** = *zuzendu*
**discere** = *ikasi*
**discordia** = *desadostasun*
**disponere** = a) *hartaratu, moldatu, paratu, egokitu*
**dispositio** = a) *hartaratze, moldatze*; b) *prestatze*
**distantia** = *distantzia, arte, tarte*
**distincte** = *bereziki*
**distinctivus** = *bereizgarri*
**distinguire** = *bereizi*
**diversitas** = *ezberdintasun*
**diversus** = *ezberdin, desberdin*
**dividere** = *zatitu, zatikatu*
**divinus** = *jainkozko, jainko-*
**divisibilis** = *zatigarri, zatikor*
**docere** = *irakatsi, erakutsi*
**doctrina** = *doktrina*
**dolor** = *oinaze*
**dolus** = *engainu*

**dubitare** = *zalantzatu, zalantzak izan, durduzatu*
**dubitatio** = *zalantza*
**ducere** = *gidatu, eraman*
**duratio** = *iraupen(-denbora)*
**durus** = *gogor;* vs. **mollis** = *bigun, guri*
**ebrietas** = *hordikeria, mozkorkeria*
**educatio** = *hezibide, hezkuntza, altxatze*
**effectus** = *ondorio*
**efficere** = *eragin, egin(arazi)*
**ens** = *izate, izaki*
**entitas** = *izatetasun*
**enumerare** = *zerrendatu, lerrokatu*
**errealitas** = *errealitate*
**esse** = *izan*
**essentia** = *esentzia*
**ethica** = *etika*
**evanescere** = *desagertu, itzali*
**evenire** = *suertatu, gertatu, jazo;* Cf. **contingere** : *gertatu, suertatu*
**evidentia** = *nabaritasun, nabarmentasun*
**excedere (se ipsum)** = *(bere burua) gainditu*
**excessum habere** = *gehiegizko izan*
**excitare** = *piztu, zirikatu, kitzikatu, akuilatu, sustatu*
**excludere** = *baztertu*
**exemplar** = *eredu*
**exemplum** = *adibide, etsenplu, eredu*
**existens** = *izatedun*
**existentia** = *existentzia*
**existimatio** = *handiespen* Cf. **despectus** = *gutxiespen*
**existire** = *existitu, (ba) izan*
**explicare** = *azaldu, esplikatu*
**explicatio** = *azalpen*
**exprimere** = *adierazi*
**extensus** = *hedatu*
**externus** = *kanpo(ko);* vs. **internus** = *barne(ko)*
**extra** = *kanpo, landa;* vs. **extra** = *kanpo(an)*
**fabrica** = *egitura*
**facere** = *egin, bururatu*
**factum** = *egite, egintza, egitate*
**falsitas** = *faltsutasun*
**falsus** = *faltsu, sasi-*
**fama** = *ospe, omen, fama*
**fastidium** = *nazka*
**fatum** = *patu, halabeharra*
**favere** = *fagoratu;* Cf. **favor** = *begikotasun*
**felicitas** = *zorion(tasun)*
**ferre** = *eraman, jasan, pairatu*
**fides** = *fede, konfiantza*
**fidus** = *zintzo*
**figmen** = *asmakizun*
**figura** = *irudi*

**finis** = *helburu*
**finis ultimus** = *azkenburu*
**finitus** = *mugatu*
**firmare** = *indartu, bizkortu, sendotu*
**fluctuatio** = *gora-behera*
**fluidus** = *fluido*
**forma** = *forma, itxura*
**formalis** = *formal*
**formare** = *moldatu, itxuratu, eratu*
**fortis** = *indartsu*
**fortitudo** = *kemen*
**fovere** = *sustatu, berotu*
**frangere** = *hautsi, suntsitu*
**frui** = *gozatu*
**fugere** = *ihes egin*
**fundare** = *oinarritu, oinarri izan/ hartu*
**fundamentum** = *oinarri, funts*
**fungere** = *bete*
**futurum** = *geroa, etorkizuna*
**futurus** = *geroko, etorkizuneko*
**gaudere** = *bozkariatu, bozkario izan*
**gaudium** = *bozkario*; Cf. **hilaritas** = *alaitasun*
**generare** = *sortu*; vs. **corrompere** = *galdu, hondatu*
**generositas** = *bihotz-zabaltasun;* Cf. **largitas** = *eskuzabaltasun*
**generosus** = *zintzo, eskuzabal, bihotz-zabal*
**genus** = *genero, mota*
**geometria** = *geometria*
**glandula** = *guruin*
**glandula pinealis** = *guruintxo pineal*
**gloria** = *loria*
**gloriari** = *loriatu*
**gratia** = *esker on, ikustate*
**gratitudo** = *eskertasun;* vs. **ingratitudo** = *eskergabetasun*
**gubernare** = *gobernatu*
**habere** = *izan, ukan*
**hilaritas** = *alaitasun;* Cf. **laetitia** = *poztasun.*
**homo** = *gizon, gizaki*
**honestas** = *zintzotasun, gizontasun*
**honestus** = *zintzo, gizon*
**honor** = *ohore*
**horrendus** = *izugarri, ikaragarri, beldurgarri*
**horror** = *izu, beldur-ikara*
**humanitas** = *gizatasun*
**humanus** = *giza, gizonaren*
**humilitas** = *umiltasun;* Cf. **modestia** = *apaltasun*
**hypothesis** = *hipotesi*
**idea** = *ideia*
**idea adecuata** = *ideia egoki*
**idea clara et distincta**: *ideia argi eta bereizi*; vs. **idea confusa** = *ideia nahasi*

**idea confusa** = *ideia nahasi;* vs. **idea clara/distincta**= *ideia argi eta bereizi*
**idea inadecuata** = *ideia ezegoki*
**ideiatus** = *ideiatu*
**ignorantia** = *ezjakintasun*
**ignorare** = *ez jakin, ezezagutu*
**imaginare** = *irudikatu*
**imaginarius** = *alegiazko, irudizko;* vs. **errealis** = *egiazko*
**imaginatio** = *irudikapen, irudimen*
**imago** = *irudi*
**imbecilitas** = *ahulezia*
**imitari** = *antzeratu, imitatu*
**imitatio** = *imitazio*
**immanens** = *inmanente*; vs. **transiens** = *iragankor*
**immediate** = *zuzenean*; vs. **mediate** = *-en bitartez*
**immortalis** = *hilezkor*
**immutabilis** = *aldaezin*
**impedire** = *eragotzi*
**imperfectio** = a) *akats, huts*; *hutsune* b) *betegabetasun, eskas*
**imperfectus** = *betegabe, akastun, hutsegin;* vs. **perfectus** = *betegin, hobezin, oso*
**impetus** = *bulkada, oldar*
**impietas** = *ezmoraltasun*; vs. **pietas** = *moraltasun*
**impingere** = *jo*
**impius** = *ezmoral*
**implicare** = *inplikatu*
**impossibilis** = *ezinezko;* vs. **possibilis** = *ahalezko*
**impotens** = *ezindu, ahalgabe*
**impotentia** = *ezintasun*
**impudens** = *lotsagabe, lizun*
**impudentia** = *lohikeria, lizunkeria, lotsagabekeria*
**inadaequate** = *ezegokiro*
**inadaequatus** = *ezegoki*; vs. **adaequatus** = *egoki*
**incipere** = *hasi*
**incitare** = *bultzatu*
**incommodum** = *atsekabe*
**inconstans** = *aldakor;* Cf. **varius** = *aldakor*
**inconstantia** = *aldakortasun*
**incumbere** = *-(r) i egon, -en ardura izan*
**indefinitus** = *mugagabe*
**indeterminatus** = *ezdeterminatu*
**indifferens** = *indiferente, ezaxola*
**indigens** = *behartsu*; Cf. **pauper** = *pobre*
**indigentia** = *pobretasun, gabezia*
**indignatio** = *haserre*
**indirecte** = *zeharka, zeharbidez*; vs. **directe** = *zuzenki, zuzenean*
**individuus** = *(giza) banako*
**indivisibilis** = *zatiezin.*
**infans** = *haur*
**infinitus** = *mugagabe, kontaezinezko, azkengabe*
**ingenerare** = *ernaldu, sortarazi*
**ingenium** = a) *jite;* b) *jeinu; c) jenio*

**ingratitudo** = *eskergabetasun;* vs. **gratitudo** = *eskertasun*
**iniquus** = *bidegabe;* Cf. **iniustus** = *zuzengabe, bidegabe*
**initium** = *hastapen, hasiera*
**iniustus** = *zuzengabe, bidegabe;* vs. **iustus** = *zuzen, bidezko*
**iniuria** = *irain, laido*
**insanus** = *ero, ments;* vs. **sanus** = *zentzudun*
**in se** = *bere(n) baitan*
**integrus** = *oso*
**intellectio** = *ulertze, ulerkuntza, aditze*
**intellectus** = *adimen, ulermen*
**intelligentia** = *adimen*; Cf. **intellectus** = *adimen, endelegu*
**intelligere** = *ulertu, aditu, endelegatu*
**intensus** = *bizi, azkar*
**internus** = *barne(ko);* vs. **externus** = *kanpo(ko)*
**inter se** = *elkarren / beren artean, elkarrekilako*
**intervallum** = *arte,tarte*
**intra** = *barne(an);* vs. **extra** = *kanpo(an)*
**intrinsecus** = *berezko, barne(tika)ko;* vs. **extrinsecus** = *kanpo(ti)kako*
**intuitio** = *intuizio*
**invenire** = *asmatu, aurkitu*
**invidia** = *bekaizkeria*
**involvere** = *barne(an) hartu*
**ira** = *hira*
**irrisio** = *iseka, trufa*
**iudex** = *epaile, juje*
**iudicare** = *jujatu, epaitu*
**iudicium** = *judizio, jujamendu*
**iungere** = *elkartu, lotu, batu*
**iura** = *legeak*
**ius** = a) *eskubide, zuzenbide*; b) *lege;* Cf. **lex** = *lege*
**iustus** = *zuzen, bidezko;* vs. **iniustus** = *zuzengabe, bidegabe*
**iuvare** = *lagundu;* vs. **coercere** = *hertsatu*
**laetitia** = *poztasun*; Cf. **hilaritas** = *alaitasun*
**largitas** = *eskuzabaltasun;* Cf. **generositas** = *bihotz-zabaltasun*
**laudare** = *laudatu, goretsi*
**laudatio** = *laudorio, goresmen*
**lector** = *irakurle*
**lemma** = *lemma*
**lex** = *lege*
**liber** = *aske, libre* vs. **coactus** = *hertsatu*; **necessarius** = *ezinbesteko, beharrezko*; **servus** = *esklabo*
**libertas** = *askatasun*
**libido** = *lizuntasun, lizunkeria, irrits*
**limitare** = *mugatu, zedarritu*
**limes** = *muga, mugarri, zedarri*
**linea** = *lerro*
**livor** = *zurpailtasun*
**locus** = *leku*
**logica** = *logika*
**loquere** = *mintzatu, mintzo izan*

**luxuria** = *sabelkeria*
**magnitudo** = *handitasun*
**malum** = *gaizki, gaitz, txar*
**manere** = *iraun*
**manifestus** = *nabari, nabarmen*
**materia** = *materia*
**mathematicus** = *matematikari*
**maximus** = *handien(a);* vs. **minimus** = *tipien(a)*
**meditatio** = *hausnarketa*
**mediate** = *-en bitartez;* vs. **immediate** = *zuzenean*
**medicina** = *medikuntza*
**medium** = *bitarteko, bide, medio*
**melancholia** = *malenkonia*
**memoria** = *oroimen*
**mens** = *izpiritu*; Cf. **animus** = *izpiritu*; **anima** = *arima*
**mensurabilis** = *neurgarri*
**mercator** = *merkatari*
**meritum** = *merezimendu*
**metaphysicus** = *metafisiko*
**metus** = *beldur;* Cf. **timor** = *ikara*
**minimus** = *tipien(a);* vs. **maximus** = *handien(a)*
**minuire** = *tipitu*
**misericordia** = *urrikalmendu;* Cf. **commiseratio** = *gupida.*
**miserus** = *dohakabe, zorigaiztoko*
**moderari** = *neurtu, neurriz erabili*
**modestia** = *xumetasun*; Cf. **umilitas** = *umiltasun*; **abjectio** = *norberekilako mesprezua*
**modificatio** = *aldaketa*
**modus** = *modu, era, gisa, molde*
**mollis** = *bigun, guri;* vs. **durus** = *gogor*
**monere** = *ohartarazi*
**mors** = *heriotze*
**morsus conscientiae** = *kontzientziako ausikia*
**motus** = *mugimendu*; vs. **quies** = *gelditasun*
**movere** = *mugitu*; vs. **quiescere** = *gelditu, geldi egon/izan*
**mulier** = *emazte;* Cf. **uxor** = *emazte*
**mutare** = *aldatu, mutatu*
**mutatio** = *aldaketa, mutazio*
**mutilatus** = *ezoso, murritz, motz*
**nascere** = *jaio, sortu*
**natura** = a) *natura, izadi*; b) *izaera*
**natura naturantis** = *natura sortzailea*
**natura naturata** = *natura sortua*
**naturalis** = *natural*
**necessario** = *ezinbestean, baitezpada, nahitaez*
**necessarius** = *ezinbesteko, beharrezko, nahitaezko* vs. **contingens** = *kontingente;* **liber** = *aske, libre*
**necessitas** = *ezinbestekotasun, behar(rezkotasun)*
**negare** =*ezeztatu, ukatu*
**negatio** = *ezeztapen, ukatze*
**negativum** = *negatibo*; vs. **positivum** = *positibo*

**negligere** = *gutietsi*
**nervus opticus** = *zain optiko*
**nexus** = *lokarri*
**nihil** = *ezer ez, deus ez*
**noscere** = *ezagutu*
**nota** = *ohar*
**notare** = *ohartu*
**notio** = *nozio, adigai*
**noxius** = *kaltegarri*
**numerus** = *kopuru, zenbaki*
**nummus** = *diru, moneda;* Cf. **pecunia** = *diru*
**nutrire** = *elikatu*; Cf. **alere** = *hazi, bazkatu*
**nutus** = *agindu*
**obesse** = *kalte egin;* vs. **prodesse** = *fabore egin*
**objectio** = *objekzio*
**objectum** = *objektu*
**objective** = *objektiboki*
**obnoxius** = *mende(ko)*
**obtemperare** = *obeditu, sinetsi*
**odiare** = *gorrotatu, gorroto izan, higuindu*
**odium** = *gorroto, herra*
**officium** = *eginkizun, zeregin*
**omnia** = *diren guztiak, den guztia*
**omnipotentia** = *guztiahal(dun)tasun*
**operare** = *egin, ekin*
**opinio** = *iritzi, aburu*
**opprimere** = *zanpatu*
**ordo** = *ordena*
**origo** = *etorki, jatorri*
**oriri** = *sortu*
**ostendere** = *erakutsi*
**paenitentia** = *damu*
**parasitus** = *bizkarroi*
**parius** = *pareko*
**pars** = *zati, parte*
**particularis** = *banako, konkretu*
**partialitas** = *partzialtasun*
**passio** = *pasio*
**pathema** = *pasio, pairamen*
**patere** = *argi izan, nabarmen izan*
**pauper** = *pobre*; Cf. **indigens** = *behartsu*
**patiri** = *pairatu, jasan*
**peccare** = a) *huts egin;* b) *bekatu egin*
**peccatum** = a) *delitu*; b) *bekatu*
**pecunia** = *diru*
**perceptio** = *hautemate, pertzepzio*
**percipere** = *hauteman*
**perfectio** = *betegintzarre, bete(gin)tasun*
**perfectus** = *betegin, hobezin*
**perficere** = *hobetu*

**perfidia** = *desleialtasun*
**perfidus** = *desleial*
**perire** = *hil, desagertu*
**perpendere** = *aztertu, neurtu*
**per se** = *berez, bere buruz*
**perseverantia** = *iraunkortasun*
**perseverare** = *iraun, -i eutsi*
**perseverare in existendo** = *existitzen iraun*
**perseverare in suo esse** = *bere izanean iraun*
**persuadere** = *sinetsarazi*
**pertinere** = *-(r) i egon, -(r)i atxiki*
**philautia** = *norbere buruaren maitasun*
**pietas** = *moraltasun;* vs. **impietas** = *ezmoraltasun*
**poenitentia** = *damu*
**ponere** = *ezarri, baieztu, eman;* vs. **tollere** = *kendu, deuseztu*
**positivum** = *positibo*; vs. **negativum** = *negatibo*
**possibilis** = *ahalezko* Cf. **contingens** = *kontingente;* vs **impossibilis** = *ezinezko*
**post** = *gero, ondo(rene)ko;* vs. **ante** = *lehen(ago), aitzin/aurre*
**postulata** = *postulatuak*
**potentia** = a) *ahalmen, ahal;* vs. **impotentia** = *ezintasun;* b) *potentzia*; vs **actus** = aktu
**potere** = *ahal izan*
**potestas** = *botere, aginte, aginpide*
**praejudicium** = *aurreiritzi*
**praescriptus** = *agindu*
**praesens** = a) *oraiko;* b) *aitzinean (izan/egon)*
**praesentia** = a) *presentzia*; b) *ernetasun*
**praeterita** = *iragana*
**praeteritus** = *iragan(eko)*
**praevalere** = *gainditu, gailendu, nagusitu*
**pravus** = *gaizto*
**predeterminatus** = *aitzinetik finkatu*
**primarius** = *oinarrizko*
**primitivus** = *lehen*
**primus** = *lehenbiziko;* vs. **ultimus** = *azken, azkenaldiko*
**principium** = a) *hastapen*; b) *printzipio*
**prior** = *aitzineko, lehenago(ko)*
**pribatus** = *pribatu, partikular;* vs. **publicus** = *publiko, herriko, jendaurreko*
**probare** = *frogatu*
**procedere** = *egin*
**prodesse** = *on egin, fabore egin*; vs. **obesse** = *kalte egin*
**producere** = *ekoiztu*
**propensio** = *jaidura, isuri*
**proponere** = *proposatu*
**propositio** = *proposizio, proposamen*
**proprietas** = *propietate, tasun*
**proximus** = *hurbil, hurrengo*
**prudentia** = *zuhurtzia, prestutasun*
**publicus** = *publiko, herriko, jendaurreko;* vs. **privatus** = *pribatu, partikular*
**pudere** = *ahalketu, lotsatu*
**pudor** = *ahalke, lotsa*

**pulchritudo** = *edertasun*
**pulchrus** = *eder*
**punctum** = *puntu*
**pupilla** = *begi-nini*
**pusillanimitas** = *koldartasun*
**putare** = *uste izan*
**quadratum** = *lauki*
**quadratus** = *karratu*
**quando** = *noiz*
**quantitas** = *kantitate*
**quies** = *gelditasun*; vs. **motus** = *mugimendu*
**quiescere** = *gelditu, geldirik egon/ izan;* vs. **movere** = *mugitu*
**ratio** = *arrazoi, arau, lege, erlazio*
**ratio vivendi** = *bizi-arau*
**ratiocinari** = *arrazoinatu*
**rationem habere** (+gen.) = *kontuan izan*
**rationalis** = *arrazoizko, arrazoidun*
**realis** = *egiazko*; vs. **imaginarius** = *alegiazko*
**realiter** = *egiazki*
**reciprocitas** = *elkarrekilakotasun*
**reciprocus** = *elkarrekilako, ordainez*
**rectus** = *zuzen*; Cf. **iustus** = *bidezko, zuzen*
**reddere** = *bihurtu, bilakatu*
**referre** = *-(r) i egon, -(r) i joan*
**refutare** = *ezeztatu,-i ihardoki, -i ihardetsi*
**religio** = *erlijio*
**remissus** = *motel*
**reprimere** = *lehertu, zapaldu*
**repugnantia** = *nazka, higuin*
**repugnare** = *higuindu, nazkatu, nardatu, okazkatu*
**rerum natura** = *natura*
**res** = *gauza*
**res cogitans** = *gauza pentsatzailea*
**res extensa** = *gauza hedatua*
**res particular** = *gauza banako/ konkretu/berezi*
**res singularis** = a) *gauza singular*, b) *gauza banako/berezi*
**respicere** = *-(r) i egon*
**respondere** = *erantzun, ihardetsi*
**retorquere** = *ihardetsi, erantzun*
**reverentia** = *errespetu, begirune*
**risus** = *irri, barre*
**saevitia** = *ankerkeria;* Cf. **crudelitas** = *krudeltasun*
**salus publica** = *ongizate publiko*
**sanus** = a) *sendo, osasuntsu*; b) *zentzudun*; vs. **insanus** = *ero, ments*
**sapiens** = *prestu, zuhur, jakin*
**sapientia** = *jakinduria, zuhurtzia, prestutasun*
**satisfactio** = *gozo, atsegin*
**scholium** = *eskolio*
**scientia** = *jakintza, zientzia*

**scire** = *jakin*
**secludere** = *baztertu*
**securitas** = *segurantza, segurtasun*
**seditio** = *zatiketa, jazarpen, liskar*
**sensus** = a) *zentzu*; b) *sentsu*
**sententia** = *iritzi, aburu*
**sentire** = *balioetsi, estimatu, preziatu*
**separare** = *bereizi, banatu*
**sequere** = *segitu, jarraiki, jarraitu*
**sequere ex** = *-tik etorri, -ri jarraiki,* Cf. **concludere** = *ondorioztatu*
**servitus** = *morrontza, mende(ko)tasun*
**servus** = *esklabo;* vs. **liber** = *aske*
**signum** = *zeinu*
**simplex** = *bakun*
**simul** = *aldi berean, batera*
**singularis** = a) *singular;* b) *banako, berezi*
**singultus** = *negar-zotin*
**sobrietas** = *xuhurtasun;* Cf. **temperantia** = *neurritasun*
**societas** = *gizarte*
**solere** = *ohi izan*
**species** = *mota*
**spectare** = *-(r) i egon, -(r) i joan, begiratu*
**spes** = *itxaropen*
**spiritus** = *izpiritu*
**statuere** = *erabaki, onartu, ezarri, -tzat eman*
**status** = *egoera*
**Stoicus** = *estoiko*
**studere** = *saiatu, lehiatu, ahalegindu;* Cf. **conari** = *ahalegindu, saiatu, bermatu*
**studium** = *lehia, kartsutasun*
**stultus** = *ergel*
**stultitia** = *ergelkeria, tentelkeria*
**suadere** = *aholkatu*
**subjectum**: *subjektu*
**substantia** = *substantzia*
**sufficere** = *aski izan*
**summus** = *goren(eko), handien(eko)*
**superare** = *gainditu*
**superbia** = *hantuste;* Cf. **vana gloria** = *harrokeria;* vs. **abjectio** = *bere buruaren mesprezua, etsipena*
**superbus** = *hantuste*
**superficies** = *gainazal*
**superstitio** = *superstizio, sineskeria*
**superstitiosus** = *superstizioso*
**supponere** = *suposatu, onartu, eman*
**suspendere** = *zalantzan egon/atxiki, zintzilikatu*
**tacere** = *isildu*
**taedium** = *gogaitasun*
**tarditas** = *geldotasun, hurritasun*; vs. **celeritas** = *lastertasun, zalutasun*
**tardus** = *geldo, urri*; vs. **celerus** = *laster*
**temperantia** = *neurritasun;* Cf. **sobrietas** = *xuhurtasun*

**tempus** = *denbora, aldi*
**terminare** = a) *amaitu*; b) *zedarritu*
**terminus** = a) *muga(rri);* b) *termino*
**timere** = *beldur izan*
**timidus** = *beldurti, herabe, izibera, izukor*
**timor** = *beldur, izuikara*; Cf. **metus** = *izudura*
**titillatio** = *atsegin-kilika*
**tollere** = *kendu, deuseztu*
**totum** = *osotasun*
**totus** = *oso*
**tractatus** = *tratatu*
**transcendental** = *transzendental*
**transiens** = *iragankor*
**transitio** = *iragaite*
**tremor** = *dardara, ikara*
**triangulus** = *triangelu*
**tribuere** = *-(ri) egotzi*
**tristitia** = *tristura*; Cf. **laetitia** = *poztasun*
**turpis** = *itsusi, ahalkizungarri*
**ultimus** = *azken(eko), azkenburuko;* vs. **primus** = *lehen(biziko)*
**umilitas** = *umiltasun;* Cf. **modestia** = *xumetasun*
**unicus** = *bakar, soil*
**universalis** = *unibertsal*
**universum** = *unibertso*
**uti** = *baliatu*
**utile** = *onuragarri, baliagarri*
**utilitas** = *onura, baliagarritasun, interes*
**uxor** = *emazte;* Cf. **mulier** = *emazte, emakume*
**vacuum** = *huts*
**valetudo** = *osasun*
**vana gloria** = *harrokeria;* Cf. **superbia** = *hantuste*
**variatio** = *aldakuntza*
**varius** = a) *askotariko*; b) *aldakor*
**vehemens** = *sutsu*
**venenum** = *pozoin*
**veneratio** = *begirune*
**verecundia** = *lotsa, ahalkea, herabea*
**veritas** = *egia*
**verus** = *egiazko*
**videre** = *ikusi*
**vigilantia** = *ohartasun*
**vincere** = *garaitu*
**vindicta** = *mendeku*
**vir** = *gizon*
**virtus** = *bertute*
**vis** = *indar*
**vita** = *bizi, bizitza*
**vita rationalis** = *arrazoizko bizi, bizitza arrazional*
**vituperare** = *arbuiatu, gaitzetsi*
**vocare** = *deitu, eritzi*

**volere** = *nahi izan, gogo izan, gura izan*
**volitio** = *nahikari, nahi izate.*
**voluntas** = *nahi, nahimen, nahikunde, borondate*
**vulgus** = *herri xehe, jende arrunt*
**zelotypia** = *jeloskortasun, jelosia*